

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Doktore tesia

Martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientzia: azterketa hezkuntzaren ikuspegitik eta marketinaren ikuspegitik

La experiencia de la visita a empresa en activo: un análisis desde una perspectiva educativa y desde una perspectiva de marketing



Egilea:

Goizalde Hernando Saratxaga

Zuzendaria:

Jose Juan Beristain Oñederra

Bilbon, 2017ko maiatzaren 22an
Finantza Ekonomia II Saila
Euskal Herriko Unibertsitatea

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Doktore tesia

Martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientzia: azterketa hezkuntzaren ikuspegitik eta marketinaren ikuspegitik

La experiencia de la visita a empresa en activo: un análisis desde una perspectiva educativa y desde una perspectiva de marketing

Egilea:

Goizalde Hernando Saratxaga

Zuzendaria:

Jose Juan Beristain Oñederra

Bilbon, 2017ko
maiatzaren 22an
Finantza Ekonomia II
Saila Euskal Herriko
Unibertsitatea

FESIDE

Fundación Emilio Soldevilla
para la Investigación y Desarrollo
de la Economía de la Empresa

Galder, Garat eta Garirentzat. Aita eta amarentzat. Hau guztia posible egin duten guztientzat.

Esker onak

Esker onen atal hau hasi nahi dut nire zuzendaria izan den Jose Juan Begiristaini eskerrik beroenak ematen. Zaila da irudikatzea ere nire beharretara hobeki egokitu litekeen zuzendaririk: ez nau inondik inora estutu, ez dit batere presiorik egin, baina bere ekarpenen bat behar izan dudanean bizkor baino bizkorrago izan dut bere erantzun zehatza. Nire erritmo eta urratsetara ezin hobeto moldatu da eta bere ekarpen guztiak zuzenak, ezinbestekoak eta lanarentzat balio handikoak izan dira. Zuzendari bikaina eta pertsona hobea, beti animatzeko prest agertu da aldapa malkartsuegia suertatu izan zaidanetan. Eskerrik asko, Jose Juan, bihotz-bihotzez.

Bigarrenik, nire esker onik beroena eman nahi diet komisioko kide izan direnei. Gogotik egin dute lan, eskuzabal eta “doan”, gainera (lan horrek ere ez dakar “meriturik”, zoritxarrez); eta egin dituzten ekarpenek eta iradokizunek lana hobetu dute, ezbairik gabe. Eskerrik asko, beraz, Jon, Amaia eta Ainhize.

Hirugarrenik, FESIDeRi (Fundación Emilio Soldevilla para la Investigación y Desarrollo en Economía de la Empresa erakundeari) ere eskertu nahi diot ikerketa lana aurrera eramateko eman didan finantza laguntza. Laguntza horri esker, ikerketa lana inprimatu ahal izan dut, informatika gailuak erosi, bibliografia eskuratu eta lanak dakartzan beste mila gastu ordaindu. Eskerrik asko, Ana Blanco, por tu inestimable colaboración y apoyo, siempre dispuesta para ayudarme en todo lo que he necesitado.

Esker onen atal honetan enpresetara joatea baimendu eta ahalbidetu didaten irakasle guztiei eskerrak eman nahi dizkiet. Irakasleak, ikasleekin batera, inkestak burutzeko ezinbestekoak izan dira eta, ondorioz, gure lan enpirikoa burutzeko behar-beharrezkoak.

Ezin dut Finantza Ekonomia II Saila ahaztu esker onak ematerakoan. Eskerrik asko komisorako epaimahaia hain azkar osatzeagatik, beharrezkoak diren izapide administratiboak errazteagatik eta tesia amaitzeko liberazioa lortzeko laguntza emateagatik. Eskerrik asko, Arturo, Jesus y mi queridísima Susana. Y por supuesto, eskerrik asko a Susana Tejada (las dos sabemos por qué), Julen Izaguirre, Marisol y Covadonga (Osakidetza team), Aitziber Olasolo, animoengatik, Maribel...

Eta, noski, nola utziko ditut aipatu gabe “palomarreko” nire kide maitagarriak? Xabier eta Esti, zenbat ordu eman dugun hotza, beroa, barreak eta tesiak partekatzen. Eskerrik asko bidea/bidaia eramangarriagoa bihurtzeagatik, entzuteagatik, animatzeagatik eta elkartasuna erakusteagatik. Eskerrik asko, Itziar, nire ordezkoa izateagatik eta tesia idazteko izan dudana denbora libre guztia eskaintzeagatik. Eskerrik asko, Izaskun, zu bai zu euskarria, Olga, Julen Castillo, Lidia, Josu eta nire Eva. Zuok guztiok barik bidea askoz ere luzeagoa eta gogorragoa izango zen.

Amaitzeko, eskerrik asko nire familiari eta lagunei. Nire lagunak diren Olatz (portada, ederra benetan, zurea da), Ana, Inés, Maialen eta Paula. Zuen animo guztiak baliagarriak eta estimagarriak izan dira honaino heltzeko. Nire bizitzaren parte zarete eta hilabete hauetako lanean ere parte erabakigarria izan zarete. Maite zaituztet.

Amatxu guztiei: Aida, Ainho eta Ainho, Amaia, Bea eta Bea, Eider, Leire, Olatz, Olalla, Nere, Su. Badakizue zuen animo eta laguntzarik gabe bidea askoz ere latzagoa izango zela. Eskerrik asko beti hor egoteagatik.

Atala bukatuko dut nire familiaren baldintzarik gabeko laguntza, babes eta kemenari eskerrik beroenak ematen. Piloa maite zaituztet. Galder, eskerrik asko. Hau guztia ezinezkoa izango zen zu gabe. Garat eta Gari, nire bi txirrintxuak. Hilabete hauetan guztietan lapurtutako denbora bueltatuko dizuedala agintzen dizuet. Maite zaituztet. Ama eta aita, sukaldariak, zaintzaileak, aitite-amamak eta nire euskarriak. Eskerrik asko. Tia Vir, tio Gorka, Ganix, amama Maite eta aitite Juan Luis. Axpen eta Eibarren eman ditugun eta dituzuen egun guztiengatik. Umeak zaintzen eta ahal izan duzuen guztia ematen. Guzti-guztiori.... maite zaituztet.

“Esan eta ahaztuko dut. Erakutsi eta gogoratuko dut. Tartean sartu eta ulertuko dut”

(Konfuzio, 551-479 a.C)

“Gazteen hezkuntza zaintzen ez dutenek, etorkizuna heriotzara daramate”

(Euripides, 480-406 a.C)

“Mundua aldatzeko, hezkuntza da erabili dezakezun armarik boteretsuena”

(Nelson Mandela)

“Hezkuntza da gizakiarengan garatzea naturak eman dion bikaintasun osoa”

(Immanuel Kant)

“Ikasketa ez hartu inoiz behartzat, jakintzaren mundu liluragarrian barneratzeko aukeratzat baizik”

(Albert Einstein)

“Hezkuntza da aukera bakarra odolik eta bortizkeriarik gabe gure kulturaren eta gure balioetan iraultza sakon bat egiteko”

(Fernando Savater)

“Beti imajinatu izan dut paradisia liburutegi mota bat bezala”

(Jorge Luis Borges)

“Askatasunaren sekretua pertsonak heztean datza. Tiraniaren sekretua, aldiz, ikasgabe mantentzean”

(Maximilien Robespierre)

“Esperotakoaz harago ez doan esperientziak ez du esperientzia izena merezi”

(Hegel)

“Gauza bat besterik ez dago esperientziatik ikastea baino mingarriagoa: esperientziatik ez ikastea”

(Archibald McLeish)

“Irmoago ikasten eta hobeto gogoratzen den hori, nork bere kasa, nolabait, ikasten duena da”

(Immanuel Kant)

“Askatasunez esploratzen jaiotzen da ikastearen poza. Norberaren ekimenetik lortutako jakintzatik jaiotzen da gehiago jakiteko desira”

(E. O. Wilson)

“Mundu berriak bizi egin behar dira, azalduak izan baino lehenago”

(Alejo Carpentier)

AURKIBIDEA -ÍNDICE

I. SARRERA

1.- IKERKETA GAIAREN AURKEZPENA ETA GAIAREN AUKERAKETAREN JUSTIFIKAZIOA.....	3
2.- HELBURUAK	9
3.- METODOLOGIA	10
4.- EGITURA.....	14

II. GARAPENA

1 KAPITULUA: IKASKETA ESPERIENTZIALA: AURREKARIAK GAUR EGUNGO EGOERA ETA MARKO KONTZEPTUALAREN MUGARRIZTATZEA

1.1.- HEZKUNTZAREN HISTORIA: ANTZINAKO EKIALDEKO KULTURETATIK XIX. MENDEA ARTE	24
1.1.1.-SARRERA: HEZKUNTZA, IRAKASKUNTZA ETA IKASKETA.....	24
1.1.2.-ANTZINAKO EKIALDEKO KULTURAK	26
1.1.3.-MUNDU KLASIKOA: GREZIA ETA ERROMA	30
1.1.4.-ERDI AROA.....	34
1.1.5.-PIZKUNDEA ETA BARROKOA.....	36
1.1.6.-XVIII. MENDEA ETA XIX. MENDEA.....	39
1.1.7.-ONDORIOAK	44
1.2.- XX. MENDEAK UTZITAKO ONDARE PEDAGOGIKOA.....	46
1.2.1.-SARRERA.....	46
1.2.2.-XX. MENDEAREN AZTERKETA KRONOLOGIKOA.....	47
1.2.2.1.-INSTITUCIÓN LIBRE DE ENSEÑANZA	47

1.2.2.2.- ESKOLA BERRIA.....	54
1.2.2.3.- BIGARREN ERREPUBLIKA (1931-1936)	64
1.2.2.4.- BIGARREN MUNDU GERRA	66
1.2.2.5.- FRANKISMOA, TRANTSIZIOA ETA ETAPA DEMOKRATIKOA	70
1.2.3.-HEZKUNTZA METODOLOGIA BERRIAK ETA PEDAGOGO NAGUSIAK	77
1.2.3.1. JOHN DEWEY ETA PEDAGOGIA PROGRESISTA	77
1.2.3.2. FRANCISCO FERRER GUARDIA: ESKOLA MODERNOA	81
1.2.3.3.- MARÍA MONTESSORI: PEDAGOGIA ZIENTIFIKOAREN METODOA	82
1.2.3.4.- OVIDE DECROLY ETA INTERES GUNEA.....	86
1.2.3.5.- KURT HAHN.....	91
1.2.3.6.- JEAN PIAGET	93
1.2.3.7.- LEV S. VYGOTSKY	97
1.2.3.8.- CÉLESTIN FREINET ETA ESKOLA AKTIBOA	98
1.2.3.9.- PAULO FREIRE ETA ASKAPENERAKO HEZKUNTZA.....	100
1.2.3.10.- IVAN ILLICH: ESKOLAGABETZEA EDO ESKOLARIK GABEKO HEZKUNTZA.....	103
1.2.4.-ONDORIOAK.....	106
1.3.- IKASKETA ESPERIENTZIALA	109
1.3.1.-SARRERA.....	109
1.3.2.-HEZKUNTZA EREMUKO BERRIKUNTZA.....	110
1.3.3.-IKASKETA ESPERIENTZIALA: KONTZEPTUAK, EREDUAK, APLIKAZIOAK	129
1.3.3.1.- IKASKETA ESPERIENTZIALAREN KONTZEPTUA ETA EZAUGARRIAK.....	132
1.3.3.2.- IKASKETA ESPERIENTZIALERAKO EREDUAK	143
1.3.3.3.- IKASKETA ESPERIENTZIALERAKO EREDUEN APLIKAZIOA.....	163
1.3.4.-HEZKUNTZA 3.0	170
1.3.5.-IKASGELAZ KANPOKO IKASKETA.....	173
1.3.6.-ONDORIOAK.....	189

CAPÍTULO 2: MARKETING EXPERIENCIAL: ANTECEDENTES, ESTADO ACTUAL DEL TEMA Y DELIMITACIÓN DEL MARCO CONCEPTUAL

2.1- HISTORIA DEL MARKETING: SU EVOLUCIÓN HASTA EL FINAL DEL SIGLO XX 195

2.1.1.-INTRODUCCIÓN	195
2.1.2.-ORÍGENES (PREHISTORIA)	197
2.1.3.-EVOLUCIÓN DEL CONCEPTO DE MARKETING A LO LARGO DEL SIGLO XX.	202
2.1.4.-ORIENTACIONES Y ENFOQUES DEL CONCEPTO A LO LARGO DEL SIGLO XX.....	231
2.1.5.-DEFINICIONES DE MARKETING A LO LARGO DE LOS SIGLOS XX Y XXI	234
2.1.6.-BREVE REPASO HISTÓRICO DE LAS PRINCIPALES ESCUELAS DE PENSAMIENTO DE MARKETING	238
2.1.7.-CONCLUSIONES.....	242

2.2- LA CONCEPTUALIZACIÓN Y LA PRÁCTICA DEL MARKETING EN EL SIGLO XXI: EL MARKETING EXPERIENCIAL..... 245

2.2.1.-INTRODUCCIÓN.....	245
2.2.2.-EL NUEVO PARADIGMA DE MARKETING EN LA SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN	246
2.2.3.-CAMBIOS EN EL SISTEMA SOCIECONÓMICO Y SUS IMPLICACIONES. LA SOCIEDAD EMOCIONAL	258
2.2.4.-CAMBIOS EN EL SISTEMA SOCIECONÓMICO Y SUS IMPLICACIONES. LA ECONOMÍA DE LA EXPERIENCIA.....	266
2.2.5.-MARKETING EXPERIENCIAL Y MARKETING 3.0.....	272
2.2.6.-EXPERIENCIA DE MARCA	288
2.2.7.-CONCLUSIONES	301

3. KAPITULUA: MARTXAN DAUDEN ENPRESAK BISITATZEA IKASKETA ESPERIENTZIALAREN ETA MARKETIN ESPERIENTZIALAREN TRESNA GISA

3.1.- SARRERA	307
3.2.- KONTZEPTUA ETA AURREKARIAK	310
3.3.- MARTXAN DAUDEN ENPRESAK BISITATZEA IKASKETA ESPERIENTZIALAREN TRESNA GISA: INDARGUNEAK ETA AHULGUNEAK.....	312
3.3.1.-SARRERA	312
3.3.2.-MARTXAN DAUDEN ENPRESAK BISITATZEAREN INDARGUNEAK ETA AHULGUNEAK IKASKETA ESPERIENTZIALERAKO TRESNA GISA	316
3.3.3.- IKASLE BISITARIEN ZENBAIT OHAR ETA IRUZKIN	320
3.4.- LA VISITA A EMPRESA EN ACTIVO COMO HERRAMIENTA DE MARKETING EXPERIENCIAL: SUS FORTALEZAS Y DEBILIDADES	323
3.4.1.-INTRODUCCIÓN	323
3.4.2.- LAS FORTALEZAS Y DEBILIDADES DE LA VISITA A EMPRESA EN ACTIVO COMO HERRAMIENTA DE MARKETING EXPERIENCIAL	327
3.5.- CONCLUSIONES.....	333

CAPÍTULO 4: DELIMITACIÓN DE LA EXPERIENCIA DE LA VISITA A EMPRESA EN ACTIVO DESDE UNA PERSPECTIVA DE APRENDIZAJE Y MEDICIÓN DE SUS EFECTOS

4.1.- INTRODUCCIÓN.....	337
4.2.- METODOLOGÍA	339
4.2.1.- PLANTEAMIENTO DEL PROBLEMA	339
4.2.2.- DEFINICIÓN, FORMULACIÓN DEL MODELO Y JUSTIFICACIÓN DE LAS HIPÓTESIS	351
4.2.3.- TRABAJO DE CAMPO: LA RECOGIDA DE DATOS: PROCEDIMIENTO Y MUESTRA	360
4.3.- ANÁLISIS DE LOS DATOS E INTERPRETACIÓN.....	362

4.4.- CONCLUSIONES	373
4.5.- ANEXOS	377

CAPÍTULO 5: DELIMITACIÓN DE LA EXPERIENCIA DE LA VISITA A EMPRESA EN ACTIVO DESDE UNA PERSPECTIVA DE MARKETING Y MEDICIÓN DE SUS EFECTOS

5.1.- INTRODUCCIÓN.....	381
5.2.- METODOLOGÍA	383
5.2.1.- PLANTEAMIENTO DEL PROBLEMA	383
5.2.2.- DEFINICIÓN, FORMULACIÓN DEL MODELO Y JUSTIFICACIÓN DE LAS HIPÓTESIS	390
5.2.3.- TRABAJO DE CAMPO: LA RECOGIDA DE DATOS: PROCEDIMIENTO Y MUESTRA	397
5.3.- ANÁLISIS DE LOS DATOS E INTERPRETACIÓN	400
5.4.- CONCLUSIONES	410
5.5.- ANEXOS	413

III. ONDORIOAK

1.- SARRERA.....	419
2.- ONDORIOAK	419
2.1.- LEHENENGO HELBURU NAGUSIARI DAGOZKION ONDORIOAK	420
2.2.- BIGARREN HELBURU NAGUSIARI DAGOZKION ONDORIOAK	428
3.- IKERKETAREN EKARPENAK.....	435
4.- IKERKETAREN MUGAK	437
5.- ETORKIZUNEKO IKERKETA ILDOAK	438

IV. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

V. ERANSKINAK

TAULEN AURKIBIDEA-ÍNDICE DE TABLAS

II.1.1. laukia: Eskola Berriaren printzipioak.....	59
II.1.2. laukia: Eskola Tradizionala versus Eskola Berria	61
II.1.3. laukia: Hezkuntza hedapenerako beharrezko ziren printzipio politikoak	68
II.1.4 taula: Montessoriren metodoaren oinarritzko alderdiak	85
II.1.5. taula: Decroly-ren metodoaren ideia nagusiak	89
II.1.6. taula: Interes Gune baten plangintza: adibidea	90
II.1.7. taula: Jarrerekin, prozedurekin eta alderdi kontzeptualekin loturiko edukien ezaugarriak.....	115
II.1.8. taula: Ikasketa esperientzialaren definizioak.....	137
II.1.9. taula: Ezagutzaren oinarritzko forma eta horiek sortzeko bideak	159
II.1.10. taula: Bilakaera hezkuntza 1.0-tik hezkuntza 3.0-ra.....	172
II.1.11. taula: Ikasgelaz kanpoko ikasketaren aldeko manifestuaren helburuak.....	182
Tabla II.2.1: Algunos ejemplos e hitos destacables antes del siglo XX.....	199
Tabla II.2.2: Propuestas de clasificación para identificar momentos clave de la evolución del concepto de Marketing	203
Tabla II.2.3: Aspectos característicos de la Era II (1920-1950)	211
Tabla II.2.4: Diferencias entre el marketing de transacciones y el marketing de relaciones	225
Tabla II.2.5: Autores y definiciones de marketing relacional.....	228
Tabla II.2.6: Orientación de la relación de intercambio.....	232
Tabla II.2.7: Definiciones del término marketing a lo largo de los siglos XX y XXI.....	235
Tabla II.2.8: Escuelas del pensamiento de marketing	239
Tabla II.2.9: Síntesis de la evolución del concepto de marketing 1900-2000	242
Tabla II.2.10: Léxico de la comercialización en la lógica de bienes y en la lógica de servicios.....	249
Tabla II.2.11: Las tres etapas de un nuevo paradigma de marketing	250
Tabla II.2.12: De la sociedad de la información a la sociedad emocional	262
Tabla II.2.13: Evolución hacia la economía de la experiencia.....	267
Tabla II.2.14: Siguiendo estación, la economía de las transformaciones.....	271
Tabla II.2.15: El futuro o presente del marketing.....	276
Tabla II.2.16: Ejemplos de prácticas de “biztainment”	285
Tabla II.2.17: Comparación del marketing 1.0, 2.0 y 3.0	283
Tabla II.2.18: Modelo de matriz basada en valores.....	286
Tabla II.2.19: Plataformas y fórmulas de comunicación de marketing.....	297

II.3.1. taula: Martxan dauden enpresak bisitatzearen indarguneak ikastetxe, irakasle eta ikasleentzat	316
II.3.2. taula: Martxan dauden enpresak bisitatzearen ahulguneak ikastetxe, irakasle eta ikasleentzat	318
Tabla II.3.3: Las fortalezas de la visita a empresa en activo para las propias empresas	327
Tabla II.3.4: Las debilidades de la visita a empresa en activo para las propias empresas	330
Tabla II.4.1: Del aprendizaje tradicional al aprendizaje experiencial	342
Tabla II.4.2: Fiabilidad, coeficientes validez convergente y discriminante.....	369
Tabla II.4.3: Efecto sobre la variable endógena	370
Tabla II.4.4: Resumen test de mediación	372
Tabla II.5.1: Del marketing tradicional al marketing experiencial.....	386
Tabla II.5.2: Fiabilidad, coeficientes validez convergente y discriminante.....	406
Tabla II.5.3: Efecto sobre la variable endógena.....	408
Tabla II.5.4: Resumen test de mediación	409
Tabla III.1.1: Contribuciones más relevantes del trabajo de investigación	436

IRUDIEN AURKIBIDEA- ÍNDICE DE FIGURAS

I.1 irudia: Ikerketaren egitura.....	14
I.2. irudia: Doktore tesiaren helburuen, metodologiaren eta kapituluaren arteko harremana.....	19
II.1.1. irudia: IL Eren printzipio pedagogiko eta alderdi metodologiko nagusiak.....	53
II.1.2. irudia: Asimilazio prozesua, Piaget-en arabera.....	95
II.1.3. irudia: Egokitze prozesua, Piaget-en arabera.....	95
II.1.4. irudia: Irakaste-ikaste prozesuko elementuak: irakaslea, ikaslea, materia	118
II.1.5. irudia: Ikasleak eta irakasleak. Piramide buruz behera	119
II.1.6. irudia: Aldaketak irakaste-ikaste eremuan eta irakasle-ikasle harremanean.....	127
II.1.7. irudia: Ikasketa prozesuak eta dimentsioak.....	134
II.1.8. irudia: Dewey-ren ikasketa esperientzialerako eredu.....	149
II.1.9. irudia: Itin-en ikasketa esperientzialerako diamantearen eredu.....	150
II.1.10. irudia: Kolb-en ikasketa esperientzialerako eredu.....	153
II.1.11. irudia: Ikasketa esperientzialaren prozesua eta egiturazko dimentsioak, Kolb-en arabera	157
II.1.12. irudia: Esperientzia “zubia” da	163
II.1.13. irudia: Ikasgelaz kanpoko ingurune informaletan ikasteko eredu “kontestuala”	179
Figura II.2.1: Marco de referencia global del apartado 2.1: Evolución del concepto de marketing.....	196
Figura II.2.2: El concepto de marketing holístico	251
Figura II.2.3: Formas del marketing directo	257
Figura II.2.4: Evolución de las sociedades humanas	261
Figura II.2.5: Los dominios de la experiencia	269
Figura II.2.6: Evolución de los conceptos de marketing	282
Figura II.2.7: Nuevo modelo extendido de posicionamiento de marca	290
II.3.1. irudia: Martxan dauden enpresak bisitatzeko, ikasleentzat ikasketa esperientzialerako tresna den aldetik eta enpresentzat marketin esperientzialerako tresna den aldetik	308
Figura II.3.2: Etapas en el desarrollo de la visita de empresa.....	331

Figura II.4.1: Etapas del estudio empírico.....	338
Figura II.4.2: El ciclo de aprendizaje experiencial de Kolb.....	345
Figura II.4.3: Los cuatro roles del educador experiencial.....	347
Figura II.4.4: Modelo teórico.....	353
Figura II.4.5: Modelo de mediación.....	360
Figura II.4.6: Etapas en el desarrollo de los instrumentos de medida.....	366
Figura II.4.7: Contraste de hipótesis.....	371
Figura II.5.1: Etapas del estudio empírico.....	382
Figura II.5.2: Modelo teórico.....	391
Figura II.5.3: Modelo de mediación.....	397
Figura II.5.4 Etapas en el desarrollo de los instrumentos de medida.....	403
Figura II.5.5: Contraste de hipótesis.....	408

I.-SARRERA

Edukia:

- 1.-IKERKETA GAIAREN AURKEZPENA ETA GAIAREN AUKERAKETAREN JUSTIFIKAZIOA
- 2.- HELBURUAK
- 3.- METODOLOGIA
- 4.- EGITURA

I.-SARRERA

“Martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientzia: azterketa hezkuntzaren ikuspegitik eta marketinaren ikuspegitik” izenburutzat duen doktore tesi honi ekiteko, ezer baino lehen aipamen orokor bat egingo diegu ikerketa gaiari, gai hori aukeratzeko arrazoiei, lortu nahi diren helburuei, erabilitako metodologiari eta edukiak aurkezteko egiturari.

1.- IKERKETA GAIAREN AURKEZPENA ETA GAIAREN AUKERAKETAREN JUSTIFIKAZIOA

Doktore tesi honen gai nagusia **martxan dauden enpresen bisita** da, bai **ikasketa esperientzialaren** tresna gisa eta bai **marketin esperientzialaren** tresna gisa ere.

Ikerketa lan honen bereizgarri nagusia da ezen aztergaia, martxan dauden enpresak bisitatzea, bi ikuspegi ezberdinetatik begiratuta miatuko dela (ikasketaren ikuspegitik eta marketinaren ikuspegitik, alegia), modu paraleloan eta oinarritzat “esperientzia” kontzeptua hartuta.

Horrela, bada, lehenengo ikuspegiak martxan dauden enpresak bisitatzea tresna pedagogikotzat dakusa, zeinaren bidez ikasleak ezagutzak eskuratu eta gaitasunak garatu baititzake, *“eginez edo ikusiz ikasiz”*, ikasgelatik kanpo, ezohiko ingurune batean, ikasteko testuinguru “informal” batean, non lana “erreal” den; enpresaren baitan, teoria eta praktika konbinatu egiten dira eta abstraktua dena konkretu bihurtzen da; ikasketa kooperatiboa sustatzen da eta irakaste-ikaste sistema tradizionaletik harago doazen esperientziez eta pizgarritz goza liteke.

Bigarren ikuspegiak, bestalde, martxan dauden enpresak bisitatzea enpresek eskura duten tresnatzat dakusa, beren produktuak eta zerbitzuak —eta, are, beren burua— bereizteko baliatu dezaketena, baita marketin pertsonalizatuagoa eta zuzenekoagoa eskaintzeko ere; edota harreman marketina garatzeko, *“one-to-one”* gisakoa, beti ere bezeroek/bisitariek/apopiloek sentitu dezaten ohiz kanpoko esperientzia eskusibo, berdingabe eta gogoangarri bat eskaintzen ari zaiela.

Diziplina arteko planteamendu honen iturburu eta abiapuntua da helburu didaktikoekin enpresak bisitatzea ezinezkoa izango litzatekeela enpresen beraien laguntzarik eta lankidetzarik gabe. Eta laguntza eta lankidetzari hori lortzea errazagoa izan liteke baldin eta enpresek potentzial handiko marketin tresnatzat jotzen badituzte bisitak. Horrek nabarmendu egiten du ikerketa honetan erabilitako bi ikuspegiak arteko osagarritasun edo bateragarritasuna.

Horrezaz aparte, ikerlanean fokapen edo ardatz “esperientziala” hartu da bizkarrezur; hala egin da, martxan dauden enpresak bisitatzearen izaera bera hori delako, hots, “esperientziala” delako; eta, gainera, esperientziak sortzea eta kudeatzea gero eta garrantzitsuagoa delako hala hezkuntza eremuan nola enpresa eta marketin alorrean.

Era berean, fokapen edo ardatz esperientzialak aukera ematen du martxan dauden enpresak bisitatzearen fenomenoaz aztertzeko modu simetrikotik eta sakonean eta aipaturikotik bi ikuspegietatik; hortaz, fokapen esperientzialak ikerketa lan hau alderik alde zeharkatzen du, bizkarrezur lana eginez eta lanari sendotasuna emanez.

Oinarri horietatik abiatuta, bada, doktore tesi honek martxan dauden enpresak bisitatzearen azterketan sakondu du, bai ikasketa esperientzialerako tresna den aldetik eta bai marketin esperientzialerako tresna den aldetik. Horretarako, gaur egungo hezkuntza eremuan eta enpresa testuinguruan nola txertatzen den aztertu da eta indarguneak eta ahulguneak bistaratu dira. Horrez gain, enpirikoki neurtu dira martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientziak zenbait aldagai funtsezkotan dituen efektuak, hala hezkuntzaren ikuspuntutik nola marketinarenetik so eginda.

Jarraian, gai berezi hau ikerketa objektutzat hartzeko **arrazoiak** aurkeztuko dira.

Lehenik, bada interes akademiko nabarmen bat; izan ere, argi egiaztatu da gai honen inguruan hutsune zientifiko deigarria dagoela eta komunitate zientifikoak ez duela ia batere miatu, ez ikasketa esperientzialaren ikuspegiatik, ezta marketin esperientzialaren ikuspegiatik ere (nahiz eta lehenengo ikuspegiak ekarpen zientifiko gehiago pilatzen dituen); nolana ere, aipatzekoa da badirela hainbat ikerlan gai honi ikuspegi turistikotik heltzen diotenak: hala, ikerlan horiek turismo industrialak, aurkikuntza ekonomikorako turismoa edo enpresak bisitatzeko turismoa dituzte aztergai; haatik, oraindik corpus hasi berria, ahula eta zatikatua baino ez dute eratzen (Morice, 2010a,b; Zárata, 2008, 2011; Makua, 2012a,b; Savoia, 2010, 2011, 2012). Esandakoaz gain,

ordea, nabarmentzekoa da, halaber, enpresek ere nahiko gutxi ustiatzen dutela atepak zabaldu eta bisita(ria)k jasotzeko tresna hau, nahiz eta praktika honen aurrekariak XVII. mendean ere aurkitu daitezkeen; garai hartan, noble britainiarrak atzerrietara jotzen zuten hango enpresak (besteak beste) bisitatzeraz; *Grand Tour* zeritzon hark bazuen turismotik puska bat eta hezkuntzatik beste bat, eta ondasunak nola ekoizten ziren ezagutzeko jendeak zuen interesa eta jakin-mina zituen funts eta oinarri (Montonen eta Tanski, 2003; Otgaar et al., 2008). Kontuak kontu eta oro har, nabaritu da ez komunitate zientifikoak ez enpresek ere, orain arte bederen, ez dutela ia batere aintzat hartu izan fenomeno hau, nahiz eta, itxura batean, bientzat ere potentzialtasun handia duela dirudien.

Era berean, argi egiaztatu da ikerketa enpirikoei dagokienez ere hutsune edo gabezia zientifiko handia dagoela gai honetan. Hezkuntzaren esparruan, Kolb eta Kolb (2013) autoreek egindako berrikusketa zabalean agerian jartzen dute ikasketa esperientzialarekin loturiko gero eta jarduera eta praktika gehiago erabiltzen direla gutxienez 30 arlo edo diziplina desberdinetan; hala ere, ez dago ikerlan enpirikorik, zehazki, martxan dauden enpresak bisitatzek ikasketa esperientzialerako tresna gisa izan ditzakeen efektuak neurtzen dituenik. Horiek horrela, doktore tesi honetan, besteren artean Young, Caudill eta Murphy (2008), Kolb (1983, 1984) eta Kolb eta Kolb (2013) autoreen lanetatik abiatuta, sakonago aztertu, neurtu eta frogatu nahi izan da zein interes duen ikasleentzat, beren irakaste-ikaste prozesuaren magalean, enpresetara joateak eta haiek *in situ* eta beren egunerokoan murgilduta ikusteak. Xede horrekin, doktore tesi honetako lehenengo ikerketa enpirikoan eredu bat planteatu eta kontrastatu da, zeinak islatzen baitu martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientziak zer efektu dituen ikasleek hautemandako ikasketa emaitzetan. Ikerketa enpiriko hori egiteko, doktoregaiak EAEn dauden 7 enpresa bisitatu ditu, unibertsitateko jakintza arlo ezberdinetako 192 ikaslerekin batera, eta ikasle guztiei bina inkesta betearazi dizkie; enpresa bisitatu aurretik, bata, eta enpresa bisitatu ondoren, bestea.

Bestalde, marketinaren eremuan, hiru hamarkada luze joan dira Holbrook eta Hirschman (1982) autoreak “bezeroaren esperientzia” aztertzen hasi zirenetik marketinaren literatura espezializatuaren baitan. Geroztik ikerketa ildo oparoa izan da. Era bertsuan, duela ia bi hamarkada ekin zion Bernd Schmitt-ek (2000, 2003, 2011), marketin esperientzialaren aitzindariak, bezeroentzat propio sorturiko eta kudeaturiko esperientzia holistikoen inguruan ikertzeari. Ikerketa ildo horrek ere ibilbide emankorra izan du. Hala eta guztiz ere, ez dago ikerlanik modu espezifiko eta

enpirikoan “martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientzia” aztertzen duenik, ezta haren efektuak neurtzen dituenik ere, marketin esperientzialerako tresna gisa enpresen ikuspegitik behatuta. Hala izanik, hutsune horri erantzun nahi izan dio doktore tesi honetako bigarren ikerketa enpirikoak; bertan, “marka esperientzia” aztergai duten autoreen lanetan oinarrituta, hala nola Brakus, Schmitt eta Zarantonello (2009) eta Fernández Sabiote eta Delgado Ballester (2011) autoreen lanetan oinarrituta, “martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientzia” kontzeptu gisa mugarriztatu, definitu eta neurtu da, eta, horrez gain, egiaztatu egin da esperientzia horrek zer efektu eragiten duen bisitariengan, haiek enpresarekiko/markarekiko duten harremanari dagokionez. Zehazki, bigarren ikerketa enpiriko horretan ere beste eredu bat planteatu eta kontrastatu da, zeinak islatzen baitu martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientziak zer efektu dituen bisitarien pertzepzioetan. Helburu hori lortzeko, doktoregaiak EAEn dauden 28 enpresa bisitatu ditu, jakintza arlo ezberdinetan diharduten 673 ikasle unibertsitariorekin batera, eta ikasle bisitari horiei guztiei bina inkesta betearazi dizkie: bata, enpresa bisitatu baino lehentxeago; bestea, enpresa bisitatu berritan.

Ikerlan honi ekiteko beste arrazoi bat ardura sozialari dagokio; izan ere, aspaldi honetan (eta, bereziki, azken urteetan) gero eta nabariagoa da hezkuntza tradizionalak iraganeko inertzia eta ahulgune ugari dituela, tartean zurrunezia, formalistegia eta pasiboegia dela, eta ez dituela behar bezala motibatzen ez ikasleak ezta irakasleak ere (González-Aja e Irureta-Goyena, 2015; Carballo, 2009). Tesi honen egile den doktoregaiak berak egiaztatu ahal izan du, irakasle lanetan duen eskarmentuan funtsatuta, irakaskuntza tradizionalak, oro har, zenbait gabezia eta ezintasun dituela, hala nola: i) ikasleek apenas duten parte-hartze aktiborik; ii) edukiak teorikoegiak dira, oso orokorrak eta testuinguruan kokatu gabeak; eta iii) ematen diren eskolak benetako mundu ekonomiko, sozial eta kulturaletik urrutiegi daude. Horregatik guztiagatik, premiazkoztat jotzen da irakasteko eta ikasteko metodologia aktibo, erakargarri eta eraginkorragoak bilatzea eta aztertzea.

Hainbat autorek argi diote ezen, etorkizuneko gizartearen beharrei eta eskakizunei aurre egiteko, egungo hezkuntza ereduak ez dela gai, krisiak jota dagoela eta ikuspegi berriei heldu behar zaiela (Tonucci, 2012; Pearson, 2016; Robinson, 2016; Coterón eta Gil, 2015; Rué, 2009). Hezkuntza ereduak berregituratu beharra du, hainbat arazo direla eta: irakasten diren abilezien eta mundu tekniko-profesionalak eskatzen dituenen arteko aldea edo desoreka handia da; epe laburreko eta helmen gutxiko prestakuntza ematen da, etorkizuneko erronkei aurre egiteko gai ez dena; hezkuntza

planak zurruneziak dira, zatikatuegiak eta urte gutxiren buruan zaharkiturik gelditzeko arriskua dutenak. Ildo bertsuan, beste ahulezia batzuk ere aipatu daitezke: hezkuntza prozesuaren despertsonalizazioa (ikasle ugari ikasgelan; ondorioz, irakasleak datuak errepikatu besterik ez du egiten eta ez dio ikasleari laguntzen ikasketa indibidualizatu batean); teknologia berriak praktika pedagogiko zaharretan txertatzea (irakaslea ardatz eta erdigune duen irakaskuntza moldea); egungo hezkuntzak, gainera, ezagutzen pilaketari ematen dio lehentasuna, baina ezagutzak bata besteari lotu gabe, unitate edo irakasgaietan zatikatuta eta bereizita; eta hori guztia ezagutzon etengabeko aplikazio, konbinazio eta eguneratzearen kalterako da (Cobo Romani eta Moravec, 2011).

Reimers (2009) irakasleak dioenez, hezkuntzak gai izan behar du interkonektaturik dagoen eta interdependentea den mundu baten eskakizunei erantzuteko. Eta eransten du, ildo horretan, ezinbestekoa dela ikasleek globaltasunerako gaitasunak garatzea: hots, beharrezko diren ezagutzak eta abileziak lantzea, “laua” den mundua ulertzeko eta askotariko diziplinak integartzeko, era horretan gertaera globalak ulertu eta horiei aurre egiteko estrategiak garatzeko gai izan daitezten.

Horiek horrela, ikerketa gai hau hautatzeak gizartearen premia horri erantzuten dio; hau da, gizarteak, bere osotasunean, hezkuntza tresna eta eredu berrien premia du; tresna eta eredu jarraituak eta irekiak, dosi kontzentratu eta malguetan antolatuta; eta ez lukete helburutzat izan beharko edukiak eskuratzea soilik (horrez gain, bestelako gaitasunak ere sustatu beharko lituzkete, egungo munduaren eskakizunei aurre egin ahal izateko); hezkuntza tresna eta eredu berriek ikasketa hobetzea ahalbidetu beharko lukete, metodologia aktiboak eta ikasgelaz kanpoko ikasketa jarduerak ere erabilia, hartara ikasketa ***errealismo handiagoko testuinguru batean*** jazo dadin eta ***esperientzialagoa*** izan dadin. Eta hor, hain justu, kokatu behar da martxan dauden enpresak bisitatzearen inguruko ikerketa gai hau, zeina oso gutxi erabiltzen baita eta, literatura zientifikoaren arabera, goian aipaturiko baldintzak betetzeko gai izan baitaiteke. Alde horretatik, aipatzekoa da ikerlan honetan bereizketarik gabeko terminologia orokorra erabili dela; halatan, aipamen sarria egiten zaie “eskola”, “unibertsitatea”, “irakasleak”, “ikasleak” eta halakoei, hezkuntza mailarik bereizi gabe (lehenengo maila, bigarrena, unibertsitatea) eta materia edo diziplinarik ere bereizi gabe; era horretan agerian utzi eta nabarmendu nahi da ikerlan honetan aztertutakoa erabat aplikagarria dela, printzipioz, edozein hezkuntza mailatan, materiatan eta testuingurutan (baita testuinguru informaletan ere). Dena dela, aurrez adierazi den legez, bi ikerketa enpirikoak unibertsitate eremuari dagozkio (hau da, unibertsitateko ikasleei egindako inkestetan dute funtsa).

Ikerketa gai honetan arreta jartzeko beste arrazoi batek ere interes sozialari egiten dio aipu; izan ere, enpresen eta erakundeen ikuspegitik begiratuta, azken urteotan marketinak aldaketa edo biraketa handi bat izan du eta, gaur gaurkoz, bezeroak/publikoak dagoeneko ez du produktu eta zerbitzu bat erosten kostu-irabazi ekuazioari soilik erreparatuta, ezta haren ezaugarri funtzionalak soilik kontuan izanda ere; horrez gain, eta nagusiki, bezeroak/publikoak erosketa egin aurretik, bitartean eta ondoren izaten dituen bizipen edo esperientziak hartzen ditu aintzat. Kontsumitzaileak, beraz, zer erosi aukeratzean, kostuez eta irabaziez harago bestelako faktore batzuk ere kontuan izaten ditu. Marketin eremuko autore nagusiak bat datoz esatean ezen XXI. mende hasiera honetan marketin filosofia berri bat indarra hartzen ari dela: **marketin esperientziala** (Kotler eta Keller, 2012; Kotler eta Armstrong, 2008; Schmitt, 2000, 2004, 2011; Pine eta Gilmore, 2000). Filosofia berri horrek aldean dakar paradigma aldaketa bat, zeinaren arabera arreta hazkorra jarri behar baita bezeroak/publikoak enprekin (eta haien markarekin, ondasunekin eta zerbitzuekin) dituen esperientzia gogoangarrietan. Gaur egun, produktuak gero eta antzekoagoak dira, prezioan eta kalitatean oinarrituriko lehia ez da nahikoa, eta bezeroak gero eta informazio gehiago du eskura eta gero eta gehiago eskatzen eta, are, galdatzen du. Lehiakideetatik bereizteko, enpresek beren abantaila konpetitiboak aurkitu eta ustiatu behar dituzte eta horretarako bide askotarikoak urratu. Ondasun eta zerbitzuak eskaintzeaz harago, beren “etxeko” atek ireki eta esperientziak eskaintzea aukera interesgarria izan daiteke enpresentzat, faktore emozionalari etekina ateratzeko xedez. Baiki, enpresek eta erakundeek tresna berriak behar dituzte gizartearekin eta beren bezeroekin/kontsumitzaileekin hobeto konektatzeko. Ikerketa lan honetan, bada, enpresek eta erakundeek, oro har, gutxi samar darabilten tresna alternatibo edo osagarri bat hartzen da aztergai, atek zabaldu eta bisitariak hartzea, alegia; literatura zientifikoak iradokitzen duenez, tresna horrek potentziala izan lezake arrakastaz eta modu eraginkorrean hainbat enpresa eta erakunderen zenbait premia eta interes asetzeko.

Azkenik, argudio edo arrazoi pertsonal bat ere aipatu behar da, ikerketa gai konkretu hau aukeratu izana justifikatzeko. Doktoregaiak, doktore tesiaren gai eta helburuak zehaztu baino lehen, bi baldintza ezarri ditu: lehenik, bere ibilbide profesionalaren kariaz, ikergaiak enpresa munduarekin lotura zuzenekoak izatea. Hori izan da abiapuntua. Doktoregaiak helburu izan du, handinahikerian erori gabe ere, tesitik ateratako ondorioen eta ekarpenen bidez enpresen eta erakundeen eguneroko jarduera hobetzea. Interes eta motibazio horiek ekarri dituzte, ekarri ere, ikerketa honen objektu

gisa martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientzia aztertzeko beharra eta aukera.

Bigarrenik, eta aurrekoaz gain, doktoregaiak erabaki du analisia bi ikuspegitatik egitea, bere ibilbide profesionalean barru-barrutik ezagutu eta bizi izan dituen bi ikuspegitatik, hain zuzen ere. Gaur egun, atzera begiratuta, doktoregaiak bere esperientzia profesionala erdibanatu egin du (urte kopuru berdintsua eman du) enpresa pribatuan lanean (aurrena, arduradun komertzial modura eta, geroago, zuzendaritzan, baina beti ere marketin kontuetan buru-belarri), batetik, eta unibertsitatean irakasle, bestetik. Hortaz, doktoregaiarentzat zeharo naturala eta gustagarria izan da tesirako bi ikuspegi horiek aukeratzea, biak ala biak ezagun eta atsegin baititu. Gainera, bi ikuspegi horiek garrantzitsuak eta berritzaileak ere badira doktoregaiaren garapen profesionalari dagokionez eta lagundu egin diote eguneroko irakasle lanetan, oro har, eta marketin alorreko gaiak irakasten, bereziki. Eta, alde horretatik, espero izatekoa da ikerlan honetako ondorioak eta ekarpenak beste irakasle batzuentzat ere onuragarri izatea, lan egiten duten hezkuntza-maila eta ematen dituzten irakasgaiak edozein izanik ere. Ikerlan honek balioko ahal die, gutxienez, aurrerantzean aintzat hartu eta balioetsi dezaten, hezkuntza esperientzia gisa, *martxan dauden enpresak bisitatzea*.

Amaitzeko, azken arrazoi bat ere aipatu behar da, doktoregaia ikerketa gai zehatz hau aukeratzera eraman duena; 2012an doktoregaiak “XVI Gerriko Ikerlan Beka” eskuratu zuen, “*Turismo industrial Goierrin: Enpresak bertatik bertara bisitatzearen onurak*” izeneko proiektua aurrera eramateko. Eta, bistan denez, proiektu hark zerikusi estua zuen doktore tesi honen ikerketa gaiarekin.

2.- HELBURUAK

Ikerketa lan honetan bi helburu nagusi eskuratu nahi dira; helburu nagusi horietako bakoitzari, era berean, beste hainbat helburu espezifiko edo bigarren mailako helburu dagozkio.

Lehenengo helburu nagusia da ***martxan dauden enpresak bisitatzearen azterketan sakontzea, ikasketa esperientzialerako tresna gisa izan dezakeen potentziala ezagutarazteko***. Lehenengo helburu nagusi horri heltzeko, honako helburu espezifiko (edo bigarren mailako helburu) hauek planteatzen dira:

- 1.1.- Hezkuntzaren eta ikasketaren kontzeptuak eta haien bilakaera historikoa aztertzea, horrela gaur egungo egoera ulertzeko.
- 1.2.- Ikasketa esperientzialaren kontzeptua mugarriztatzea.
- 1.3.- Martxan dauden enpresak bisitatzeak dituen indarguneak eta ahulguneak ezartzea, ikasketa esperientzialerako tresna den aldetik.
- 1.4.- Martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientziaren kontzeptua mugarriztatzea eta neurtzea, ikasketa esperientzialaren ikuspegitik.
- 1.5.- Eredu bat planteatu eta kontrastatzea, martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientziak ikasleek hautemandako ikasketa emaitzetan dituen efektuak bistaratzeko.

Ikerketa honetan erdietsi nahi den bigarren helburu nagusia da ***martxan dauden enpresak bisitatzearen azterketan sakontzea, marketin esperientzialerako tresna gisa izan dezakeen potentziala ezagutarazteko***. Bigarren helburu nagusi horri ekiteko, ondorengo helburu espezifiko (edo bigarren mailako helburu) hauek zehazten dira:

- 2.1.- Marketinaren kontzeptua eta haren bilakaera historikoa aztertzea, horrela gaur egungo egoera ulertzeko.
- 2.2.- Marketin esperientzialaren eta marka esperientziaren kontzeptuak mugarriztatzea.
- 2.3.- Martxan dauden enpresak bisitatzeak dituen indarguneak eta ahulguneak ezartzea, marketin esperientzialerako tresna den aldetik.
- 2.4.- Martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientziaren kontzeptua mugarriztatzea eta neurtzea, marketin esperientzialaren ikuspegitik.
- 2.5.- Eredu bat planteatu eta kontrastatzea, martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientziak bisitarien pertzepzioetan dituen efektuak bistaratzeko.

3.- METODOLOGIA

Ikergaiaren beraren ezaugarri berezkoek zehaztu dute ikerketa lan hau egiteko aukeratu eta baliatu den metodologia. Hona hemen planteaturiko helburuak erdiesteko erabili den metodologia.

Alde batetik, ikerlanaren lehenengo zati handia —marko teoriko-kontzeptualari dagokiona— egiteko, askotariko testu zientifikoak aztertu eta arakatu dira. Lehen zati handi horri ikerlanaren aurreneko hiru kapituluak dagozkio (1., 2. eta 3. kapituluak). Fase teoriko eta dokumental horri dagokion prozesu luzean, iturri eta material bibliografiko asko eta askotarikoak bildu eta ustiatu behar izan dira. Hasteko, lehenengo zati teoriko hori kokatu egin behar izan da dagokion testuinguru historikoan, agerian uzteko zer nolako bilakaera izan duten denboran barrena bai hezkuntzaren kontzeptuak eta bai marketinaren kontzeptuak. Bi kasuetan, helburua izan da bi kontzeptu horiez ezagutza sakon bat eskuratzea, baita horiek garatzen diren testuingurua miatzea ere; horri helduta, marko bat eraiki eta definitu da, martxan dauden enpresak bisitatzearen fenomeno bertan kokatzeko, ikasleentzat ikasketa esperientzialerako tresna den aldetik eta enpresentzat marketin esperientzialerako tresna den aldetik.

Zati teoriko horretan erabilitako erreferentzia bibliografikoen baitan ageri dira hamaika liburu, artikuluko zientifiko, liburuetako kapitulu, doktore tesi, master amaierako tesi, aldizkari espezializatu, web orri etab., hala tokikoak nola nazioartekoak.

Lehenengo zati honen garapen metodologikoari dagokionez, analisi teorikoak **metodo analitiko-sintetikoaren** jarraibideei heldu die. Soldevillaren (1995) esanetan, metodo horren funtsa da behatu nahi den fenomeno bere osagaietan zatitzea eta osagai horien alderdi partikularrak aztertzea; jarraian, zatikako analisi horren emaitzak integratu egiten dira ondorio gisa eta horiek ahalbidetzen dute behatutako fenomeno bere osotasunean ulertzea. Tesi honen kasuan, behatutako fenomeno hori martxan dauden enpresak bisitatzeari eta horren indargune eta ahulguneei dagokie, ikasketa esperientzialerako tresna gisa eta marketin esperientzialerako tresna gisa.

Fenomeno hori bere baitako osagaietan zatitzeak, metodo analitiko-sintetikoak agintzen duen bezala, osagaiak aztertzea ahalbidetzen du. Era horretan, literatura zientifikoa arakatuta, honako kontzeptu hauek mugarrizatu eta analizatu dira: batetik, hezkuntza eremuan, ikasketa esperientziala eta ikasgelaz kanpoko ikasketa, metodologia aktibo berriztat hartuta; eta bestetik, marketin esperientziala, marka esperientzia eta eduki esperientzialak, enpresen/marken eskaintzaren betebehartzat eta bereizgarritzat hartuta; eta hori guztia egin da, jakina, martxan dauden enpresetara egindako bisitak testuingurutzat hartuta.

Garapen teorikoa bukatzeko, aztertu eta bistaratu egin dira martxan dauden enpresak bisitatzeak izan ditzakeen indarguneak eta ahulguneak, mugak eta arazoak, bai ikasleentzat ikasketa esperientzialerako tresna den aldetik eta bai ateak zabaltzen dituzten enpresentzat ere.

Ondoren, bigarren zati handian, bi ikerketa enpiriko burutu dira, aurreko fase teorikoan oinarrituta eta fase dokumentalean bildutako informazioa aztertu, ordenatu eta sistematizatu ostean. Bi ikerketa enpiriko horiek 4. eta 5. kapituluetan jaso dira. Zehazki, bigarren zati edo fase horren helburua izan da nolabait neurtzea eta egiaztatzea martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientzia izan ote litekeen, batetik, ikasketa esperientzialerako tresna bat ikasleentzat eta, bestetik, marketin esperientzialerako tresna bat enpresentzat (4. eta 5. kapituluak, hurrenez hurren). Ikerlanaren atal enpiriko hori egiteko, teknika kuantitatiboak baliatu dira, inkesten bidez datuak biltzeko: 192 ikasle inkestatu dira lehenengo ikerketa enpirikoan, eta 673 ikasle, berriz, bigarreanean. Ikasleok martxan dauden 7 enpresa bisitatu dituzte lehenengo ikerketa enpirikoan, eta 28 enpresa bigarreanean. Guztiek bina inkesta bete dituzte, bisita aurretik bata eta ostean bestea, bisitaren esperientziaren inguruko pertzepzioen berri jasotzeko. Zernahi gisaz, 4. eta 5. kapituluetan ikerketa enpiriko bakoitzaren inguruko argibide metodologiko xeheak bildu dira.

Bigarren zati handi horren garapen metodologikoari dagokionez, aipagarria da analisi enpirikoak **metodo hipotetiko-deduktiboak** ezarritako arauak bete dituela. Metodo horri ekiteko, hipotesi batzuk sortu dira, aurreko kapituluetan azterturiko literatura zientifikotik ondorioztatuta edo deduzituta. Hortik abiatuta, hipotesiak modu operatiboan plazaratu dira, zenbait aldagai espezifikoren artean harreman jakin bat ezartzeko eran. Ondoren, eredu bat eraiki eta kontrastatu da, emaitzak aztertu dira eta planteatutako hipotesiak egiaztatu (Rodríguez Castellanos, García Merino eta Peña Cerezo, 2005).

Bi ikerketa enpirikoetan, ekuazio estrukturalen eredu bat erabili da (*Structural Equation Modeling*, SEM) eta PLS teknika baliatu da (*Partial Least Squares*). Ekuazio estrukturalen ereduak aukera ematen dute aldagaien arteko harremanak aztertzeko, aldagai horiek abstraktuak direnean eta zuzenean neurtu ezin direnean, baina neurtu daitezkeen adierazle batzuen bidez ondorioztatzeko modua dagoenean (Miles, 2011: 244). SEM teknika tresna baliagarria da aldi berean aldagai ugariaren jokabidea eta haien arteko harremanak analizatzeko; konbinatu egiten ditu erregresio anizkoitza

(dependentzia harremanak aztertzeko) eta analisi faktoriala (adierazle ugariaren bidez faktoreak irudikatu ahal izateko) (Barroso-Castro, Cepeda eta Roldan-Salgueiro, 2010).

Bestalde, bi ikerketa enpirikoetan ere PLS teknika erabiltzeko hautua egin da, beste modelizazio teknika batzuk ez bezala, PLSk bariantza hartzen duelako oinarritzat, konstrukto formatiboekin lan egiteko modua ematen duelako (zeina, ikusiko denez, ezaugarri funtsezkoa baita bi ikerketa enpirikoetan), ez diolako ezaugarri berezirik eskatzen datuen banaketa funtzioari eta, teoria baten lehendabiziko garapen eta balioztatze faseetan lan egiten uzten duelako; izan ere, teknika hori erabiltzea oso komenigarria da gai jakin baten inguruan ez denean aurrez ikerketa lan handirik egin, aurretiko teoria mugatua denean, eredu erlatiboki konplexuekin (ezkutuko eta ageriko aldagai ugariekin) lan egin nahi/behar denean, helburua aurreikuspenak egitea edo iragartzea denean (eta ez hainbeste teoria sendo bat konfirmatzea) eta laginaren tamaina mugatua denean (Cepeda, Cegarra eta Jimenez, 2012; Peter, Straub eta Rai, 2007); PLS teknika bereziki gomendagarria da aurreikusteko xedea duten eta erlatiboki konplexuak diren ikerketen kasuan.

4.- EGITURA

Ikerketa lan hau ondo bereizita dauden hiru ataletan egituraturik dago: Sarrera, Garapena eta Ondorioak. Ondoko I.1 irudian azaltzen da ikerlanaren egitura.

I.- SARRERA

II.- GARAPENA

ATAL TEORIKOA

1. Kapitula.

Ikasketa esperientziala: Aurrekariak, gaur egungo egoera eta marko kontzeptualaren mugarriztatzea.

2. Kapitula.

Marketin esperientziala: Aurrekariak, gaur egungo egoera eta marko kontzeptualaren mugarriztatzea.

3. Kapitula.

Martxan dauden enpresak bisitatzea, ikasketa esperientzialaren eta marketin esperientzialaren tresna gisa.

ATAL ENPIRIKOA

4. Kapitula.

Martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientzia mugarriztatzea eta haren efektuak neurtzea, ikasketa esperientzialaren ikuspegitik.

5. Kapitula.

Martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientzia mugarriztatzea eta haren efektuak neurtzea, marketin esperientzialaren ikuspegitik.

III.- ONDORIOAK

IV.- BIBLIOGRAFIA

V.- ERANSKINAK

I.1. irudia: Ikerlanaren egitura

Iturria: Guk geuk egina.

Jarraian, atal bakoitzaren eta kapitulu bakoitzaren edukiak modu zehatzagoan aztertuko dira.

I. Sarrera

Sarreran, ikerketaren gaia aurkezten da, aurrekarien eta gaur egungo egoeraren ikuspegi orokor bat eskainiz. Gainera, ikergai hori aukeratzeko arrazoi nagusiak ere

aipatzen dira. Era berean, ikerketa lanean lortu nahi diren helburuak zehazten dira, baita helburu horiek erdiesteko erabilitako metodologia eta lanaren egitura ere.

II. Garapena – Atal teorikoa

Garapenari dagokion zatiak bi atal ditu: alde batetik, ikergaiaren inguruko azterketa teorikoa burutzen da. Azterketa horrek, era berean, oinarrizko hiru atal ditu. Hiru atal horiek lanaren lehenengo hiru kapituluekin bat datoz. Bestalde, hurrengo urratsean atal enpirikoari ekiten zaio, aurreko atal teorikoan aztertutakoa neurtzeko helburuarekin. Atal enpirikoa bi kapituluk osatzen dute (4. eta 5. kapituluek, hain zuzen ere). Jarraian, kapitulu bakoitzaren edukia zehazten da.

Lehenengo kapituluak irakaste-ikaste prozesua ikertzen du, eta, irakaskuntza tradizionalaren osagarri gisa, **“ikasketa esperientziala”** deritzana proposatzen eta aztertzen du.

Historian barrena, hezkuntza modu ezberdinetan garatu izan da, garaian garaiko eta tokian tokiko ideologien, orientazioen, politiken, erakundeen, eta abarren arabera. Beraz, lehen kapitulu honetan, aurreneko fasean, hezkuntzak historian zehar izan dituen aldaketa nagusien berrikusketa kronologiko bat egiten da. Horretarako, kontzeptuaren eta bere bilakaeraren azterketa bibliografiko sakon bati heltzen zaio, ikerketa oinarrizko, kontzeptuaren ezaugarriak ikuskatzeko eta komunitate zientifikoak kontzeptuari buruz egiten dituen ekarpenik garrantzitsuenak biltzeko.

Ondoren, bigarren fase batean, sakontasun handiagoz aztertzen da XX. mendean zehar hezkuntzak izan duen bilakaera. Kontzeptuaren azterketa kronologikoa egiteaz gain, mendean zehar proposatu diren metodologia berritzaileenak miatzen eta egile eta pedagogo behinenen ekarpenak jasotzen dira. Metodologia horien artean “ikasketa esperientziala” nabarmentzen da.

Kontuan izanik “ikasketa esperientziala” ikasgelaren edo ikastetxearen barnean nahiz kanpoan garatu daitezkeen ikasketa metodologiei dagokiela, ikerlanean egiten den hurrengo pausuak ikasgelaz kanpoko ikasketarekin lotura duten alderdietan jartzen du arreta: *“learning outside the classroom”* edo *“outdoor learning”* delakoan, hain zuzen.

Azkenik, lehen kapitulua amaitzeko, sakonki aztertzen dira hezkuntza eta ikasketa esperientzialaren kontzeptuak; hasi kontzeptuak mugarriztatetik eta ezaugarriak aztertzetik eta egile ospetsuenek planteatzen dituzten ereduak miatzeraino.

Bestalde, **bigarren kapitulu**an “**marketin esperientziala**” deritzanaren jatorriari eta bilakaera ikertzeari helden zaio. Lehen kapitulu bezala, bigarren kapitulu honetan ere berrikusketa kronologikoa egiten da, bai marketinaren kontzeptuak berak eta bai marketinaren praktikak ere hasieratik beretik gaur arte izan dituzten aldaketa nagusiei dagokiena. Argitu beharra dago kasu honetan egiten den ibilbidea denboran laburragoa dela, marketinaren kontzeptua eta praxia nahiko berriak direlako, hezkuntzarekin alderatuz gero. Hala izanik, ikerketa ia XX mendearen hasieratik abiatzen eta bere bilakaera mende horretan barrena garatzen da.

Ondoren, bigarren fase batean, diziplinaren bilakaeraren analisiari ekiten zaio jada XXI. mendean. Marketinaren berrikusketa kronologikoa egiteaz gain, gaur egun modan dauden paradigma berriak ere aztertzen dira.

Bigarren kapitulu bukatzeko, egun gizartean gertatzen ari diren eta hura ezaugarritzen duten aldaketa handi batzuk aztertzen dira (informazioaren gizartea, gizarte emozionala, esperientziaren ekonomia). Eta testuinguru berri horretan, marketin esperientzialaren, marketin 3.0 delakoaren eta marka esperientziaren kontzeptuak aztertzen dira, bereizketa, fidelizazio eta bezeroen erakarpenerako tresna berri gisa.

Hirugarren kapituluan, **martxan dauden enpresen bisita** proposatzen eta ikertzen da aurreko bi kapituluetan aztertutako bi ikuspegietatik so eginda. Horrela, batetik, literatura espezializatua berrikusita, martxan dauden enpresak bisitatzearen indarguneak eta ahulguneak diagnostikatzen dira, ikasleentzat ikasketa esperientzialerako tresna den aldetik. Izan ere, martxan dauden enpresak bisitatzeari, nahiz eta oraindik gutxi esploratutako eta ustiatutako praktika izan, hezkuntza sisteman geroz eta gehiago erabiltzen eta eskatzen da, eta literatura akademikoak ere gero eta kasu handiagoa egiten dio. Uste da halako jarduerak irakaskuntza tradizionalaren gabeziei eta mugei aurre egiten lagun dezaketela eta metodologia parte-hartzaileen zerbitzura diharduten tresna erabilgarri eta eraginkor bihurtu daitezkeela.

Eta, halaber, planteatzen da atek zabaltzea eta bisitariak hartzea marketin esperientzialerako tresna berritzaile eta eraginkorra izan daitezkeela enpresentzat. Análisi hori burutzeko, kapitulu honetan martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion literatura zientifiko nabarmenenaren berrikusketa bibliografikoa egiten da, enpresen beraien ikuspegiak eta marketinaren alorra ardatz harturik. Horrela, arakaturiko literaturan funtsaturik, xehetasunez jasotzen dira bai enpresek beren atek

ireki eta bisitak hartzetik izan ditzaketen onurak eta indarguneak eta bai arazoak eta ahulguneak ere.

Hiru kapitulu horiekin ikerlanaren marko teoriko-kontzeptuala amaitutzat jotzen da. Marko hori da kokaleku eta euskarri, martxan dauden enpresen bisitak analizatzeko, hala irakaste-ikaste prozesuaren baitan nola enpresen salmenta, komunikazio eta gizarte erantzukizunerako prozesuaren baitan gaur egun agerian eta indarrean dauden gabeziei eta erronkei erantzuna eman diezaiekeen tresnatzat hartuta.

II. Garapena - Atal enpirikoa

Landa lanak bi atal ditu bere magalean eta laugarren eta bosgarren kapituluei dagozkie. Bi kapitulu horietan, modu ia simetrikoan, bi ikerketa enpiriko sakon gauzatzen dira, ikasleei zenbait enpresa bisitatu aurretik eta ondoren egindako inkestetan oinarriturik; inkeston bidez jakin nahi izan da zer nolakoa izan den ikasle bisitarien esperientzia eta iritzia bisitaren inguruan.

Zehatzago, **laugarren kapituluan**, eredu bat garatzen da, martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientzia neurtzen duena, ikasketa esperientzialerako tresna edo jarduera gisa. Gainera, probatzen eta egiaztatzen da eredu horrek duen ahalmena aurreikusteko zer efektu eragiten duen bisitak ikasle bisitarien hautemandako emaitza pedagogiko batzuetan (ezagutzak eskuratzeari eta kompetentziak garatzeari dagokienez, besteren artean).

Modu ia analogoan, **bosgarren kapituluan**, beste eredu bat eraikitzen da, martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientzia neurtzeko, marketin esperientzialerako tresna edo marka esperientzia gisa. Horrekin batera, probatzen eta egiaztatzen da martxan dauden enpresak bisitateak zuzeneko edota zeharkako eraginik ote duen eta eragin hori nolakoa den bisitariaren/bezeroaren eta enpresaren/markaren arteko harremanean garrantzi handia duten zenbait aldagaitan (konfiantzan, identifikazioan eta ahoz ahoko komunikazio positiboan).

III. Ondorioak

Azkenik, bai literatura zientifikoaren azterketa eta bai bi ikerketa enpirikoak oinarritzat hartuta, ondorio batzuk lortu eta ikerlanaren azken atalean aletzen dira. Atal hori osatzeko, ikerlanean bertan egiten diren ekarpenik behinenak nabarmentzen dira. Aurrekoaz gain, aitortzen da zein diren ikerlanak izan badituen muga eta gabezia nagusiak, bazter utzitakoak eta behar bezala aztertu ez direnak. Eta horrekin loturik,

ikerlana bukatutzat jotzen da etorkizuneko zenbait azterketa ildo eta erronka iradokita, gaiari zehaztasun eta sakontasun handiagoa eman nahi lioketenak.

Dena dela, aipatzekoa da ezen, ikerlanaren ondorio orokorreari eskainitako azken atal horrez gain, kapitulu bakoitzaren baitako azpi-kapitulu bakoitzak ere ondorio partikularrez osaturiko atal bat duela.

IV. Bibliografia


Erreferentzia bibliografikoei dagokien atal honetan, ikerlan hau burutzeko baliatu diren iturri eta dokumentu guztiak zerrendatzen dira.

V. Eranskinak

Ikerlanaren bukaeran, oso-osorik bildu dira bi ikerketa enpirikoak egiteko ikasleei egin zaizkien inkesten galdetegiak.

Sarrera amaitzeko, hurrengo I.2 irudian doktore tesia osatzen duten helburuen, metodologiaren eta kapituluaren arteko harremana adierazten da.

<p>Lehen helburu nagusia: Martxan dauden enpresak bisitatzearen azterketan sakontzea, ikasketa esperientzialerako tresna gisa izan dezakeen potentziala ezagutarazteko.</p>	<p>Bigarren helburu nagusia: Martxan dauden enpresak bisitatzearen azterketan sakontzea, marketin esperientzialerako tresna gisa izan dezakeen potentziala ezagutarazteko.</p>
---	--



I.2. irudia: Doktore tesia osatzen duten helburuen, metodologiaren eta kapituluaren arteko harremana

Iturria: Guk geuk egina.

II.-GARAPENA- ATAL TEORIKOA

1. KAPITULUA: IKASKETA ESPERIENTZIALA: AURREKARIAK, GAUR EGUNGO EGOERA ETA MARKO KONTZEPTUALAREN MUGARRIZTATZEA

Edukia:

1.1.- HEZKUNTZAREN HISTORIA: ANTZINAKO EKIALDEKO
KULTURETATIK XIX. MENDEA ARTE

1.2.- XX. MENDEAK UTZITAKO ONDARE PEDAGOGIKOA

1.3.- IKASKETA ESPERIENTZIALA

1. KAPITULUA: IKASKETA ESPERIENTZIALA: AURREKARIAK, GAUR EGUNGO EGOERA ETA MARKO KONTZEPTUALAREN MUGARRIZTATZEA

Hezkuntzaren betebeharra da kontzientzia sozial eta kultural jakin bati eustea eta zibilizazioaren oinarri den informazio tradizio jakin baten transmisioa egitea. Gaur egun, baina, hezkuntzaren helburua ez da soilik gure tradizio kulturalak gordetzea eta iraunaraztea; horrez gain, tradizio kultural horiek modu kritikoan aztertu eta garatzea ere eskatzen zaio hezkuntzari. Hortaz, egun, hezkuntza aztertzeak, hezkuntzaren nondik norakoak miatzeak inoiz ez bezalako esanahia eta balioa ditu. Izan ere, hezkuntza zer den bere adierarik zabal eta sakonenean ulertu nahi badugu, ezinbestekoa da hezkuntzaren beraren historia aztertu, deskribatu eta azaltzea (Bowen, 1992).

Atal honetan, bada, hezkuntzaren eta, zehazki, ikasketaren gaur egungo testuingurua zein den aztertuko dugu, abiapuntutzat izanik egungo egoeraren berri egokia izateko funtsezkoa dela bilakaera historikoa miatzea; horregatik, lehenengo kapituluan, hezkuntzaren eta ikasketaren historian atzera joko dugu, haien aurrekariak arakatu eta gaur arteko eboluzioa deskribatzeko.

1.1.- HEZKUNTZAREN HISTORIA: ANTZINAKO EKIALDEKO KULTURETATIK XIX. MENDEA ARTE

1.1.1.-SARRERA: HEZKUNTZA, IRAKASKUNTZA ETA IKASKETA

Gizarte guztietan, bai antzinakoenetan eta bai aurreratuenetan ere, etorkizuneko belaunaldiak hezteko helburua duten hezkuntza sistemak ditugu: erakunde akademikoak, irakasleak, hezkuntza administrazioa, ideia eta doktrina pedagogikoak, etab. Gizarte orotan hezten da, gauzatzen da hezkuntza, belaunaldi gazteek bere egin ditzaten belaunaldi helduen irizpideak eta moldeak. Hala, garrantzitsua da antzinateko hezkuntza zertan zetzan aztertzea, gure oraingo kultura eta hezkuntza zer diren ulertzeko. Marrou-ren esanetan (2004: 9), *“teknika kolektibo bat da hezkuntza, zeinaren bidez gizarteak belaunaldi gazteei bertako zibilizazioa ezaugarritzen duten balioak eta teknikak erakusten baitizkie”*.

Redondo, Cárceles, Gutiérrez, Laspalas, Pernil eta Vergara autoreek (2010) iradokitzen duten bezala, gure oraina, hein batean bederen, gure geuk iraganen hartutako erabakiek baldintzatzen eta zehazten dute, baita gure aurrekoek iraganen hartu zituzten erabakiek ere. Are gehiago, ezingo genuke gure oraina azaldu, iraganik gabe edota haren nolabaiteko eraginak aintzat hartu gabe. Hori dela eta, hezkuntzaren eta pedagogiaren inguruan berrikusketa historiko bat egin behar dugu nahitaez, egungo hezkuntza errealitatearen oinarriak bistaritzen eta azaltzen lagun diezagun.

Hezkuntzaren historiaren “biografia” nahiko laburra eta oraintsukoa da. XX. mende hasieran koka daiteke haren jaiotza; ordu arte, Historia Orokorraren zati bat baino ez zen, Kulturaren Historiaren baitan. Espainian, jaiotza hori are oraintsuago gertatu zen; XX. mendeko azken laurdenean ikerketa historiko pedagogikoak biziki garatu ziren, bai maila kuantitatiboan eta bai maila kualitatiboan (Redondo et al., 2010).

Ondorengo ataletan egingo dugun analisisan, helburu izango dugu identifikatzea eta azaltzea zer bilakaera izan duten pentsamendu pedagogikoek, hezkuntzaren eremuko politikek, antolamenduek eta teknikek, baita baliatu izan diren metodologiek ere. Redondo et al. (2010) autoreekin bat gatoz esatean oso baliagarria izan daitekeela mapa kontzeptual pedagogiko bat eratzea, hezkuntzaren dimentsio funtsezkoak aztertu ahal izateko: 0) *testuingurua*, 1) hezkuntzaren *kontzeptua*, 2) hezkuntzaren *subjektua*, 3) hezkuntzaren *agentea eta produkzio faktoreak*, 4) hezkuntzaren *xedea, helburuak*

eta idealak, 5) edukia, 6) hezkuntza metodoa eta teknikak, 7) hezitzaileak erabil ditzakeen bitartekoak, baliabideak eta tresnak, eta 8) hezkuntza antolatzeke eta bideratzeko sistema instituzionala. Dimensio horietatik abiatuta, hezkuntza da *subjektu* baten baitan gertatzen den eragiketa bat, *xede* bat duena; *eduki* batzuk dauzkana; *agente* batek burutzen duena *metodo* bati jarraituz eta *bitarteko, baliabide eta tresna* batzuk erabiliz; eta *sistema* baten bitartez bideratzen dena, sare edo egitura instituzional bezala ulerturik.

“Hezkuntza” hitza bera latinetik dator (*ēducātiō, eductio*); bi etimo latindar ditu: “educere” eta “educare”, eta ikaslearen garapena (intelektuala eta kulturala) bultzatzea esan nahi du; hots, ikaslearen adimena eta ezagutzak garatzea, ikaslearen beraren potentzialtasun psikiko eta kognitiboetatik abiatuta eta prozesuan barrena ikaslea bera subjektu aktibotzat hartuta. Horregatik, oso garrantzitsua da ondo bereiztea “hezkuntza”, batetik, eta “instrukzio” edo “doktrinatzeko” behartua, bestetik. Hezkuntza ez da instrukzio soila; hezkuntza, batez ere, heziketara edo prestakuntzara zuzendutako jarduerak bat da. Hezkuntzan, gizabanakoa subjektu aktibo bat da, neurri handi batean indukzioaz baliatzen dena, baina, nagusiki, dedukzioa erabiltzen duena; aitzitik, instrukzioa edo doktrina hartzen duen subjektuak errepikatu besterik ez du egiten ematen dioten informazioa (dela egokia, dela desegokia). Hau da, hezkuntza benetakoak eta jatorrak ikasketa (ingelesez *learning*) irekia esan nahi du, zeina aurrez bururaturiko eskemez harago baitoa eta ikasle bakoitzaren kontzientzia, arrazoimena eta adimena garatzeko lagungarri baita; era horretan, ikasle bakoitzak bizimodu ahalik eta onena lantzeko aukerak izan ditzan. Hortaz, ikasteak jokabidea aldatzea edo jokabide berriak bereganatzea esan nahi badu, hezkuntzaren funtsa — gizabanakoaren barruko garapenen eta kanpoko pizgarrien bitartez— jokabide aldaketa horiek eragitean oinarritu beharko litzateke, jokabidea helburu desiragarrietara zuzentzeko. Ikasteak, beraz, aipamena egiten dio subjektuaren baitan, biziara ziartzien esperientzien eraginez, aldatu den alderdiari.

Castro de Amatok (1971: 57) egoki laburbiltzen du “hezkuntza” edo “heztea”, azken baten, zer den: *“orekarako eta heldutasunerako hazkunde bidea egiten laguntzea”*.

Ildo horretan eta era bertsuan, Gutiérrez, Romero eta Solórzano (2011: 131) autoreen aburuz, *“irakastea ez da informazio transmisio hutsa, besterik gabe; baizik eta prozesu bat da, zeinak eskatzen baititu mezua hartzaileak mezua ulertzea eta bereganatzea. Horrela, funtsezkoa izango da irakasleak aukeratzen duen kanala (informazioa emateko darabilen bidea edo modua) egokia izatea, behar bezala bete*

daitezen irakaskuntzaren helburuak eta ikasketaren printzipioak; eta hori, hein handi batean, aukeratutako metodoaren edo metodoen mendekoa izaten da”.

Coterón eta Gil (2015: 100) honela mintzo dira: *“heztea da errealitatea aldatzeko asmoz aritzea, esku hartzea. Hezteko ekintza, hortaz, irakaslearen esku hartze bat da, helburutzat duena ikaslearengan erantzun bat sorraraztea, ikaslearen jokabidea aldatzea; eta jokabide berri horrek bere baitan izan beharko ditu ikasleak bereganatu dituen jakintzak, aurrerantzean ere ingurune berriei aurre egiteko ahalmen handiagoa emango dioten jokabide malgu, moldagarri eta sortzaileen inguruko jakintzak, alegia”.*

De Puelles-en hitzetan (2010: 20), *“hezkuntza, ikuspegi soziologikotik begiratuta, gizarteko funtsezko instituziotzat hartu izan da, hau da, gizarte globalaren barruan eta elkarri lotuta dauden prozesu multzotzat, eta, ondorioz, prozesu horiek fenomeno politiko, kultural, ekonomiko eta bestelakoekin harremanetan jarri behar dira [...] prozesu horiek aztertzeko, sistema gisa hartu behar da hezkuntza, zeinaren barruko elementuak —ikasleak, irakasleak, ikastetxeak, administrazioa...— elkarrekin harremanetan aritzen baitira. Azken batean, abiapuntu gisa, hezkuntza izugarritzko konplexutasuna eta bizitasuna dituen mundu bizidun bat balitz bezala ulertu behar da, eta horrek gizartearentzat eta botere politikoarentzat duen garrantzia begien bistakoa da egun”.*

Horregatik guztiagatik, hezkuntzak eduki, ideologia eta norabide asko eta askotarikoak izan ditzake (eta hala izan ditu), eta, historian zehar, hainbat ikuspegitatik so eginda, eztabaida, borroka eta polemika gune eta iturri izan da. Hezkuntzak, gizarteko oinarritzko instituzio gisa, erakargarritasun berezia izan du betidanik, antzinateatik gaur arte (De Puelles, 2010). Eta, hori dela bide, jarraian azterketa kronologiko bat egingo dugu, historian zehar hezkuntzak izan dituen gorabehera eta aldaketa nagusiak bistaratzeko.

1.1.2.-ANTZINAKO EKIALDEKO KULTURAK

Antzinatean hezkuntzak izan zuen bilakaera konplexua nolabait laburtu beharko bagenu, seguru aski esan beharko genuke halako trantsizio edo igarotze bat jazo zela noble gerlarien kultura batetik (heziketa nagusiki militarra zuten zibilizazio

basatietatik)¹ eskribau edo idazlarien kultura batera (hezkuntzaren oinarritzat idazkiak zituenera) (Marrou, 2004).

Has dezagun gure azterketa, Aguadok (2012) bezala, **mesopotamiar kulturatik** abiatuta. Hura izan zen —eta horra haren garrantzia— lehenengo zibilizazio hiritarra edo urbanoa, *alfabetoaren* sehaska eta, hedaduraz, **hezkuntzarena**. Pérez (2008) autoreari jarraiki, egiaztatuta dagoenez, K.a. 3300 urtekoak dira historiako lehenbiziko frogak edo lekuko idazkiak; *oholtxo* edo *taulatxo* haietan, garaiko produktuen zerrendak ageri ziren, tenpluetako tailerretan ekoitziak edo erregeari eskainiak haren hilobian. Uste da idazketak, gizarte haietan, egitateen eta errealitatearen berri zabaltzeko funtzioa zuela, segurtasuna eta legitimitatea zekartzen informazioa emateko funtzioa, alegia. Dena dela, idazketa haren gramatikak ez zuen, milurteko erdi bat igaro arte, garapen maila gorena hartuko.

Mesopotamian asmatu zuten idazketa kuneiformea². K.a. 2500 urtean, gutxi gorabehera, haurrei irakurtzen eta idazten irakasten zitzairen *edduba* zirelakoetan (antzinako eskola pribatuetan), administrazioan aritzeko funtzionarioak eta zientzialariak prestatzeko xedez.

Hezkuntza ez zen orokorra ez derrigorrezkoa, eta Estatuak ez zuen esku hartzen. Eskola garaiak urte batzuk irauten zuen eta familia aberatsetakoei baino ez zegokien, haiek baino ez baitzuten baliabide ekonomiko nahikorik eskola ordaintzeko, denbora landan lanean igaro behar izan gabe.

Ikasteko zerabilten metodoa, berriz, oroimenean oinarriturikoa (“memoristikoa”) eta errepikakorra zen zeharo. Testuak ikasi eta errepikatu egiten zituzten, behin eta berriz, taulatxoetan kopiatuz.

“Pedagogia erabat bakuna eta oinarri-oinarrizkoa zen, eta doktrinatzeko pasiboa hartzen zuen abiapuntutzat: ikaslearen otzantasunean eta esanekotasunean oinarrituta, gorputz zigor lazgarriak baliatzen ziren naturaltasun osoz” (Marrou, 2004: 13). Lantzen ziren edukiak, bestalde, zientifiko-praktikoak, erlijiosoak, administratiboak eta juridikoak, literarioak eta sortzaileak izaten ziren.

¹ Heziketa hark helburu zuen indar fisikoa eta kemena garatzea, eta ez hainbeste ezagutzak edo jakintzak lantzea.

² Ziri batez ebakiak egiten ziren buztin bigunez egindako taulatxo batean eta, ondoren, labean lehortzen ziren.

Egipto hartu ohi da, aho batez, kulturaren eta instrukzioaren sorleku erkidetzat. Egiptoren ekarpenak, Alighiero-ren esanetan (2006: 16), “*kontserbadurismo, tradizio eta betikotasun-aldaezintasun kontzeptuak izan ziren. Herodotoren aburuz, Egiptoko herria munduko herririk erlijiosoena zen*”³.

Alfabetoa **hieroglifikoa** zen, eta hura zen hizkuntza ofiziala. Hamaika *ideogramak* osatzen zuten⁴. Egipton sortu ziren aurreneko piktogramak (idazkera hieroglifikoa), teoriarekin loturiko eduki praktikoak eta erlijiosoak jasotzeko. Egiptoarrek estimu handitan zuten idaztea; izan ere, idazketa zen beren kulturaren funtsa. Idazketaz gain, ordea, matematikak ere lantzen zituzten, eta astronomia, medikuntza, geografia eta historia ere bai.

Gorteak gobernatzen eta gidatzen zuen hezkuntza, zeina apaiz kastaren eskuetan baitzegoen. Hezkuntzak helburu zuen pertsonari eta haren arimari heziketa eta prestakuntza osoa ematea, Estatuari, faraoiari eta jainkoari zerbitzatzeko (Alighiero, 2006).

Antzinako kulturetan jazo ohi zen bezala, Egipton ere agintariak edo gobernatzaileak bere gain hartzen eta gero partekatzen zuen hezkuntzaren ardura. Hala, hezitzaileak asko eta askotarikoak ziren, hala nola *faraoia*, *bisir* zelakoa, *apaiza*, *eskribaua* eta, etxean, *gurasoak*. Horien guztien artean, **eskribauak** baino ez ziren irakurtzeko eta idazteko gai eta jakitun, eta haiei baino ez zegokien ardura hura⁵.

Hezkuntza oso iraupen luzekoa eta zaila zen (piktograma, ideograma eta ikur silabikoen nahasketak asko zailtzen zuen egiptoarren hizkuntza idatzia behar bezala ulertzea eta irakurtzea); eta Egiptoko gazte askorentzat —eta haien gurasoentzat— eskribau lanbidea oso erakargarria zen, karguak aldean zekarren posizio sozio-ekonomikoa eskuratzeko (Redondo et al., 2010). Eskribau lanak ezagutza jakin batzuk eskuratzeko eskatzen zuen; eta ezagutza horiek lortzeko, konplexutasunaz harago, baliabide eta bitarteko ugari behar zirenez, eskribauen edo goi funtzionarioen semeek baino ez zuten horretarako aukerarik (Pérez, 2008).

³ Horra zergatik nabarmentzen zen horrenbeste *betikotasuna*.

⁴ Ideograma bat ideia konkretu bat adierazten duen sinboloa da; ez da adierazpide edo ikur ortografiko bat. Eskribauak buruz ikasten zuen piktograma bakoitza, hurrenkera jakin batean, ideia bat adierazteko.

⁵ Hori dela eta, herri xehearen gainetik, nekazarien eta artisauen gainetik, eskribauek goi-mailako klasea osatzen zuten, ikuspegi politiko eta sozialetik begiratuta, eta zuzenean nahiz zeharka agintean parte hartzen zuten (Marrou, 2004: 12). Izan ere, eskribauak hezkuntzaren eta prestakuntzaren arduradun ziren Egipton.

Kultura haren baitan sortu ziren lehenengo eskola ofizialak, oinarrizko hiru mailatan banatuta (oinarrizkoa, bigarrena eta goi maila); gainera, nahiz eta Egiptoko biztanleen % 90 alfabetatu gabeak ziren, garai hartan idatzitako lanek berrikuntza eta aurrerakuntza handiak bildu zituzten zientziaren eremuan. Haurrek 6 urte bete bitartean, hezkuntza familiaren magalean jasotzen zuten; haurrei ohitura sozialak, familiarrak eta erlijiosoak irakasten zitzaizkien (Rodríguez, 2010).

Irakasteko metodoari dagokionez, abiapuntua zen oso umetan irakurtzen eta idazten ikastea; prozesu horrek hainbat urtez irauten zuen. Oroimenean oinarrizko metodoa zerabilten eta, ikasleak jakintza horiek (irakurketa eta idazketa) bere egiten zituenean, eskuizkribuak kopiatzen hasten zen harri pusketan, igeltsuz estalitako taulatxoetan edo papiroetan nahiz pergamino edo larru paperetan. Apaizek irakasteko baliatzen zuten metodoak oinarri hauek zituen: buruz ikaslaraztea, kopiak edo diktaketak eginaraztea, errepikatzea, eta diziplina zorrotza betearaztea (aginduak eman eta betearaztea; eta ikasleek hutsik eginez gero, zegokien zuzenketa egiten zieten: gehienetan, gorputz zigorra) (Redondo et al., 2010).

Bestalde, **hebrear herriaren** hezkuntza eta kultura aztertzea lan zaila eta korapilatsua da. Oso gizarte erlijioso zen eta Yahvéri berari zegozkion hezkuntzaren ardura eta gidaritza. Izan ere, Redondo et al. (2010: 101) autoreen hitzetan, hezkuntza *“Jainkoak berak egikaritzen du, Legearen bidez. Gainera, hezkuntza betebeharrak da, legeak hala aginduta; hezkuntza, funtsean, normatiboa da eta zigorren bitartezko zuzenketetan oinarritzen da. Horrez gain, hezkuntzak konnotazio moral garbia ere badu; hezteak, oroz gain —ia modu eskusiboan—, bizitza estilo bat betetzea da, baina ez da nahitaezkoa, inondik ere, hura teorian ulertzea”*.

Hezkuntzak tradizioan hartzen zuen oinarri eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen zen. Hezkuntza mailak hiru ziren⁶ eta erabiltzen zuten metodologia testuak buruz eta hitzez hitz ikastean zetzan (ikasleek biblia hitzez hitz ikasi behar zuten, errepikatzeari erabat leial izanik); hortaz, memoria edo oroimena lantzea guztiz garrantzitsua zen. Hezkuntzak helburu zuen santutasuna eta jakinduria lortzea, horrela Yahvéren legeak eta arauak zorrotz betetzeko eta hebrear herriaren batasunari eusteko.

⁶ 1) Lehenengo maila (familia); aita zen agente hezitzaile nagusia, haurrei irakurtzen eta idazten irakasten ziena alfabeto soil baten bidez. Familiaz aparte, Israelen sinagoga eta eskola ere hezkuntza instituzio garrantzitsuak ziren. 2) Bigarren maila, 15 urte arteko mutilei baino ez zegokiena: irakaskuntza ahozkoa zen, memorian eta errepikatzean funtsatua, hitzez hitzekoa eta erlijioso. 3) Gorengo mailan, ikasketak erlijioaren eremuaz harago hedatzen ziren eta ikasleek bestelako diziplina batzuk ere jorratzen zituzten, izaera nabarmen zientifikoagoa zutenak; etorkizuneko errabinoak edo Legearen irakasleak prestatzera zuzendua zen gorengo maila hura.

Labur bilduta, Ekialdeko Kulturek zenbait ezaugarri komun izan zituzten: batetik, *tradizionalismoa* eta *kontserbadurismoa*; bestetik, *autoritate printzipioaren* nagusitasuna; hirugarren bereizgarria zen *apaizen klase edo kastaren boterea*, edo hezkuntza eredu “klasista”; eta, azkenik, *gizarte egitura guztiz hierarkizatua*, kontzepzio erlijioso edo filosofikoetan funtsatu ohi zena (Redondo et al., 2010).

1.1.3.-MUNDU KLASIKOA: GREZIA ETA ERROMA

Mundu Klasikoan barrena aurrera egingo dugu; izan ere, Grezia eta Erroma, mendebaldeko kulturaren oinarri, espainiar pedagogiaren jatorri izan ziren.

Greziari dagokionez, K.a. VII. mendea arte —garai arkaiko deiturikoan—, hezkuntza eta kultura ez ziren gizarteko gorengo mailako klaseetako pribilegioak baizik. Garai hura aztertzeko, abiapuntutzat hartu behar da, ezinbestean, **Homero, Greziaren hezitzailea eta greziar ‘paideia’ren inspiratzailea**⁷. K.a. VIII. mendeko *Iliada* eta *Odisea* obrak dira, nabarmen, Greziako garai kultural orotan testuliburu guztien artean nagusiak. Ohartzekoa da, ordea, Greziaren egitura politiko eta kulturala *Polis* zirelakoek ardatzen zutela eta, hartara, ez zegoela batasunik hezkuntzaren eremuan⁸.

Garai hartan (K.a. VIII-VII. mendeetan), ondo bereizi behar dira Esparta eta Atenas *polis*-etako hezkuntza ereduak, txit desberdinak.

Espartan, hezkuntza sistema derrigorrezkoa zen eta Estatuak finantzatzen zuen. Hezkuntzak helburu zuen Estatuaren alde arituko ziren gerlari eta hiritar arduratsuek garatzea. Redondo et al. (2010) autoreen irudiko, hezkuntzak helburu bikoitza zuen: gerrarako prestakuntza ematea eta, era eta aldi berean, hiriko bizimodurako prestakuntza ematea. Izan ere, beharrezkoa zen gerlari ausarta izatea eta, horrez gain, baita hiritar ona izatea ere, legeak gurtu eta sutsuki babesteko. Hezkuntza sistema, hortaz, publikoa eta zibil-militarra zen, eta 30 urte bete arte irauten zuen. Kuartel militarra nola, hala zegoen antolatuta eskola ere; ikasleek lan saio gogorak izaten zituzten trebatzen, gimnasia egiten, ariketa militarretan, ehizan eta borrokan.

⁷‘Paideia’: “hitz polisemiko horren erabilera garai helenistikoan orokortu zen. Hitz horrek egoki hezitako gizakiaren greziar ideala adierazten du [...] hazkunde eta heltze prozesuak hartzen ditu bere baitan. Kontzeptu orokor eta balioaniztuna da eta askotariko alderdiak biltzen ditu; kulturarekin zerikusia du, eta literaturarekin ere bai, eta heziketarekin, prestakuntzarekin, hezkuntzarekin, baina ez dator guztiz bat horietako ezeinekin. Ikasleak ibili behar duen bidea da, eta iritsi behar duen helmuga. Haurrak, irakaskuntzaz eta hezkuntzaz gain, helduarora gerturatzen den heinean gidaritzaz eta diziplina ere behar ditu” (Redondo et al., 2010: 136-137).

⁸ *Polis* haiek hiri-estatu independenteak ziren, baina hizkuntza bat bera eta erlijio bat bera zuten guztiak.

Espartar hezkuntza eredu zurrunaren helburua zen gizakiak zailtzea eta gogortzea, eta, horregatik, funtsezko elementuak ziren ahalegina, diziiplina eta lehiaketa. Hala ere, formazio militar zorrotza eman beharrek —gizon indartsu eta osasuntsuak izan zitezen eta Estatuaren alde borroka egin zezaten— ondoriotzat ekarri zuen, Isokrates-en arabera, espartarrak nagusiki alfabetatu gabeak izatea eta kultura intelektuala batera begiko ez izatea.

Atenaseko hezkuntza eredu oso bestelakoa zen. Ez zen derrigorrezkoa eta ez zuen Estatuak finantzatzen. Gainera, hiritar politikoak sortzea zuen xede, eta, hartara, heziketa hertsiki militarra izateari utzi zion. Hezkuntza eta kirol praktikak *gimnasioetan* egiten ziren. Nabarmentzekoa da greziar kulturak garrantzi handia ematen ziola gorputz heziketari, eta hori ere hezkuntza sistemaren helburutzat hartu zutela. Gizabanakoa modu integral eta osoan hezten zen: gorputz eta buru.

Garai Klasikoan (K.a. VI-IV. mendeetan), Atenasen bezala, hezkuntzak izaera pribatua izan zuen, Estatuak ez zuen finantzatzen ez derrigortzen; ikasleek beraiek ordaintzen zieten irakasleei. Hezkuntzaren helburua gizaki osoak garatzea zen, jakinduria erdietsi zezaten⁹. Orduan sortu ziren *Goi Eskolak*¹⁰, doktrina filosofiko itzel baten zimentarri (Aguado, 2012).

Garai Helenistikoan (K.a. III-II-I. mendeetan) *polis*-en gainbehera gertatu zen eta hiri berri batzuek (hala nola Pergamok, Antiokiak eta Alexandriak) garrantzi handia hartu zuten, jakintzaren gune bihurtzerainokoa. Garai hura erabakigarria izan zen greziar *paideia* taxutzeko.

Kultura helenistikoak espezializaziora, aplikaziora eta dibulgaziora jo zuen. Eta, historian lehenengo aldiz, “erudito” edo “jakintzu” zelakoaren figura sortu zen¹¹.

Alexandria, Alexandro Handiak K.a. 331. urtean sortua, hiri erraldoi bihurtu zen K.a. IV. mende bukaeratik K.o. 31. urte arte. Hiri horretan eratu ziren doktrina aristotelikoa irakasteko *Goi Eskolak* (fakultateak) eta, era berean, Alexandrian sortu zen munduan Estatuak sustaturiko lehenengo **unibertsitatea** (*Liburutegia*). Erregearen ardura zen irakasleak babestea, zaintzea eta akuilatzea, Alexandria helenismoaren erdigune

⁹ Dewey-ren hitzetan (1916: 126), “greziar hezkuntzaren lorpen handien kausa nagusietako bat izan zen ez zuela sekula izan, interpretazio okerren eraginez, espiritua eta gorputza bereizteko tentaziorik”.

¹⁰ Eskola Pitagorikoa, Eskola Sofista, Eskola Sokratiko-Platonikoa, Eskola Isokratikoa eta Eskola Aristotelikoa.

¹¹ “Eruditoa” espezialista zen zientzia jakin batean, baina ez zituen beste zientzia guztiak aintzat hartzen (Redondo et al., 2010).

kulturala izan zedin. Alexandriako Liburutegia funtsezko obra izan zen Antzinateko hezkuntzarentzat. Publikoa zen, obra guztiak inbentarioan jasota zeuden eta jakintza desberdinetako maisulanak zeuzkan (Aguado, 2012).



Bestalde, gure azterketa kronologikoan aurrera eginez, **Erromaren** ekarpen nagusiak ondorengo hauek izan ziren, labur-labur: *hezkuntza tradizionala* (familia funtsezko instituzioa zen); *kultura patriarkala* (familia instituzioaren baitan, garrantzi nabarmena zuen aitak, 7 urtetik gorako haurren hezkuntzan; adin hori izan arte, haurren hezkuntzaz ama arduratzen zen); *zuzenbidea* (Erromaren ekarpenik original eta garrantzitsuenetakoa); eta *Estatuaren esku hartzea* hezkuntzan.

Antzinako Erroman piztu eta garatu zen *humanitas* deituriko hezkuntza sistema, Zizeronek hala izendatua eta, esanahiari dagokionez, greziar *paideiaren* baliokidea, nahiz eta Erroman zentzu praktikoagoa, deskriptiboagoa eta kosmopolitagoa izan, Grezian baino (Redondo et al., 2010).

Nahiz eta errepublika garaian hezkuntza ez zen izan ez derrigorrezkoa ez Estatuak finantzatua, inperio garaian Estatuak bere gain hartzen hasi zen hezkuntza eremuko zenbait eskumen eta ardura. Eta, hala, I. mende bukaera aldean, Estatuak bere gain hartu zuen lehen mailako eskolak finantzatzeko eta irakasleei ordaintzeko eskumena.

Familia, Erroman, berebiziko garrantzia zuen instituzio pedagogikoa zen. Amari zegokion, seme-alabek 7 urte bete bitarte, etxean bertan haurrak haztea eta hezte. Adin horretatik aurrera, aitari zegokion hezkuntzaren ardura, "etxeko" egonaldia amaitu arte, 16-17 urte zituztela. Hortik aurrera, etxez kanpoko hezkuntzari ekiten zioten eta semeak "*toga virilis*" zelakoa hartzen zuen; horrek adierazten zuen jadanik

pertsona *heldua* zela eta prestakuntza militarra eta, ondoren, politikoa hasi behar zituela.

K.a. II-I. mendeez gerora, greziar hezkuntzaren eragina medio, Erroman ere indarra hartzen joan zen eskoletan emandako hezkuntza, etxe barruko hezkuntzaren kaltetan. Erromako eskolek Greziakoak hartu zituzten ispilu; eta hiru maila zituzten:

- Lehenengo eskola-mailan (6-7 urtetik 12 urte bitartean), irakurmena, idazmena eta kalkulua lantzen ziren, buruz ikastea edo memorizatzea zen metodologiaren funtsa eta ikasle kaskarrenek gorputz zigorrak jasaten zituzten. Irakaslea edo hezitzailea “*ludi magister*” zen.
- Bigarren mailan (11-16 urte bitartean), hizkuntzaren gaineko trebezia lantzen zen eta testu klasikoen inguruan iruzkinak egiten ziren; alderdi literarioak ikastea lehenesten zen, eta ez alderdi zientifikoak.
- Goi maila (17-20 urte bitartekoa) gizonezkoei baino ez zegokien eta helburu zituen, hiritar politikoak sortze aldera, oratoria eta elokuentzia lantzea eta jendaurrean hitz egiteko artean trebatzea.

Erromako hezkuntzak, Greziakoarekin alderatuta, bazuen berritasun nabarmen bat, ordea; garai hartan garrantzi handia hartu zuten zuzenbide ikasketek¹². Inperio garaian erromatar eskolak orokortu eta zabaldu egin ziren iberiar penintsulan eta, orobat, erromatar inperioaren luze-zabalean; era horretan, bazter guztietara hedatu zen latinaren eta zuzenbide erromatarraren erabilera, eta, halaber, han-hemen erroto ziren erromatar kultura eta kolonizazioa.

Garaiko autorerik garrantzitsuenen artean bereziki aipagarria iruditzen zaigu Marco Fabio Quintiliano, zeinek haurren eskolatze goiztiarraren alde egin baitzuen; ez zuen, ordea, eskolatze sistematiko eta formalaren alde egin, baizik eta familia kutsukoa eta haurrentzako atsegina zen eskolatzearen alde; Estatuak finantzatutakoa eta familia eta haur guztientzat eskuragarri zen eskolatzearen alde. Gainera, haren ustez, irakaslea ez zen hezten zuena, baizik eta hezte prozesuan, bitartekari gisa, lagundu egiten zuena, horixe izanik irakaslearen oinarrizko zeregina. Irakasleari zegokion, Quintilianoren aburuz, ikasleak motibatzea ikas zezaten, betiere ikasle bakoitzaren gaitasun eta interesen arabera eta metodo bortxazkorik eta zigorrik baliatu gabe (Capitán Díaz, 2002).

¹² Marrou-ren esanetan (2004), zuzenbideak aldean zekartzan bai kultura molde berri bat eta bai hezkuntza ideal berri bat ere.

Garai hartako erromatar autore ugari eragin nabarmena izan zuten hezkuntza eremuan. Caton, esaterako, hezkuntza hertsiki erromatarraren aldekoa zen, greziar hezkuntzaren aurrean. Varron autoreak, aldiz, hezkuntza erromatarra eta greziarra uztartu zituen; eta jakintzaren diziplinak bi multzo edo arlotan sailkatu zituen. Zizeronek, bestalde, tradizio hertsiki erromatarrari heldu zion berriz, greziar ekarpen kulturala aintzat hartu arren. Hizlariaren prestakuntzaz arduratu zen.

Gure ikuspegitik, nabarmentzekoa da Varron (K.a. I. mendea); haren lanik adierazgarrienean (*Disciplinarum libri IX*, hots, *Diziplinen bederatzi liburuak*), bi sail edo multzotan banatu zituen **arte liberalei zegozkien jakintza diziplinak**: 1) TRIVIUM (erretorika, gramatika eta dialektika) eta CUADRIVIUM (geometria, aritmetika, astronomia eta musika). Bi multzo horietan oinarriturik egingo zen, geroago, egungo Zientzien eta Letren arteko bereizketa (Aguado, 2012).

1.1.4.-ERDI AROA

Oso zaila da Erdi Aroan barrena, zibilizazio kristauaren ia 11 mendetako ibilbidean, hezkuntzaren nondik norakoak labur aztertzea; kontuan izatekoa da, gainera, garai haren inguruan oso gutxi dakigula. Goi Erdi Aroan (XIII. mendea arte), hezkuntza molde berriak ekarri zituen aldaketa sozial nagusia hau izan zen: zibilizazio erromatarra eta haren maila kultural jaso bertan behera amaitu zirela, eta, haien ordez, gizarte feudal, gerlari, alfabetatu gabeko eta militarizatu gailendu zela. Nolabait, gizaki *jakintsu* izateari utzi zitzaion eta gizaki *santuak* hartu zuen haren lekua; gainera, hezkuntza eremuko kontrola eta esku hartzea, Estatuak barik, Elizak bereganatu zituen; izan ere, Erdi Aroan, Eliza izan zen gizarteko oinarritzko zutabeetako bat eta kulturaren gordailu eta igorle nagusia (Aguado, 2012).

Garai hartan monasterioak izan ziren kultura idatziaren eta irakaskuntzaren egoitza; monasterioetako liburutegietan eta idazmahaietan ematen ziren eskolak eta irakasle lanetan fraideak baino ez ziren aritzen. Eskolatzea oso laburra eta mugatua zen. Doktrina eta diziplina ziren hezkuntzaren adierazpen agerikoenak. Gainera, ikastea eta kulturaz “janzte” aristokrazia lurjabearen eskura baino ez zegoen. Gizarte militarizatu hartan, kultura bigarren mailara zokoratu zen, landa kutsua hartu zuen eta eskola anitz

desagertu egin ziren¹³. Erabiltzen zen metodologiak memorizatzea zuen funts eta oinarri; metodo mnemoteknikoak baliatzen zituzten¹⁴.

Behe Erdi Aroan (XII-XV. mendeetan), klase sozial berri bat agertu zen (*burgesia*), hezkuntza eredu berriaren motorra izango zena¹⁵. Burgesek ahalik eta hezkuntza eta prestakuntza onena nahi zuten seme-alabentzat. Garai hartan, egitura sozio-ekonomiko eta politiko berrien ondorioz, ikasle kopurua hazi egin zen neurririk gabe; eta XII. mende bukaeran eskola berriak sortu ziren, eskuarki eskola nagusiaren inguruan. Gainera, beharrezkotzat jo zen hezkuntza sistema beste era batera antolatzea eta, halaber, ikasle guztientzat baliagarri izango ziren irizpide metodologiko eta zientifikoak zehaztea. Era horretan sortu ziren, XII. mende bukaeran, **Europako unibertsitateak**¹⁶; horietako asko, gainera, ikasleak eta irakasleak berez eta modu espontaneoan elkarturik sortu ziren. Unibertsitateen sorburu, apezpiku- edo katedral-eskolak izan ziren (Erdi Aroan, Europako katedralen liburutegien inguruan sorturiko instituzioak, apaizak heztea beste helbururik ez zutenak); eskola horiek ospe nabarmena hartu zuten tokiko eremuaz landa ere¹⁷ (Capitán Díaz, 2002).

Redondo et al. (2010) autoreen esanetan, Erdi Aroko unibertsitateek hiru bereizgarri zituzten: izaera *korporatiboa*, *autonomia* eta *unibertsaltasuna*.

Ikasleak 14 urterekin iristen ziren unibertsitatera eta lehenengo urteak *arte liberalak* ikasteari eskaintzen zizkieten (ikasketa horiek oso antzinatik zetozen, katedral-eskolen bitartez). Horrela, “batxiler” titulua erdiesten zuten; titulu horrekin irakasle lana egin zezaketen beheko mailetan. Hortik aurrera, Teologia, Medikuntza edo Zuzenbidea ikasten jarraitzen zutenek “lizentziatu” titulua eskuratu zezaketen. Eta esparru horietan sakonduz gero, “doktore” titulua lortzera heldu zitezkeen. Unibertsitateko metodologia, garai hartan, klase edo eskola magistraletan funtsatzen zen. Irakasleak ahoz ematen zituen eskolak eta ikasleek haren esanak eta lezioak kopiatzen zituzten¹⁸. Latina zen

¹³ Kulturaren mugak elizaren barrutiari zegozkion; eta fraideak ziren agente hezitzaileak, autore klasikoak kopiatzen eta ikasten zituztenak.

¹⁴ Hugo San Víctor-en (1096-1141) *De Tribus* obrak eskema zabal bat dakar ikasleari historia gogoratzen laguntzeko; kontuan izan behar da garai hartan ez zegoela libururik eta gauzak buruz ikasteko eta oroitzeko trebetasuna txit garrantzitsua zela (Bowen, 1992).

¹⁵ Burgesak Behe Erdi Aroko hiribildu berrietako biztanleak ziren eta merkataritza edota artisautza zituzten ogibide.

¹⁶ Paris, Salerno, Bolonia, Montpellier, Orleans, Oxford eta Palentziakoa (Espainiako lehenengo unibertsitatea, XIII. mendekoa).

¹⁷ Eskola horiei *Studium Generale* zeritzen. Goi-mailako ikasketen eskolak ziren; ematen zituzten gradu akademikoek nazioarteko balioa zuten; ez zeuden ez tokiko ez nazio-mailako agintariek ezarritako mugen mende (Redondo et al., 2010).

¹⁸ Lezioek hiru atal zituzten: i) *Lectio* edo testuak irakurtzea; ii) *Questio* edo analisia egitea eta irakasleari galdetzea; eta iii) *Disputatio* edo eztabaidan aritzea ikasgaiaren inguruan, dialektika lantzeko.

unibertsitateko irakaskuntzan erabiltzen zen hizkuntza ofiziala. Azterketak ziklo bakoitza amaitzean baino ez ziren egiten, titulua lortzeko. Ikasleak **fakultateetan** antolatzen ziren unibertsitatearen barruan. Nolanahi ere, azpimarratu beharra dago oso jende gutxi zuela eskura hezkuntza pribatu hura¹⁹ (Aguado, 2012).

Laburbilduz, XIV-XV. mendeetatik gaur arte iritsi zaizkigun dokumentu, idatzi eta grabatuetan ikus daitekeenez, orduko irakasleak bereziki ezgaiak eta ezagutza pedagogiko oso apalekoak ziren, oro har. Dokumentu eta idatzi horien arabera, ikasleei askotariko zigorrak ezartzen zitzaizkien: gauez kartzelatu, zartakoak egunero, ordu luzez lotu edo kateatu, etab. Metodo horiek baliatzen zituzten, seguru asko, eskola gehienetan ikasketa planak eta ikasteko bitartekoak oso murrizak zirelako. Haurrek ez zeukaten eskuizkriburik, ezta testulibururik ere; are, eskola askotan ez zegoen ezta mahairik ere (Bowen, 1992).

XV. mendean, inprenta eta papera agertzearekin batera bukatu zen Erdi Aroa. Izan ere, inprentak eta paperak berealdiko iraultza ekarri zuten ikuspegi kulturaletik eta, bereziki, hezkuntzaren ikuspegitik begiratuta: **jakintzaren zabalkunde unibertsala**.

1.1.5.-PIZKUNDEA ETA BARROKOA

Pizkundearen eta Barrokoaren garaian, XVI eta XVII. mendeetan, hezkuntzak aldaketa handiak izan zituen, bai alderdi teorikoetan eta bai praktikoetan. Hasteko, mende horietan eremu politikoan eta sozialean monarkiak sustraitu eta sendotu egin ziren, eta elizaren boterea, berriz, murriztu. Burgesiak gora egin zuen nabarmen eta burgesiaren interes soziopolitiko eta ekonomikoek aldean ekarri zuten hainbat balio eta jarrera aldatzea, egitura “feudal” zaharrak areago ahulduz. Burges berri horiek talde sozial berri bat osatu zuten, zeina herri xehearen eta aristokrazia lurjabearen bitartean kokatu baitzen; burgesek goiko eta beheko bi estamentu horien arteko aldea murriztu nahi izan zuten. Hain zuzen, aristokratak eta klase aberatsekoak izan ziren hezkuntza sustatu zutenak. Garai hartan, biztanle kopurua biziki ugartu zen eta, gainera, jendarte mugitzen hasi zen hezkuntza, gero eta gehiago, herritar guztientzat eskuragarria izan zedin. Ohargarri da alderdi artistikoek garrantzi handia hartu zutela hezkuntzaren eremuan, gai klasikoak berpiztu egin zirela eta, arte ederrei zegokienez, garai hura *urrezko aroa* izan zela.

¹⁹ Mezenasgorik ere bazen, hots, familia dirudunek babesaren ematen zieten baliabiderik ez zuten ikasle burutsuei.

XVI. mendean zehar balio handia eman zitzaion hezkuntzari; garaiko pentsalari eta “erudito” asko hezkuntzaz aritu ziren beren obretan. Aztergai izan zituzten hezkuntza prozesuaren urrats edo etapak, eta kontzeptu berriak sortzen ahalegindu ziren. Argi zuten hezkuntza oso prozesu luzea zela eta adinez oso umetan ekin behar zitzaiola. Garaiko adituek oparo idatzi zuten eskola, ikastetxe eta unibertsitateen inguruan, eta horien barne antolamenduak hobetzen saiatu ziren biziki. Metodologia nola hobetu ere izan zuten ikergai, hezteko metodorik onena nola aurki zitekeen, eta molde eta neurri berriak abiarazi zituzten ikasleen jakin-mina pizteko eta iraunarazteko. Askotariko pedagogia zerabilten, ikasten eta memorizatzen laguntzeko prozedura eta eskema mnemotekniko berrietan oinarriturik.

Aipatzekoa da, Redondo et al. (2010) autoreek adierazi bezala, garai hartan haurra bera hezkuntzaren subjektutzat —eta ez doktrinatzeko eta trebatzeko objektu soiltzat— hartzen eta ulertzen hasi zirela. Humanismoak ekarri zuen haurrak gehiago balioestea eta aintzat hartzea arlo guztietan, baina bereziki arlo intelektualean. Garaiko guraso askori ere esaten zitzaien betebeharririk garrantzitsuena beren seme-alaben hezkuntza zela. Nabarmenezkoa da humanismo pedagogikoak garrantzi handia ematen ziola, hezkuntza prozesuan barrena, zurruntasuna goxotasunarekin konbinatzeari, eta diziplina samurtasunarekin uztartzeari, betiere bai mehatxuak eta bai gehiegizko induljentzia edo barkaberatasuna saihestuz. Are gehiago, gogor kritikatzeko zen zigor fisikoak ezartzea eta behin eta berriz azpimarratzen zen erantzun eta jarrera zuzenak saritu egin behar zirela, eta hutsegiteak, aldiz, barkatu. Izan ere, humanismoak argiro bistaratzen zuen ikasketek zer ahalmen zuten gizabanakoa hobetzeko, perfektionatzeko. Horrexegatik, hain justu, hezkuntza ez zitzaion inori ukatu behar: ezta klase apaleneko norbanakoei ere.

Bestalde, papera agertzeak eta papera testuliburuak eta ohar koadernoak egiteko erabiltzeko lagundu egin zieten haurrei klasean modu aktiboagoan parte hartzen; horren eraginez, iraultza txiki bat gertatu zen antolamendu pedagogikoaren magalean XV eta XVI. mendeetan.

1540an, Inazio Loiolakoaren gidaritzapean, Jesusen Lagundia sortu zen. Hamar urteren buruan 35 ikastetxe baino gehiago zeuzkan Europan barna hedaturik; guztiek hezkuntza sistema bera zuten, garai hartako hezkuntza sistemarik egituratuena eta arautuena. Haatik, jesuitek ez zituzten indarrean jarri hezkuntza eremuko pentsalari berritzaileen ereduak.

XVI. mendean, nolabait ere irakaste-ikaste prozesua dibertsifikatzeko eta zabaltzeko joera sotil bat antzematen hasi zen, baina ez zegoen ikuspegi guztien adostasunik (Bowen, 1992).

Espainiari gagozkiola, XVII. mendearen lehen erdian, unibertsitateak dezenteko boterea eta itzala izan zuen gizartean; ez, ordea, prestigio zientifikorik. Unibertsitatean ikasita, familia ahaltsu eta ospetsuenetako kideek sarbidea izan zezaketen enplegu zibil eta politikoetan edo errege karguetan jarduteko. Sasoi hartan unibertsitateak nolabait ireki egin ziren eta horrek ahalbidetu egin zuen, irakaskuntza praktikoago eta errealistago baten bidez, corpus zientifikoa —neurri batean, bederen— gizarteratzea. Dena dela, “loraldi” hori ez zen bat etorri irakasleen eta ikasleen errendimenduari, zeina oso kaskarra izan baitzen (Capitán Díaz, 2002).

Kontuak kontu, Espainiako Humanismoaren baitan badira bi pertsona giltzarri, nahitaez nabarmendu beharrekoak: **Juan Luis Vives** eta **Antonio de Nebrija**.

Juan Luis Vives (1492-1540) pedagogo eta psikologoa bat etorri zen eskola gehiago sortzeko eta hezkuntza aukerak jendarte zabalagoari eskaintzeko korrontearekin. Hezkuntzaren esparruan hainbat proposamen egin zituen, hala nola: irakaskuntzak ikasleen gaitasunen arabera izan behar zuela, eta irakasleari zegokiola gaitasun horiek zein ziren hautematea *ebaluazioen* bidez²⁰; Vives-ek zioen hobetu egin behar zirela metodologiak eta ikasketa tradizionalak, eta hezkuntza egokitu egin behar zitzaizela ikasleei eta ikasleen gaitasunei. Hezkuntzak integrala izan behar zuen, eta jakitea izan behar zuen helburu praktikoa. Vives-ek irakaskuntzara egokitu eta moldatu zituen Erdi Aroko testuak eta latinaren ikasketa (Aguado, 2012).

Bestalde, iberiar penintsulan Humanismoaren ordezkari nagusia izan zen Antonio de Nebrija, 1492an, gaztelaniari zegokion lehenengo gramatika liburua idatzi zuen; eta 1495ean, berriz, gaztelaniaren lehenengo hiztegia. Bowen-en hitzetan (1992), Nebrijaren gramatika hura, orduko garaietan idatzia izanik, “*teknika pedagogiko berriaren eredu*” izan zen. Irakasteko moduak aldatzearen eta edukiak ikaslearen buru eta gaitasunetara egokitzearen aldekoa zen Nebrija. Horrez gain, ikaslea motibatzen zuten metodologiaren alde ere egin zuen, ikaslearen berezko tasunak eta bertuteak sustatzeko.

²⁰ Ebaluazioen aitzindaria izan zen. Vives-ek zioenez, irakasleak aldian behin elkartu egin behar ziren ikasleen gaitasunak ebaluatzeko.

Barroko garaia, XVII. mendea, absolutismoaren mendea izan zen, Borboien etorrerarekin. Zernahi gisaz, aurrerakuntza eta berrikuntza zientifiko handiak jazo ziren, besteren artean, Galileo Galilei-ren, Kepler-en eta Newton-en eskutik. Hezkuntzaren ikuspuntutik so eginda, mende haren ezaugarri nagusietako bat izan zen gobernuak babesa eman ziotela hezkuntzari. Gainera, ikasgeletako metodologia lehengo garaietakoa baino esperimentalagoa eta praktikagoa izan zen²¹; era berean, erlijioso ordena nagusiek oso arau zorrotzak ezarri zituzten zigor moduei zegokienez, zigorrak oso baliabide arriskutsuak eta kaltegarriak izan zitezkeela iritzita. Mende hartan, aipatzekoa da, halaber, Comeniok hezkuntzaren alorrean egin zuen lana. Comenio pedagogiaren aitatzat hartua izan da. Teologo, filosofo eta pedagogo hark ikasleen garapenaren etapak izan zituen aztergai; ikasleak adinaren arabera bereizi zituen, haien ikasketa prozesua biziagotzeko. Comeniok proposaturiko ikasketa metodoa, gainera, ikasketa zientifikoaren prozesu naturaletan oinarritzen zen: indukzioa, behaketa, zentzumenak eta arrazoimena. Adibide konkretuen bidez irakastea lehenesten zuen, ezen ez prozesu ideologikoen bidez. Comeniok honako hau nahi zuen: *“gauza guztien bitartez gizaki guztiei irakastea”* (Aguado, 2012: 102).

1.1.6.-XVIII. MENDEA ETA XIX. MENDEA

XVIII. mendeari Ilustrazioaren mendea ere deitu izan zaio (*Argiaren Mendea*). Garai hartan, aldaketa eta aurrerakuntza asko eta handiak gertatu ziren, bai artearen barrutian eta bai zientziarenean²². Bi dira orduko ingurumaria ulertzeko ideia funtsezkoak: *arrazoimena* eta *esperientzia*. Gizaldi hartan, aurreko mendean izandako aurkikuntzen aplikazio praktikoa bilatu zuten. Jean Jacques Rousseau frantziar filosofoa izan zen, garai hartan, hezkuntza eremuko teoriaririk nabarmenetakoa. Bere obran, ikasle bakoitza banaka tratatu behar zela proposatu zuen, baita naturaren behaketan oinarrituriko metodologia bigunagoak eta laxoagoak erabili behar zirela ere.

Espanian, **XVIII. mendeari Erreformen Mendea** ere deitu izan zaio. Hezkuntzari zegokionez, bi izan ziren berritasunik handienak: baterik, berdintasun printzipioa, eta, bestetik, hezkuntza sistemara sartzeko herritar guztiek zuten eskubidea. Garai hartan, itxi egin zituzten jesuiten lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeak eta, aldiz,

²¹ Enpirismoari zegokion autoreek —tarteetan Locke-k, Bacon-en eta Hume-k— proposatzen zutenez, ez zen ezein ezagutza onartu behar, esperientzian edo zientifikoki frogatzeko moduko egitateetan oinarriturikoa ez bazen.

²² Ilustrazioak mugimendu erreformista bat ernarazi zuen, zeinaren arabera hezkuntza bera baitzen, hain zuzen ere, erreforma horren funtsezko tresna. Garaiko ilustratuek kezka handia zuten hezkuntza zela eta (De Puellas, 2010).

Koroaren eta Borbonen kontrolpeko eskola laikoak sortu²³. Bestalde, nahiz eta agintariak unibertsitatea ere kontrolatu nahi izan zuten, garai hartan Espainiako unibertsitatea ez zegoen bere egoerarik onenean eta, ezbairik gabe, alde handia zegoen gizarte “ilustratuaren” eta unibertsitate “tradizional, zaharkitu eta modaz pasatakoaren” artean. Izan ere, hainbat eta hainbat kasutan berrikuntza zientifikoak unibertsitateaz bestelako eremuetan sortu ziren (ohartzekoa da, hala ere, gobernuaren esku hartzeak berrikuntza sakonak eragin zizkiola unibertsitateari ere) (Capitán Díaz, 2002).

De Puelles-en irudiko (2010), ilustratuek erreforma ekonomikoa eta herriko klasearen (klase xehearen) hezkuntza izan zituzten helburu²⁴. Hainbat ilustraturen ekintzak eta obrak herri xehea heztera zuzendu ziren (Ilustrazioaren aitzindarietako bat Feijoo izan zen, zeina guztiz interesaturik baitzegoen jakintza berriak zirela eta; behin eta berriz konparatzen zituen European gertatzen ari ziren aurrerakuntza zientifikoak eta Espainiako egoera). Ilustratuek suharki uste zuten hezkuntza publikoa eraginkorra zela eta gizartea hobetzeko eta aurreratzeko iturburua ere bazela. Hortaz, ahalegindu ziren hezkuntza horren edukiak eta materialak berritzen eta erreforma pedagogiko sakon bat egiten, beste helburu batzuekin batera jakintza berriak ere kontuan hartu zitezten: ekonomia, zientzia zehatzak, fisika, natur zientziak, marrazketa eta hizkuntza bizidunak, besteak beste.

De Puelles-en hitzak (2010:353) baliatuko ditugu: *“hezkuntza, XVIII. mendeko ilustratuen iritziz, gizarte erreformarako tresna eta nazio aurrerakuntzarako elementu ordezkazena zen; horregatik, erreforma ekonomikoari ekiteko eta gainbeherari aurre egiteko ahalegin guztiek hezkuntzan bat egiten zuten. Horrela, bada, ilustratuek hezkuntzaren kontzepzio dinamikoa zuten; itsuki uste zuten hezkuntzak baino ez zuela ekarriko nazioaren eraldaketa ekonomikoa”*.

Hala ere, jakitun ziren erreforma pedagogiko sakon bat egiteak egundoko lana eskatzen zuela. Batetik, lehenago ere esana dugunez, Espainiako gizarte estamentuen ezaugarriak zirela eta, ilustratuek ezin izan zuten unibertsitatea kontrolatu eta beraiekin batera lan egin zezan lortu (batez ere, Elizak unibertsitatean zuen boterea zela kausa); bestetik, oinarrizko hezkuntza guztiz urri eta erdipurdikoa zen. Horiek horrela, beharrezkoa zen ikasketa plan orokor bat abiaraztea, uniforme eta zentralizatua, lehen hezkuntzatik unibertsitaterainokoa. Horren harira, ordea, esan

²³ Carlos III.aren erreinaldian sortu ziren oinarrizko irakaskuntzako lehenengo eskola ofizialak.

²⁴ Elizak aurka egin zien, irmoki, erreforma horiei guztiei (De Puelles, 2010).

beharra dago ezen, nolabaiteko aldaketak egin bazituzten ere, ilustratuek ez zutela erreforma osoa egitea lortu (De Puelles, 2010).

Gure ikusmira Europara zabalduz gero, Tiana, Ossenbach eta Sanz autoreekin (2002) bat gatoz esatean Frantziar Iraultzak biziki eragin ziola Europako hezkuntzari: izan ere, gizarte eta hezkuntza laikoagoa lortzeko joera argiro bistaratu zen (nahiz eta horrek ez duen esan nahi eskoletan erlijiozko edukiak desagertu zirenik); Estatuak bere gain hartu zuen hezkuntzaren kontrola; hezkuntza gaiak eta arazoak gero eta gehiago politizatu ziren; eta kulturaren mugak eta ertzak aldatu egin ziren, herritar guztien eskubidetzat jo baitzuten hezkuntza.

XIX. mendean, Espainiako lehenengo Konstituzioa aldarrikatu zen 1812an. Hezkuntza kontuei zegokienez, lehen aldiz ahaleginak egin ziren hezkuntza progresista bat ezartzeko, honelako hitzak ahotan hartuta: hezkuntza **osoa**, **berdintasunezkoa**, **uniformea**, **unibertsala** (denentzako), **doakoa**, **librea** edo **askea**²⁵, **publikoa** eta gaztelaniaz emana²⁶. Era berean, Konstituzioan jaso zen herri guztietan lehen letretako eskolak ezarriko zirela, haurrei irakurtzen, idazten eta zenbatzen irakasteko, eta, horrez gain, unibertsitate eta bestelako ikastegi ugari ere sortuko zituztela (Tiana et al., 2002).

Ondorioz, hezkuntza publikorako lege orokor bat sortzeko kezka eraginda, liberalek asmo horri eskaini zioten Konstituzioaren IX titulua. Bertan, artikuluko batek zioen herri orotan lehen hezkuntzako eskolak ezarri behar zirela derrigorrean (horrek lehen hezkuntzaren unibertsaltasuna zekarren aldean); beste artikuluko batean, irakaskuntzaren uniformetasunaren berri jaso zuten. Beste batean, adierazpen askatasuna ezarri zuten; eta beste artikuluko batek ere nabarmen erakusten zuen liberalentzat zein garrantzitsua zen hezkuntza; izan ere, ezarri zuten hezkuntzaren inguruko eskumen gorena Gorteei zegokiela, ezen ez Gobernuari (De Puelles, 2010).

Bi urte geroago, ordea, monarkiarik absolutu, anakroniko eta itxiena berrezarri zen indarrean, zeinak hiltzeko asmoz jazarri baitzituen liberalek eta bertan behera indargabetu baitzuen 1812ko Konstituzioa; halatan, beraz, erreformak burutzea galarazi zuen, hezkuntza (bereziki, oinarrizko hezkuntza) Elizaren eskuetan utzi zuen berriz, hezkuntza tradizionalari heldu zion atzera, eta, horrenbestez, baztertu egin ziren ikasketa planak eta irakasteko metodologiak modernizatzekeo ideia eta lorpen haiek,

²⁵ Geroago, liberalismoa Espainian erabat finkatu zenean, adierazpen askatasunari zegokion irakaskuntza askatasun hark aldean ekarri zuen katedra askatasuna (De Puelles, 2010).

²⁶ Ilustratuek lortzerik izan ez zuten amets hura zen: hezkuntza plan orokor eta publikoa, alegia (De Puelles, 2010).

nahiz eta, aurrerago, etorkizuneko beste erreforma batzuen oinarri izateko baliagarri izango ziren.

Hala, handik urte batzuetara, Espainian gizartearen gehiengoa erabat analfabetoa zela, liberalismoak agintea hartu eta Cádizeko Konstituzioa berrezarri zuen; eta, testuinguru hartan jaio zen, De Puelles-en (2010: 71) esanetan, *“izaera liberaleko hezkuntza egitura berri bat sortuko zuen lehenengo lege testua: 1821eko ‘Reglamento General de la Instrucción Pública’ [...] era horretan, herrialdeari lehenengo legea eman zitzaion hezkuntza egitura moderno bat ezartzeko, gailen ziren printzipio liberalekin ados”*.

Lege horrek bai irakaskuntza publikoa eta bai erakunde pribatuetako irakaskuntza ere arautzen zituen. Hortaz, hezkuntzaren eskumena Gorteek hartu zuten berriro, eta, halaber, berriz ere zabaldu eta indartu egin zen hezkuntza publikorako plan orokor bat ezartzeko ideia.

Lege horretan, lehenengo aldiz eta berritasun gisa, ikasketak hiru ziklo edo gradutan banatu ziren (lehenengoa, bigarrena eta hirugarrena) eta nolabait “ordenatzea” lortu zen. Legez ezarri zen 100 biztanle baino gehiagoko herri guztietan eskola publiko bat izan behar zela, lehenengo zikloa emateko. Bigarren zikloa “probintziako unibertsitate” deituriko erakundeetan ematen zen (probintzia bakoitzean gutxienez halako bat); ziklo horretan, hirugarren ziklorako behar ziren ezagutzak emateaz gain, bazen berritasun bat ere: bigarren hezkuntza hori ezinbesteko eta giltzarri jotzen zen bere horretan, “nazio baten zibilizazio orokorarentzat”. Hirugarren zikloan, lanbide batean jarduteko premiazkoak ziren ikasketak ematen ziren (De Puelles, 2010).

Horrez gain, kontuan hartu behar da, halaber, liberalek ahalegin handia egin zutela doako hezkuntza lortzeko; baina, ezinezkoa izan zitzaien zeharo; are, lehenengo zikloa doakoa izatea ere ez zuten erdietsi.

Dena dela, aipatzekoa da, oro har, 1821eko lege hura ez zutela begi onez ikusi ez sektore absolutistak ezta sektore liberalak ere.

Horiek horrela, 1821. urtetik aitzina hurrengo hamarkadetan hezkuntza publikoari zegozkion hainbat eta hainbat proiektu, erakunde, plan eta araudi onartu ziren²⁷, harik

²⁷ Plan horien guztien artean, aipagarri dira, besteak beste, handik urte gutxitara onartu zen Calomarde-ren Hezkuntza Plana, Rivas-eko Dukearen Plana (1836), Someruelos-en Proiektua (1838), Infante-ren Proiektua (1841), Pidal Plana (1845) eta beste hainbat (De Puelles, 2010).

eta, 1857ko uztailaren 17an, **Moyano Legeak** (Hezkuntza Publikoaren Legeak) hezkuntza eredia finkatu eta egonkortu zuen arte.

Sevillak (2007) adierazten duen bezala, Moyano ministroak beharrezko jo zuen ordu arteko lege anabasa nolabait ordenatzea eta, urtebeteren buruan, adostasuna lortu zuen hezkuntzak egonkortasun juridikoa izan zezan, etenaldi politikoak gorabehera. Moyano Legeak posibilismoaren aldeko apustua egin zuen, eta uko egin zien originaltasunari, berrikuntzari eta modernizazioari.

Garridok (1979) dionez, Moyano Legea baino lehenago Espainian % 80tik gorakoa zen analfabetismo maila. Eskolarako adina zuten haurren erdiak ez ziren eskolara joaten; lehen hezkuntzako irakasleen % 42k baino gehiagok ez zuten titulazio espezifikorik; eta ikastetxeen % 60k baino gehiagok ez zeukaten ez material tekniko ez arkitektura egokirik.

Lege horren bitartez, sistema osoa zentralizatu egin zen; Estatuak hartu zuen hezkuntza maila guztien eta irakaskuntza osoaren gaineko kontrola²⁸. Azpimarratzeko modukoa da ezen, Moyano Legeaz geroztik, lehenengo hezkuntza mailak derrigorrezko izaera hartu zuela 6-12 urte bitarteko haurrentzat. Horrez gain, honako ezaugarri hauek ere nabarmentzekoak dira: a) lehen hezkuntzaren doakotasuna; b) hezkuntza publikoaren zentralizazioa; c) goi-mailako ikasketa teknikoak eta ikasketa profesionalak hirugarren mailako hezkuntzan barneratzea; eta d) hezkuntza pribatuari zegozkion ikasketak ere aintzat hartzea edo horiei ere aitortza ematea (Capitán Díaz, 2002).

Esan beharra dago bigarren hezkuntza ez zela doakoa (Diputazioen eta Estatuko unibertsitateen mendekoa zen); legearen arabera, bigarren hezkuntza hura hezkuntza elitista zen, unibertsitatera sartzea lor zezaketen lagun apurrak hautatzera bideratua.

Unibertsitatean, gorengo mailako ikasketak eskaintzen ziren. Unibertsitatea Fakultateek eta Goi Eskola Profesionalek osatzen zuten.

Gainera, Moyano Legeak irakaskuntza askatasuna mugatu zuen, eta uniformetasuna ezarri. Ez zuen ezer utzi menturaren eskuetan eta zorrotz murriztu zuen hezkuntza sisteman aritzen ziren agenteen askatasuna. Gobernuak ezartzen zituen ikasgai guztien egitarau orokorrak, baita testuliburuak zehaztu ere. Horrez gain, Eskola Normalak ere

²⁸ Finantzaketari zegokionez, Estatuak goi-mailako ikasketak eta ikasketa profesionalak baino ez zituen finantzatzen. Lehenengo maila udalek finantzatzen zuten; eta bigarren maila, berriz, probintziako agintariek (Tiana et al., 2002).

aurreikusi zituen, hots, lehen hezkuntzan eskolak emango zituzten irakasleak hezteko eta gaitzeko ikastetxeak (geroago, Institutuetako irakasleak ere prestatuko zituzten). Are gehiago, legez, probintzia bakoitzak halako Eskola Normal bat izan behar zuen nahitaez (Sevilla, 2008).

Ondorio modura, ohargarria da ezen, Moyano Legeak urte luzez iraun bazuen ere²⁹, hezkuntzaren aurrerabidea ez zela oso handia izan. Gainera, baliabide ezak lege hartan jasotako hainbat printzipio indarrean jartzea nabarmen geroratu zuen. Beraz, egiatan, lege hark ez zuen lortu Espainiako analfabetismo hazkorra geldiaraztea. Izan ere, lege hark ez zuen ahalmen nahikorik hezkuntza sistema aldatzeko. Baike, premiazko ziren baliabide gehiago, irakasleak prestatzea, pentsamendua aldatzea, ohiturak aldatzea, hezkuntza kultura aldatzea, etab. Eta halakorik ez zen jazo, inola ere (Sevilla, 2008).

1.1.7.-ONDORIOAK

Aurretik aipatu dugun guztia kontuan izanik, ondorio gisa esan genezake ezen, historian zehar XIX. mendea arte, hezkuntza eremuko ideia eta praktika gehientsuenetan nabarmen ageri zirela zenbait alderdi edo elementu. Gogora ekar ditzagun.

Egindako azterketa kronologikoan bistaratu dugun legez, aurreneko eskolak oso gizarte simple eta bakunetan sortu zituzten; gizarte haietan, familia, Eliza eta ingurune hurbileko erkidegoa giltzarri (eta, are, aski) izan ohi ziren hezkuntza lanak egiteko. Kasu askotan, instituzio horiei —eta ez eskolari— zegokien hezkuntzaren ardura. Izan ere, orduko anitz lanbidetan aritzeko ez zen beharrezkoa izaten eskola arautu batean ikastea; familiak edota gertuko erkidegoak ematen zituzten lanari ekiteko oinarritzko hastapenak. Hartara, familiari berebiziko pisua zegokion hezkuntzan; familiak bermatzen zuen ikasleek behar zuten oinarri kulturalaren zatirik handiena.

Horrez gain, aipatzekoa da, halaber, kulturaren eta hezkuntzaren produkzio eta erreprodukzio moldeetan nagusi zela zurruntasun instituzionala. Izan ere, gizarteak eta munduak aurrera egiten zuten noranzko batean; eskolak, aitzitik, zurrun eta geldi zirauen, ez atzera ez aurrera.

²⁹ Izan ere, 1857tik 1970 arte Espainian ez zen izan beste hezkuntza publikoaren lege orokorrik; eta, epealdi luze hartan zenbait aldaketa izan bazituen ere, lege haren espirituak bere hartan eta indarrean jarraitu zuen (Tiana et al., 2002).

Nolanahi ere, hasieratik bertatik eta gizaldiz gizaldi, hezkuntza eliteari baizik zuzendu ez bazitzaion ere, mendeak igaro ahala (eta, zehazki, XIX. mende bukaeran) nahikoa adostasun lortu zen bestelako hezkuntza bat ezartzeko: hezkuntza unibertsala, derrigorrezkoa, berdintasunezkoa, doakoa eta libre.

Historian barrena, garairik garai, eskolan lan egiteko moduek eta espirituak antzekotasun handiak izan zituzten. Mendez mende, gure azterketa historikoa amaitu arte (XIX. mende bukaeran), argi dakusagu ikasleek oinarrizko gaitasunak baino ez zituztela lantzen irakurketan, idazketan eta beste diziplina batzuetan, baina betiere memorizatzean edo buruz ikasteen oinarrizko metodologiaren bidez (maizenik, ulertzen ez zituzten lezioak behin eta berriz errepikatuta); irakasleak, gainera, ez zituen kontuan hartzen ez ikasleen interesak, ez haien ekarpenak, informazio eta ezagutzen transmisore huts bihurturik. Hori guztia, noski, ikasleen mendekotasun eta esanekotasun testuinguru zorrotz batean jazotzen zen, zigor fisikoak tarteko. Irakaskuntza metodoaren muina oso luzaroan jarraitu zuen dogmatikoa izaten, eta errepikakorra, memorian funtsatua, goitik beherakoa (ikasleek ezagutzarekin zuten harremana norabide bakarrekoa baitzen), instrukzioan oinarritua, autoritarioa, ikasleentzat pasiboa, irakaslea eta haren ezagutzak ardatz hartzen zituena eta testuliburua giltzarri zuena.

Oro har, garairik garai, hezkuntzara oso baliabide gutxi bideratzen ziren eta hezkuntzan ziharduten agenteek ez zuten ia batere askatasunik izaten; orduko gizarte haiek erlijiosoak izaten ziren oso, eta, nagusiki, eskolagabeak eta analfabetoak (hezkuntza oso lagun gutxiren eskura izaten zen, eta lagun apur haiek elizarekin edota agintean zirenekin lotura izaten zuten, gainera).

XIX. mendean gertatu ziren gatazka sozialek, ordea, hezkuntza munduari ere eragin zioten, eta, hala, bilakaera pedagogikoak berak ere bultzatuta, hainbat eztabaida piztu ziren ikasle kopuru handiak hezteko metodorik egoki eta eraginkorrenei zegokienez. Testuinguru hartan, hainbat talde eta korrante pedagogiko agertu ziren eredu tradizionalaren ordeko edo alternatiba gisa, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala.

1.2.- XX. MENDEAK UTZITAKO ONDARE PEDAGOGIKOA

1.2.1.-SARRERA

Hezkuntza, jakina denez, interes orokorreko gai edo auzia da Estatuarentzat eta gizartearentzat bere osotasunean; izan ere, hezkuntzak berebiziko garrantzia eta eragina du pertsona bakoitzaren garapenean, baina, horrez gain, zeinahi herrialderen garapen, aberastasun eta ongizaterako abiapuntua ere bada hezkuntza. Hala eta guztiz ere, hezkuntza oso bitarteko ahaltua denez pertsonen pentsamoldea kontrolatzeko, agintari politikoek ez zuten batere interesik izan, XIX. mendea bukatu edo XX. mendea hasi arte, gutxi gorabehera, herritarrek hezkuntza maila onargarria izan zezaten, ez beren kabuz pentsatu zezaten, ez aztertu, ez galdetu, ez auzitan jarri edo, azken batean, ezta uler zezaten ere zer egoera bidegabe eta gaitzesgarritan bizi ziren; hots, zein bidegabeak eta gaitzesgarriak ziren herritar xeheen morrontzak eta abusuak, batetik, eta goiko lagun gutxi haien pribilegioak, bestetik (Macías, 2009).

XX. mendean baino ez zen lortu, halako batean, hezkuntzaren eremuan historian zehar mendez mende irrikaz bilatu izan zen helbururik handienetako bat: derrigorrezko eta doako hezkuntza hedatzea lehen eta bigarren mailetara.

XX. mendean Espainian izan ziren gertaera historiko berezien (besteren artean, Bigarren Errepublikaren eraistearren, Gerra Zibilaren eta Francoren Diktaduraren) ondorioz, Espainiako hezkuntza ereduen bilakaera ez zen bat etorri izan Europakoekin. Gainera, XX. mende hasieratik gaurdaino, Espainian hezkuntza sistemaren aldaketen aurretik aldaketa politikoak gertatu izan dira; eta, horren harira, ohartzekoa da XX. mendean, Espainian, nagusi izan zela ezegonkortasun politikoa, eta, hedaturaz, hezkuntza sistema ere aldatu egin zen etenik gabe behin eta berriz³⁰ (Aguado, 2012).

Hurrengo azpiataletan, modu kronologikoan aztergai izango ditugu, batetik, XX. mendean izan ziren ikuspegi pedagogiko berritzaileenak (egungo hezkuntza erduei gehien eragin dietenak), eta, bestetik, mende horretako pedagogorik nabarmenenak (John Dewey, Francisco Ferrer Guardia, María Montessori, Ovide Decroly, Kurt Hahn, Jean Piaget, Lev S. Vygotsky, Célestin Freinet, Paulo Freire eta Ivan Illich). Jakina,

³⁰ XX. mende hasieran ezegonkortasun politikoa hainbestekoa izan zen, non, 1902-1923 bitartean, bata bestearen ostean 39 presidente izan baitziren gobernuan eta 53 ministro, berriz, instrukzio publikoaren alorrean (De Puellas, 2010).

ekarpen esanguratsuak egin zituzten beste autore batzuk ere aipatu genitzake, baina gure azterketa gehiegi ez luzatzeko, esandako horiek baino ez ditugu aintzat hartuko.

1.2.2.-XX. MENDEAREN AZTERKETA KRONOLOGIKOA

1.2.2.1- INSTITUCIÓN LIBRE DE ENSEÑANZA

Institución Libre de Enseñanza (ILE) zelakoak itzelezko garrantzia izan zuen Espainiako hezkuntzaren historian. ILEren ideiak, printzipioak eta metodologia oso aurreratuak izan ziren hezkuntza tradizionalaren aldean eta, are, gaur egun nagusi denaren aldean.

ILE hura 1876ko urriaren 29an sortu zuten irakasle katedradun zenbaitek; katedradun haiek zapuztuta eta minduta zeuden garaiko instituzio publikoekin eta irakaskuntza bideratzeko neurriekin; gainera, Madrileko unibertsitate publikoak kanporatu egin zituen katedradun haiek, Orovio Ministroaren dekretua betetzeari uko egin ziotelako³¹ eta katedra askatasunaren aldekoak zirelako (Europako beste unibertsitate batzuen ereduari jarraiki). ILE haren arima **Francisco Giner de los Ríos (1839-1915)** izan zen, eta, harekin batera, baita **Manuel B. Cossío (1857-1935)** ere.

ILE hura muineraino busti zuen krausismoak; batik bat, krausismoaren hezkuntza grinak eta hezkuntzaren bidez gizakia eraldatu zitekeelako sinesmen kartsuak. Krausismoa, izan ere, kontra egiteko mugimendu bat izan zen, protesta egiteko jarrera bat. Oinarri hauek zituen: zientzia askatasuna, bizikidetzaren bermatzeko tolerantzia, europar pentsamolderako irekitasuna eta, ondorioz, hezkuntzaren bitartez gizakia eraberritu nahia. Eta, esana dugunez, Europan bezala Espainian ere azaldu zen krausismoa, nahiz tokiko berezitasunekin izan; garai hartan Europa osoan, oro har, liskarrean izan ziren, batetik, Eliza (eta, orobat, hezkuntzari zegokionez, “tradizionalak”, beren eskubideak defendatzen zituztenak), eta, bestetik, mundu moderno baten gidaritzaren hartu nahi zutenak (hezkuntza kontuetan “berritzaileak”)³². Berritzaile haiek Giner de los Ríos-en inguruan bildu ziren eta, eraberritze pedagogiko baten bidez, Espainia eraldatzea izan zuten helburu (De Puelles, 2010).

³¹ 1875ean Errege Dekretu bat ezarri zuten; Orovio ministroaren hitzetan, garai berri baten hasiera zen. Dekretu hartan, katedra askatasunari muga zorrotzak ezarri zitzaizkion, derrigorrean bete beharreko printzipio erlijiosoak inposatu zituzten, baita irakaskuntzan diziplina, zorrotasuna eta ordena areagotzeko neurriak ere (De Puelles, 2010).

³² Tradizionalak batasun katolikoaren aldekoak ziren, irakaskuntza konfesionala nahi zuten, intrantsigentziakoa Espainia itxia zuten helburu, isolatua eta bere baitan bildua. Berritzaileek, aldiz, Espainia laikoa nahi zuten, tolerantea, Europara eta mundu modernora irekia (De Puelles, 2010).

ILE hura proiektu pedagogiko berritzaile bat izan zen, hirurogei urtez iraun zuena eta hezkuntza hobetzeko eta gizarte osoan barrena zabaltzeko helburua izan zuena. Giner de los Ríos-en beraren esanetan, *“Instituzioa, hasieratik beretik, erreforma pedagogikorako instituzio bat izan da [...] ez du helburu irakastea soilik, horrez gain erkidegoarentzat baliagarriak izango diren gizabanakoak prestatzen ere laguntzen du”* (Molerok aipatua, 2000: 66, 76).

ILEk, bada, berritzea bilatu zuen; espainiar eraberritze eta erreformismo pedagogikoaren programaren baitan txertatu zen³³. Irakaskuntza ez konfesionala zuen xede, eta oinarri hartu zituen pedagogiaren korrante berriak, zientzia askatasuna, tolerantzia eta Europarekiko hartu-eman (Garrido, 1979).

ILEko kideek hezkuntza lanetan jarraitu zuten, horretarako ikastetxe pribatu eta laikoak eratuz; hasieran goi mailako hezkuntzarako sortua izan bazen ere, laster batean gehitu zitzaizkion haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza ere (baiki, aitzindarien eta kideen aburuz, hezkuntza programa erreformista batek lehen mailatik abiatu beharra zuen, nahiz eta unibertsitatea alhora utzi ez).

ILEk aldarrikaturiko hezkuntza printzipioen artean, bereziki nabarmendu zen hezkuntza **osoa** edo **integrala** bermatzea, haurren gaitasun oro (bai fisikoak, bai intelektualak) garatzea (eskola tradizionalan egiten zenaz oso harago, hots, ezagutzak pilatze hutsaz oso harago). Ez zuten balio, hortaz, ordu arte erabilitako eta memorizatzean funtsaturiko metodologiek; irakaskuntzak **eguneroko bizitzako esperientzietan** oinarritu behar zuen, ikasleari irakasteko zer eta nola ikusi eta egin, ingurunearekin eta naturarekin zuzeneko harremana izanik. Era berean, ILEk bazuen beste oinarritzko kontzeptu bat ere: **neutraltasun aktiboa**, ikasleek beren kasa erabaki eta hautatu zezaten, inork inolako ideologia, dogma edo iritzi politikorik inposatu gabe. Horiez gain, beste kontzeptu garrantzitsu bat **hezkuntza aktiboa** zen, ikasleek une oro eta modu dinamikoan parte har zezaten beren irakaste-ikaste prozesuan (hartzaile huts izan gabe). Aipagarri da, halaber, ILErentzat zein pisu handia zuen **heziketa fisikoaren eta moralaren arteko harremanak**. Funtsezkotzat zituen, baita ere, **hezkuntza soziala** (biziki azpimarratzen zuen familia-eskola harremana) eta **ko-hezkuntza**³⁴ (Otero, Navarro eta Basanta, 2013).

³³ Hezkuntzaren bidez gizartea sakonki eraberritzeko asmoz jaio zen ILE; diziplina gisa pedagogian fidatzen zen, norbanakoen eta erkidegoaren hobekuntza kulturala segurtatzeko (Escolano, 2002).

³⁴ Hezkuntza metodo bat da, sexuen arteko berdintasunetik abiatzen dena eta sexu bereizkeria oro desagerrarazten duena. Ko-hezkuntzak esan nahi du ez dela sexuen artean inolako morrontzarik edo

ILEk xede zuen gizaki libreak eta konprometituak sortzea, Estatu eraberritzeko lanetan murgildu zitezten. Hala, ILE izan zen European garatzen ari ziren teoria pedagogiko eta zientifiko berritzaileenak Espainian barneratu zituen hezkuntza instituzioa. ILEren metodoak bat etorri ziren eskola aktiboari zegozkion metodoekin³⁵; hezkuntzari lehentasuna eman zion irakaskuntzaren gainetik, indarkeriaren ordeztasunaren parte-hartze librea sustatuz³⁶. ILEk ezarritako zenbait arau metodologiko zeharo adierazgarriak iruditzen zaizkigu: ez zegoen azterketarik ez testulibururik; ez zegoen eskoletara (klasera) zertan joan, derrigorrez; klaseen funtsa ikasleentz eta irakasleentz arteko etengabeko elkarrizketetan zetzan, eta ez klase magistraletan eta instrukzio formalean³⁷; errealitatea zuzenean aztertzen zen; ikaslearen intimitatea eta autonomia zorrotz errespetatzen ziren, etab. (Aguado, 2012).

ILEren filosofiaren nondik norakoak hobeki ulertzen laguntzeko, hona hemen, adibide gisa, ILEren kide ziren irakasle batzuek 1882ko Nazio Kongresu Pedagogikoan aurkeztu zituzten zenbait ondorio eta proposamen (Molero, 2000):

- i) Hezkuntzak derrigorrezkoa izan behar du guztientzat, eta doakoa izan behar du hura ordaindu ezin dutenenentzat.
- ii) Hezkuntzak integrala, harmonikoa eta progresiboa izan behar du. Gainera, egungo irakaskuntza programa zabaldu egin behar da, bere baitan hartu ditzan kantua, marrazketa, gimnasia, zuzenbidea, soziologia eta artea ere.
- iii) Irakasgai guztietan erabili behar da intuizioa, era batean edo bestean. Metodo hori erabiltzeak eskatzen du eskolaren gabeziak bete egin behar direla eskola museoen bidez.
- iv) Dagokion funtzioa egoki betetzeko, irakasleak gaur egun duena baino askoz autoritate eta askatasun handiagoa behar du.

mendekotasunik ezartzen; aitzitik, parean eta baldintza berberetan kontuan hartzen dira emakumeen eta gizonezkoen historia eta errealitatea, ezberdinak izanik ere berdintasunean hezteko.

³⁵ Eskola aktiboa ezin dugu hartu ekintzarik gabeko mugimendu gisa; eskola aktiboak izan behar du *“pentsamendua ekinean edo pentsatzen duen ekintza. Irakasleak egiazki parte hartu behar du bere hezkuntza ibilbidean. Beste pertsona batzuek esperimenterik egitateak biltegitzen dituen izaki baten inertzia errepikakorrean ezkutatzetik oso urruti, aurkikuntzaren ikurtzat hartu behar da ekintza”* (Molero, 2000: 82).

³⁶ Molero-ren arabera (2000), ILEk ez zuen irakastea soilik bilatzen; areago, horrez gain, irakasleak hezteko xede zuen. Izan ere, helburua ez zen irakasleak prestatzea etorkizunean lanbide onak izan zitzaten; helburua zen irakasle horiek gai izan zitezten, helduarora iristean, beren burua egoki gidatzeko bizitzan barrena. Hezkuntza ez zen, hortaz, ezagutzak transmititzeko bitarteko huts; ILEk nahi zuen irakasleak gai izan zitezten inguruko munduaz gogoeta egiteko modu autonomoan; ILEk, benaz, gizakia osatzeko edo borobiltzeko jardueratzat zekusan hezkuntza.

³⁷ Hitzaren erabilerak, ahozkotasanak, estilo sokratikoak... horiek guztiek ezaugarritzen zuten ILEren praktika (Molero, 2000).

Molero (2000) autorearen esanetan, ILEk, askotariko jardueren bidez, gizartea eraldatzeko eta gizabanakoa hobetzeko bide bakartzat zekusan hezkuntza; ondorioz, hezteko ekintza osoak, integralak eta integratzaileak bilatzen zituen, nortasunaren alderdi guztiei eragiteko, pertsonari bere osotasunean eta adierazpide guztietan eragiteko, betiere sormenaren eta etikaren gidaritzapean³⁸. Hezkuntza ekintza orok autonomia pertsonala bultzatu behar zuen, ingurunearekin estu loturik. ILEk helburu zuen zuzeneko ikasketa, gauzen iturritik beretik ikastea, alegia.

ILEren aldekoek, tartean **José Castillejo (1877-1945)** irakasleak, argi zioten premiazkoa zela autogobernu pertsonala, ikaslea bere hezkuntzaren jabe eta arduradun izan zedin, baina berak hala nahita, ez kanpoko arauak betetzearren. Irakaslearen lana, jakina, beharrezkoa zen irakaste-ikaste prozesuan, baina ezagutza transmisore huts izateari utziz eta irakasle-tutore-gidari jardunez, ikasleari laguntzeko ikasketa ibilbidean sortzen ziren arazoei aurre egiten. Castillejo irakasleak ere sutzuki defendatu zituen irakaskuntza askatasuna, laneko metodo aktiboak, ko-hezkuntza, tolerantzia, elkarriketa, lan pertsonala eta eztabaida irekiak.

Cossío-ren irudiko, hezkuntza eremuko agente nagusia ez zen irakaslea edo hezitzailea, baizik eta ikaslea bera. Irakasleak bitartekari lanak egin behar zituen irakaste-ikaste prozesuan, ikasleari ezagutzak bereganatzen laguntzeko. Cossío-ren iritziz, ez zen hain garrantzitsua ikasleek *zer* ikasten zuten (kontzeptua); garrantzitsuena zen *nola* ikasten zuten (metodoa). Haren hitzetan, “*gizaki landu batek bereganatzen duen jakinduriaren hiru laurden, gutxienez, ez du liburuetan ikasten, ezpada gauzak ikusten, hots, ikusten jakiten*”. Munta handiko ñabardura zen hura, funtsezkoa baitzen ikasleak errealitatea ikusten jakitea; ikasleari utzi egin behar zitzaion era espontaneoan ikertzen eta gauzak bere kabuz aurkitzen edo deskubritzen. Kontua ez zen datuak eta ezagutzak biltzea eta besterik gabe pilatzea, baizik eta ikasleak modu intuitiboan jokatu behar zuen gauzen muinaz jabetzeko gai izan zedin (Molero, 2000: 99).

Jarraian, agerian jarriko ditugu ILEk hezkuntza prozesuan baliatzen zituen metodologia originalenak eta nabarmenenak (Molero, 2000: 100-113):

³⁸ Horretarako, ikasgai tradizionalaz gain, honako beste hauek ere txertatu zituen: soziologia, laborategiak, tailerretan oinarrituriko teknikak... (Molero, 2000).

A) Txangoak eta bisitak

ILEn ohikoak ziren halako jarduerak (eskola ibiltari edo mugikorrei peto-peto zegozkienak). Garrantzizkoa ez zen ikastetxearen barruan gertatzen zena bakarrik; handik kanpora ere atera beharra zegoen, ikastetxearen mugaz bestaldera, errealitatean gertatzen zena zuzenean ezagutzeko. ILEk harrotasunez zioen aitzindari zela hurbileko errealitatea eskolako ohiko jardueretara ekartzen.

Txangoak eta bisitak lau eratakoak izaten ziren: ❶ geografikoak eta naturalistak, ❷ artistikoak eta historikoak, ❸ instrukziozkoak eta zientifikoak, eta ❹ teknikoak eta industrialak.

B) Jokoak eta kirolak

Heziketa fisikoa bultzatzea izan zen ILEren beste berritasun bat. Izan ere, heziketa fisikoa ezinbestekoa zen, ILEk helburu zuen hezkuntza integrala erdiesteko.

C) Laborategiak eta tailerrak

ILEren eskola programak bere baitan zituen laborategiei eta tailerrei zegozkien jarduerak ere (fisika, kimika, lorezaintza, teknologia, etab.). ILEk etengabeko jarduerak eta esperientzia praktikoa sustatu ohi zituen, teoria indartzeko eta alderdi kontzeptualak hobeki ulertarazteko. Jarduera horiek modu aktiboan lagundu behar zioten ikasleari ezagutzak bereganatzen. Jarduerok burutzeko, ILEk bere baliabide propioak erabiltzen zituen gehienbat, baina sarritan kanpoko erakundeen eta enpresen laguntza ere izaten zuen.

D) Bizipen estetikoak

Artea ere oinarrizko zutabea zen ILEren magalean. Eskola programaren baitan ohikoa zen artelanak zuzenean ikustera joatea (museoak, natur baliabideak, etab.); baina areago egin eta harago jo zuen: ILEren barruan artea *bizi egiten* zen. Gainera, ILEk artetzat eta artelantzat ez zituen soilik hartzen ohiko areto egokituetan ikusgai izaten zirenak; horiek ez ezik, ikasketa plan tradizionaletan agertu ohi ez ziren lekuetako artea eta artelanak ere erakusten zituzten ILEn. Cossío-ren aburuz, funtsezko ziren kultura estetikoak, gustuaren garapena, edertasunaren sena edo zentzua, edertasuna sortzeko irrika, etab. (esate baterako, landa eremuan bizi zen herritar batekin hitz egitea, basoan barna


txango bat egitea, hiriko kaleetan ibiltzea arkitekturari miraz so, eta gisa horretakoak).

E) Eskola erregimena

Lehenago ere esan dugunez, azterketak erabat ezabatzea izan zen ILEren ezaugarri nabarmenetako bat, azterketak ezartzen zituen sistemari berari galtzaile eta ustelgarri zeritzolako. Gainera, ILEko kideen iritziz, azterketetan funtsaturiko sistema tradizionalak ez zuten ezer berritzen uzten. Horrekin batera, ILEk kritikatu eta kolokan jarri zuen ezagutzaren iturburu bakarra testuliburua zelako ideia. ILEk helburu zuen hezkuntza integrala erdiesteko, ezin zen oinarri dokumental batean funtsatu; askotariko iturriak arakatu behar ziren (oharrak hartzea, ikasleek beraiek egindako kaierak, etab.). ILEn zerabilten metodologiak “aurkikuntzan” zuen funtsa, eta lehentasuna ematen zien hausnarketari, jakin-minari eta datu berriak bilatzeari. ILEn etxeko lanak desagerrarazi zituzten; ezabatu egin zuten, halaber, ikasleak berak nolabait bizi izan ez zituen egitateak modu mekanikoan errepikatu beharra ere (Molero, 2000).

Jarraian, laburpen moduan, II.1.1. irudian jaso ditugu ILEren printzipio pedagogiko eta alderdi metodologiko nagusiak.

II.1.1. irudia: ILEren printzipio pedagogiko eta alderdi metodologiko nagusiak



Iturria: Guk geuk egina, Molero (2000) oinarri harturik.

Aurreko taulan jasotakoa ez ezik, BILE zeritzan buletin edo aldizkaria ere nabarmentzeko modukoa da; ILEk argitaratzen zuen, bere egunerokoan burutzen zituen askotariko jardueren berri emateko. Gure ikerlanaren ikuspegitik begiratuta bereziki esanguratsu eta interesgarri izan daitekeela iritzita, ILEko ikasleek eta

irakasleek egiten zituzten zenbait txangoren inguruko adibideak eta argibideak, hitzez hitz, jasoko ditugu jarraian³⁹ (Molero, 2000):

EXCURSIONES INSTRUCTIVAS DEL CURSO DE 1881-1882

(BILE, año VI, Madrid, 16 de marzo de 1882, núm. 122):

7. -Jueves 13.- Profesor, Sr. Lozano.- Fábrica del gas de Palacio.- El carbón de piedra: la hulla en composición.- Resorte de destilación.- Lavadores y condensadores.- Purificadores.- Hidro-extractos.- Contador.- Barómetros.- Productos líquidos y sólidos de la destilación de la hulla: las sales amoniacales: aprovechamiento industrial.

13.-Miércoles 26.- Profesor, Sr. Gillman.- Fábrica de pan "La Angelina".- Molino de harina y elaboración de pan al vapor.- Descripción de la fábrica y de la manera de hacer pan en general.

18.- Sábado 30.- Profesor, Sr. Torres Campos.- Fábrica de moneda.- Laminadores.- Hornos de revertero.- Corte.- Baños.- Acuñación.- Peso.- Cualidades de la moneda.- Utilidad de su empleo.

ILEk 1936an utzi zien, erakunde gisa, izateari eta aritzeari, Gerra Zibila piztu zenean, hain zuzen. Gaur egun, ordea, badira zenbait ikastetxe ILEren eredu pedagogikoaren ideiei eta oinarriei jarraitzen dietenak; hortaz, esan liteke ILEren ideiek egundaino iraun dutela, osorik eta kalte gabe. Egun, miresgarrizat jotzen da ILEk egin zuena eta gaurko doktrina pedagogiko ugarik biziki azpimarratzen dute, besteak beste, sexu bereizkeriarik gabeko hezkuntza baten beharra, ideologia guztiak errespetatuko dituen, pertsonaren hezkuntza integrala bilatuko duena, pertsonaren garapenean naturak eta heziketa fisikoak duten garrantzia nabarmenduko duena eta hezkuntza aktiboa giltzarri izango duena.

1.2.2.2- ESKOLA BERRIA

Eskolak Berria (Eskola Esperimentala edo Eskola Progresista) zelakoak hezkuntza eredu tradizional, formalista eta autoritarioaren aurkako mugimendu pedagogiko

³⁹ Txango horiek, ikasle eta irakasleei ez ezik, jendarteari (publikoari, oro har) zuzentzea eta zabaltzea proposatzen zuen ILEk, hartara jendea bidaiak eta bisitak egitera zaletu zedin, hori egitea kulturaz janzteko biderik eraginkorrenetakoa zela sinetsita (Molero, 2000).

nabarmen bat osatu zuen, XIX. mende bukaeran abiatu eta XX.ean garatu zena; mugimendu pedagogiko hura erreazio gisa piztu zen, ez ikasleak beraiek ezta haien garapena ere aintzat hartzen ez zituzten hezkuntza praktika bortxazkoen kontrako erreazio gisa, alegia. Izan ere, jakina denez, historian denbora luzez eskola publiko eta pribatu askotako irakaskuntzak oinarritzat izan zituen sariak eta zigor fisikoak eta, are, irakasleen/hezitzaileen nagusikeria eta bortxakeria latzak. Eskola Berriak, aitzitik, zeharo bestelako —are, kontrako— ezaugarriak zituen; hala, nabarmen defendatzen zuen ikasleek beren gaitasunen, erritmo pertsonalaren, erantzukizunaren eta ahaleginaren arabera ikasi behar zutela. Eskola Berriaren ideiak Espainian barneratu zituztenak, besteak beste, lehenago aipaturiko Giner de los Ríos eta Cossío izan ziren. Geroztik, eta gaur arte, ideioek erreferentzia puntu izan dira Espainian egin izan diren hezkuntza proposamen anitz taxutzeko (nahiz eta, bide luze horretan, zenbait unetan desagertu ere egin izan diren) (Macías, 2009).

Atzera begiratu eta hezkuntzaren ibilbide historikoaz egin dugun azterketari erreparatuz gero, Eskola Berriarekin antzekotasun handiak izan zituzten aitzindari, saiakera eta ekinbide ugari aurkituko genituzke han-hemenka; esaterako, antzinatean bertan, metodo sokratikoa; berdintsu Pizkunde garaiko mugimenduetan edo XVII. eta XVIII. mendeetako berritzaileen kasuan. Haatik, “aurrekari” horiek gorabehera, Espainiara 1898an baino ez ziren hasi iristen lehendabizikoz Eskola Berriaren nazioarteko korronteak eta eraginak; 1904an baziren talde gutxi batzuk ahotan zerabiltzatenak, nahiz hagitz modu teorikoan izan, hezkuntza integrala, ikaslearen *self-government* zelakoa, haurren gaitasunen garapen harmonikoa, naturarekin harremanetan hezte, hezkuntza aktiboa eta gisako kontzeptuak. Ohartzekoa da, ordea, garai hartako pedagogo batzuen gogoeta kritikoa: haien ustez, orduko irakasleek, oro har, ez zituzten batere sakon erroturik Eskola Berriaren oinarriak, zela ezagutza faltagatik, zela prestakuntza ezagatik (Del Pozo, 2004).

1914az gerora, Lehen Mundu Gerraren testuinguruan, gero eta autore gehiago hasi ziren proposamenak egiten, indarrean zeuden hezkuntza erduei eta instituzioei zegozkien printzipioak berraztertu zitezten; hezkuntza hobetzeko saioak izan ziren, berritze pedagogikorako ahaleginak (eta, nagusiki, lehen hezkuntza izan zuten jomuga). Horien eragile, zenbait irakasle liberal aritu ziren, ordu arte hezkuntza eremuan indarrean egondako planteamenduak berriz aztertu behar diren jakitun eta irakaskuntza aktiboagoa helburu. Geroago ikusiko dugunez, Espainian 1931n egin zen Eskola Berriaren aldeko apustu nabarmenena, Errepublikako agintariak erabat identifikatu baitziren mugimendu harekin, huraxe zelakoan eredu egokia hain

premiatzotzat zuten aldaketa sozial sakona burutzeko. Horren lekuko, 1931ko Konstituzioko 48. artikuluan, *“Eskola Berriaren lau printzipio nagusi jaso ziren: neutraltasuna, laikotasuna, lankidetzeta eta jarduera aktiboa; izan ere, Konstituzio hark ezarri zuen irakaskuntza laikoa izango zela, metodologiaren ardatza lana izango zela eta inspirazio-iturritzat giza elkartasunaren idealak hartuko zituela”* (Del Pozo, 2004: 341).

Derrigorrezko eskolatzea luzatzeak aldean ekarri zituen bai ikastetxe kopurua gehitzea eta bai jatorri ekonomiko eta sozial askotarikoa zuten ikasleak biderkatzea ere (izan ere, biztanleria ugaldtu egin zen, baina, horrez gain, gizarte justiziari zegozkion neurriak hartu ziren, baliabide ekonomikorik ez zuten hurrek eskolara joateko modua izan zezaten). Horrek guztiak, halaber, eskolako metodoak eta printzipioak ugaritzea, aberastea eta eraginkorrago bihurtzea ere ekarri zuen: haur guztiak ez ziren berdinak eta ez ezin ziren berdin tratatu. Horregatik, hezkuntza eredu ezberdina bilatu zuten, aktiboa, bizitza errealerako prestakuntza emango zuena eta haur bakoitzak zituen benetako interesetatik abiatuko zena (Aguado, 2012).

Eskola Berria oso mugimendu konplexua izan zen; ernamuina 1875ean izan bazuen ere, Eskola Berri gisa 1910ean sortu zuen Núñez Arenas-ek. Haren printzipioak XX. mendearen hasieran sustraitzen joan ziren irakaskuntza tradizionalaren ordezkotzako modura eta munduko hainbat bazterretan jakin-min eta arreta biziak piztu zituzten. Ez zen izan soilik eskola mota edo sistema didaktiko jakin bat; harago jo zuen, eredu tradizionalari errotik kontrajarritako printzipio kritikoz osaturiko multzo bat izan zen. Del Pozo-ren hitzetan (2002: 190, 199), *“Eskola Berriaren mugimendua plurala izan zen berez eta sortzez, eta gainera aldaketa handiak izan zituen bere bilakaeran [...] izaera plurala izan zuen eta izendapen orokor horren baitan bost kontinenteetako autore eta joera asko eta askotarikoak bildu zituen”*.

Eskola edo Hezkuntza Berriak behin eta berriz auzitan jarri zuen garaiotan pedagogiak bizi zuen egoera; eta argi zioen, batetik, hezkuntzak etengabea garaian garaiko bizimodura egokitu behar zuela, baina, bestetik, beti etorkizunari so egin behar ziola. Are gehiago, hezkuntza berriak etorkizuneko gizarteko gizakia sortzen parte hartu behar zuen (gizartearen aldaketa erritmoa horren azkarra izanik, ezinbestekoa zen gizabanakoak etorkizunerako prestatzea; etorkizuna eraiki beharra zegoen, eta horretarako gizaki berri bat lortzen ahalegindu). Eskola Berriak haurren indibidualtasuna errespetatu beharra defendatu zuen (baina indibidualtasun hori, betiere, taldearen zerbitzura jarrita, lankidetzaren ikuspegiari helduta, ez lehiaren

ikuspegiari). Halaber defendatu zuen gizaki bakoitza desberdina zela, desberdin hazten zela eta haurrak berezko zituen interesak libreki errespetatu behar zirela (are gehiago, haurraren gaitasunak zein ziren ohartu eta egiaztatzeaz harago, haurraren baitan gaitasunak sorrarazi egin behar ziren) (Mialaret, 1968).

Gogoraraztekoa da Eskola Berriak eta hezitzaile berriak “metodo aktiboen” alde egin zutela⁴⁰, haurren eta nerabeen interesak asetzea oinarri harturik. Mialaret-en esanetan (1968: 87), *“metodo aktiboak ez dira hartzen irakaskuntza lanak hobetzeko bitarteko hustzat; baizik eta, egungo haurrarengandik abiatuta, gizaki berria bere osotasunean definitzeko eta osatzeko posibilitatetzat [...] era berean, metodo aktiboek ahalbidetzen dute, haurraren nortasuna errespetaturik, klaseko kide guztien jardueren bitartez haur bakoitza sozializatzea eta ahalik gehien haztea”*.

Ildo horri berorri jarraitzen dio Piaget-ek ere (1969: 125) honako hau baieztatzean: *“metodo aktiboen giro batean baino ezin du ikasleak errendimendu gorena lortu”*; metodo horiek irakasteko eta lan egiteko modu jakin bat definitzen dute, eredu tradizionalari dagokion modu pasiboaz zeharo bestelakoa⁴¹, non ikasleak era aktiboan parte hartzen baitu bere irakaste-ikaste prozesuan; non pertsona heldua ez baita erregea; non helburua ez baita ezagutzak modu masiboan metatzea (aldiz, ezagutzak lortzeko eta gordetzeko moduak du garrantzia); non ikasleek lagundu egiten baitute lezioak prestatzen eta ikasmaterialak eta dokumentuak biltzen; non “zuzendutako jarduerak” (bisitan joatea fabriketara edo herri lanetara, lorategian edo landan ibiltzea eguzkiari begira, landareei so, animaliak aztertzen...) ezinbesteko baitira ikasleak errealtatera eta bizitzara hurbilazteko.

Hezkuntza aktiboak, beraz, irakasleari protagonismoa kendu eta ikasleari eman zion. Filho-ren arabera (1964: 159), hezkuntza aktiboak *“ikastea jabetzeko prozesu indibidualtzat hartzen du, ikasle bakoitzaren ezaugarri pertsonalen arabera; bilatzen du ikasleek ikas dezaten ingurukoari begiratzen, aztertzen, galdetzen, lan*

⁴⁰ Horren harira, Cousinet-en (1972: 51) xehetasunei oso argigarri deritzegu: *“hezkuntza berriaren mintzairan, ‘metodo aktibo’ esaten zitzaizen ikasleen eskuetan jartzen ziren lan tresnei, ikasteko erabil zitzaizaten; aitzitik, ‘metodo didaktiko’ esaten zitzaizen irakasleek irakasteko zerabiltzaten tresnei”*.

⁴¹ Mialaret-en esanetan (1968), metodo pasiboetan ikaslearen ikasketa prozesu osoa irakasleak inposatua da (ikasleei, pasibo, geldi eta isilik, irakasleak dioena entzutea baino ez dagokie); ikaslearen interesak ez dira aintzat hartzen; funtsezkoa da lezioak modu automatikoan eta aldaketarik gabe errepikatzea; imitatzeko gaitasuna besterik ez da lantzen; ikasleak ez du ikasteko beste kanpo motibaziorik zigorrak eta sariak baino; ez dago alderik eta desberdintasunik norbanakoen artean; indarrean dago autoritate printzipioa eta ikasleek otzanak izan behar dute; memoria eta diziplina lehenesten dira; helduek eskubide guztiak dituzte eta hurrek, berriz, betebeharrak guztiak; une oro zer ikasi den kontrolatzen eta egiaztatzen da; gogoz kontra ere esana bete eta jakintza autoritarioa onartu behar da, horren premia eta munduarekin duen lotura zein den ulertu gabe.

egiten, eraikitzen, pentsatzen eta aurkezten zaizkien arazoak ebazten. [...] Ezinbestean, eskola tradizionalaren aurkako lehenengo erreakzioak modu kritikoan eta suhar agertu behar zuten. Gelditasunaren aurka, mugimendua. Isiltasunaren aurka, komunikazio askea. Inposaturiko didaktismoaren aurka, askatasun handiz lan egiteko moduak”.

Horiek horrela, 1937ko urriaren 28an Espainian onartu zen lehen hezkuntzako ikasketa planak Eskola Berriaren filosofiaren kontzepturik garrantzitsuenak jaso zituen; hala nola haurren nortasuna osorik garatu behar zela, horretarako haurra bere prestakuntzaren agente nagusizat hartzen zuten metodoak baliatuta; “ikasgaia” kontzeptuaren ordez “jarduera” kontzeptua ipini zen; indarrean jarri ziren metodo sozializatzaileak eta ingurunea behatzeko eta aztertze metodoak, haurraren interesa pizten zutenak; eskulanak “jarduera sortzaile” izendatu ziren eta giltzarritzat jo zituzten haurren originaltasuna eta irudimena xaxatzeko. Horiekin guztiekin batera, ikasketa plan hark derrigorrezko txangoak egitea ere nabarmen bultzatu zuen (Del Pozo, 2004).

Jarraian, II.1.1. laukian, Eskola Berriaren printzipioak islatu ditugu, bai antolaketa orokorrari zegozkion printzipioak, bai heziketa intelektualari eta moralari zegozkienak ere.

II.1.1. laukia: Eskola Berriaren printzipioak

Antolaketa orokorrari zegokionez

- 1.- Pedagogia praktikorako laborategi bat zen, ikastetxe ofizialentzat bide-erakusle izan nahi zuena.
- 2.- Barnetegi bat zen, ahalik eta giro etxekoena zuena.
- 3.- Landa eremuan kokatua zegoen.
- 4.- Ikasleak taldeka biltzen zituen, 10-15 kideko "pabilioietan".
- 5.- Ko-hezkuntza jartzen zuen indarrean.
- 6.- Haurrek, egunero, gutxienez ordu eta erdiz eskulanak egin behar izaten zituzten.
- 7.- Lan horietan nagusia zurgintza zen (arotz lanak). Gomendagarriak ziren, baita ere, lorezaintza eta abere zaintza.
- 8.- Lan askeak egitea posible zuten.
- 9.- Heziketa fisikoa egiten zuten joko bidez, kirolen bidez eta soinketa naturalaren bidez.
- 10.- Txangoak egiten zituzten landa eremuan (camping).

Prestakuntza intelektualari zegokionez

- 11.- Arrazoibidea eta zentzua garatzea zuten helburu, memoria lantzea baino gehiago.
- 12.- Espezializazio berezko eta espontaneoak sustatzen zen, kultura orokorraren alboan.
- 13.- Irakaskuntzak oinarri hartzen zituen egitateak eta esperientziak.
- 14.- Ondorioz, Eskola Berria haurren beraren jardueretan oinarritzen zen.
- 15.- Irakaskuntzaren funtsa haurren berezko interes espontaneoan zetzan.
- 16.- Bakar lana ikerketan zetzan, gertaerak aztertuz, liburuak, egunkariak, etab., eta ondoren sailkapen bat egiten zuten ordena logiko baten arabera.
- 17.- Talde lana dokumentu jakin batzuk modu logikoan sortu eta antolatzean zetzan.
- 18.- Irakaskuntza, zentzu hertsian, goizean baino ez zen izaten.
- 19.- Egunean ikasgai bat edo bi baino ez ziren lantzen; irakasteko moduak ekarriko zuten aniztasuna.
- 20.- Hilean eta, are, hiruhilekoan ikasgai gutxi batzuk baino ez ziren lantzen.

Prestakuntza moralari zegokionez

- 21.- Heziketa morala barrutik eta kanpotik egiten zen, hots, zentzu kritikoa eta askatasuna mailaz maila praktikatzen ziren.
- 22.- Ordezkarien sistema demokratikoaren bidez gidatzen ziren administrazio eta diziplina antolaketak.
- 23.- Sariak eta ikur positiboak ez ziren erabiltzen haurren ekimena garatzeko baizik.
- 24.- Zigorrak eta isun negatiboak erabiltzen ziren ikasleari laguntzeko egokitzat jotzen

ziren helburuak lortzeko bidean.

25.- Autoemulazioa.

26.- Eskola Berriak atmosfera estetiko eta abegikorra izan behar zuten.

27.- Talde musika, abesbatza kantuak eta orkestra.

28.- Kontzientzia hezteko, haurrek errezitatze moralizatzaileak egiten zituzten.

29.- Eskola Berri gehienek sektarismorik gabeko jarrera erlijiozkoa zuten. Neutraltasun konfesionala zen nagusi. Ondorengo printzipioa geroago ezarri zuten:

30.- Eskola Berriak etorkizuneko hiritarra prestatzen zuten, baina nazioari begira soilik ez, gizateriari bere osotasunean begira ere bai.

Iturria: Planchard, Émile (1949): *La Pedagogía contemporánea*
(Madrid, Rialp), pp. 253-255 (Tiana et al.-ek aipatua, 2002: 198)

Eskola Berriaren mugimenduak, esana dugunez, kritika zorrotza egin zion XIX. mendean eta XX. mendearen zati batean indarrean izan zen eskola tradizionalari. Errotik kritikatu zituen irakaslearen funtsezko zeregina, memorizatzea, irakaslearen autoritarismoa eta irakasle-ikasle arteko eragin-trukerik eza. Eskola Berriak helburu zuten ikasle aktiboak garatzea, ikasgelan beren interesak landuko zituztenak, haur eta pertsona ziren aldetik. De Puelles-en arabera (2010), Eskola Berriaren abiapuntua zen hezkuntzak doakoa izan behar zuela, ziklo guztietan eta modu bateratuan: aurreikusi ziren, horrela, eskolaurreko zikloa, oinarritzko hezkuntzari zegokion zikloa (14 urte artekoa), bigarren hezkuntzako zikloa (18 urte artekoa) eta unibertsitate mailako zikloa.

Eskola Berriaz ari diren obra gehienetan, ohikoa izaten da hura Eskola Tradizionaletik bereizten zuten ezaugarriak bistaratzea. Bada, segidan, II.1.2. laukian, eskola eredu baten eta bestearen bereizgarri nagusiak bildu ditugu parez pare.

II.1.2. laukia: Eskola Tradizionala *versus* Eskola Berria

Eskola Tradizionala	Eskola Berria
Logozentrikoa (ardatz ditu edukiak, irakasgaiak eta programak, sistema mekaniko eta memoristiko baten bidez)	Paidozentrikoa (ardatz du ikaslea eta hari errespetu handia dio; haurren jardueretan oinarritzen da; hezkuntza sistema osoa ikaslearen interes eta xedeetan funtsatzen da).
Ez du kontuan hartzen haurren izatea	Helburu du haur kontzeptua eraikitzea azterketa zientifikoetan oinarriturik eta planteamendu didaktikoak egokitzea haurren berezko garapen prozesuaren arabera
Magistrozentrikoa (irakaslearen autoritatean datza; autoritate hori indarrean iraunarazteko, zigorrak erabiltzen dira)	Irakaslearen oinarrizko bi funtzioak: gidatzea eta motibatzea. Ikasleei dagokie ikasteko lan eta betebeharrak egitea.
Eredu honen eraginkortasuna lehiakortasunean eta sari/zigor sisteman datza	Ikasleen arteko lankidetzeta eta talde espiritua bultzatzen ditu
Ikaslearen askatasunik eza	Ikasleen autonomiaren alde egiten du, pertsona gisa ere arduratsuak izan daitezten

Iturria: Guk geuk egina, Del Pozo (2002: 200) oinarri harturik.

Eskola Tradizionalean, irakaslearen zeregina eskolak ematean datza. Hau da, programa jakin batek ezarritakoaren arabera, ikasleen aurrean zenbait kontzeptu garatzean, bata bestearen atzetik, ikasleek jaso eta gogoan har ditzaten (kontzeptu bakoitza ondorengoaren mendean dagoelako edo osotasun baten zati delako). Halaber, irakasleak irakasten die zenbait mekanismo erabiltzen ariketak ebazteko. Zeregin hori burutzeko, irakasleak bere autoritate pertsonala baliatzen du, baita ezagutzen dituen prozedurak ere (berari irakatsi dizkietenak edo irakasle gisa arituta bereganatu dituenak), ikasleei ahalik eta azalpen argienak eta ulergarrienak emateko (Cousinet, 1972).

Aitzitik, esan liteke Eskola Berria ezaugarritzen duen kontzeptu nagusia ***paidozentrismoa*** dela, ikaslea baita irakaste-ikaste prozesuaren ardatza. Irakasle-ikasle arteko harremana bestelakoa da, irakaslea bigarren mailan kokatzen delako eta ikasgelako giroa hauspotzea duelako xede nagusi (baina betiere ikaslearen beharren eta gaitasunen zerbitzura). Cousinet-en hitzak baliatuta (1972: 97), *“hezkuntza berriaren baitan, irakasleak ez du programarik landu behar, ez taldeari eskolarik eman behar,*

ez ikasleei lezioak errezitarazi behar, ezta etxeke lanik zuzendu behar ere [...] irakasleak han egon behar du, une oro laguntzeko prest. Presentzia hori atsegin dute ikasleek, batez ere beren segurtasun premia sakona asetzen baitie”.

Irakaslea da, hala, ikasgelako jardueren sustatzaile, behatzaile eta gidaria. Ikasleen galderei erantzungo die, haien ikasketa interesgarri bihurtuko du, haien lana kontrolatuko du eta beti prest agertuko da haien zalantzak argitzeko (eta horretarako, jakina, ondo ezagutu beharko ditu ikasleak). Jada ez dira ikasleak ikasgelara joan eta irakasleak zer egin begira daudenak; irakasleari dagokio ikasleak lanean behatzea eta bakoitzari dagokiona ematea, bere behar eta gaitasunen arabera (Cousinet, 1972).

Filosofia honek Jean-Jacques Rousseau (1712-1778) idazte eta filosofo frantsesaren ideiak hartzen ditu abiapuntu; Rousseau-k, bere garaian, ikasle bakoitza modu berezian tratatzea proposatu zuen. Ikasleen interes, behar eta gaitasunetan oinarrituriko hezkuntza baten alde egin zuen, baita giro askean jazotako garapen naturalaren alde ere⁴². Del Pozo-k dioen bezala (2002: 200), *“Eskola Berriaren hezkuntza ideala hezkuntza integrala da; hots, adimena lantzeaz gain, gizabanakoaren alderdi fisikoak, sozialak, estetikoak eta emozionalak ere aintzat hartzen dituena”*. Izan ere, Eskola Berriak helburu du *“ikaslea bizitzarako prestatzea”*⁴³.

Aguado (2012) aintzat hartuta, honela laburtuko ditugu funtzezko printzipioak:

- *Jarduera. “Egiten ikastea”, hezkuntza giro betean.*
- Ikasgela bizigune sozial bihurturik, bizi garen gizartearen osagai eta ikasgai.
- Ikasgelan, batetik bestera mugitu daitezkeen altxariak, egoera didaktiko eta ikasteko giro askotarikoetara erraz egokitzeko modukoak.
- Aurrez programaturiko lan eta jarduera ildoak ezartzen dira. Horrek aldean dakar, besteak beste, testuliburuak desagerraraztea. Irakasleek eta ikasleek aztertu beharreko edukiak eraikitzen dituzte ikasleen interes eta motibazioetatik abiatuta, eta uko egiten diete eskola tradizionalako testu akademikoei eta eskuliburuei.

⁴² Pedagogia tradizionalaren arabera, haurra, izatez eta berez, basatia eta ustela da. Ondorioz, diziplina zorrotzez arauak ikaslarazi eta betearazi behar zaizkio (espirituaren itxuragabetasuna zuzentze aldera). Horren aurka Rousseau-ren ikuspegia ageri da, zeinaren arabera haurra zintzoa baita berez (Sanchidrián, 2010).

⁴³ Hasieran, haurren prestakuntza helduaroari begira taxutu bazuten ere, gerora jabetu ziren hezkuntzaren bidez gizartea bera eralda zitekeela eta, ondorioz, haurrak hiritar global izateko prestatu behar zirela, gizateriaren parte izateko, alegia (Del Pozo, 2002).

Mugimendu hark bere magalean askotariko metodologiak izan bazituen ere, aipatzekoa da metodo guztiek bazituztela ezaugarri komun batzuk ere, eskola tradizionalaren metodologiatik argiro aldentzen zirenak. Ezaugarri komun horiek Eskola Berriaren printzipio bereizgarriei zegozkien; “jarduera” eta “indibidualtasuna errespetatzea” ziren horietako bi, zeharo funtsezko giltzarri⁴⁴.

Eskola Berriaren mugimenduaren baitan nabarmendu beharrekoak dira, besteak beste, John Dewey, María Montessori, Ovidio Decroly eta Célestin Freinet (hurrengo atalean aztergai izango ditugunak). Autore horiek, Eskola Berriaren testuinguruan, metodologia berriak planteatu zituzten eta eragin handia izan zuten XX. eta XXI. mendeetan pedagogiak eta hezkuntzak izan duten bilakaeran.

Komeni da nabarmentzea ezen planteamendu pedagogiko berri horiei ekiteak aldean zekarrela ikastetxeak berregokitu beharra ere: batetik, aldaketa arkitektonikoak egin beharra, malgutasunez taldeak sortu zitezen eta errazagoa izan zedin sormena piztea, talde lanean aritzea eta askatasunean ikastea; bestetik, curriculumak aldatu beharra ere bazegoen, ikasleen nortasunaren askotariko alderdiak, premiak eta interesak aintzat hartzeko. Hori bai, nahiz eta lehenago ez zeuden ikasgai artistiko eta espresibo batzuk barneratu zituzten, ez ziren izan bigarren mailako edo curriculumaz kanpoko ikasgaiak baizik, ikuspegi tradizionalari zegozkion ikasgaien osagarri.

Lehenago ere aditzera eman dugunez, Eskola Berriaren mugimendua ia mundu osoan zabaldu zen eta aparteko interesa eragin zuen “*Hezkuntza Publikorako programa baten oinarriak sortu zituelako*” (De Puelles, 2010: 248). Hala, hasiera-hasieratik aitortu zitzaion nazioarteko izaera hura sustatzeko, 1920an Hezkuntza Berriaren Nazioarteko Liga eratu zen, helburu izanik mundu mailako foro gisa jardutea, ideia pedagogiko berriak eztabaidatzeko eta hezkuntza eremuko esperientzia berritzaileen berri zabaltzeko.

Eskola Berriak Eskola Tradizionalari aurka egin zion, jakina denez. Baina Eskola Berriaren printzipioen kontra ere ez zen falta izan kritikarik eta jarrerarik. Eskola

⁴⁴ Ildo horretan, esan beharra dago ezen, atzera begiratuta, lehenago aztergai izan dugun ILE zelakoa Europako aurreneko Eskola Berrizat hartu litekeela. Areago, ILEko ikasle izandako Antonio Jiménez-Landiren esanetan (De Puelles-ek aipatua, 2010: 234), ILEk nolabait gaintu egin zuen Eskola Berriaren mugimendua. Baiki, ILEk bere garaian argi hitz egin zuen ko-hezkuntzaz, erlijio neutraltasunaz edo tolerantziaren lehen hezkuntzatik; halaber, ILEk argi zioen haurra gurasoekin bizi behar zela eta ez barnetegi batean; eta ez zuen sortu nahi izan mundu bat haurarentzat (Eskolak Berriak bezala), baizik eta haurraren mundua errespetatu eta harremanetan jarri nahi izan zuen gizartearekin, zela txangoen bidez, zela udalekuen bidez, zela beste nolabait.

Berria gogor kritikatu zuten Eliza katolikoak eta talde kontserbadoreek, hark defendatzen zituen ko-hezkuntzaren eta laikotasunaren harira. Beste talde batzuek leporatzen zioten Eskola Berriak ustez intelektualismoaren aurka jotzen zuela eta sentimenak eta jarduera gehiegi azpimarratzen zituela, bestelako balio batzuk (diziplina, memorizatzea, inteligentziaren kontrola, borondatea) ustez bazterrean utziz. Dena dela, ezin duzu aipatzeko utzi *“mugimendu horri zor zaizkiola eskolaren demokratizazioa, eskolako edukien arrazionalizazioa, psikologiaren aurrerapenen erabilera eskolan, irakaskuntzaren indibidualizazio gorakorra, ikaslearen jarduera hartzea ikasteko bitarteko nagusitzat, etab.”* (Muset, 2001: 99).

Nolanahi ere, aurrekoarekin batera ezin dugu aipatzeko utzi, ezta ere, Espainian ideia pedagogikoak berritu zituen mugimendu bat jazo zen arren, mugimendu hura norbanako jakin eta bakan batzuen bilduma izan zela; esperientzia ugari abiarazi zirela, bai, baina modu isolatuan eta elkarlanik gabe.

Gaur egun oso zaila da Eskola Berriaren metodoak —batik bat hark bere garaian adierazitako moduan— indarrean dituen ikastetxerik aurkitzea. Hala ere, aitortzekoa da gaur gaurkoz izan badirela ordu hartako ideiez eta planteamenduez blaituriko metodologia, aplikazio didaktiko eta antolaketa molde anitz.

Bukatzeko, esan dezagun ezen AEBn, XX. mende erdira arte, Eskola Berriaren antzeko mugimendu bat indarrean izan zela, Eskola Progresista, zeina sortu baitzen irakaslea ardatz eta hezkuntza printzipio klasikoak oinarri hartzen zituen amerikar eskola tradizionalaren aurrean protesta egiteko. Mugimendu hura unibertsitateko irakasleek bultzatu zuten eta gerora zabaldu zen eskola publikoetara eta elkarte profesionaletara, gizartea hezkuntzaren bidez aldatzea xede. Eskola Progresistak John Dewey-ren (1859-1952) filosofia hartu zuen abiapuntutzat eta “egiten ikasi” (*“learning by doing”*) izan zuen ikasteko metodo eta lelo.

1.2.2.3- BIGARREN ERREPUBLIKA (1931-1936)

Bigarren Errepublikan (1931-1936), ikuspegi ideologiko eta estrategikotik begiratuta, politika ulertzeko eta politikan aritzeko moldeak errotik aldatu ziren; eskolaren auzia mahai gainean jarri zuten puntako nazio arazo gisa eta erreforma pedagogiko handi baten bila abiatu ziren.

Behin-behineko gobernua eratu bezain laster, hezkuntza eremuko erreformei eta aldaketei ekin zieten. Oso gutxi iraun bazuen ere, Bigarren Errepublikan inoiz baino

ahalegin handiagoa egin zen Espainian indarrean jartzeko hezkuntza laikoa (erlijioaren nahitaezkotasuna ezabatu zuten eta erlijio eremuko tolerantzia sustatu zen, familia eta ikaslearen kontzientziarekin bat); publikoa; doakoa (berezi lehenengo eta bigarren hezkuntza mailetan); eta izaera sozial, aktibo eta sortzailea zuena (eskola aktiboaren metodoetan funtsatua).

Errepublikak zinez uste zuen Espainiaren atzerapenari aurre egiteko hezkuntza sistema on bat behar zuela eta Elizak hezkuntzan zuen eragina desagerrarazi behar zela. Horiek horrela, garai hartan hezkuntza erreforma sakon bati heldu zioten, garaiko hezkuntza mugimendu berritzaileetan inspiratuta: Institución de Libre Enseñanza (ILE), Eskola Berria, sozialismoari eta katolizismo sozialari zegozkien korrante pedagogikoak, etab; eta, gainera, autore berritzaileen proposamenak aintzatetsi zituzten: tartean ziren Pestalozzi⁴⁵, Montessori, Decroly eta Dewey, besteak beste.

Behin-behineko gobernuak lehenbailehen aurre egin nahi izan zion Espainiak nozitzen zuen arazo larri bati: lehen hezkuntzako ikastetxe gutxiegi zeuden. Horregatik, gobernuari baimena eman zitzaion finantziarioa izan zezan ikastetxeak sortzeko (Errepublikaren lehen urtean 9.600 ikastetxe baino gehiago eraiki ziren) eta baliabideak ugaritzeko, Moyano Legeak murriztea lortu ez zuen analfabetismo maila handia gutxitzea helburu. Horrez gain, nabarmentzekoa da ezen, ikastetxe kopuru urriaz aparte, beste oztopo handi bat ere bazela: irakasleen prestakuntza maila kaskar eta desegokia (gainera, oso gutxi ordaintzen zitzairen). Ondorioz eta laburbilduz: premiazkoa zen ikastetxeak eraikitzea eta premiazkoa zen, halaber, irakasleak behar bezala hezte eta gaitzea (eduki eta alderdi kulturalak, prestakuntza profesionala, praktika pedagogikoa, etab.) (De Puelles, 2010).

Epealdi hartan, 1931ko Konstituzioarekin batera eta 1931-1933 urteetako sozialismo demokratikoaren testuinguruan, printzipio pedagogiko modernoak indartu ziren, hala nola ko-hezkuntza, jarduera, parte-hartze soziala, helduen hezkuntza eta elebitasuna (irakaskuntza elebiduna ezarri zen, katalanez eta gaztelaniaz)⁴⁶. Gainera, beste

⁴⁵ Pestalozzi (1746-1827) zenbait instituzio sortu zituen bere ideal pedagogikoak ezartzeako. Autore horren sistema pedagogikoan, nabarmendu egiten zen irakaskuntza objektiboa edo gauzen bidezko irakaskuntza, era horretan irakaskuntza intuitiboan sakonduz. Intuizioa, Pestalozziaren aburuz, zuzeneko esperientzia zen. Haren metodologian, dena zetzan ekingiz edo jardueran, haren ustez haurrak ariketen bidez, ekinaren ekinaz, ikasten baitzuen (ikasi baino, praktikatu egin behar zuten). Hezkuntza ez zuen ulertzen kanpotik barrualdera egin beharreko zeregin moduan; aitzitik, haurrei interesatzen zitzaizkien eta haurrek egiten zituzten jarduerak berek zekarten haurraren garapena. Pestalozziarentzat, haurra ez zen *zerbait* moldagarria, baizik eta etengabean garatzen ari zen *norbait*, izaki aktibo bat (Filho, 1964).

⁴⁶ Nahiz motel izan, eskola unitarioa (irakasle bat ikasgelako eta bertan adin eta ezagutza-maila desberdineko haurrak) ordeztu egin zuten eta eskola graduatua, berriz, ezarri (eskolan hainbat irakasle eta

erreforma zenbaitekin batera, unibertsitatearen esparruan “*Moyano Legeari zegokion unibertsitatearen aurrean unibertsitate berri bat sustatu zen*”; erreformatzaileak kontrastatu egin zituen erakunde tradizionala, pilatutako jakintza administratu eta titulu akademikoak eman besterik egiten ez zuena, batetik, eta, bestetik, erakunde berria, hiru funtzio zegozkiona: kultura modernoa zabaltzea, gizarteak behar zituen askotariko profesionalak zientifikoki heztea, eta bere baitan ikerketa sustatzea (De Puelles, 2010: 273).

Hala eta guztiz ere, erreforma horiek guztiak bertan behera gelditu ziren 1934an aurrekonturik ez zutelako, eta, geroago, Gerra Zibilak errotik erauzita (Garrido, 1979).

1.2.2.4.- BIGARREN MUNDU GERRA

Bigarren Mundu Gerrak inflexio-puntu bat ekarri zion hezkuntza sistemen ordu arteko garapenari.

Gerrak, jakina denez, herrialde askori erasan zien eta haietako bakoitzari askotariko moduetan, gainera. Gerra amaitu zenean, 1950eko hamarkadan eta lehen etapa edo urrats gisa, hainbat herrialdek egin behar eskerga bati aurre egin behar izan zioten: beren hezkuntza sistema berreraikitzeari, alegia (kasu askotan, hezkuntza mailak eta curriculum berrikusteko eta birdefinitzeko baliatu zuten abagunea); herrialde bakoitzak, baina, bere erara heldu zion erronka horri.

Bigarren etapan, hedapen eta garapen etapan, herrialde ugari —hala garatuak nola garapen bidean zeudenak— argi jabetu ziren hezkuntza ezinbesteko faktorea zela produktibitatea areagotzeko eta garapen sozial eta ekonomikoa hauspotzeko; hartara, inbertsiotzat hartu zuten hezkuntza, ezen ez gastutzat. Sanz-en (2002: 282) hitzetan, **hezkuntza eremuko “desarrollismo”** hark *“helburu izan zuen, gutxiengo hezkuntza maila unibertsalizatzeaz harago, biztanle masa osoari zabaltzea lehen, bigarren eta goi mailetako hezkuntza erakundeak”*.

Sanz-ek berak (2002) zehazten duenez, “desarrollismo” hura honako faktore hauek eragin zuten:

- 1) Hezkuntza, produkzio faktore gisa (hezkuntzak produktibitate ekonomikoan zuen eragina aintzat hartu eta aitortzea). Ildo horretan azpimarratzekoa da Giza

hainbat ikasgela, eta ikasleak modu homogeneoan taldekatuta, adinaren eta ezagutza-mailaren arabera) (Escolano, 2002).

Kapitalaren Teoriaren eragina. Ekonomialari klasikoek aspaldi aipatu zuten hezkuntzak zuen garrantzia herrialdeen garapen ekonomikorako; haatik, 1950eko hamarkada arte ikertzaileak ez ziren hasi hura modu teoriko eta egituratuan aztertzen. Nabarmendu zuten herrialde jakin batzuen alfabetatze mailaren eta geroagoko nazio errentaren arteko korrelazioa positiboa eta zeharo esanguratsua zela; eta harreman horren nondik norako zehatzak zein ziren ezartzea oso zaila izanik ere, XX. mende erdi inguruan ezein ekonomialarik ez zuen zalantzan jartzen “giza kapitalak” eta baliabide intelektualek zuten garrantzia hazkunde ekonomikoa lortzeko. Theodore W. Schultz eta Gary S. Becker Nobel Saridunak izan ziren Giza Kapitalaren Teoriaren aitzindariak⁴⁷. Sanz-en (2002: 289) esanetan, “*Giza Kapitalaren Teoriak erakusten du hezkuntzaren kostuak beti txikiagoak direla eragiten dituen irabaziak baino; eta posible dela inbertsio mota hori biztanleriari bere osotasunean zabaltzea*”.

Horiek horrela, 1950eko hamarkada bukaeran eta 1960ko hamarkadan barrena, hezkuntza hedatu egin zen biztanleriaren luze-zabalean eta ezagutza demokratizatu egin zen, produktibitatea areagotzeko xedez (OECD, UNESCO edota Nazioarteko Diru Funtsa bezalako erakunde ofizialek ere halako neurriak bultzatu zituzten). Izan ere, garaiko sektore produktiboaren heziketa premia berriek neurri eta gisa bereko hezkuntza hedapena galdatzen zuten, II.1.3. laukian ageri den moduan.

⁴⁷ Teoria horren arabera, “hezkuntza kontsumoa” albora utzi eta “hezkuntza inbertsioa” kontzeptua gailentzen joan zen (Sanz, 2002).

II.1.3. laukia: Hezkuntza hedapenerako beharrezko ziren printzipio politikoak

Hezkuntza hedapena	Printzipio politikoak
Maila guztietan, gizabanako gehienei ahalik eta heziketa handiena ematen zieten sistemak ezarri ziren	Aukera berdintasun kuantitatiboa (gizabanako ororentzat berdinak ziren ikastetxeak, irakasleak, curriculumak eta baliabide ekonomikoak)
Indibidualizazioa oinarri zuten heziketa ereduak alboratu zituzten eta lanbide heziketa eta prestakuntza profesionala helburu zuten prozesuen alde egin zuten	Bigarren hezkuntza eta goi mailako hezkuntza gizabanakoen eskubide ziren, ez pribilegio
Lehentasuna eman zitzaien irakaskuntza formalaren sistemari (giza kapitalaren neurria eta adierazlea: titulazio akademikoa)	Eskubidea norberaren merituetan zetzan; ez ikasleak zituen baliabideetan
Hezkuntza mito bihurtu zen (hezkuntza erakunde batetik ateratzen zen lagun orok lanpostu bat eskuratzen zuen)	Estatuak bere gain hartu zituen hezkuntzaren kudeaketa eta administrazioa

Iturria: Guk geuk egina, Sanz (2002) oinarri harturik.

2. Estatu kapitalistek gastu sozialarekin loturiko politikak aurrera eramane zituzten eta, horien baitan, baliabide asko eta askotarikoak hezkuntza sistemak garatzeko erabili zituzten.
3. Faktore kulturala: hezkuntzak hainbesteko balioa bereganatu zuen non jende masa eskergak erakarri baitzituen hezkuntza erakundeetara.

Hezkuntza eremuko “desarrollismo” hura XX. mendeko garai desberdinetan jazo zen, betiere herrialdearen arabera, baina esan liteke ezen, 1960ko hamarkada bukaerarako, ia herrialde guztietan hezkuntza, maila orotan, biztanleria osoari zuzentzen zitzaiola. Espainian, Europako herrialderik aurreratu eta industrializatuenekin alderatuta, urte batzuk geroago gertatu zen hezkuntza hedapen hura (1964 aldera). Hedapenari zegokion bigarren etapa hura 1973an bukatu zen, petrolioaren krisiak eztanda egin zuenean. Izan ere, horren ondorioz, Ongizate Estatuak murriztu egin zituzten gastu sozialetara bideratutako inbertsioak, oro har, eta hezkuntzara zuzendutakoak, bereziki; eta horrek guztiak hezkuntza sistemen krisia ekarri zuen aldean (Sanz, 2002).

1960ko hamarkada bukaeran agertu ziren hezkuntza eremuko krisiaren lehen zantzuak; hona hemen zantzurik adierazgarrienak (Sanz, 2002):

- Sistema produktiboa ez zen gai tituludun lagun guztiak “xurgatzeko” eta, hartara, tituludunen langabezia-tasak nabarmen egin zuen gora. Auzitan jarri zuten hezkuntza erakundeetan ematen zen prestakuntza bat ote zetorren merkatuak eskatzen zuenarekin.
- Analistek mahai gainean jarri zuten ordu arte erreparatu ere egin ez zioten gai bat; tituludunek sistema produktiboaren baitan lanpostu jakin batzuk eskuratzen zituzten, baina ez hainbeste hezkuntza erakundeetan garatu zituzten gaitasunengatik, baizik eta titulua lortzeko ezinbesteko ziren eta lagun horiek sortzez eta berez zeuzkaten jarrera eta abilezia sozialei esker. *“Kolokan jarri zen, hortaz, eskolak ustez zuen funtzioa pertsonak profesionalizatzeko eta giza kapitala sortzeko”* (Sanz, 2002:306).
- Hezkuntza sistemek gizabanakoen artean berdintasuna areagotzen bazuten ere hezkuntzari zegokionez, ez zen berdin gertatzen ikuspegi ekonomikoari zegokionez. Giza Kapitalaren Teoriak zehaztu zuen hezkuntza formala ez zela nahikoa; bazirela hezteko beste iturri batzuk ere (ez formalak), hala nola lanean aritzean eskuratzen den heziketa/prestakuntza.
- Lan merkatuak eskatzen zuena eta hezkuntza akademikoa ez zetozen bat, desdoitze bat zegoen. Hezkuntzak ezin zuen bukatu ikastetxean; lanpostuan ere jarraitu egin behar zuen eta zehaztu/espezializatu egin behar zen.
- Hezkuntzaren hedapena bera eta eskaintzen ziren tituluen ugartasuna.

Aipaturiko alderdi edo zantzu kritiko horietatik abiatuta, bi ildo desberdin planteatu ziren hezkuntza sistema planifikatzeko:

- A) Batetik, James Perkins eta Philip H. Coombs autoreen proposamen erreformista, hezkuntza sistemak merkatu produktiboaren eskaera berrietara egokitzeko. Horretarako, beharrezkotzat jo zituzten honako neurri hauek: hezkuntza sistema sakon ezagutzea; programen edukia erabilgarria izatea ikasleentzat lan merkatura sartzean; hezkuntzara baliabide gehiago bideratzea; irakaste-ikaste prozesuaren ardatz irakaslea-ikaslea izan zitezela; eta ikastetxeetatik kanpo ere hezkuntza ez formala azpimarratzea.
- B) Mitch eta Jencks autoreen proposamen erradikalak hautsi egin zuen hezkuntza sistemen eta produktibitatearen arteko harremana. Ikuspegi desberdinetatik zalantzan jarri zuten Giza Kapitalaren Teoriak ezarritako hezkuntza- produktibitatea harremana. Batetik, ikuspegi humanistatik, hezkuntza bere horretan helburutzat hartu zuten, produktibitatearekin izan zezakeen loturaz

harago. Bestetik, auzitan jarri zuten hezkuntza sistemak gai ote ziren ere ekonomia eta produktibitatea areagotzeko.

Nolanahi ere, Espainian hezkuntzaren bilakaerak bide berezia egin zuen, Frankismoak erro-errotik markaturik.

1.2.2.5.- FRANKISMOA, TRANTSIZIOA ETA ETAPA DEMOKRATIKOA

Frankismo garaian (1939-1975), batez ere lehendabiziko urteetan, hezkuntza politika bere osoan birbideratu zuten (arazketa ideologikoa egin zioten) eta eskolari izaera konfesionala eta aberkoia (patriotikoa) eman zitzaion (berdin lehen hezkuntzako ikastetxea izan, bigarrenkoa nahiz unibertsitate mailakoa). Bertan behera desegin zuten hezkuntza sistema errepublikarra eta gora egin zuen hezkuntza pribatu katolikoak (erlijio balioek gorengo garrantzia zuten). Debekatu egin zituzten Errepublikaren neurri liberal guztiak, hala nola elebitasuna⁴⁸, ko-hezkuntza, etab. (besteak beste, ILE desegin zuten eta ILEren aitzindariak jazarri zituzten). Arazketa ideologiko hark jomuga izan zituen bai ikasleak, bai irakasleak (Errepublika garaian irakasle aritu zirenak jazarri zituzten), bai eskoletako liburutegiak eta bai testuliburuak ere⁴⁹. Hezkuntza mailei zegokienez, derrigorrezko lehen hezkuntza luzatu egin zen 6 urtetik 10-12 urte arte.

1943an Unibertsitatearen Ordenamendua arautzeko Legea —kutsu falangista erabatekoa zuena— jarri zuten indarrean, gizarte klase garaiei zuzendurikoa eta dogma eta moral katolikoari zorrotz atxikia (Bigarren Errepublikak bazter utziriko balio zaharrei berriro helduz).

Gainera, 1945eko Lehen Hezkuntzako Lege Arautzaileak indartu egin zuen Elizaren egitekoa hezkuntzan (hezkuntza Elizaren eskumen ia eksklusibo bihurtu zen; Elizari monarkia garaian ere izan ez zuen autoritatea eman zitzaion Frankismoan). Erlijioa i(r)akastea bihurtu zen lehen hezkuntzako helburu eta printzipio nagusi. 1949an Lanbide Heziketa Industrialaren Legea ezarri zuten, Arte eta Lanbide eskoletara zuzendurik.

Aguadok (2012) laburtzen duen eran, gerraosteko hezkuntza sistemak hiru ezaugarri nagusi zituen:

⁴⁸ Indargabetu egin ziren Kataluniako eta Euskadiko hezkuntza organoak (De Puelles, 2010).

⁴⁹ Liburu ugari deuseztatu zituzten eta testuliburuak edukiak Frankismoaren ideia patriotikoen arabera moldatu zituzten.

- Ikaskuntza konfesional katolikoa zen.
- Hezkuntza politizatu zen, ikasgai guztiak doktrina jakin bati jarraiki bideratu baitziren.
- Elizak baino ez zuen gaitasunik eta legitimitate politikorik hezkuntza funtzioa bere gain hartzeko.

1950etik aurrera Espainia kanpora zabaltzen hasi zen eta hori egin zuen hezkuntzak ere, kontzeptu pedagogiko modernoagoak barneratu nahirik. Horrekin batera, 1950eko eta 1960ko hamarkadetan, jaiotze kopuruak nabarmen egin zuen gora eta, hedaduraz, eskoletako ikasleak ere biziki ugartu zen. Ondorioz, Estatuak baliabide anitz zuzendu behar izan zituen hezkuntzara. 1964ko legearen bidez⁵⁰, Tamayo ministroak, lehen hezkuntza modernizatzeko asmoz, derrigorrezko hezkuntza 14 urte arte luzatu eta hezkuntza sistema osoa berrantolatu zuen⁵¹ (Aguado, 2012).

1970 arte itxaron behar izan zuten Hezkuntza Lege Orokorrek bertan behera eta behin betiko indarrik gabe utzi zezan Moyano Legea. Urte hartan abiarazi zuten autorearen omenez Villar Legea izenaz ezagutuko zen Hezkuntza Lege Orokorra. Espainiako hezkuntza sistemak inoiz izandako erreformarik garrantzitsuena izan zen, Moyano Legeaz geroztik eta LOGSE iritsi arte. Honako helburu nagusi hauek izan zituen, besteren artean: hezkuntza sistemaren kalitatea hobetzea, irakasleen etengabeko prestakuntzaren bidez; curriculum modernizatzea; irakaskuntza metodo berriak erabiltzen hastea; orientazio profesionaleko zerbitzuak sortzea; eskola errendimendua ebaluatzea, etab. (De Puelles, 2010)⁵².

Hezkuntza Lege Orokorra baino lehenago, 1969an Hezkuntzaren Liburu Zuria argitaratu zen, non garaiko egoera pedagogikoa kritikatzeko gain, irtenbideak ere proposatu baitzituzten (Hezkuntza Lege Orokorren oinarri izango zirenak). Nolanahi ere, Lege Orokor hura erreforma berri eta erabatekoa izan zen, benetako hezkuntza sistema bat sortzea helburu izan zuena. Legegileek oinarri hartu zituzten Espainiako eta Europako alderdi pedagogiko historiko anitz, hezkuntza sistema moderno, berritzaile eta garaian garaikoa taxutu nahian (baziren han zenbait alderdi ILErekin zerikusia zutenak). De Puelles-en (2010) esanak baliatuko ditugu Lege Orokor haren

⁵⁰ Aipatzekoa da 1960an biztanle guztien % 11 eskolagabeak edo analfabetoak zirela.

⁵¹ Zehaztu egin zen, halaber, ikasgela bakoitzeko ikasle kopurua, bultzatu egin zen eskolaurreko etapa eta arautu egin ziren bigarren hezkuntza eta ikasketa profesionalak.

⁵² Etapa demokratikoaren hasieratik, bigarren hezkuntzari zegozkion legeek planteamendu berritzaileak ekarri zituzten curriculum definitzeko. 1970eko Hezkuntza Lege Orokorrek unitate didaktikoetan antolatutako irakaskuntza programazioa ezarri zuen. 1990eko LOGSEn edukiak antolatu ziren, trebetasun kognitiboak, prozedurazkoak eta jarrerari zegozkionak garatzeko. 2006ko LOEn hezkuntza planteamendu berriak txertatu ziren, gaitasunak ezartzearekin batera (Coterón y Gil, 2015).

printzipioak laburbiltzeko (nahiz eta printzipio haiek orduko errealitatearekin tupust egiten zuten eta aplikatzeko oso zailak ziren):

- Aukera berdintasunaren printzipioa gizarte osoarentzat.
- Hezkuntzaren eta lan munduaren arteko harremana, merkatuak eskatzen zituen profesionalak hezteko eta gaitzeko.
- Irekitze pedagogikoa.
- Erreformaren malgutasuna.
- Hezkuntzaren kalitatearen inguruko kezka, hura hobetzeko eta errendimendua goratzeko.
- Irakasten ziren edukien erreforma, eraginkorragoak izan zitezen eta ikasleek beren kasa ikas zitzaten.
- Ikasketa planen erreforma, ikasten zenaren eta mundu modernoak eskatzen zuenaren arteko harremana estuagoa izan zedin.
- Ikastetxeen autonomiaren printzipioa.
- Berrikuntza pedagogikoa, irakaskuntza teknika berriak erabiltzen hasteko.
- Irakasleen prestakuntza eta hobekuntza, baita irakasle lanbidearen duintze sozial eta ekonomikoa ere.
- Erreformaren ezartze graduala (10 urte aurreikusi ziren).
- Hezkuntza planifikazioa.
- Hezkuntza sistema bat sortzea.

Legeak, gainera, hiru hezkuntza ziklo arautu zituen: oinarrizko hezkuntza orokorra, batxilergoa eta unibertsitate ikasketak.

Oinarrizko Hezkuntza Orokorrak (EGB zelakoak) 6-14 urte bitarteko ikasketak biltzen zituen (etapa hura derrigorrezkoa eta doakoa zen eta zortzi urteko hezkuntza komuna bermatzen zuen Estatuaren lurralde eremu osoan)⁵³. Ziklo hura amaitzean ikasleek Eskola Graduatua eskuratzen zuten. Garridok (1979: 131) dioenez, *“ez zen izan hezkuntza sistemaren hedapen huts bat; hezkuntza politikaren eta hezkuntza sistemaren egiturazko erreforma bat izan zen, batez ere”*. Horrez gain, Garridok berak (1979: 133) esan bezala, beharrezkoa zen *“oinarrizko hezkuntza komun bat ezartzea denentzat, ikasle bakoitzaren premietara egokitzea, irakaskuntza indibidualizatze teknika sustatzea, eskolako lana etengabe eboluzionatzea, ikasleen originaltasuna eta sormena akuilatzea, irakasleen koordinazioa hobetzea, tutoretza eta eskola orientazioa ematea, ingurumena modu praktikoan eta afektiboan ezagutzea, etab.”*

⁵³ Horixe izan zen berrikuntzarik garrantzitsuena, ez bairik gabe.

Ikaslea bigarren ziklora sartzen zenean, hautua egin behar zuen Batxilergo Bateratu Balioaniztunaren (BUP zelakoaren)⁵⁴ eta lehen gradu Lanbide Heziketaren (FP zelakoaren)⁵⁵ artean. Batxilergoa amaituta, ikasleak Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtea (COU zelakoa) nahiz bigarren gradu Lanbide Heziketa aukera zezakeen.

Unibertsitate mailako ikasketek, era berean, hiru ziklo zituzten: lehen zikloa hiru urteko karrerei zegokien eta diplomatu, arkitekto tekniko edo ingeniari tekniko titulua lortzeko bidea zen. Bigarren zikloak, bi urte zirauenak, lizentziatua titulua ematen zuen. Hirugarren zikloak helburu zuen ikaslea prestatzea irakasle edota ikertzaile jarduteko; doktore titulua erdiesteko bidea zen (De Puelles, 2010).

1978an, Konstituzioarekin eta etapa demokratikoarekin bat, ezinbesteko iritzi zioten, demokrazia sendotu eta egonkortzeko, gizartea hezi eta prestatzeari. Historian estreinako, hezkuntzaren eremuko eskumena partekatu egin zen Gobernu Zentralaren eta Autonomia Erkidegoan artean. Aipatzekoa da Konstituzioa ezarri osteko urteetan gobernuan ezegonkortasun handia izan zela: 1976-82 epealdian, hezkuntza eremuan 6 ministro desberdin izan ziren eta horrek eragotzi egin zuen hezkuntza sistema iraunkor bat adostea eta erreformatzea (De Puelles, 2010).

Espania 1986an Europar Batasunean sartuko zela aurreikustean (eta sartu ondoren ere bai, noski), apurka-apurka hezkuntza arloko legeak Europak ezarritako eskaeretara egokitzen joan ziren (besteak beste, titulazioen baliokidetzak). Alde horretatik, urteen joanean hezkuntza arloko hainbat lege gauzatu zituzten; esate baterako: 1980an LOECE zelakoa (Ley Orgánica del Estatuto de Centros Escolares); 1983an LRU zelakoa (Ley de Reforma Universitaria); 1986an LODE zelakoa (Ley Orgánica del Derecho a la Educación)⁵⁶; 1990ean LOGSE zelakoa (Ley Orgánica de Ordenación General del Sistema Educativo); 2001ean LOU zelakoa (Ley Orgánica de Universidades); 2002an LOCE zelakoa (Ley Orgánica de Calidad de la Educación)⁵⁷; 2006an LOE zelakoa (Ley

⁵⁴ BUP zelako hartan curriculum misto bat ematen zen eta helburu zuen ikasleek kultura zabala berenganatzea. Ikasleak unibertsitaterako prestatzen zituen eta gehienbat gizarteko erdi- edo goi-mailako klasekoei zegokien. “Balioaniztun” izendapenak adierazten zuen gai teorikoak eta lan munduarekin loturiko gai praktikoak bateratzen zituela.

⁵⁵ Lanbide jakin baterako prestakuntza profesional eta espezifikoa ematen zuen. Ikaslea lan mundura zuzentzen zuen. Gizarteko erdi- edo behe-mailako klasekoei zegokien nagusiki. Lege hari eginiko kritika batek hor zuen gakoa: hain gazterik hautua egin beharrak zekarren diskriminazio bidegabea, alegia.

⁵⁶ LODEk alderdi politiko guztien babesa bilatu zuen, legea egonkor eta iraunkorra izan zedin. Bermatu egin zuen pertsona guztiek hezkuntza izateko zuten eskubidea, bereziki nabarmenduz doako, derrigorrezko eta oinarritzko hezkuntza bat lortzeko beharra (De Puelles, 2010).

⁵⁷ Lege hark ez zuen onespenez izan, ez irakasleena, ez ikasleena, ez sindikatuen, ezta gizartearena ere. Kutsu neokontserbadore handia zerion legeari. Gainera, hezkuntzarekin baino instrukzioarekin zerikusirik handiagoa zuten kontzeptuetan oinarritzen zen gehienbat (De Puelles, 2010).

Orgánica de Educación)⁵⁸; eta gaur egungo LOMCE delakoa (Ley Orgánica para la Mejora de la Calidad Educativa)⁵⁹.

Unibertsitateari gagozkiola, komeni da gogoraraztea zein zen Espainiako unibertsitatearen egoera 1983ko LRU hura baino lehenago. De Puelles-en (2010) esanetan, honako hauek ziren garaiko unibertsitatearen nondik norakoak eta nolakoak: ikasleak gero eta gehiago ziren urtez urte (71.000 ikasle 1960an eta 650.000, berriz, 1980an); unibertsitate mailako ikastetxeak ordenarik gabe hazi eta ugaltu ziren; irakasleak ezgauzak ziren, oro har; planifikaziorik ez zen egiten; ikasketa planak zurrinak ziren oso; eta ez zegoen ia loturarik ikerketaren eta irakaskuntzaren artean. Hortik ondoriozta daiteke zer nolako arrakala handia zegoen unibertsitatearen eta gizartearen artean. Horiek horrela, 1983. urteko LRU hark unibertsitateari autonomia eman zion, bai ikerketaren eremuan eta bai irakaskuntzaren eremuan zegozkion helburuak lor zitzen.

LRU haren ezaugarri nagusien artean honako hauek aipatzea merezi du (De Puelles, 2010):

- Zerbitzu publiko bat ematen zuen agente bat zen unibertsitatea (ondorioz, finantziario publikoa izan behar zuen).
- Sistema autonomo, interdependente eta elkar erlazionatua zen. Unibertsitate guztiek titulu ofizialak ematen zituzten arren, elkarrekin lehian aritzen ziren eta kalitate ezberdina zuten; ondorioz, titulu guztiek ere ez zuten ospe berdina.
- Sailak edo Departamentuak ziren unibertsitate sistemaren oinarri.
- Nolabaiteko autogobernu mugatu bat aitortzen zitzaion.

Azken urteotan hezkuntza alorrean izan diren legeak aletzen jarraituz, LOGSE zelakoaren kasuan aipatzekoa da haur hezkuntza, lehenengoz, 6 urte arte arautu zuela, nahiz eta derrigorrezkoa ez izan; eta ezarri zuen nahitaez haurrak 16 urte arte eskolatu behar zirela. Lege hartaz geroztik oinarritzko hezkuntza doakoa eta nahitaezkoa izan da. Lege hark, era berean, azpimarratu egin zuen hezkuntza pertsonalizatua, aniztasuna kontuan hartzea, behar bereziak zituzten ikasleei laguntza berezia ematea, etab. Neurriak neurri, eskolatzeko tasak nabarmen goratu baziren ere, kalitatea ez zen hein berean igo eta eskola porrotak handia izaten jarraitu zuen (hala da gaur egun ere). Gainera, egiazki hezkuntza pertsonalizatua bermatzeko, baliabide asko eta askotarikoak

⁵⁸ Kontsentsu zabal eta sendoa bilatu zuen, hezkuntza sistemari egonkortasuna emateko. Ez zuen erabateko adostasunik lortu, baina bai parlamentuko talde gehienek babesa.

⁵⁹ Azken 25 urteetan 8 lege organiko pilatu dira.

eskaini behar zaizkio zeregin horri eta ikasgela-irakasle bakoitzeko ikasle kopuru handiak ia ezinezko bihurtzen du hori (Aguado, 2012).

Bestalde, 2001eko LOU legeari eta haren ondoriozko unibertsitate erreformari dagokienez, nabarmentzekoa da hainbat neurri abiarazi behar izan zirela 1999ko Boloniako Planak ezarritako marko europarrera egokitzeko⁶⁰. Espainiako unibertsitate planak Europaren eskaeretara moldatu behar izan ziren. Herrialde ezberdinetako titulazioak baliozkotzeko modua ezarri zen; era berean, unibertsitate ezberdinen artean ikasleak eta irakasleak trukatzeko aukera ere zabaldu zen. Boloniako Planak bilatu zuen unibertsitate ikasketek gero eta lotura handiagoa izan zezaten lan merkatuaren eskaerekin. Gainera, hezkuntza kalitatea handitu nahi izan zuen, batik bat irakaskuntza metodologietan oinarrituta. Autonomia eta aniztasun instituzionala errespetatuz, titulazioen egitura jakin bat ezarri zuten, bi maila bereiziz: gradu ikasketak eta gradu ondoko ikasketak. Berebat, sistema jakin bat ezarri zuten lan akademikoa neurtzeko (ECTS kreditu sistema – *European Credit Transfer System*) (Aguado, 2012).

Azkenik, 2006ko LOEk hainbat neurri hartu zituen arazoei aurre egiteko eta zenbait berritasun ere ekarri zuen, hala nola (De Puelles, 2010): irakasleei babesak eman; errefortzu ekintzak egin; curriculumak dibertsifikatu; taldekatze malguak egin eta klaseak erdibitu; diagnosi goiztiarrak egin eskola porrota ekiditeko; derrigorrezko hezkuntzan oinarritzko gaitasunak zehaztu; etorkinei, gutxiengo etnikoei eta premia bereziak dituzten ikasleei arreta berezia eskaini; ikastetxe publikoetan jarduera eta zerbitzu osagarriak abiarazi; hezkuntza konpentsatzailea ezarri; landa eremuko eskoletan arreta jarri, etab.

Amaitzeko, une honetara iritsita, Espainian hezkuntzak izan dituen gorabehera historikoei erreparatu ondoren, jakin badakigu zein izan diren hezkuntza eremuan aurreko belaunaldiak aurre egin behar izan dieten arazoak eta badakigu, halaber, denboran barrena zer nolako irtenbideak planteatu izan zaizkien arazo horiei eta zein ezaugarri izan dituzten, garairik garai, hezkuntza sistemek. Hori guztia aintzat harturik, ondorio modura esan dezakegu hezkuntza ezinbestekoa dela gizartea eraldatzeko. Izan ere, eskolari dagokio —adierarik zabalenean ulertuta— gizartea etorkizunerako, bizikidetzarako eta askatasunerako hezte.

⁶⁰ LOU hura ez zuten kontsentsu bidez adostuta ezarri eta ez zuten, inondik ere, agente guztiak onartu (adibidez, CRUEk berak, hots, Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziak).

Eta, ildo horretan, premiazkoa iruditzen zaigu hobeto zehaztea eta sakonago aztertzea nondik nora eraldatu eta ugaritu diren, XX. mendean barrena, askotariko hezkuntza metodologiak. Eta eginbehar horri lotuko gatzaizkio, hain zuzen ere, hurrengo atalean, metodologia horien aurrendari, sustatzaile eta pedagogo nagusien eskutik helduta.

1.2.3. -HEZKUNTZA METODOLOGIA BERRIAK ETA PEDAGOGO NAGUSIAK

Atal honetan, XX. mendeko pedagogorik nabarmenenen ekarpen nagusiak aztertuko ditugu (gure ikergaia eragin handi eta zuzenekoena izan zuten autoreen ekarpenak, hain justu ere). Honako hauek dira: John Dewey, Francisco Ferrer Guardia, María Montessori, Ovide Decroly, Kurt Hahn, Jean Piaget, Lev S. Vygotsky, Célestin Freinet, Paulo Freire eta Ivan Illich. Ezbairik gabe, beste pedagogo batzuk ere sar genitzake gure azterketan, baina aipaturiko horiek baino ez ditugu miatuko; batetik, azterketa gehiegi ez luzatzeko; eta, bestetik, esandako horiek harreman estua izan zutelako gure tesiaren gai eta muinarekin. Azter ditzagun, bada.

1.2.3.1. JOHN DEWEY ETA PEDAGOGIA PROGRESISTA

Lehen Mundu Gerraren ostean, Eskola Berriaren ideiak alderdi sozialen inguruan ardatzen joan ziren ezari-ezarian. AEBn, XX. mende erdira arte, Eskola Berriaren tankerako mugimendu bat indarrean izan zen, *Eskola Progresista* edo *Hezkuntza Progresiboa* zeritzana. Mugimendu hark aurre egin zion eskola tradizionalari, irakaslea eta hezkuntza printzipio klasikoak giltzarri zituen eredu zaharrari, alegia. Horrela, eskola esperimental bat sortu zuten, non ikasleen lanaren erdigunean ikasleen beraien interesak, beharrak eta adinaren araberrako ezaugarriak kokatzen baiziren⁶¹.

Mugimendu hark —zeina unibertsitateko irakasleek abiarazi eta gerora eskola publikoetara eta elkarte profesioalera hedatu baitzen— helburu zuen gizartea bera eraldatzea hezkuntzaren bidez. Eskola Progresistak **John Dewey-ren (1859-1952)** filosofia izan zuen abiapuntu eta akuilu; Dewey AEBko pedagogorik original eta entzutetsuenetakoa izan zen, itzal handikoa, bere garaiko demokrazia gogoko ez zuen erreformatzaile soziala; Dewey-k eragin handia izan zuen progresismo pedagogikoaren garapenean⁶² (Aguado, 2012).

John Dewey “pragmatismo moderno” delakoaren teoriarari gorentzat hartu izan da. Dena dela, bestelako izenik ere eman izan zaio Dewey-ren teoriari: “aktibismo esperimental”, “garapen unibertsalaren teoria”, “teoria genetiko eta soziala”, “esperimentalismoa”, “funtzionalismoa” eta “progresismoa”, besteak beste (Blanco, 1996).

⁶¹ González Monteagudoren (2001: 24) hitzetan, “*hezkuntza progresiboa hezkuntzaren kontzepzio tradizionalaren aurka agertu zen, zeinak oinarri baitzituen diziplina moral eta mentala, gaitasunen lantzea eta instrukzio molde autoritarioa*”.

⁶² Dewey-ren aburuz, pedagogia berriak pedagogia tradizionala irauli eta itxuraldatu behar zuen, bai ikuspegi teorikotik eta bai ikuspegi praktikotik ere (González Monteagudo, 2001).

Dewey-k zorrotz kritikatu zuen hezkuntzak ordu arte izandako kontenplazio kutsua. Kritikatu egin zuen hezkuntzak informazioa jaso eta gordetzea beste helbururik ez izatea; irakaskuntza espermentalistaren beharra azpimarratu zuen, ikasleak gai izan zitezten arreta jartzeko, memoria lantzeko, behatzeko, abstrakzioa egiteko eta orokortzeko. Dewey-ren ustez, ikasleak jarrera aktiboa eta oldarkorra izan behar zuen ikasketa prozesuan (ikusle huts izateari utzi eta agente parte-hartzaile bihurtu behar zuten)⁶³; eta irakasleari, berriz, gidari lana egitea zegokion. Hala zioen Dewey-k berak (1916: 23): *“orain arte ikasleen instrukzioaz baino ez gara arduratu, ezen ez hezkuntzaz. Orain arte kanpo ekintzetan baino ez ditugu aldaketak egin, ezen ez ikasleen jarreraren alderdi mental eta emozionaletan [...] hortaz, desberdintasun batzuk aurkitu behar ditugu instrukzioaren eta hezkuntzaren artean”*.

González Monteagudoren hitzetan (2001: 23), *“Dewey-ren ezagutzaren teoriarekin loturiko kontzeptu nagusia, eta segur aski haren sistema filosofikoaren kontzepturik garrantzitsuen, **esperientzia** zen [...] Izan ere, Dewey-ren aburuz, esperientzia ez da ezagutzarekin loturiko zerbait bakarrik; horrez gain, esperientzia norbanako baten eta bere ingurune fisiko eta sozialaren arteko trukeari dagokion zerbait ere bada [...] Horrela, Dewey-rentzat, hezkuntza da esperientzia etengabe berrantolatzea eta berreraikitzea”*.

Dewey-k, bere bi lan nagusien bidez —*Demokrazia eta Hezkuntza* (1916) eta *Esperientzia eta Hezkuntza* (1938)—, hezkuntza tradizionalaren pasibotasunari eraso egin zion eta bere ekarpen behinena egin zuen: ikasleak beren ikasketaren subjektu aktibo dira. Gainera, azaldu zuen nola esperientziak eta teoriak edo hausnarketak batera joan behar zuten. Aldarrikatu zuen eskolak hurren pentsatzeko ohitura egokiak sustatu behar zituela, haien trebetasunak sailkatu eta bereizi gabe. Zorrotz kritikatu zuen “ezagutza”, informazio bezala ulerturik, sarritan helburutzat hartzen zela bere horretan, buruz ikasi, pilatu eta irakasleak eskatzean plazaratzeko; ezagutzak pilatzeari zegokion ideal estatiko hura, Dewey-ren ustez, hezkuntza garapenaren etsaia zen. Are gehiago, *“ez ditu soilik pentsatzeko aukerak alferrik galtzen; horrez gain, pentsamendua ito egiten du”* (Dewey, 1916: 139).

⁶³ Ikusle huts denean, ikaslea indiferentea da, bost axola zaio gertatzen ari dena; edozein emaitza egokia iruditzen zaio, emaitzari otzan begiratzeko baino ez dagoelako han. Aitzitik, agente parte-hartzailea denean, gertatzen ari den horri lotuta dago ikaslea; emaitzak bereziak dira ikaslearentzat. Eta interesak asmoak, helburuak, kezak, motibazioak eta halako hitzek areagotu egiten dute ikaslearen grina desiratutako emaitzak lortzeko (Dewey, 1916).

Esana dugunez, Dewey-k sistema tradizionala kritikatu eta hezkuntza berri baten alde egin zuen, *ekintza bidezko hezkuntzaren* alde, hain zuzen ere. Hezkuntza berri hura ez zen ezagutzak transmititze hutsa, baizik eta hezkuntza holistikoa izan behar zuen, pertsona bere osotasunean aintzat hartuko zuena gizarte demokratiko bateko kide izan zedin. Gainera, Dewey-k premiazkoztat jo zuen formulazio pedagogiko berri eta alternatibo bat lantzea (zer irakasten zen eta nola irakasten zen oso aldendurik zeudela uste zuen); horrela, Dewey-ren iritziz, ekintzak edo praktikak irakaste-ikaste prozesuaren funtsezko ardatza izan behar zuen. Bi oinarrizko printzipio zituen haren teoriak: jarraitutasuna (iraganeko esperientziek eragina dute oraingoetan) eta elkarrekintza edo interakzioa (unean uneko esperientziak egoera guztien arteko elkarrekintzaren emaitza dira). Horiek horrela, proposatu zuen irakasle orok kontuan hartu behar zituela ikasle bakoitzak iraganean izandako esperientziak, baita ikasleen arteko ezberdintasunak ere. Bazekien, jakin, hori oso zaila zela, baina Dewey-k zioenez ezberdintasun horiek kontuan hartuta diseinatu eta taxutu behar ziren irakasteko moduak eta ikasketa planak (eta kontuan hartu behar zen, halaber, ikasketa horiek zer testuinguru sozialetan gertatzen ziren ere) (Crosby, 1995; Pardo eta García-Arjona, 2015).

John Dewey-k, ordu arte indarrean izandako eredu tradizionala kritikatzear⁶⁴, bestelako aukerak edo alternatibak ere proposatu zituen: inposaketa akritikoaren ordez, eduki “sakratuak” buruz ikasi ordez, diziplina irrazionalaren ordez, etorkizunerako instrukzio teknikoaren ordez eta errealitatearen ikuspegi estatikoren ordez, bestelako molde eta printzipio hauek proposatu zituen: norbanakoaren garapean funtsaturiko “*progressive school*” zelako; oraina eta unean unekoa baloratzea batez ere; mundua etengabe aldatzen den subjektu gisa ulertzea; trebetasunak eta gaitasunak lantzea bitarteko diren aldetik, ezen ez helburu; errealitate fisiko eta sozialari dagokion esperientzia komunitik ateratako ekintza edo jarduera; haurren premien arabera antolatutako programak; jakintza eta ekintza batzea; eta irakaslea bigarren maila batera “jaistea” eta haurren protagonismoa handitzea (Blanco, 1996).

Blancoren esanei jarraiki (1996: 401), eskola progresiboaren oinarrizko printzipioak honako hauek ziren:

⁶⁴ Dewey-ren irudiko (1916), irakaskuntza metodo tradizionalak (zigor bidezkoek edo diziplinazkoek) ez zuten batere baliagarritasunik ikaslearentzat eta “ni”a lantzen ez zioten laguntzen. Gainera, ikasleek huts egiten zutenean, husegitea ikasleei berei egozten zitzairen eta diziplina gogorragoa behar zutelara uste izaten zen, porrotaren eragile edo erantzule irakaskuntza metodoak zirela onartu gabe. Ikasleari egozten zitzaion erantzukizun osoa eta huts egiten bazuen, diziplinatuagoa izan nahi ez zuelako baino ez zen. Diziplina hura lortzeko, irakasleak haurren gorputz jarduerak erreprimitzen eman behar izaten zuen denbora tarterik luzeena: geldi egotea saritzen zuten, isiltasuna, postura zurrun eta uniforme.

- Hezkuntzak aktiboa izan behar du eta haurren interesekin lotura izan behar du.
- Ikasi beharreko materia haurren buruan sarrarazi beharrean, arazoak ebatziz ikasi behar dute haurrek.
- Hezkuntza ez da bizitzarako prestatzea; bizitzak berak izan behar du hezkuntza edo hezibidea.
- Irakaslearen lanak ez du izan behar zuzentzea, baizik ere aholku eman eta laguntzea.
- Eskolak, lehia baino gehiago, lankidetzat bultzatu behar du.
- Demokraziak baino ez du ahalbidetzen ideiak eta nortasunak askatasunez garatzea eta trukitzea.

Aurrekoarekin loturik eta González Monteagudoren (2001) esanak baliatuta, berriz ere nabarmenduko dugu Dewey-ren proposamen metodologikoaren funtsa **esperientzian** datzala; baina esperientzia horrek hausnarketa edo gogoeta eginarazi behar du eta, horrela, bost urrats bata bestearen ostean egin behar dira (horiek dira arazoaren metodoaren oinarriak)⁶⁵:

- i) Txundidura (haurraren egungo eta benetako esperientzia bat aintzat hartzea, etxean nahiz inguruan izandakoa).
- ii) Susmo edo aieru bat aurreratzea (esperientzia horretatik sortutako oztopo bat identifikatzea, aztertu eta gainditu beharreko oztopoa, alegia).
- iii) Azterketa arretatsua (eskura dauden datuak aztertzea eta soluzio bideragarriak bilatzea).
- iv) Soluzioaren hipotesia formulatzea (arazoa ebazteko ideia gidaria).
- v) Hipotesia egiaztatzeke plana, ekintzaren bitartez (praktika da arazoa ebazteko ikasleak egin duen hausnarketaren balio proba).

Dewey-k, bere proposamen pedagogikoak probatzeko, Eskola-Laborategi zirelakoak sortu zituen, non ikasleen curriculumak *zereginen* bidez osatzen baitzen; *zereginak*, Dewey-ren hitzetan, haurraren ingurune sozialarekin zerikusia zuten jarduerak funtzionalak ziren, haurra modu praktikokoan hezteko maila fisikoan, intelektualean, estetikoan eta moralean; lau gai zituzten ardatz: zura, etxebizitza, elikadura eta arropa. Adibidez: zura landu bitartean, aldi berean beste alderdi batzuk jorratzea proposatzen da, hala nola aritmetika, botanika, kimika, historia, fisika, zoologia, geografia, geologia eta mineralogia.

⁶⁵ Segida edo sekuentzia moduko prozesu bat da eta, horren bidez, ikerketa jarduerak gisa planteatzen da ikasketa (González Monteagudo, 2001).

Gure tesiaren ikergai zehatzari dagokionez, oso kontuan hartzekoa da Dewey-ren irakaskuntza metodoaren leloa: **“eginez ikastea”** (*“learning by doing”*). Horren harira, nabarmentzekoa da bere liburuetan sutsuki goraiatu zuela Gary sistema, zeinak *“ahalbidetu egiten zuen, txandaka, talde batek ikasgelako jarduera akademikoak egiten zituen bitartean, beste taldeak bestelako ikasketa esperientzia batzuk gara zitzan laborategietan, liburutegietan, gimnasioetan edo ikastetxeaz kanpoko beste gune batzuetan”* (González Monteagudo, 2001: 31).

Dewey-ren pedagogia progresistaren mugimendua nabarmen zabaldu zen AEBn, batez ere bi Mundu Gerren arteko epealdian, baina 1940ko hamarkadan gainbehera iritsi zitzaion eta Bigarren Mundu Gerra ostean ia desagertu egin zen (Aguado, 2012). Nolanahi ere, 1980ko hamarkadaz geroztik, hainbat autore eta obra pedagogiko berreskuratzen hasi dira Dewey-ren esanak eta ekarpenak.

1.2.3.2. FRANCISCO FERRER GUARDIA: ESKOLA MODERNOA

Francisco Ferrer Guardiak (1859-1909) bere bizitza osoan barrena gogor ekin zion eskola *moderno, arrazional* eta *zientifiko* bat sortzeari. Egia esanda, Ferrer Guardiaren ideiak ez ziren berritzaileak izan; ideioi praktikan gauzatzeko modua, ordea, bai. Ferrer Guardiak bortxa fisikorik eta hitzen bidezko bortxarik gabeko eskola baten alde egin zuen, zigorrik eta saririk gabeko eskola baten alde, azterketarik eta lehiaketarik gabeko eskola baten alde, non nagusi izango baitziren konfiantza, adiskidetasuna eta irakasle-ikasle arteko harreman indibidualizatua (Solà, 2001).

Asmo horrek xaxaturik, *Eskola Modernoa* sortu zuen 1901ean. Rousseau-ren ideiek blaiturik, Ferrer Guardiaren ereduak instrukzio anarkistatzat har daiteke. Egin nahi zuen eraberritze pedagogikoak zerikusi estua zuen garaiko korrante pedagogiko aurreratuenekin. Arreta ezarri zuen hezkuntza jasotzen zuen haurraren, eta argi esan zuen haurraren berezotasuna errespetatu behar zela eta eskolak haurraren eta naturaren arteko harremanari eutsi egin behar ziola (baiki, haurrek txango ugari egiten zituzten, ingurunearekin zuten kontaktua sendotzeko) (De Puelles, 2010).

Eskola Modernoaren ekarpen pedagogikoen artean, aipagarria da, testuinguru didaktikoari eta antolakuntzazkoari dagokienez, eskola ez zela eremu itxi bat; aitzitik, eremu erabat irekia zen. Eta, hartara, eskolaz kanpoko jarduera ugari egiten zituzten (bisitan joaten ziren **fabriketara**, museoetara, etab.). Eguneroko jardueren artean,

ohikoak ziren jokoak, paseoak, txangoak eta, are, unean uneko eta tokian tokiko inprobisazioak (Solà, 2001: 51).

Merezi du gogora ekartzea De Puelles-ek horren harira esandako hitzak: *“Ferrer Guardiak nahi zuen hurrek harremana izan zezaten inguruko errealitatearekin eta, hargatik, sustatu egin zituen fabriketara eta erakunde sozial eta kulturaletara egindako bisitak”*. Gainera, ko-hezkuntzaren alde ere egin zuen, eta ez soilik ikasgela berean sexu bateko eta besteko hurrei hezkuntza sistema bera baliatuta irakasteko; horrez gain, klase sozialen arteko bereizketa ere ekidin nahi zuen. Bistakoa da horrek zerikusia estua zuela ILEren eta Eskola Berriaren hainbat alderdirekin. Dena dela, premiazkoa da Ferrer Guardiaren eskolek zituzten zenbait bereizgarri aipatzea: adibidez, antimilitarismoa eta antiklerikalismoa; aipagarria da, halaber, beste zenbait balioen aurka egiten zuen gaitzespen bizia, hala nola jabetza pribatuaren aurka, erlijioaren aurka, autoritatearen aurka eta aberriaren aurka. Horrekin batera, Ferrer Guardiak hezkuntzari izaera edo funtzio ideologiko nabarmena esleitzen zion. Ferrer Guardiarentzat, hezkuntza balio ideologiko jakin batzuk ditu bere baitan, transmititu beharrekoak.

XXI. mendean, Ferrer Guardiaren Eskola Modernoak erreferente eta inspirazio-iturri izaten jarraitzen du zenbait eremutan (hezkuntza gizatiarraren ildoan, bereziki). Haren zenbait ideia goren (askatasuna, autonomia, elkartasuna eta konpromisoa) indarrean daude gaur egun ere eta, dudarik gabe, Ferrer Guardia da nazioartean ospe handiena izan duen pedagogo espainola (Solà, 2001).

1.2.3.3.- MARÍA MONTESSORI: PEDAGOGIA ZIENTIFIKOAREN METODOA

Maria Montessori (1870-1946) Italian jaio zen eta medikuntza ikasi eta doktore titulua lortu zuen. Buru ahulezia zuten hurrei ezarritako tratamendu positibo eta arrakastatsu baten ondotik, gai horrekiko interesa piztu eta psiko-pedagogiaren ikasketetan buru-belarri murgildu zen. Montessorik helburutzat hartu zuen eskola tradizionalak metodoa memoristikoa eta pasiboa aldatzea. Espiritu humanistaz horniturik, Montessori da Eskola Berriaren mugimenduaren ordezkari garrantzitsuenetakoa.

Montessorik (2009) hezkuntza tradizionala kritikatu zuen, haurrak bizitzarako prestatzeko metodologiatzat esanekotasuna, instrukzioa eta imitazioa besterik ez zerabilelako. Pla, Cano eta Lorenzo (2001: 69,70) autoreen esanetan, Montessoriren

proposamenak *“oinarriztat hartzen zituen ikasketa giro seguru, egituratu eta ordenatua; haurrekiko errespetu sakona; eta irakasleen ulermen eta maitasuna haurren hazkuntza eta garapena bultzatzeko [...] Montessoriren ekarpenak izan ziren jarduera ordenatu eta progresiboa, independentzia eta espontaneotasuna, haurraren berezkotasuna behatzea eta sistematizazio. Haren metodoa, nagusiki, **enpirikoa eta esperimental**a zen, **errealitatean** funtsatzen baitzen erabat. Hezkuntza hartzen zuen elikadura espiritualtzat, eskola baratz edo ortutzat eta haurra, berriz, esperimentuaren subjektutzat. Gainera, Montessorik gaur egun ohikotzat jotzen ditugun praktika batzuk txertatu zituen haur eskoletan, bere garaian zeharo berritzaileak izan zirenak: haurren neurriko aulkiak eta altzariak, ordubeteko loaldia eskolan bertan, eskolaz kanpoko irteerak, material ludikoak ikasgelan, etab.”.*

XX. mende hasieran, Maria Montessorik metodo eta material didaktiko berriak eskaini zizkion pedagogiaren munduari, gaur egun ere herrialde askotan zeharo lagungarri direnak eskolaurreko hezkuntza garaian baliatzeko. Montessori konturatu zen umeek, txiki-txikitik (eskolaurreko garaian), ekintzaren bidez ikasten zutela gehienbat, ezen ez pentsamenduaren bidez, eta materialak berebiziko garrantzia zuela ekintza hori elikatze eta haurra ezagutzarantz gidatzeko. Montessori, bere metodologia berria zehazteko, *Haurren Etxeak* zeritzen lekuetan izan zuen esperientzian oinarritu zen, non haurren hezkuntzaz, higieñez eta garapen fisiko eta moralaz arduratzen baitziren, haurren adinera egokitutako prozeduren bidez. Haurraren hezkuntzako lehendabiziko urratsetan, haurrari erakutsi behar zitzaion bizitza zer zen “deskubritzen” eta, ikasketa aktiboaren bitartez, bere giza potentzial osoa garatzen⁶⁶ (Aguado, 2012).

Montessoriren sistemak edo metodoak (zeinari Pedagogia Zientifikoaren Metodo izena ere eman izan zaion, zerabilen metodologiarengatik, ez landutako edukiengatik) behaketara eta esperimentaziora bultzatzen zuen haurra. Metodo hura, Gómez Morenoren (2009: 13) hitzak baliatuta, *“adin txikiko (3-6 urte arteko) haurren hezkuntza ekintzarako ‘konstrukto’ teoriko-praktiko bat zen”*. ‘Konstrukto’ ideologiko hura eraikitze, Montessorik aintzat eta inspiraziotzat hartu zituen, besteak beste, Rousseau, Tolstoi eta Pestalozzi; haren ustez, hezitzaileak aktore pasiboa izan behar zuen irakaste-ikaste prozesuan (gainditu egin behar zuen eskola tradizionalan zegokion funtzioa, ezagutzen transmisore huts izatearena, bigarren mailan kokatzeko eta haurraren ikasketa gidatu eta zuzentzeko; eskolek edo klaseek askotarikoak izan

⁶⁶ Hezkuntzak aintzat hartu behar zituen haurraren premiak, eta haiek ase behar zituen, honelako alderdiak landuz: askatasuna-independentzia (espontaneotasunez auto-diziplina garatzeko), psikologismoa, ingurugiro ordenatua, auto-hezkuntza eta haren nortasunarekiko errespetua (Gómez Moreno, 2009).

behar zuten, hurrek arretari eutsi ziezaioten, eta hezitzaileek azalpen laburrak baino ez zituzten eman behar). Aipaturiko 'konstrukto' horrek honako oinarri pedagogiko hauek ezartzen zituen: espazioaren antolaketa, haurraren interesetara egokitutako giroa eta materialak (interes hori haurrari zegokion urrats ebolutiboak markatzen zuten), eta haurra ardatz hartzen zuen didaktika (hots, aktiboa, indibiduala eta ikertzailea). Montessorik ikasgela irekien eta hezkuntza pertsonalizatuaren inguruko ideiak plazaratu zituen (Robinson, 2016).

Sariak eta zigorrak kentzearen aldekoa zen. Askatasunaren alde egin zuen, baina ez utzikeriaren zentzuan, baizik eta haurrak berak, ekintzen bidez, modu espontaneoan erakutsi eta garatu zituzan berezko zituen tasunak. Gainera, haurrak ez zuen uste izan behar geldi-geldi egotea ondo zegoenik eta aktibotasuna, berriz, oker aritzea zenik. Hezitzaileak arduratu behar zuen haurra aktiboa izan zedin eta lan egin zezan, pasibotasunik eta obediencia itsurik gabe (Filho, 1964).

Materiala zen, aipaturiko alderdi guztien artean, esanguratsuen eta Eskola Berriko beste autoreengandik gehien bereizten zuena⁶⁷. Haurren ikasgeletan jostailu didaktiko manipulagarri eta sentorialak zeuden, haurren psikomotritate eta adimena lantzeko. Sistema hori auto-zuzenketan oinarritzen zen (proba-hutsegite metodoan oinarritzen zen, hurrek beren kabuz deskubritu eta ikas zezaten); era horretan, jolasten ari zirela, haurrak egindako hutsegiteez ohartzen ziren eta irakasleek, zeharka, haurren gidari lana egin zezaket⁶⁸. Montessoriren aburuz, ekintza zen haurraren ikasketaren motorra (eskola tradizionalak zioenaren aurrean): aktibotasuna pasibotasunaren aurrean (Gómez Moreno, 2009).

Metodo hark haurrarekiko errespetua, ikasteko gaitasuna eta askatasuna zituen funts eta haren neurri egokitutako materialak eta ingurunea (tartean, altzariak) zerabiltzan hura motibatzen. Haurraren lan oro behaketan eta esperimendazioan funtsatzen zen. Hona hemen, Montessori bera (2009) eta Pla et al. (2001) kontuan harturik, metodoaren oinarri nagusiak, laburbilduta (II.1.4. taula).

⁶⁷ Materialak eta giroa erabat egokitu behar ziren haurren neurri eta beharretara.

⁶⁸ Ikasleak gutxi irakatsi behar zuten, asko behatu, eta haurren ekintza psikikoa eta garapen fisikoa zuzendu behar zuten (Gómez Moreno, 2009).

II.1.4 taula: Montessoriren metodoaren oinarriko alderdiak

1.- Haurren izaera urte luzez behatzen oinarritzen zen.
2.- Egiaztatu denez, metodoak aplikazio unibertsala du.
3.- Irakasleak, zeina funtsezko elementua baita hezkuntza sisteman, haurren hazkuntza eta auto-diziplina gidatzen eta sustatzen ditu, baina betiere zeharka. Ingurunea eta giroa apropos prestaturik daude haurrak berak, bere kasa, bere burua modu autonomoan garatu dezan.
4.- Haurrak eginez ikasi behar du nahitaez; hori da metodoaren ardatza.
5.- Sistema tradizionalarekin alderatuta, emaitza parekoak edo hobekiak lortzen dira (nahiz eta haurren espontaneotasunean oinarritu).
6.- Diziplina handia lortzen da, bitarteko koaktiborik erabili ez arren (haurren berezko bitarteko inbentzio bidez).
7.- Haurren nortasuna sakon errespetatzen da eta askatasun handia ematen zaio (ezen ez edozertarako baimena), propio prestaturiko giro batean. Autonomia, askatasuna (horrek ez du esan nahi, ordea, ordenarik eta helbururik gabeko mugimenduak egiten direnik) eta diziplina dira auto-hezkuntzaren gakoak.
8.- Metodoak modua ematen du haur bakoitzarekin era indibidualizatuan aritzeko eta bakoitzaren interesetara moldatzeko.
9.- Haur bakoitzaren ikasketa eta garapen erritmo bereziak errespetatzen dira.
10.- Lehiarako espiritua bertan behera ezabatzen da eta elkarri laguntzeko jokabidea sustatzen da.
11.- Metodoak ekidin egiten du haurra etsitzea, estutzea edo hurkoa baino txikiago edo gutxiago sentitzea.
12.- Metodoak haurren nortasuna bere osoan garatzen du (gaitasun intelektualak ez ezik, bestelakoak ere lantzen ditu: alderdi emozionalak, ekimenez eta independentziak aukeratzearekin loturikoak, alderdi sensorialak, motrizitatea, etab.).

Iturria: Montessori (2009) eta Pla et al. (2001).

Funtsezkoa zen haurren motibazio mugagabea beren ingurunea ulertzeko eta menderatzeko, propio programaturiko heziketaren bidez. Familiak ere buru-belarri konprometitu behar ziren haurren hezkuntzan. Hala ere, sarritan pertsona helduek, lagundu barik, oztopatu egiten zuten haurren hezkuntza (haurrari lagundu egin behar zioten beren kabuz adierazten eta hezten, baina ez haren ordez ezer egiten; behar ez bezala arituz gero, helduek traba egiten zuten haurren hezkuntza prozesua). Hurrei utzi egin behar zitzaizkien egiten beren kasa egiteko gai ziren guztia. Gurasoek haurrak hezi behar zituzten, gauzak beren kasa egiteko gai izan zitezkeen (haren lekuan eta haren ordez ezer egin gabe) (Montessori, 2009).

Gaur egun, nahiz eta metodo horri jarraitzen dion ikastetxe askorik ez den, Montessoriren filosofia indarrean dago hainbat joera eta alderdi pedagogikotan. Nabarmenezkoa da, halaber, Montessoriren metodoa etorkizunari begira ere

erreferentziazkoa izango dela segur asko, oinarri baititu zientifikotasuna, kalitatea, zorrozatasuna, berritzailetasuna, ekintza, auto-diziplina eta auto-hezkuntza (Pla et al., 2001).

1.2.3.4.- OVIDE DECROLY ETA INTERES GUNEA

Ovide Decroly (1871-1932) Belgikako psikologo, mediku eta psikopedagogo bat izan zen eta haur umezurtzekin lan egin zuen. Eskola Berriaren bultzatzaile handienetakoa izan zen eta XX. mendearen lehen erdian hezkuntzaren eremuari ekarpenik berritzaile eta eztabaidatuenetakoa (sektore tradizionalenek kritikatuenetakoa) egin zion: irakurtzen eta idazten irakasteko metodo globala eta eskola programazioa, **Interes Guneen** bitartez. Muset-en (2001: 101) hitzak baliatuz, *“bost adjektibok bereizten dute Decroly-ren obra pedagogikoa: biologista, pragmatikoa, bereizlea, aktiboa eta globalizatzailea”*.

Decroly-k Bruselan sortu zuen ospetsu bihurtuko zen *École de l'Ermitage* eskola; garai hartako hezkuntza sistema zorrotz kritikatu zuen eta, hartara, erabat aurkako sistema baten alde egin zuen, esperimentazioa ardatz hartuz eta Eskola Berriaren printzipioak lagun. Ez zuen bere metodoari buruzko libururik idatzi (nahiz eta bere garaiko autorerik iraultzaileenetakoa izan zen), uste baitzuen bere ideiak, printzipioak, teknikak eta metodoak argitaratzeak ondorioztat ekar zezakeela berak hauspotu nahi zuen hezkuntza moldeak indarra eta dinamismoa galtzea eta haren ahalmen berritzailea ahultzea. Aipatu ditugun beste autore batzuek bezala, Decroly-k ere inspiraziotzat hartu zituen Rousseau, Herbert, Froebel eta Pestalozzi, besteak beste. Decroly-ren esanetan, hezkuntzaren azken helburua bizitzaren garapena eta kontserbazioa ziren.

Mialaret (1968) eta Castro de Amato (1971) autoreek diotenez, Decroly-k hezkuntza sistema oso bat proposatu zuen, haurren berezko hiru ekintza edo prozesutan oinarritzen zena (horrek argi uzten du Decroly-k irakaste-ikaste intuitiboari ematen zion garrantzi handia): i) *behaketa* (ideia edo nozio konkretuak zuzenean jasotzea); horretarako funtsezkoa zen konkretutik eta esperientziatik abiatzea eta **errealitatearekin zuzeneko kontaktua** izatea⁶⁹; ii) *asoziazioa* (jada ez zen beharrezkoa zuzeneko behaketa; nahikoa zen aurreko esperientziak gogoratzea);

⁶⁹ Behaketa zuzeneko edo zeharkakoa izan zitekeen. Behaketa zuzeneko haurrak ezagutzen zuen errealitateari zegokion, baina haurrak artean egin gabe zuen horren inguruko azterketa sakon, analitiko, metodiko eta gidatutakorik. Irakaslea lagun, haurrak errealitatea deskubritzen zuen, hura ikusi, ukitu, entzun, egiaztatu eta ikertzen zuen (Castro de Amato, 1971).

horrela, haurrak gai izan behar zuen egungo egiaztapenak aurreko esperientziekin lotzeko, irakaslearen laguntzaz; eta iii) *adierazpena* (ahozkoa, idatzia, grafikoa, eskuzkoa eta artistikoa, nork bere pentsamendua bistaratzeko besteek ere ulertzeko moduan). Gainera, Decroly-k nabarmen uste zuen hezkuntzak malgua izan behar zuela eta ingurunearen aldaketetara etengabe egokitu behar zuela.

Decroly-k sakon aldatu zuen curriculum ***Interes Gune*** zirelako bitartez: materia edo ikasgaien sailkapen tradizionalaren orde, edukiak haurraren garapen psikologikoaren arabera kontzentratu zituen. Eskola programa edo egitaraua, beraz, gai esanguratsu jakin batzuen (“interes gune” zirelako) bidez eta horien inguruan osatu zuen; gai esanguratsu horiek haurrak bizi zuen ingurune errealetik atera zituen, haurraren beraren oinarritzko interes eta premia unibertsaleatik, alegia, betiere haurra errealitate aberats eta konplexuaren aurrean kokatzeko. Decroly-ren metodoak bazuen berritasun nabarmen bat: globalizazioaren printzipioa txertatu zuen curriculumean, gai edo interes gune guztiak bateratu eta egituratu baitzituen, denak elkarri loturik, eta gainera lortu zuen integratzea materia klasikoak, batetik, eta adierazkorrak, bestetik, unitate didaktiko bakoitzari zegozkion ariketa jakin batzuen bidez (Del Pozo, 2002).

Hortaz, Castro de Amato-ren (1971: 85) definizioari helduta, esan liteke ezen Interes Guneak *“haurrarentzat esangura handia duten gaien inguruko hezkuntza edukien eta jardueren multzoak direla. Gai horiek haurraren inguruko errealitateari dagozkion alderdi, elementu eta ‘pusketen’ artetik aukeraten dira. Zer gai aukeratu erabakitzeke, gaion **esangura** edo **adierazgarritasuna** hartzen da kontuan (ez nahitaez haien izaera utilitariora). Gaiok zerbait adierazten diote haurrari, haren **interesekin** bat datozelako”*.

Aipatzekoa da ezen, Decroly-ren iritziz, hezkuntzak haurraren beraren garapen propioa ekarri behar zuela, haren interesek (eta ez inposizioak) bultzatua, barrutik kanporakoa (eta ez alderantziz, instrukzioan bezala). Era berean, bat zetorren Dewey-rekin esatean hezkuntzak ko-hezkuntza bihurtu behar zuela eta irakaskuntza bere osoan haurrari zuzendu behar zitzaioela.

Decroly-ren metodologiaren oinarrian honako printzipio pedagogiko hauek zeuden (Aguado, 2012; Muset, 2001; Castro de Amato, 1971):

- ❖ Haurraren jokabide naturalekiko eta berezko jardueretik erabateko errespetua.

- ❖ Irakaslea aholkulari eta gidaria zen irakaste-ikaste prozesuan barrena; egoerak antolatzen zituen, eta gidari aritzen zen, baina ikaslea bera zen prozesuaren protagonista eta **eginez ikasi** eta deskubritu behar zuen.
- ❖ Horretarako, prozedura didaktikoak ahalbidetu egin behar zuen haurrak bere esperientzia propioaren bidez ikas zezan, eginez ikas zezan. Hori egiteko beharrezko ziren baliabide edo bitartekoen ordez errealitatea bera zuzenean behatzeko modua baldin bazegoen, errealitateari ematen zitzaion lehentasuna.
- ❖ Eskola giroa egoki antolatu behar zen (ikasgela modu egokian girotu behar zen, sarritan haurrak berak ekarritako materialez horniturik, Decroly-ren esanetan, edozein material erabil baitzitekeen helburu didaktikoak lortzeko).
- ❖ Eskola haurrari berari egokitu behar zitzaion. Haurrarentzat hurbileko errealitatea zen interesgarri eta halakorik ez zen sartzen ikasgai tradizionalen baitan; hortaz, gaiok aldatu behar ziren eta errealitatea eskolara gerturatu.
- ❖ Haurrak irakurtzen eta idazten ikasteko metodo global bat proposatu zuen Decroly-k, konplexutasun osoz idatzitako esaldien bitartez (eta ez letra eta soinuen bidez).
- ❖ Haurrak motibazioz eta aurkikuntzak eginez ikasi behar zuen, ez inposaketaren bidez.
- ❖ Zentzumenak pizten eta xaxatzen zituzten metodoak erabili behar ziren. **Zuzeneko behaketa** funtsezko jarduera zen, haurrak espiritu kritikoa garatu zezan. Hezkuntza sensoriala lantzen zen, benetako objektuen bidez. Hura behatu ostean, asoziazioak egiten ziren eta adierazi egiten ziren behatutakoa eta asoziazioa.
- ❖ Ume bakoitzari egokitutako programak ezarri behar ziren, haren interes eta gaitasunen arabera.
- ❖ Ariketak eta jarduerak banakoaren neurrira moldatu behar ziren (indibidualizazioa).
- ❖ Interes guzueen osagarri, metodoa aberastu egiten zen *hezteko jolasen* eta *gizarte bitartekoen* bidez. Metodoak bereizgarri zuen “jolasean ikastea”. Decroly-k batu egin zituen ikasgelan lana eta jolasa, ikasteko konbinaziorik egokiena zelakoan. Horrez gain, helduen gizartearen antzeko egitura bat sortzen zen.
- ❖ Ingurunea erabili egiten zen. Helburua zen haurrak bere ingurunea argi eta sakon ulertzea eta modu afektiboan bertan murgiltzea. Horretarako, etxeko eta komunitateko egoera errealak erabiltzen ziren; ingurune horretan haurra lotu eta integratu egiten zen mundu errealean, hura zen haurraren “laborategia”

behaketak egiteko, ikertzeko, paseatzeko, elkarrizketak egiteko... eta bere gaitasunak lantzeko.

Castro de Amato-ri jarraiki (1971), honako hauek ziren Decroly-ren metodoaren funtsezko ideiak (II.1.5 taula):

II.1.5. taula: Decroly-ren metodoaren ideia nagusiak

Globalizazioa	Ikaste prozesua modu globalean burutu behar zen. Irakaskuntza osoa materia edo ikasgaietan zatikatzearen kontra egin zuen; horren ordez, “unitate globalizatzaileak” proposatu zituen, hots, Interes Guneak.
Asoziazioa	Ezagutzak eraikitzea ez zen kontzeptuak pilatzea, baizik eta ezagutza berriak barneratzea asoziazioen bidez (espazioa, denbora, erabilgarritasuna, kausalitatea), edukiak integratzeko eta ordenatzeko. Garrantzitsuena ez zen ezagutzak gehitzea, baizik eta hurrari beharrezko tresnak ematea, ezagutzok bere kabuz erdietsi zitzan.
Interesa	Hurrari gehien interesatzen zitzaiona bere burua ezagutzea zen; gai hori funtsezkoa zen. Hezkuntzak hurraren interesa piztu behar zuen, ikasteko jokabide egokia garatu zezan (<i>hezkuntzarako motibazioa</i>).
Bitalismoa	Hezkuntzaren azken helburua zen bizitza garatzea eta kontserbatzea: “bizitzarako” eta “bizitzan” irakatsi nahi zuen Decroly-k. Izadiak ikasteko marko gisa balio behar zuen eta bertan behera utzi behar zen gauza bizigabeak ikastea.
Ekintza edo aktibitatea	Aurrekoarekin loturik, hurrak izadiarekin kontaktuan egon behar zuen, aske eta erabateko autonomiaz ibili behar zen. Umeak egin beharreko buru-lanaren arabekoak ziren hezkuntza prozedurak: prozedura sinpleenetan, umeak gertaera entzun edo irakurri baino ez zuen egiten; eszena nahiz irudi batean islaturik ere ikus zezakeen; edo, kasurik konplexuenean, bere kasa aritu eta bizi egin zezakeen gertaera . Decroly-ren irudiko, azken hori zen hezkuntzan erabili beharrekoa: umeak gertaera bizi izanez gero , orduan sartuko zitzaion barrura bide aktiboenetatik eta orduan piztuko zion interesa (ekintzaren, aktibitatearen bidez). Ikasketa guztiak esperientzia konkretuen bidez gauzatu behar ziren.
Indibidualizazioa	Irakaskuntza indibidualizatuaren alde egin zuen, haur bakoitzak bere garapen erritmoari jarraitu ziezaion. Ikasgela bakoitzeko haur kopurua murriztea proposatu zuen, baita hurrak adimen-mailaren arabera taldekatzea ere (ezen ez adinaren arabera).
Sozializazioa	Haur bakoitzak, lan indibidualak ez ezik, talde lanak ere egin behar zituen, gainerako umeekin sozializatu ahal izateko.

Iturria: Castro de Amato (1971).

Castro de Amato-k (1971), adibide modura, honako jarduera hauek proposatzen ditu, besteak beste, 4 asteko iraupena duen eta “Gure auzoa” izenburua duen Interes Gune bat planifikatzeko (II.1.6. taula):

II.1.6. taula: Interes Gune baten plangintza: adibidea

Azpigaia	Pizgarriak	Helburuak
Udal gobernuaren Udaletxea: funtzioak. Zerbitzu publikoak: horien garrantzia.	“Bisitatu dezagun udaletxea”	<p>Ezagutu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udal gobernuaren funtzioak. • Udaletxea eta bere sailak. • Udal zerbitzu publikoak. • Udal autoritateen izena. <p>Ulertu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udal gobernuaren beharra. • Udal zerbitzuen garrantzia. • Udal arauak bete beharra. <p>Abilezia jakin batzuk garatu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Modu metodikoan behatzeko; galdetzeko; entzuteko. • Ondorioak ateratzeko. • Gaiari dagokion hiztegia erabiltzeko. <p>Jarrera jakin batzuk landu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zerbitzari publikoen zereginak estimatzeko. • Arauak ulertu eta betetzeko. <p>Ohitura jakin batzuk landu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Adeitasuna edo kortesia. • Leku publikoak bisitatzeko jokabide egokia. • Egoki adierazteko gaitasuna.

Ikasleen ekintzak	Prozedurak	Irakaskuntza jarduerak	Metodoaren faseak
<p>1.- [...]</p> <p>2.- Udaletxerako bisitaldia antolatzea. Bisitaren helburuak finkatzea: “Udaletxean nola lan egiten den ikertzea”. Baimenak eskatzea, elkarrizketak, galdetegiak, etab.</p> <p>3.- Bisita egitea eta sail eta zerbitzuak behatzea. Funtzionario batzuekin hitz egitea. Udal arauak ezagutzeko, kausak eta efektuak.</p>	<p>Lan kolektiboa eta taldekakoa.</p> <p>Paseoa. Gidatutako behaketa;</p>	<p>Programazio jarduerak.</p> <p>Atzemate jarduerak.</p>	<p>Sozializazioa eta espazio asoziazioa.</p> <p>Zuzeneko behaketa. Lan asoziazioa eta</p>

4.- [...]	elkarrizketak;		kausalitatea.
5.- [...]	solasaldiak		

Iturria: Castro de Amato (1971: 112,113).

Labur esanda, Interes Guneek modua ematen zuten haur bakoitza zientifikoki aztertzeko eta bakoitzari ikasketa mota jakin bat egokitzeko, haren ezaugarri eta premien arabera, inguruneari erabateko garrantzia emanaz eta ikasteko modu natural eta bizia garatuz. Metodo horrek berdin balio zuen zailtasun bereziak zituzten haurrentzat eta bestelako haurrentzat. Gaur egun ere indarrean diraute Ovide Decroly-ren ideia askok, hezkuntza sistema tradizionalari kritika egiten diotenek, bereziki.

1.2.3.5.- KURT HAHN

Kurt Hahn (1886-1974) pedagogo eta filosofo alemaniarraren ekarpenek nazioarteko eragina izan zuten (ildo horretan, aipatzekoa da John Dewey-ren ekarpenek AEBn izan zutela eragin gehiena; Kurt Hahn-enek, ordea, Europan bereziki). Hahn-en pentsamenduan eragin berezia izan zuen Platonek. 1902an Eskola Berria sakonki ezagutzeko interesa bistaratu zitzaion; eta 1910an bere lehenengo liburua kaleratu zuen: hezkuntzaren hainbat alderdi jorratu zituen, eta biziki kritikatu Alemaniako hezkuntza eta ikastetxeak. Hahn-en iritziz, hezkuntzak alderdi akademikoez eta tradizionalaz gain, bestelako elementuak ere izan behar zituen; hezkuntza holistiko baten alde egin zuen, elementu akademikoez haragokoa, ikaslea bere osoan eta modu integralean hezteko, jarduera egokien bidez curriculum orekatuagoa lortzea xede. Ikasle bakoitzaren ahulguneetan arreta jarri beharra azpimarratu zuen, ahulgune horiek aukera ematen zutelako indargune bihurtzeko. Hahn-ek **ikasgelaz kanpoko jarduerak** proposatu zituen hezkuntza integrala lortzeko oinarri modura.

1920an, I. Mundu Gerra ostean Alemaniak bizi zuen testuinguruan, Hahn-ek *Salem Eskola* sortu zuen, erreferentziazkoa izango zen eskola misto eta erreformista. James-en hitzetan (2000: 3), *Salem Eskolan "giro osasungarria sortu zuen, non gazteek ohitura berriak ikas zitzaketen, bizimodu modernoaren balio hondagarrietatik babesteko"*. *Salem Eskolan*, hezkuntza molde bereziak erabiltzen ziren, Hahn-en ustez ezinbestekoa zelako ikasleek hala porrotak nola garaipenak esperimintatzea. Ikasleek arazoei aurre egiten eta oztupoak (eta, are, beren burua ere) gaintzen ikasi behar zuten, baita, komunitatearen mesedetan, beren beharrak eta desirak kontrolatzen ere. Antzeman behar zuten, esperientzia propioaren bidez, zein zen ekitearen eta autoezagutzaren arteko lotura. Irudimena landu behar zuten eta, gainera, Hahn-ek uste

zuen benetako ikasketak ezinbesteko zituela isiltasun eta bakardade uneak, baita zuzendutako jarduerak ere. Esaterako, egunero ikasleak isilean paseatzera ateratzen ziren, izadiarekin harremanetan egoteko eta beren hausnartzeko gaitasuna areagotzeko (Robinson, 2013).

1941ean Hahn-ek *“Outward Bound”* eskola sortu zuen, ikasleen hezkuntza holistikoa lortzeko eta haien konfiantza lantzeko, era horretan beren ezintasunak gainditu eta bestelako abilezia emozionalak maila goreneraino garatu zituzten, eta eguneroko bizimoduan biziraun zezaten. Ordea, arriskuz beteriko esperientziak ere biziartzen zitzaizkien, presiopean ikasleen jokabide jakin batzuk ezartzeko. Hezkuntza holistikoa hura bideratzeko, ikasgela barruko eta kanpoko jarduerak eta esperientziak baliatzen zituzten, natura bera ikasgelatzat hartuta (betiere ikasleen indarguneak sendotzea eta ahulguneak lantzea helburu). *“Outward Bound”* eskolak helburu zuen norbanakoa bera eta taldea bere osoan ere garatzea, horretarako zeregin eta erronka oso gogorak prestatuz, bai fisikoak eta bai intelektualak eta emozionalak ere, baina badaezpada “urrutiegi” ere joan gabe, ikasleen “izuaren mugetara” ez iristeko. Helburua zen ikasleak beren erosokeriatik edo “konfort zona” zelakotik ateratzea eta beren “erronka eta garapen” zonaldean murgilaraztea, hor gertatzen baitziren benetako ikasketa eta garapena, bai ikuspegi pertsonaletik eta bai profesionaletik begiratuta. Esperientzia mota horiek propio egituratzen ziren, ikasleek beren barruko baliabideak eta gaitasunak deskubritu eta ulertu zituzten (James, 2000; Reinoso, 2007; Veevers eta Allison, 2011).

Hahn-ek bereizgarri izan zituen hezkuntza esperientziala eta ikasgelaz kanpoko jardueren erabilera, gaur egun hainbat herrialdetan eta ikastetxetan egiten den gisan.

Hahn-ek zazpi printzipio ezarri zituen, *Salem*-en zazpi legeak:

- 1.- Ikasleei auto-aurkikuntzarako aukerak ematea.
- 2.- Ikasleek ezagutu eta bizi izan ditzatela bai garaipena eta bai porrota.
- 3.- Ikasleei komunitatearekin konpromisoa hartzeko aukera ematea.
- 4.- Isiltasunean egoteko uneak eskaintzea (meditaziorako).
- 5.- Irudimena edo imajinazioa lantzea, entrenatzea.
- 6.- Jolasak garrantzitsuak izan daitezela, baina ez nagusi.
- 7.- Ikasle pribilegiadunei pribilegioak kentzea eta “askatzea”, ahuldu ez daitezen.

1974an Kurt Hahn hil zenean, Londoneko “The Times” egunkariak esaldi hau argitaratu zuen, hura goraipatu nahirik: *“Gure garaiko ezein pertsonak ez du hezkuntza eremuan hainbeste ideia berritzaile sortu eta, aldi berean, ideia horiek indarrean jartzeko gaitasuna izan”* (Reinosok aipatua, 2007).

1.2.3.6.- JEAN PIAGET

Jean Fritz Piaget (1896-1980) suitzar epistemologo, psikologo eta biologo bat izan zen. *Psikologia genetikoaren* aitatzat hartua izan da. Famatua da haurren inguruko ikerketei egin zizkien ekarpenengatik eta inteligentziaren garapenari buruzko teoria konstruktibistarengatik; hezkuntza eremuan ere eragin handia izan du Piaget-ek, batik batik azken 40 urteetan.

Ildo horretan, Piaget-ek berak zioenez (1969: 143), *“ikuspegi pedagogikotik begiratuta kontserbadore zirenek eraiki izan dute eskola; garrantzi handiagoa eman izan diote belaunaldi berriei ikasgaraz beharreko ezagutza tradizionalen moldeari, inteligentzia eta espiritu asmatzaile eta kritikoa sortzeari baino [...] Hezitzaileak, modu inplizituan nahiz esplizituan, haurra ikusi izan du gizon txiki bat balitz bezala, hezi eta moralizatu beharrekoa, eta lehenbailehen helduen ereduarekin identifikarazi beharrekoa [...] materia gogor batez egina balego bezala, zuzendu beharrekoa [...] eredu berriek, ordea, aintzat hartzen dute haurraren berezko izatea”*.

Piaget-ek ikergai izan zuen gizakiak zer nola eraikitzen, osatzen eta lortzen dituen ezagutza zientifikoak; horregatik, haurren garapen kognitiboa ikertzeari heldu zion: *“arduratu zen ikertzeaz nola igarotzen den norbanakoa ezagutza-maila txikiagoa izatetik ezagutza-maila handiagoa izatera [...] Psikologia genetikoaren ikuspegitik, garapen kognitiboa da inguratzen duen mundua ulertzeko, azaltzeko eta aurreikusteko gizabanakoak duen gaitasunean hazkundera edo aurrerakada izatea”* (Carretero eta Fairstein, 2001: 181).

Aurreko esaldi horretatik erator daitekeen legez, haurrak edozeri buruz duen ezagutza eraikitzeko, ingurunearekin eragin-trukea edo interakzioa izan behar du. Ondorioz, ezagutzaren eraikitze hori baldintzatu egiten dute bai haurraren barruko eta aurretiazko egiturek eta bai ingurunearen ezaugarriek ere (Sakofs, 1995).

Ikasketaren ikuspegi konstruktibista ezagutzaren instrukzioaren beste muturrean (aurkakoa) koka daiteke. Ikuspegi konstruktibistatik begiratuta, posible da ikaste


prozesuari laguntzea edo hura erraztea, baina pertsona bakoitzak bere barne esperientzia berreraikitzen du; horiek horrela, esan daiteke inteligentzia ezin dela neurtu, pertsona bakoitzak berea baitu, bakar eta berdingabea, errealitatearen barne berreraikitze propio eta subjektiboa. Aitzitik, ikasketaren instrukzioetik begiratuta, uste da posible dela ikasketak edo ezagutzak programatzea eta, hortaz, aurrez eduki, metodo eta helburu batzuk finkatzea, “inteligentzia neurtezin” hori garatzeko.

Bien arteko aldea oso fina eta sotila dela dirudi, baina inplikazio pedagogiko, biologiko, geografiko eta psikologiko handien oinarria da. Adibidez, ikaslez beteriko ikasgela batean aplikatuz gero, konstruktibismoari jarraituta ikasteko klima mesedegarri bat sortu daiteke, eta lankidetzarako motibazio giro bat piztu, non ikasle bakoitzak bere ikasketa berreraikiko duen klaseko kideekin batera. Hortaz, ikasketa prozesuak du lehentasuna, curriculumaren helburuaren gainetik; ez legoke notarik, lankidetzaren baizik. Aldiz, adibideari eutsiz, instrukzioari jarraituta, eman beharreko eduki bat hautatuko litzateke eta eduki horren ikasketa optimizatuko litzateke aurrez zehazturiko metodo eta helburu batzuen bidez. Egiaz, gaur egun bi ikuspegiak nahastu egiten dira, baina, oro har, instrukzioak leku nabariagoa du hezkuntza sisteman.

Blasco-ren hitzetan (2003: 155), “*Piaget-en teoriak deskribatzen du inteligentzia nola sortzen den **esperientziaren** bidez. Inteligentzia ez da norbanakoaren sortzetiko barne ezaugarri bat; pertsonaren eta ingurunearen arteko integraziotik sorturiko emaitza da. Eta Piaget-entzat, **ekintza** giltzarri da. Eta hurrekin egindako esperimentu zehatzen bidez frogatzen du ezen hurrek esplorazioan eta ingurunearekin interakzioan egindako ekintzen bidez garatzen dutela arrazoibide abstraktua eta sinboloak manipulatzeko ahalmena*”.


Era horretan, Piaget-en aburuz, hurrek beren ingurunea ezagutzen dute ingurune horretan eta ingurune horrekin izaten dituzten ekintzen bitartez. Gainera, giza psikismoaren eboluzio eta adaptazioaren bi prozesuak *asimilazioa* eta *egokitzea* dira. *Asimilazioak* esan nahi du ezagutza berriak barneratzen direla norbanakoak duen objektu eta egoeren egitura batera. *Egokitzeak* esan nahi du egitura kognitiboa edo jokabide eskema aldatu egiten dela norbanakoak (haurrak) lehenago ezagutzen ez zituen objektuak eta ezagutzak hartzeko. Egituraren aldaketa horrek eragiten du haurra ezagutza-maila txikiago batetik handiagora pasatzea (Fairstein et al., 2001). Horrez gain, Atherton-ek ere (2013a) bi elementu horiek aztertu ditu, Piaget-ek garrantzi handia ematen baitzuen ezagutzak kanpoko mundutik nola barneratzen diren azaltzeko. *Asimilazioan*, kanpoko munduan hautemandakoa barneko mundura barneratzen da

barneko egitura aldatu gabe. *Egokitzean*, aldiz, barneko mundua egokitu egin behar da kanpotik datozen objektuetara. Dena dela, bi prozesuak ia aldi berean gertatzen dira (nahiz eta batzuetan bietako bat besteari gailentzen zaion). Hurrengo irudietan islatzen da bien arteko ezberdintasuna.



II.1.2. irudia: *Asimilazio* prozesua, Piaget-en arabera.

Iturria: Atherton (2013a).



II.1.3. irudia: *Egokitze* prozesua, Piaget-en arabera.

Iturria: Atherton (2013a).

Piaget-ek ***praktika esperimentalaren*** alde egin zuen eta irakaskuntza tradizionalari kritika egin zion, argudio honen bitartez: *“uste izan da ikasleei*

prestakuntza experimental nahikoa ematen zitzaiela, iraganeko esperientzien berri emanda edo irakasleak egindako proba eta esperientziak erakutsita, igeri egiten ikasiko bagenu bezala lehorretik uretan bainatzen ari direnei begiratuta [...] Ondorioz, hezkuntza intelektualak helburu badu inteligentziak sortzea, ez oroimena gauzaz betetzea, eta helburu badu ikertzaileak sortzea, ez soilik jakintsuak sortzea, alde horretatik irakaskuntza tradizionalak gabezia nabaria du [...] argi dago eskolan gaitasun horiek garatu eta bideratu behar direla, horien bidez espirtu experimentalak hezteko eta zientzia fisikoak ikasteko, ikerketa eta aurkikuntza oinarritzat hartuta, ez errepikapena” (Piaget, 1969: 62).

Piaget-en irudiko (1969, 1970), hezkuntza tradizionala (hartzailea) eta **hezkuntza aktiboa** alderatuz gero, lehenengoan “ikasleari lana eginarazten zaio”; eta ikasleak interes handiagoa edo txikiagoa izango du eta ahalegin handiagoa eta txikiagoa egingo du. Aldiz, eskola aktiboaren kasuan, helburua ez da umeari nahi duena egiten uztea; aitzitik, helburua da “umeak egiten duten guztia nahi izatea, umeek egin dezatela, ez inork eginaraz diezaiela”. Gainera, eskola tradizionalak harreman sozial mota bat baino ez du ezagutzen: irakaslearen ekintza edo jarduera ikaslearen gain (koakzio edo indarpean). Eskola aktiboan, ostera, ikasleek askatasuna dute elkarrekin lan egiteko eta lankidetzan aritzeko, talde lana eta “*self government*” delakoa funtsezko elementuak dira (irakaslearen ekintza soziala ezabatu gabe ere, haren koakzioa edo indarkeria murriztu behar da).

Horrela bada, interesaren legeak gobernatu behar du hezkuntza sisteman, inteligentziaren lan edo jarduera orok interesean baitu funts eta oinarria. Gakoa hauxe da: haurren egitura intelektual eta morala eta helduena ez dira berdinak; ondorioz, hezkuntza berriak ahalegina egin behar du ikasgaiak aurkezten haurren egiturak erraz bereganatzeko moduan, beti ere haurren adin eta garapenaren arabera. Horregatik, eskola berriarentzat oso garrantzitsua da jakitea zein den haurren pentsamenduaren egitura eta zein diren haurren mentalitatearen eta helduen mentalitatearen arteko harremanak. Era berean, jolasak zeresan nabarmena du ikasketan; izan ere, jolasten ari dela, haurrak garatu egiten ditu bere pertzepzioak, inteligentzia, esperimentatzeko joerak, etab.

Piaget-ek ez zuen hezkuntza metodorik edo teoriarik garatu, baina hark landutako kontzeptuak luze eta zabal erabili izan dituzte beste autore batzuek proposamen didaktiko eta pedagogiko ugari egiteko.

1.2.3.7.- LEV S. VYGOTSKY

Lev Semiónovich Vygotsky (1896-1934) errusiar psikologo bat izan zen, jatorriz judua; garapenaren psikologiaren teoriaririk nabarmenetakoa izan zen, psikologia historiko-kulturala sortu zuen eta sobietar neuropsikologiaren aitzindari nagusia izan zen. Vygotsky-ren lanak 1960ko hamarkadan deskubritu eta zabaldu zituzten mendebaldeko hedabide akademikoetan. Lev Vygotsky-k Jean Piaget-ekin bat egin zuen konstrukzionismoaren garapenean. Piaget-ek aztergai izan zuen ezagutza nola eraikitzen den, ingurunearekin izaten den interakziotik abiatuta. Ordea, Vygotsky-ren xedea izan zen erakustea zein garrantzitsuak diren interakzio sozialak ikaste prozesuan.

Vygotsky-ren funtsezko ideia arabera, gizakion garapena ezin da azaldu interakzio sozialaren bidez ez bada (hots, beste batzuek izandako esperientzietatik abiatuta loturak ezarriz ez bada). Vila-ren (2001) hitzetan, *“giza jokabideak ezaugarri du aurreko belaunaldietan pilatutako esperientzian oinarritzen dela; gizabanakoa ez da horren jabe jaiotzetik; aitzitik, hainbat prozeduraren bitartez bereganatzen du esperientzia hori; prozedurarik garrantzitsuena hezkuntza da”*. Jokabidea, azken batean, herentzian jasotako esperientziaren eta esperientzia propioaren bidez azaldu daiteke. Beraz, egoera sozial eta kultural espezifiko batean garatzen da gizakia, kanpotik barrura, eta, ondorioz, hezkuntza funtsezko aldagaia da garapen horretan.

Vygotsky-k landutako kontzepturik adierazgarrienetakoa *“hurbileko garapen zona”* da (kontzeptu hori garapenaren bidean hezkuntzak duen eraginari buruzko bere teoriari dagokio). Vygotsky-ren beraren hitzetan, ***hurbileko garapen zona*** delakoa honela definitu daiteke: *“benetako garapen-mailaren —zeina arazo bat modu independentean ebazteko gaitasunaren bidez zehazten baita— eta garapen potentzialaren mailaren —zeina pertsona heldu baten gidaritzapean edo norbera baino gaitasun handiagoa duen kide batekin elkarlanean arazo bat ebaztearen bidez zehazten baita— arteko aldea”* (Vygotsky, 1979: 133). Atherton-en (2013b) esanetan, egiaztatu izan da ezen hurrek zereginak beren kasa egiten dituztenean, pertsona heldu batekin elkarlanean egiten dituztenean baino okerrago egiten dituztela gehienetan. Eta hori ez da gertatzen soilik helduak zeregina nola egin irakasten dielako, baizik eta helduarekin duten inplikazio-mailak ahalbidetzen dielako beren ekintzak birdefinitzea, eraginkorragoak izan daitezten.

Kontzeptu horren baitan Vygotsky-ren pentsamendu asko sartzen dira; erakusten du nola, esparru sozialean, gizabanakoa jarduerak egiten aritzen dela elkarlanean, bera

baino gaituagoa den pertsonen laguntzaz eta gidaritzaz, zeinak arazoak ebazteko beharrezkoak diren tresnak zein diren irakasten baitio (arazoa ebazteaz gain, gizabanakoak tresna horiek bereganatzen ditu, etorkizunean beste arazo batzuek ebatzi ahal izateko). Horrez gain, Vygotsky-k irakaskuntza formalari bestelako prozedura eta tresna ez-formal ugari ere gehitzen dizkio, eta, era berean, nabarmentzen du pertsonen ikasten dutena ez dutela eskolan bertan soilik ikasten. Hezkuntzak, beraz, eremu formaletik harago joan behar du eta ez haren mugen baitan kailatuta gelditu. Vygotsky-ren ikuspegitik so eginda, kulturak bere baitan biltzen ditu hainbat prozedura eta teknika, aintzat hartu behar direnak eta eguneroko bizimoduaren osagai izan daitezkeenak. Horiek horrela, eskolako eta eskolaz kanpoko hezkuntza praktikei mesede egiten dien orok, era eta aldi berean, giza garapenari ere on egiten dio (Vila, 2001: 222).

1.2.3.8.- CÉLESTIN FREINET ETA ESKOLA AKTIBOA

Célestin Freinet (1896-1966) XX. mendean hezkuntza eremuan izan den pertsonarik berritzaileenetakoa da. Herriko irakasle izanik, haren proposamenek eskolako eguneroko errealitatean dute iturburua. Freinet-ek erabat argi zuen hezkuntza instituzioetan egin beharreko aldaketa guztiak behetik hasita egin behar zirela, irakasleen eguneroko zereginetatik abiatuta, alegia. Eskolan inprimategia barneratu zuen (zeina ekarpen aparta izan baitzen, hurrari bere idazlanak inprimatzeko aukera eman ziolako) eta, horrekin batera, bere izena duten teknikak sortu zituen, ikerketa pedagogikorako metodo ugari darabiltzatenak.

Freinet-ek Eskola Aktiboari zegozkion autoreen antzera pentsatzen bazuen ere, askoz pedagogia herrikoiagoaren alde egin zuen, eta kritika nabaria egin zion Eskola Aktiboa hartzen ari zen norabide elitistari. Freinet alderdi sozialek kezkatzen zuten⁷⁰. Eskola Aktibotik bereizi nahian, bere mugimendua ***Eskola Moderno*** izendatu zuen. Freinet-en ekarpenik esanguratsuenetakoa honela laburbil daiteke: proposatu zuen aldatu zitezela *“eskoletako eta ikasgeletako metodologia eta testuinguru sozialean irakaslearen konpromisoa”* (Imbernón, 2001: 254).

Freinet-en metodologiak askatasuna eta lana zituen funts. Horien bidez, haur bakoitzaren gaitasunak maila gorenera garatzea bilatzen zuen, hura gizartean integratu zedin eta, bere barruko gairik baliotsuena emanaz, gizartea aldatu zezan. Freinet-en

⁷⁰ Freinet-ek eskola “jardueren etxe” izatea nahi zuen eta buru-belarri ekin zion haurraren interesak garatzeari eta hari prestakuntza soziala emateari (Piaget, 1969).

metodologian bi alderdi nagusi ageri ziren: instrukzio akademikoa, batetik, eta balio eskala batean oinarrituriko ohiturak eta jarrerak garatzea, bestetik. Freinet-en eskolan, ikasleek lanari ekiten zioten irakasleak gidatuta. Ikasleek beraiek egiten zuten ikerketa eta aztertzen zuten informazioa eta denei zegokien irakaste-ikaste prozesuaren ardura (Aguado, 2012).

González Aja eta Irureta-Goyena (2015: 15) autoreek diotenez, Freinet saiatu zen eratzen, nolabait, *“beste botere pedagogiko bat botere ofizialaren aurrean; hori zen Freinet-en mugimenduko eskola kooperatiboaren ezaugarri nagusia; hartara, ikasgelan, ahal zen neurrian, boterea ikasleen eskuetan jarri zuen. Ingurune bizian egindako behaketa konkretuetatik abiatu behar zela zioen, baina behatzea soilik ez zen funtsezkoa; horrekin batera, eta bereziki, ulertu egin behar zen eta ekin egin behar zen [...] Abiapuntuak sorpresan zuen oinarria eta, era berean, sorpresa hura beste batzuekin partekatzeko eta azalpen bat bilatzeko premian eta bai [...]. Hots, garrantzitsuena zen bitartekoak sortzea galderak ernarazteko”*.

Imbernón (2001) kontuan hartuta, Freinet-en metodoaren printzipio nagusiak honako hauek ziren:

- Haurrak pertsona helduaren izaera berdina du. Haurraren nortasuna errespetatu behar da eta haren lekuan jarri, zigortu baino lehen.
- Ikasleak baino zaharragoa izateak ez du esan nahi haien gainetik egotea. Irakasleek eta ikasleek elkar errespetatzea sustatu behar da.
- Haurraren jokabidea haren egoera fisiologiko, organiko eta egiturazkoaren mendekoa da; hortaz, haurraren osasunaren hezkuntzaz arduratu beharra dago.
- Haurrak lana du berezko, ez jolasa. Lanaren pedagogia aurrera eraman behar da (hori izan zuen Freinet-ek bereizgarri, bere garaiko autoreekin alderatuta).
- Testuliburu soila ez da nahikoa; gabeziak ditu eskolan ikasteko. Freinet-ek haurren bizi esperientziak jo zituen ikasteko nahitaezko tresnatzat.
- Ezagutzak eskuratzeko prozesua saio edo proba esperimentaletan datza. Ez da ikasten lege eta arauen bidez, ezpada **esperientzien** bidez. Freinet-ek kritika zorrotza egin zion ezagutzak eskuratzeko metodologia tradizionalari eta, haren aurrean, bere *metodo naturala* garatu zuen, zeinak proba esperimentala hartzen baitzuen ikasteko oinarritzat (esperientzietatik abiatuta ikasten da).
- Hezkuntza indibidualizatuaren alde egin zuen, norbanakoen arteko ezberdintasunak aitortu eta onartzearen alde.
- Haurraren gaitasun guztien garapen harmonikoa bilatzen da.

- Gizarterako hezte

Azken batean, metodo naturalaren bidez, lan pertsonal eta taldekakoaren bidez, haurren garapen integralaren bidez, lortzen da elkarbizitza sozialerako kontzientzia sendo bat garatzea bai eskolan, bai etxean eta bai komunitatean.

Freinet-ek **tekniken** baitan askotariko jarduerak ageri ziren eta helburu zuten proba experimentalak sustatzea, baita haurren adierazpen askea, lankidetzak eta ingurunearen azterketa bultzatzea ere. Teknika horiek komunikazioa zuten oinarri funtzionalak. Gaur egun ere horietako gehienak aplikatzeko modukoak dira. Aipagarriak dira: i) eskolako inprimategia (haurren adierazpen askea bultzatzeko zerabilen Freinet-ek) eta inprimatze teknikak; ii) metodologia naturala (testu eta irudi askeak eskolako lanaren ardatz ziren Freinet-entzat); iii) eskolako fitxategi kooperatiboak (haur guztiek ekarpenak egin zituzten) eta auto-zuzentzaileak; iv) eskola arteko harremana; v) lan plana (epealdi jakin baterako lan konpromisoa); vi) asteko biltzar kooperatiboa, hitzaldiak eta hormako egunkaria; eta vii) interes esparruak (Decroly-ren interes guzuen oso antzekoak), non askotariko kontzeptuak lantzen zituzten, lan plan indibidualetan ageri ziren gaien bidez. Freinet-ek ezinbestekotzat jotzen zuen ingurunea aztertzea, behaketen bidez, inkestak bidez, **bisiten** bidez, esperimentazioaren bidez, etab. (Imbernón, 2001).

Ohargarria da ezen gaur egun Freinet-en teknikei zehatz-mehatz jarraitzen dien eskolarik ez badago ere, teknika horietako asko eskola ugarritan indarrean daudela. Eta Freinet-en prentsamenduak badu presentzia egungo anitz hezkuntza mugimendutan.

1.2.3.9.- PAULO FREIRE ASKAPENERAKO HEZKUNTZA

Paulo Freire (1921-1997) hezitzaile txiki ezaguna da pedagogia herrikoien alorrean. Hezkuntza gaietan aditua izan zen, eragin eta itzal handikoa, XX. mendean hezkuntza eremuan izan den teoriaririk aipagarrienetakoa. Gainera, gaur egun ere nazioartean

prestigio handia du, ekarpen nabarmenak egin baitzizkion hezkuntzari, menderatutako herrien askatasunerako praktika gisa (Sanz, 2002a).

Freirek miretsi egin zituen garaiko hainbat autore, tartean Freinet, Ferrer Guardia edo Dewey bera; haiengandik hartu eta nabarmendu zuen eginez ikastearen garrantzia (*“learning by doing”*); Vigotsky-ren miresle ere bazen: gogoko zituen haren garapen kognitiboaren nondik norakoak, baita ingurunea aldatzeko haren proposamenak ere, ikasketari bide emateko (eta alderantziz). Bitxiena da, ordea, Freireren hezkuntza proposamenak ez zirela zuzendu ezagutza gehiago nola lortu hobetzera (kapitulu honetan aztertu ditugun autore gehienek egin zuten bezala); Freirek aztertu zuen zer egin zitekeen ikasleek kontzientzia handiagoa eta mundua aldatzeko gogo handiagoa izan zezaten. Hasieran, Freireren metodoa tresna bat zen nekazari helduak alfabetatzeko eta hezteko, bizitza sozial eta politikoan parte hartu zezaten; horretarako, hezkuntzaren pentsamendua eta praktika bateratu egin zituen garaiko ezagutzaren eta komunikazioaren inguruko teoria aurreratuenekin (Igelmo, 2012). Fernández Fernández (2001: 324) autorearen esanetan, Freirek honako ideia nagusi hauek garatu zituen bere bizitzan barrena⁷¹:

- *“Helduen hezkuntzak oinarrian izan behar du ikasle horien egunerokotasunaren kontzientzia; gainditu egin behar du letrak, hitzak eta esaldiak ezagutze hutsa”.*
- *“Hezkuntza prozesuek eta prozesu politikoek horizontalak izan behar dute, hots, bai hezitzaileek eta bai politikariek ere beren ikasleengandik edo beren oinarriengandik ikasi behar dute, eta, aldi berean, haiei irakatsi eta haiek gidatu. Proposaturiko horizontaltasun hori ohiko praktikaren aurkakoa da, zeina bertikala den”.*
- *“Helduen hezkuntza ezin da izan maila akademiko jakin bat lortzeko tresna hutsa; herriaren pizkunde soziopolitikorako pizgarria eta bizitza publikoan parte hartzeko erreminta izan behar da”.*
- *“Ondorioz, ikasleek beraiek proposatu behar dituzte ikasketetako zenbait eduki”.*

Gerhardtl (2007: 12) autoreak dioenez, Freirek hezkuntzarekiko zuen interesak *“erdigunean jartzen zituen gizakiaren sormenerako eta askatasunerako aukerak,*

⁷¹ Hasieran, lehenengo fasean, Freirek hezkuntzaren dimentsio askatzailea hartu zuen ardatz; bigarren fasean dimentsio politikoa garatu zuen nagusiki; eta hirugarren eta azken fasean, hezkuntzaren dimentsio guztiak izan zituen aztergai (Fernández Fernández, 2001).

*mendekotasun handiko egitura politiko-ekonomiko eta kulturalen baitan. Helburu zuen askapenerako soluzioak deskubritzea eta aplikatzea, interakzio eta eraldaketa sozialaren bitartez, 'kontzientziazio' prozesuari esker; 'kontzientziazioa' prozesu bat zen, zeinaren bidez herriak kontzientzia handiagoa erdiesten zuen, bai bere bizimodua taxutzen zuen errealtate soziokulturalaren kontzientzia eta bai errealtate hori eraldatzeko herriak berak zuen gaitasunaren kontzientzia [...] Freirek hezkuntzaren praxiari zegokion fokapena proposatu zuen; horren arabera, hausnarketa ekintzan zetzan eta hausnarketa kritikoa praktikan oinarritzen zen". Freirek garatutako "sistemaren" funtsa zen hezkuntza prozesuak ikasleen **ingurunea** hartu behar zuela ardatz, eta ikasleek beren errealtatea ulertu behar zutela, ikasteko jardueraren osagai bezala. Hezkuntza teknikak irakaskuntza formalaren eta ez-formalaren maila orotan erabili zitezkeen. Era berean, Freireren aburuz, ezinezkoa zen ikastea, ezagutza horren eta norbere bizipen pertsonalaren artea kontraesana bazegoen. Izan ere, hezitzaile-agronomoak ez bazuen ezagutzen nekazarien mundua, nekez aldatuko zuen haren jarrera.*

Freirek ere, beste autore batzuek bezala, **esperientziaren** bidezko ikasketaren teoria landu zuen. Beaudin eta Quick (1995) autoreen esanetan, Freirek *praxi* hitza zerabilen, irakaslearen eta ikaslearen arteko elkarrizketa eta interakzio prozesua deskribatzeko (munduari buruzko hausnarketa eta ekintza, mundua eraldatzeko). Irakasleak ez zion esan behar ikasleari zer ikasi, baizik eta edukia ikaslearekin batera aztertu behar zuen eta orduan landu behar zuen ikasleak edukia. Freirek metodo tradizionalak kritikatu zituen, non irakasleak zioena beti zuzena baitzen eta ez baitzegoen tarterik bestelako pentsamendu edota ekintzentzat. Irakasleak giro egokia sustatu behar zuen, irakaslearen eta ikaslearen arteko elkarrizketa errazteko. Freirek kritika egin zien ohiko hezkuntzaren moldeei eta egiturei eta horien bidez ezartzen zen menderatze edo azpiratzeari. *Pedagogía del oprimido* (1970) obran, Freirek ikasgelako lanean rola aldatzearen alde egin zuen, non "*irakasleak utzi egingo zion ezagutzaren jabe eta ebaluatzaile bakarra izateari eta ikaslea murgilaraziko zuen modu aktiboan parte har zezan ikasteko esperientzia batean, irakasle-ikasle arteko aginte harremana murriztuta*" (Pardo eta García-Arjona, 2015: 82).

Funtsezko ideia horien artean, Freirek oso argi zuen hezkuntza ekintza guztiek dimentsio politiko bat zutela beti. Gainera, Freireren iritziz, praktikarik gabeko teoria "hitzontzikeria" zen; eta teoriarik gabeko praktika, berriz, "aktibismo zoroa". Biek batera joan behar zuten. Freirek "banku" hitza adjektibo gisa zerabilen (baita gogor kritikatu ere) hezkuntza tradizionalari esleitzeko: izan ere, hezkuntza tradizionalaren

ikuspegitik, ikasleek bankuen itxura zuten, non ezagutzak modu pasiboan sartzen eta gordetzen baitziren. Freirerentzat, elkarrizketa funtsezko tresna zen irakaste-ikaste prozesuan. Elkarrizketaren bidez, batu eta lotu egiten ziren errealitatea, teoria eta praxia. Elkarrizketarik ezean, *“errealitatearen zertzelada solteak buruz ikasiko edo pilatuko dira, baina subjektuak ez du ulertuko, ez sintesirik egingo, ez ezagutza egokirik bereganatuko, ez berak ezer sortuko”* (Fernández Fernández, 2011: 332). Bere metodoaren bidez, Freire konturatu zen ikasle analfabeto batek lortzen zuen ikasketa pertsonalizatua elkarrizketa bidez lortzen zuela, hots, irakasleak eta ikasleak errealitate edo egoera jakin baten inguruan hitz eginez eta hura ebatziz gertatzen zela ikasketa. Freirek hezitzailearen rola aldatzearen alde egin zuen, ikasleen ikasketaren “erraztatzaile” jardun zezan. Hala ere, Freirerentzat, hezitzailearen funtsezko helburua irakastea zen, betiere hura baino garrantzitsuagoa zen ikaste prozesuaren osagai gisa.

1.2.3.10.- IVAN ILLICH: ESKOLAGABETZEA EDO ESKOLARIK GABEKO HEZKUNTZA

Iván Illich (1926-2002) austriar pentsalari polemiko eta aldeaniztun bat izan zen, anarkistatzat joa, eta kultura modernoaren giltzarri ziren hainbat instituziori kritika zorrotza egin ziena. Besteak beste, gogor kritikatu zuen ekonomia modernoetako eskoletako hezkuntza moldea, uste baitzuen hezkuntza kontsumismo hutsa besterik ez zela, ikasleak bortxatu egiten zituela derrigorrezko curriculum bat ikas zezaten, eta, gainera, haurren interesentzat desagokia zela. Illich-en obra guztia korronte “anti-industrialen” magalean kokatu zen.

Eskolagabetzeari buruzko teoriari zegozkien proposamen pedagogikoen Mexikoko Cuernavaca hirian hasi zuten beren ibilbidea, han sortu baitzen CIDOC (*Centro Intercultural de Documentación*) zelako erakundea⁷², gune estrategikoa izango zena instituzio modernoaren inguruko prentsamendu kritikoa erantzuten XX. mendearen bigarren erdian. Eskolagabetzeari buruzko teoriak kritika latza egin zieten eskola instituzioei, haiek mendebaldeko gizarteetako hezkuntzan zuten agintea birrindu nahian. Teoria horien aldeko autoreen iritziz, eskola instituzio haiek, beharrezko zen aldaketa sozialari lagundu barik, hura oztopatzen zuten eta, horrez gain, kultura hondatzen zuten. Areago, autore haiek zioten eskolak zirela *“gizateriak azken mendeetan eraikitako*

⁷² 1970. hamarkada hasieran, CIDOC erreferentziazko gune bihurtu zen garai hartako eta mundu osoko hezkuntza agente aipagarrientzat. Alternatiba asko eta askotarikoak proposatu zituzten, hezkuntza sistema tradizionalen aurka jotzeko eta aldaketa instituzionalak gauzatzeko. Proposatu zuten *“bat-batean eta erro-errotik bertan behera uztea mendebaldean mende luzez sustraituriko egitura instituzional hura”* (Igelmo, 2012: 36).

espaziorik kaltegarri, zentzugabe, asmo gaiztoko eta dekadenteenak” (Igeldo, 2012: 32).

Gure tesi honetan erakutsi dugunez, azken mendeetan gizarteek eskuratu duten lorpenik handienetakoa izan da hezkuntza orokortzea eta 16 urte bete arte eskolara derrigorrez joan beharra ezartzea. Nolanahi ere, Illich-ek eta beste zenbait autorek uste zuten eskola unibertsalizatzeak eskola porrota areagotzen zuela. Horrela, eskolagabetzea defendatu zuten eta gordin kritikatu zituzten nahitaezko eskolatzeak ustez zekartzan onurak. Illich-en eta beste autore batzuen aburuz, *“eskolatzea zerbitzu publiko faltsua da eta pertsonen ikasteko gozamenaren eragozten die. Eskolagabetzearen aldekoek uste dute legitimoa dela eskolarik gabeko hezkuntza; baliagarriagoak direla ikasketak, ikasketa horiez arduratzen den instituziorik gabe; eta posible dela nahitaezkotasuna ezeztatzea*” (Tort, 2001: 272).

Illich-ek eskola ordeztzea edo gizartea eskolagabetzea nahi zuen. Haren ustez, eskolak ez ziren beharrezkoak (ez zituztelako beren helburuak lortzen), ezta komenigarriak ere (herritarren ikasteko potentziala galgaitzen baitzuten). Tiana et al. (2002: 318) autoreen arabera, *“ikasketak eskolaren mendean jartzea esperientzia, jakintza iturri gisa, gutxiesten da; eta irakaskuntza eta ikasketa identifikatzea irakasleei gehiegizko autoritatea ematea da; irakasleek beren ekintzetatik ez datorren beste edozein ikasketa baliogabetu ohi dute*”.

Illich-en beraren hitzetan, *“eskolak bereganatu egiten ditu ikasteko baliabide sozial guztiak eta bestelako bide batetik ikasi nahi duen ekinbide kolektibo oro adingabetzen du [...] Ikastea ez litzateke derrigorrezkoa izan behar, librea baizik, eta bakoitzak zuzenean ikasiko luke interesatzen zaiona eta interesgarri deritzen **lekuan**. Horren emaitza izango litzateke abilezia erabilgarri bat erdiesten, ez titulu edo diploma bat eskuratzea*” (Sanz-ek aipatua, 2002a: 320).

Illich bera baino lehenago, eskolagabetzearen aitzindari gisa, Goodman ere aipagarria da; haren iritziz, eskola sistemak ilusioz uste zuen *“ikasten zen gehiena irakaskuntzaren emaitza zela*”; haatik, Goodman-ek zioen ikasketak, gehienbat, modu kasualean lortzen zirela, eta, nagusiki, hori guztia eskolatik kanpo eta bizitza praktikoan gertatzen zela. Goodman-en irudiko, berriz ere *polis*-etara itzuli beharko litzateke, hiri osoa erabiltzeko ikasgela bat balitz bezala: dendak, kafetegiak, **industriak**, museoak, etab. Tort-en (2001: 276) esanetan, Goodman-ek nahi zuen *“eskola ez izatea nahitaezko eraikin bat eta deszentralizazioaren alde egin zuten, 50 ikasleko osaturiko eskola*

txikiak sortzeko, hiriaren luze-zabalean banaturik, eta han, irakasleek ez ezik, hezkuntza eremuko profesionalak ez ziren beste pertsona batzuek ere arreta eskaini ziezaietela ikasleei". Erabateko desinstituzionalizazioa nahi ez bazuen ere, Goodman-ek instituzioak errealitate sozialera zabaltzearen alde egin zuen, eskolak oxigenatu zitezten.

Illich-ek berak zioenez (Tort-ek aipatua, 2001: 282), *"eskolak erakusten du instrukzioak ikastea eragiten duela; eskolak izateak eskolatzeko eskaria eragiten du eta iraunarazi egiten du hezkuntzaren eta eskolatzearen arteko identifikazioa. Baina hori guztia faltsua da. Ikastea ez da instrukzioaren emaitza, baizik eta ingurune esanguratsu batean trabarik gabe parte hartzearen emaitza da, batez ere"*.

Illich-ek zioen hezkuntzaren kontzeptua ikuspegi askoz zabalago batetik begiratu behar zela. Hezkuntza, izan ere, bizitzaren luze-zabalean gertatzen da, ez dago mugaturik ez denborari, ez iraupenari, ez helburuei dagokienez ere. Eta instituzio bakarrari ere ez dagokio. Norbanakoak libre izan behar du ikasteko eta gainerakoekin harremanak izateko orduan. Horretarako, Illich-ek honako lau sare hauek proposatu zituen, eskola sistema tradizionalaren ordez (Tort, 2001):

- *Erreferentziazko zerbitzuak, hezkuntzarako objektuei zegokienez*: helburua zen ezagutzak eskuragarri izatea modurik simple eta ohikoenean. Hezkuntzarako objektu horiek izan zitezkeen izaera orokorrekoak, hala nola industriak eta fabrikak, edo izan zitezkeen ikasketetan zentratuagoak, hala nola museoak, erakusketak aretoak, liburutegiak eta laborategiak.
- *Abilezia azokak*: abilezia espezifikoa eskaintzen zituzten pertsonak edo entitateak.
- *Lagunak aurkitzen laguntzeko zerbitzuak*: ikasketa kooperatiboa gauatzeko komunikazio sarea.
- *Erreferentziazko zerbitzuak, hezkuntzarako agente independenteei zegokienez*: profesional eta pertsona independenteak, zenbait ikasketa espezifikoren kasuan aholkulari lanak egin zitzaketenak.

Horrenbestez amaitu dugu XX. mendeko pedagogorik nabarmenenen eta haien ekarpen nagusien azterketa. Jarraian, ondorioen atalean, XX. mendeak utzitako ondare pedagogikoa jasoko dugu labur-labur.

1.2.4.-ONDORIOAK

Hezkuntzaren historiaren ezaugarri nabarientakoa da autore eta agente askotarikoen artean ez dagoela kontsentsurik hezkuntza sistemarik egokienaz hitz egitean: ez dago adostasunik sistema pedagogiko aproposenaren inguruan. Dena dela, herrialde aurreratuenetan bat datoz esatean gizarte osora zabaldu behar dela hezkuntza eta gizabanako guztien eskubidea izan behar dela.

Hezkuntzaren oinarria, XX. mendea arte, transmisioa eta errepikapena ardatz zituen eta helburutzat uniformetasuna zuen eskola izan zen. Eskola haren xedea zen ikasle guztiak aurrez ezarritako maila jakin batera eramatea, beren funtzio sozialak betetzeko baliagarritzat jotzen zen mailara, alegia. Eskola pobrea zen ikuspegi kulturaletik begiratuta eta, sarri askotan, ez zuen eraginkortasunik, ikasle askok ez zutelako lortzen lezioak gainditzea, ez zuten ulertzen, askok eskola utzi egiten zuten, emaitzak eskasak ziren, etab. Azken hamarkadetan, ordea, hainbat mugimendu eta autore, gero eta nabariago, hezkuntza eredu horien gabeziak bistaratzen eta salatzen ari dira; eredu horien gogortasuna, akademizismoa, pasibotasuna eta mekanizismoa kritikatu dituzte, baita eredu horiek ikaslearen benetako premietatik aldentzen direla ere.

XX. mende bukaera aldean, aldaketa handiak gertatu dira hezkuntza sistemetan. XX. mendeko diktaduren, gerra zibilen eta II. Mundu Gerraren ostean, iraultza demokratiko handi bat jazo da eta hezkuntzarako eskubidea bermatu da.

Mendez mende, denbora luzean, eskola leku itxi bat izan da eta ikasleak, bakarturik, irakaslearen eskuetan gelditu izan dira; eta irakaslearen eginbeharra bere irakaspenen bidez bere ezagutzak transmititzea izan da. Nolanahi ere, urteak joan eta kultura berri bat sortuz joan da hezkuntzaren eremuan eta, halatan, hezkuntza, gaur egun, irakastea eta instrukzioa ematea baino zerbait gehiago dela ulertu da; eta, halaber, ulertu da hezkuntza gizakia bere osotasunean prestatzera eta heztera zuzendu behar dela. Eta, era berean, hezkuntzari eskubide unibertsalaren maila aitortzen zaio.

XX. mendea arte, hezkuntza sistemak irakasleen jardura arautzea zuen erdigune eta helburu, "irakaskuntza" baitzen sistemaren ardatza; XX. mendean, oster, ikaslea bera ere aintzat hartzen hasi ziren, "ikasketa" prozesuari edo ikasteari ere gero eta garrantzi handiagoa aitortuz. Hala eta guztiz ere, ezin da ahantzi oraintsu arte eskoletan nagusi izan den errealitatea: eskola errutinazkoak, errepikakorrak, "memoristikoak", inguruneko aldaketen aurrean irazgaitzak. Era bertsuan, irakasle gehienek formazio

kaskarra izan dute (are, deformazio handia izan dute), motibazio eza nagusi, ohiko jardueretatik kanpo beste ezer egiteko ia modurik gabe. Egia da, jakina, izan dela eskolarik eta irakaslerik zeregin berritzailek egin duenik, baina kasu bakanak izan dira, salbuespenak.

XX. mendeari so, irakaskuntza sistematik erreformistenen artean, aipatzekoa da *Institución Libre de Enseñanza* (ILE) zelakoa; helburu izan zuen irakaskuntza ez-konfesionala, eta pedagogiaren korrante berrietan eta zientziaren askatasunean oinarritu zen; ikasleak modu integralean hezi nahi izan zituen, prestakuntza aktibo eta neutral baten bidez, aintzat hartuta bai heziketa fisikoa, moralak, sozialak eta baita kohezkuntza ere.

Era berean, XX. mendean Eskola Berria ere agertu zen, irakasle liberalek sustaturik, uste baitzuten premiazkoa zela ordu arteko hezkuntza patroia birpentsatzea eta ikasleak ardatz harturik metodo aktiboagoetan oinarritutako irakaskuntza molde bat aurrera eramatea. Printzipio goren gisa, hezkuntza integrala bilatzen zuten (adimena lantzeaz gain, gizabanakoaren alderdi fisikoak, sozialak, estetikoak eta emozionalak ere garatu nahi zituzten), baita neutraltasuna ere, eta berebat laikotasuna, lankidetzak eta jarduera/ekintza. Eskola Berriak helburu zuen ikaslea bizitzarako prestatzea.

Nabarmentzekoa da ezen, XIX. mendearen erdialdea arte, jarduera profesional gehienek ez zutela eskolako ezagutza edo ikasketarik eskatzen; industrializazioaren testuinguruan, ordea, eskolako prestakuntza premiazko bihurtu zen eta, gainera, jada ez zuten balio ordu arte erabilitako programa, antolatzeak eta prozedura didaktiko berdinek. Industria Iraultzak XIX. mendean barrena aurrera egin ahala, gizarte mota berri bat eratzen hasi zen eta beharrezkoak ziren masa hezkuntza bermatzeko sistema antolatuak. Industrializazioaren kariak, eskulangile gehiago behar ziren, unibertsitateko graduatuak baino. Horiek horrela, masa hezkuntzari erantzuna emateko, piramide itxurako sistema bat eraiki zen, oinarri zabal bat zuena, guztientzako nahitaezkoa zen lehen hezkuntzak osatua; bigarren hezkuntzari zegokion geruza estuagoa zeterren gero; eta, azkenik, tontor mehe bat, goi-mailako hezkuntzari zegokiona.

Orain arte aztertutakoak zenbateraino lagunduko digu XXI. mendeko hezkuntzan? Ezbairik gabe, mende honetan bestelako erronkei aurre egin behar diegu. Haatik, XXI. mende honetan eskatzen eta sustatzen diren gaitasun eta abilezia ugari, kapitulu honetan ikusi dugunez, lehenagoko mugimendu eta autore askok ere praktikatu eta

hauspotzen zituzten. Historian zehar, ikasketa plan akademiko eta ohikoak ez ditu ia batere kontuan hartu izan ez ikaslea bera, ez ikaslearen interesak, premiak eta sentimenduak ere. Horrek, maiz, ikaslea aspertzea eragin izan du, edo interesik ez izatea, edo tentsioa nozitzea, eskola jazarpena, estutasuna, depresioa edota, are, eskola uztea. Hortaz, aurrera begira, ematen du hezkuntza pertsonalizatu beharko dela eta, ondorioz, ikasketa plana eta, horrekin batera, irakaste-ikaste prozesua garatzeko metodoak eta, are, lekuak ere aldatu/berritu beharko direla. Xede horretan, XX. mendeko pedagogoko batzuk eta haien ekarpen berritzaileak bidelagun izan litezke (ikaslearen protagonismoa eta esperientzia aktiboa ipar, askatasunean, eskola barruan nahiz kanpoan, hezkuntza integrala helburu).

Hurrengo kapituluan, hezkuntzaren eboluzio historikoan aurrera eginez, azken urratsa egingo dugu egungo errealitatera iristeko. Gaur egungo irakaste-ikaste sistemaren egoera aztertuko dugu, gainditu beharreko erronkak aipatuko ditugu, bizi garen testuingurua analizatuko dugu eta indarrean diren korrante pedagogiko berritzaile eta iradokigarrietako batzuk miatuko ditugu.

1.3.- IKASKETA ESPERIENTZIALA

1.3.1.-SARRERA

Gaur egun, hezkuntzaren eremuak erronka handi bati aurre egin behar dio, hezkuntza bera ulertzeko eta garatzeko fokapena eta praxia aldatu behar ditu, hein batean bederen. Horregatik, beharrezkoa da hezkuntzaren inguruko ikuspegi pedagogiko, psikologiko, soziologiko eta epistemologiko asko eta askotarikoak modu kritikoan berrikustea. Azken hamarkadetan, autore anitzek hausnar egin dute horren inguruan, bereziki zeregin pedagogikoa nola egin beharko litzatekeen hezkuntza instituzioen baitan (eta, are, *kanpoan*). Hezkuntzan eta hezkuntzaren ingurunean berritu (berrikuntzak egin) beharraz luze hitz egin da azken urteotan, irakasteko modu berri eta eraginkorrakoak garatzeko xedez, ikasleek gehiago eta hobeto ikas dezaten.

Zalantzarik gabe, hezkuntza jazotzen den testuingurua (testuinguru soziala, produktiboa, balioena, gazteen kulturari dagokiona, etab.) biziki itxuraldatzen ari da. Baiki, azken urteotan, nabarmen aldatu dira erreferenteak, beharrak, globalizazioaren nondik norakoak; bestelakoa da errealitate ekonomiko eta kultural berria, eta, jakina, aldatu egin dira, halaber, agente askotarikoen pertzepzioak, premiak eta nahiak. Horiek horrela, hezkuntza sistema egokitu egin behar da testuinguru berri horretara; bat etorri behar du ezinbestean. Gizarte eredia aldatzen ari dela ukazina da eta aldaketa horren ezaugarri eta faktore konplexuenetakoa hau da: trantsizioa gertatzen ari da eredu industrialetik ezagutzaren eredura. Eta horrek aldean dakar hezkuntzaren kontzeptua bera ere eraldatzea (eraldatu *beharra*).

Aldaketa sozioekonomikoa nagusi den testuinguru honetan, nahitaezkoa da gogoeta egitea egungo hezkuntza eta ikasketa praktiken inguruan, bestelako irakaste-ikaste molde batzuk sortzeko eta indarrean jartzeko, eraginkorrakoak izan daitezkeen gero eta jende gehiagorentzat, eta, gainera, ikasleen prestakuntzari eta giza garapen integralari dagokienez, maila sakonagoa eta iraunkorrak lor dezaten.

Testuinguru horretan, bada, korrante pedagogiko berri batzuk sortzen eta indarra hartzen ari dira; horietako zenbaitek, azken hamarkadetan, nabarmen azpimarratu izan dute **ikasketa esperientzialak** eta **ikasgelaz kanpoko ikasketak**, besteak beste, duten balioa, irakaste-ikaste prozesuari heltzeko molde berri gisa. Gero eta nabariagoa da metodologia tradizionalak baino erabiltzen ez dituen eta klase magistraletan

aurkeztutako eta irakurritako materia ardatz hartzen duen irakaste-ikaste prozesu batek ez dituela, inondik ere, esperientziak eman ditzakeen aukerak eta onurak ustiatzen. Gainera, hezkuntzan berrikuntzak egin nahi badira, aldatu egin beharko lirateke bai irakaslearen rola eta bai ikaslearena ere; halaber, aldatu egin beharko litzateke ikasketaren ingurunea ere (ikasgelaz haragoko jarduerak ere tarteko); eta, era berean, metodologia berriak aplikatu beharko lirateke, aintzat hartuko luketenak zein esperientzia aukeratu irakaste-ikaste prozesua bideratzeko eta burutzeko. Horretarako, ordea, sakon aldatu beharko lirateke egun hezkuntza eremuko instituzioetan indarrean diren irakasteko kultura, curriculum kultura eta antolaketa kultura.

Kapitulu honetan, bada, aztergai izango ditugu korrante pedagogiko berriak eta metodologiarik berritzaileenak, egungo errealitatean pil-pilean dauden premiei eta helburuei aurre egiteko.

1.3.2.-HEZKUNTZA EREMUKO BERRIKUNTZA

Aurreko gaietan, hezkuntzaren historian barrena ibilbide luzea egin dugu. Bide horretan, nabarmendu egin ditugu bere garaian erreferente izaniko zenbait autore, zeinek orduko hartan jada pentsamendu eta praktika progresista eta berritzaileak aurrera eraman baitzituzten hezkuntzaren alorrean. Autore haiek (eta beste hainbat) giltzarri eta ezinbesteko izan dira gaur egun berrikuntza pedagogikotzat jotzen ditugun neurri asko garatzeko eta abiarazteko.

Lehenago esan dugunez, hezkuntzaren historian zehar egindako ibilbidean antzeman dugun elementu aipagarrienetako bat da ez dela izan kontsentsurik —ez erreferentziazko autoreen artean, ez hezkuntzan diharduten agenteen artean, ez instituzioen artean, ez askotariko gobernuen artean, etab.— irakasteko eta ikasteko modurik egoki eta eraginkorrena zein den erabakitzeke orduan. Ondorioz, garaia arabera eta agintean izan den taldearen edo gobernuaren arabera, alderdi jakin batean edo bestean jarri izan dute arreta. Dena dela, urteak joan ahala, gehienak bat etorri izan dira esatean hezkuntzan ere berrikuntzak egin behar direla, bada-eta zer hobetu. Hezkuntza berritzea bide edo bitarteko bat da irakasteko metodo berriak aurkitzeko, eduki berriak sortzeko, ekiteko eredu berriak garatzeko eta ikasleekin lantzeko gaitasun berriak zehazteko, helburu izanik gizarte eskaerak eta jakintza akademikoa bateratzea

eta irakaste-ikaste prozesuaren eraginkortasuna eta efizientzia areagotzea (González Aja eta Irureta-Goyena, 2015)⁷³.

Oro har, baina, eskola ez da bere burua aldatzeko gai izan orain artean. Eta gaur egun gailen den eskola tradizional horrek ez du balio, ez du egoki funtzionatzen, jende askoren aburuz. Ikasle askok ez dute gogoko, ezta haien senideek ere. Garai batean eskolaren eta familiaren artean zegoen aliantzarik ere ez dago gaur egun. Gaurko premiei eta eskakizunei erantzuna emateko, eskolak bere baitan iraultza egin beharko luke, errotik aldatu beharko litzateke, ikasle guztien eta ikasle bakoitzaren eskola izan ledin modu indibidual eta pertsonalizatuan. Era berean, garai batean familiak bermatzen zituen oinarri kulturalak bermatzeko gai izan beharko litzateke eskola.

Ildo horretan, Carballo (2009: XII) autorearen esanetan, hezkuntzaren alorrean berrikuntzak ezartzeko ekintzak burutzen ari badira ere (autorea unibertsitatearen alorraz mintzo da), oraindik alde handia dago Europako edo AEBko ikastetxeen (unibertsitateen) eta Espainiakoen artean. Alderik handiena, autorearen irudiko, ikasgelan erabiltzen diren metodologietan datza. Hortaz, edukietan baino (zer ematen den), moduetan (nola ematen den) dago alde handiena. *“Modua aldatzeko lagungarri izan daiteke parte-hartzearen bidez motibatzea; lankidetzeta eta besteekiko errespetua izatea; proiektu eta helburu zailak, baina lorgarriak, ezartzea, ikasleen beren beharretatik abiatuta eta irakasleek gidatuta [...] baina moduak zerikusi handia du, baita ere, ikasitakoa aplikatzeko aukera izatearekin, hau da, ikasitakoari: a) bila diezaiogula zentzu globala eta aplikazioa; eta b) bila diezaiogula ekintzarako aukera, eta ekintza horrek zerikusia izan dezala egoera praktikoekin, errealitatearekin. [...] Gure unibertsitateak oso teorikoa izaten jarraitzen du eta errealitatera hurbildu beharko litzateke, bizitzan txertatu, gizartearen baitan, eta ezagutza sortzeko ‘esperientzia da zientziaren ama’ betiko leloari jarraitu beharko lioke, eta esperientzia bizi egin behar da, hurbilekoa izan behar da, lehen pertsonan ezagututakoa, ez du balio beste batzuek beren esperientzia transmititzeak, jasotzen dutenentzat hori esperientzia ‘hila’ delako, ez dutelako bizi izan, sinesmen edo konbentzimendu arrazionalaren bidez ikasi dutelako, baina sentitu gabe”.*

⁷³ “Gaitasun” hitzak garrantzi handia hartu du azken urteetan. Yániz-en (2006: 21) hitzetan, honela definitu daiteke “gaitasuna”: *“betebehar jakin bat egiteko beharrezkoak diren ezagutzen, abilezien eta jarreraren multzoa, eta baliabide horiek guztiak ingurune jakin batean arrakastaz aplikatzeko ahalmena, desiratutako emaitzak lortuz”.* Gaitasun jakin horiek eskuratzeko beharrezkoa den prestakuntza emateko, premiazkoa da ikasketa egoera jakin batzuk diseinatzea, gaitasun hori osatzen duten abileziak fintzeko, jarrerak garatzeko eta ezagutzak bereganatzeko.

Beharrezkoa da, hortaz, paradigma berri bat, bai lehen hezkuntzan, bai bigarreanean eta bai unibertsitatean, ondorio praktikoak eragingo dituen irakaste-ikaste prozesuan. Hezkuntza eremuko berrikuntzak hezurmamitu behar dira egiturazko aldaketetan, antolakuntza aldaketetan, ingurunearen aldaketetan eta irakasteko estrategiei eta metodologiei dagozkien aldaketetan. Hala, premiazkoa da hezkuntza asko pertsonalizatuagoa, ikasle bakoitzaren berezko beharrak kontuan hartuko dituen berean, ikasketa berriak eraikitzeko, funtsezkoa da ikasle bakoitzak aurrez dituen ezagutzetatik abiatuta jarduera esanguratsuak eta erronka izaerakoak sortzea, goragoko mailako ezagutzak eta gaitasunak erdiesteko bidean. Irakaskuntzak oinarritzat hartu beharko litzuke proba-hutsegitea gisako metodo aktiboak; gainera, ikaste prozesua irakasleak gidaturik aurkikuntzen bidez aurrera eraman beharko litzateke nagusiki, eta ez hainbeste klase magistralen bitartez (nahiz eta horiek ez diren alboratu behar; bai, ordea, bigarren maila batean kokatu). Ikasketak, gainera, izaera kooperatiboa ere izan dezake (ikasleek bata bestekin erlazionatzen ikasi behar dute), enpatia, asertibitatea eta beste abilezia sozial batzuk garatzeko. Hori guztia gauzatzeko, irakasleak prozesua gidatu behar du, ikasteko “eszenatoki” egokiak sortuz, ikaslearen garapen integrala sustatu nahian (Coterón eta Gil, 2015).

Irakaste-ikaste prozesua hobetzeko aldatu beharreko alderdiak edota nabarmendu beharreko elementuak zein izan daitezkeen erabakitzeak, ezinbestekoa da jazozen ari diren aldaketa sozioekonomikoak aintzat hartzea. Gogoan izan dezagun ekonomia/gizarte industrialak oinarri zuela lana zorrotz banatzea ofiziotan, gremiotan eta lanbideetan (helburua zen zeregin oso espezifikoetan espezializaturiko langileak eta profesionalak prestatzea); informazio eta ezagutzaren ekonomian/gizartean, aldiz, lana antolatzeko ereduak ardatz hartzen ditu, besteak beste, “gaitasunak” eta etengabeko ikasketa; titulazioen eta lanbideen arteko mugak eta trabak gero eta lausoagoak eta finagoak dira. Bestalde, gaur egun (eta are gehiago etorkizunean), pertsona bakoitzak sarriagotan aldatzen (aldatuko) du lana, ekonomia industrialarekin alderatuta. Informazio eta ezagutzaren ekonomiak lan merkatua aldatu du, zerbitzu sektoreak gora egin du nabarmen eta industria sektoreak, berriz, indarra galdu du. Egungo gizarte berrietan funtzio eta eginbehar berri asko eta askotarikoak sortu dira eta horrek guztiak, ezinbestean, eragin eta isla du (izan beharko luke, bederen) hezkuntza eremuan ere (Echevarría, 2012).

Horren guztiaren harira, Tonucci (2012) autoreak hau dio: eskola tradizionalaren aurrean, biharko eskolak *ederra* izan behar du, hezkuntza agenteak gustura sentitu daitezzen bertan; *aberatsa*, jakintzarekin zerikusia duten pizgarriei eta materialei

dagokienez; *entzuteko* eskola; *irekia*, kanpoko mundura zabalik dagoen eskola (hortaz, ikasgelatik irten eta mundu ikusgarri horretan parte hartu behar da); gainera, *hizkuntza mota* anitzeko eskola izan behar du; *aniztasunaren* eskola; *bikaintasunarena*; eskola *zientifikoa* eta *pentsemendu kritikoduna*; eta *sormenaren* eskola. Horrez gain, autorearen aburuz, aldaketak gerta daitezten, ezin dira haurrak ohitu arazi helduek bezala pentsatu dezaten (horixe da erosoena), baizik eta, sistema iraultzaile eta berritzailea nahi izanez gero, egungo haurrak diren bezala onartu behar ditugu, helduok geure burua eredutzat jarri gabe (atzoko ereduak baikara). Eskolan irakatsitakoa metodologia “memoristikoa” eta errepikapenean beste ezertan oinarritzen ez bada, alferrik izango da landutako edukiak progresistak izatea⁷⁴.

Ildo bertsuan, Robinson (2016: 24) autoreak dioenez, *“hezkuntzak helburu du ikasleak gaitzea inguruan duten mundua uler dezaten eta beren talentu naturalak ezagutu ditzaten, horrela norbanako gisa autorrealizatzea lortzeko eta herritar aktibo eta errukitsu bihurtzeko”*. Horretarako, pertsonak hezi behar dira osatzen duten ingurunea (naturala, soziala, elektronikoa) ezagutu dezaten, beren burua ezagutu dezaten eta gizartean modu harmonikoan bizikide izan daitezten; eta aurre (eta muzin) egin behar zaie bista laburreko beste eredu batzuei, zeinek lan mundurako sarbidea beste helbururik ez baitute (gainera, lan mundu hori ere jadanik ez da lehengoa, garai batekoa; egungo lan munduak zeharo bestelako giza garapena eskatzen du) (Melero, 2016).

Esandakoaz gain, gure eskolak edo ikastetxeak —hezkuntza maila orotan— gizarte digitalerako ere prestatu behar ditugu, eta berrikuntzak egin eta eginarazi, ikasketak proiektuetan funtsatu daitezten, ikasgeletan lankidetzak garatu dadin, ikasleen gaitasunak (ez ezagutza hutsak) landu daitezten, testuliburuaz harago joan daitezten, irakasleak gidari eta aktibatzaile jardun dezan, denborak eta espazioak birdefinitu daitezten, teknologiak integrazioa eta aldaketa ekar ditzan, eskola ingurunera ireki dadin, hezkuntza proiektuak ikasgelaren muga fisikoak eta antolakuntzazkoak gainditu ditzan eta ikasteko testuinguru formalek eta informalek bat egin dezaten, egoki ustiatuz baliabide eta tresna globalak, curriculum barnekoak eta kanpokoak (Pearson, 2016). Horrekin loturik, Robinson-ek (2016) nabarmentzen du eskoletan ikasleen zortzi gaitasun funtsezko hauek sustatu beharko liratekeela: jakin-mina, sormena,

⁷⁴ Oro har, esana dugunez, egungo eskola sistemak honako oinarri hau du: irakasleak ikasleei esaten die zer ikasi behar duten eta zer hartu behar duten buruan, eta gero eskatzen die kontaktu dezatela azterketetan funtsaturiko ebaluazio probetan. Eskola sistemak ikasleei esaten die nola jokatu behar duten, nola hitz egin behar duten eta zer pentsatu behar duten (Simpson, 1995).

kritikotasuna, komunikazioa, lankidetzaz, errukia, lasaitasuna eta gizalegea (herritar sena).

Ildo bertsuan, Salas eta Serrano (2000) autoreek eskolan (eta handik kanpo) landu beharko liratekeen hiru eduki mota aipatzen dituzte: jarrerarekin loturikoak (IZAN), prozedurekin loturikoak (EGITEN JAKIN) eta alderdi kontzeptualekin loturikoak (JAKIN) (II.1.7. taula).

II.1.7. taula: Jarrerekin, prozedurekin eta alderdi kontzeptualekin loturiko edukien ezaugarriak

	Jarrerarekin loturikoak “IZAN”	Prozedurekin loturikoak “EGITEN JAKIN”	Alderdi kontzeptualekin loturikoak “JAKIN”
Hauek dira:	Ohitura Jokabidea Gaitasuna Jarrera kode indibiduala eta soziala	Ezagutu Maneiatu Erabiltzen jakin	Azalpena Interpretazioa Analisi kritikoa
Honela ikasten da:	Bidea: - Ulertzea - Hausnarketa - Behaketa - Imitazioa - Auto-behaketa - Ezagutza pertsonala	Bidea: - Ulertzea - Imitazioa - Errepikatzea - Hausnarketa - Behaketa - Manipulazioa	Bidea: - Ezagutza eraikitzea eta sortzea - Buruz ikaste mekaniko eta esanguratsua - Kontzeptuak ulertzea eta elkarrekin erlazionatzea
Honela irakasten da:	- Klima emozional egoki eta koherentea sortuz - Bizitza errealekoak diren eta erabakiak hartzea eskatzen duten egoeren inguruan eztabaidatuz	- Horiek erabiltzea eta transferitzea ahalbidetuz - Nola erabili eta maneiatzen den azalduz - Testuinguru eta egoera ezberdinetan praktikatzuz	- Kontzeptu horiek esanguratsuak diren egoerak sortuz - Informazio berriak aurreko kontzeptuekin erlazionatuz - Auto-ezagutza eta parekoen ezagutza bultzatuz - Esperientzia eta bizipenekin duten erlazioa nabarmenduz
Honela ebaluatzen da:	Bidea: - Ebaluatzea, hasieran eta bukaeran - Barne eta kanpo behaketarako tekniken bidez - Auto-behaketa	- Ezagutzea - Erabiltzea - Egoera berrietan aplikatzea	- Azaltzea - Identifikatzea - Erabiltzea - Kontzeptuak eta egoerak erlazionatzea

Iturria: Salas eta Serrano (2000).

Bistan denez, ez da bilatu behar ikasleak ezagutza jakin batzuk pilatzea, besterik gabe; aitzitik, ikaslearen gaitasunen eta nortasunaren garapen integrala bilatu behar da. Horrela, UNESCO erakundeak 1996ko *Delors Txostena* delakoan esandakoa aintzat hartuz gero, hezkuntzaren oinarritzko lau zutabeak hauek dira:

- ✓ Ezagutzen ikasi.
- ✓ Egiten ikasi.
- ✓ Izaten ikasi.
- ✓ Elkarrekin bizitzen ikasi.

Aurrekoarekin zerikusi hertsia du Villardón (2016) autoreak dioenak; haren aburuz, pertsonaren garapen integralean oso garrantzitsua da *ikasteko gaitasun edo konpetentzia* (horrek giza garapenerako duen potentziala dela eta); ikasteko gaitasun horrek ahalbidetzen du etengabeko ikasketa, bizitza osoan etengabe ikasi ahal izatea, alegia. Era berean, ezin da alboratu *gaitasun soziala* ere, elkarbizitzan laguntzen baitigu, ezta *pentsemendu kritikoa* ere, pertsona independenteak izan gaitezen eta gizartea eraldatzeko modua izan dezagun. Aipaturiko gaitasun horiek garatzeko, egungo hezkuntza sisteman ageri den banaketa eta zatiketa aztertu behar da. Curriculuma materiaren arabera antolatu beharko litzateke (ez gaika); zikloa, kurtsoka izan ordez; diziplina arteko ikasketak erraztuko lituzketen metodologia didaktikoak baliatu beharko lirateke (kasu errealean bidez, proiektuen bidez, etab., diziplina akademiko askotarikoak lantzeko modua izateko); ikasleak bere egunerokoan aktibitateak (ezen ez aktibismoa) izan beharko lituzke; hausnartu egin beharko luke ekintzen eta esperientzien ondoren eta ondorioz; ikaskideekin batera elkarlanean aritu beharko litzateke, baita ingurunearekin interakzioak izan ere, ikaste prozesuan beharrezko elementuak baitira.



González Aja eta Irureta-Goyena (2015) autoreek ere hala deritzote, hots, modu integralean hezi behar dela. Baiki, hezkuntzak integrala eta integratzailea izan behar du. Pertsonak, ikastean, bere burua eraldatu behar du eta ingurunea ere eraldatu behar du. Ondorioz, hezkuntza tradizionalak egiten duenaz oso bestela, hezkuntza berritzeko ikaslea bera eta haren ikaste prozesua hartu behar dira ardatz. Era horretan, aldatu egin behar dira estrategia eta metodologia didaktikoak, baita irakaskuntza garatzeko espazioak ere; eta ebaluazio sistemak ere aldatu behar dira.

Gutiérrez et al. (2011) autoreen iritziz, sistema tradizionalak helburu nagusi zuen klase ematea eta ezagutzak eskuratzea; eredu berriek, ostera, beharrezkoak diren ezagutzak eskuratzeari uko egin gabe, hezkuntza elementuak eta prozesua bera modu kualitatiboan aldatu nahi dute, ikastea bera hartuz erdigunetzat eta helburu gorentzat⁷⁵. Gainera, autoreok bat datoz *Delors Txostenak* dioenarekin, hots, ikasleak ezagutzen ikasi behar du eta bere burua ezagutzen ere ikasi behar du; izaten ikasi, egiten ikasi, ikasten ikasi eta bizitzen eta elkarrekin bizitzen ikasi behar du. Garrantzi

⁷⁵ Gutiérrez et al. (2011) autoreek diotenez, sistema tradizionalan ezagutzak transmititzen dira irakasleengandik ikasleengana, eta, besteak beste, honako abilezia hauek jorratzen dira: helburuak lortu nahian kontzentratzeko gaitasuna, pentsemendu analitiko-kontzeptualaren erabilera, informazioa bilatzeko eta erabiltzeko teknikak, erabakiak hartzea eta pentsatzeko gaitasuna. Metodo nagusiak hauek dira, besteak beste: *lezio magistrala* (irakasteko metodo klasikoa, kontzeptuak azaltzea baino ez da; metodo ohikoena da, baita kritikatuenetakoa ere, inpersonala delako eta analisirako gaitasuna ez duelako batera lantzen); *klase praktikoak*, *mintegiak*, *tutoretzak* eta *hitzaldiak*.

handiagoa du formazioak, informazioak baino. Ikaslearen ikasketa premiak bihurtzen dira irakaskuntzaren ardatz. Prestakuntza integrala bilatzen da; sistema tradizionalak, ordea, prestakuntza espezifikoa bilatzen zuen. Ezinbestekoa da ikaslearen parte-hartze aktiboa, bai ezagutzak bereganatzeko eta bai gaitasunak garatzeko. Beharrezkoa da, orobat, irakaslearen rola aldatzea, ezagutzak transmititzeaz gain, irakaste-ikaste prozesuan bitartekari jardun behar duelako eta ikasleari aktiboagoa eta autonomoagoa izaten lagundu behar diolako; lagundu egin behar dio bere gaitasunak lantzen, ezagutzak pilatzeaz harago. Klase magistrala konbinatu egin behar da, hortaz, beste era bateko metodologiek, ikasleari rol aktiboagoa esleitu nahian, erabat antzua baita ikasleari hainbat azalpen ematea, gero ikasleak mundu errealekin kontrastatzeko modurik ez badu. Dagoeneko, garrantzitsua ez da soilik **zer** ikasten den; garrantzitsua da **nola** ikasten den eta **non** ikasten den ere.

Aipatu beharreko beste berrikuntza bat *komunikazioan* gertatzen ari da (eta gertatu behar du): irakasleak gizartearen eskaerak eta ikaslearen premiak entzun behar ditu (eta entzuten ikasi behar du). Irakaste-ikaste prozesu guztietan halako interakzio bat gertatzen da irakaslearen, ikaslearen eta materiaren artean. Materiari edo edukiari dagokionez, hura ez da neutrala eta normalean bere diziplina inposatzen du (matematikak, esaterako, linealak dira; beste ezer baino lehen, zenbatzen ikasi behar da). Bestalde, ikasleak ere bere ezaugarriak ditu, baita bere motibazio eta eskarmentua ere, materiari eta irakasleari gutxiago edo gehiago egokituko zaizkienak. Ikaslea, gainera, ikasle talde bateko kide da; taldeak ikasten lagundu diezaioke edo erabat garrantzirik gabea izan daiteke. Azkenik, irakasleak ere bere balio propioak ditu eta materiari modu ezberdinetan hel diezaioke. Eta hori guztia testuinguru jakin baten osagaia da. Egoeraren arabera, hiru elementu horien harremana gutxienez hiru modutan adierazi daiteke, II.1.4. irudian ageri denez:




II.1.4. irudia: Irakaste-ikaste prozesuko elementuak: irakaslea, ikaslea, materia.

Iturria: <http://www.learningandteaching.info>.

Lehenengo irudian, sistema tradizionalari dagokion irakaste-ikaste prozesu kognitiboa islatu dugu: bertan, materia dago gorengo mailan eta horrek adierazten du materiak berak ezartzen duela irakaslearen eta ikaslearen arteko harremana. Jarraian, irakaslea da ordena hierarkikoan hurrena, zeina ikaslearen gainean baitago (materiaren zerbitzura, baina ikaslearen gainetik). Bigarren irudia lehenengoaren aldaera bat da eta hurbilpen “behaviorista” bati dagokio: irakasleak egoeraren kontrola du eta materiaren eta ikaslearen arteko errealitatea gidatzen du. Bai materia eta bai ikaslea ere irakasleak ezarritako baldintzen pean daude. Aitzitik, hirugarren irudia hurbilpen “humanista” bati dagokio eta, bertan, materia eta ikaslea oso gertu daude eta biak ere irakaslearen oso gainetik. Hori da, hain zuzen, berrikuntzen bidez bilatzen den rol aldaketa: irakasleak lagundu egin behar dio ikasleari materiarekin lan egiten, ikasleak modu autonomoan eta era aktiboagoan landu eta garatu ditzan bere abileziak eta gaitasunak.

Ildo bertsuan, Carballo (2009) ere hezkuntza prozesuari beste era batera begiratzeko aldarria egiten du, beste ikuspegi batzuei heltzeko; zehazki, ikasleek eta irakasleek osatzen duten piramidea azpiko gora jartzeko esaten du. Halatan, II.1.5. irudian ageri den bezala, autoreak piramidea buruz behera islatzen du, piramide klasiko eta hierarkikoaz zeharo bestela.



II.1.5. irudia: Ikasleak eta irakasleak. Piramidea buruz behera.

Iturria: Carballo (2009: XIV).

Lehenengo irudian, ikasleak horizonte edo ostertzean daude, eta irakaslea haiei begira, oholtza gainean, jakintzaren jabe, eta ikasleak, berriz, burua makur, apunteak hartzen. Piramide tradizional hori gaintu egin behar da. Eta horren orde, espazio horizontalagoa proposatzen da, non irakasleak eta ikasleek beren jakintza eta ikasketak partekatzen dituzten; irakasleak ere ikasi egiten du eta ikasleengan bilatzen eta biltzen du zentzua. Hezkuntza berritzeko, ikasleak hartu beharko lirarteke abiapuntu, haiei galdetu beharko litzaieke zer nahi duten, zer behar duten, zeren falta nabaritzen duten; gauzak aldatu ahal izateko ideiak eta lana eskatu beharko litzaizkieke. Ikasgelan benetan zer gertatzen den haiek baino ez dakite. Haiek bizi izaten dituzte ikasgela barneko —eta kanpoko— esperientzia konkretuak eta badute informazioa jakiteko zer aldaketa egin nahi lituzketen.

Planteamendu horren baitan, baina unibertsitatearen eremuan kokaturik, 1998an Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Eremua (*Espacio Europeo de Educación Superior* delakoa) sortu zen, helburutzat hartuz hezkuntza eremu bat eta bakarra sortzea Europan, herrialdeetako sistema unibertsitario ezberdinak bateratuta⁷⁶. Horrek irakaskuntza metodologiak eraberritzea eragin du (bai ikasteko moldeei eta bai irakasteko moldeei dagokienez) eta, berriz ere, mahai gainean jarri du pedagogia egoki(en)a eta irakaste-ikaste metodo bideragarri(en)a aurkitzeko erronka. Hezkuntzaren alorrean paradigma aldaketa gertatzen ari da eta “berrikuntza” da gakoa, ezbairik gabe XXI. mendean hezkuntzari gehien ezarri zaion hitza; hala, “*hezkuntza eremuko berrikuntza, gaur egun planteatzen den bezala, gizarte premiei erantzuteko ahalegina da*” (González Aja eta Irureta-Goyena, 2015: 31).

Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Eremuak bi ardatz nagusi ezarri ditu, hezkuntza sistemak horien inguruan bira egin dezan: *gaitasunak* eta *abileziak* dira ardatzok, ikasleek berenganatu behar izango dituztenak dagokien hezkuntza zikloa amaitzerako. Ikasleak askotarikoak izanik, sistema egokitu egin behar da eta modu berriak aurkitu behar ditu ikasleen beharrei erantzuna emateko. Horiek horrela, ikasketa esperientzialaren tresnak (esperientzian oinarritzen diren hezkuntza metodoak edo metodo esperientzialak) ezinbestekoak izango dira helburuak erdiesteko, potentzial handia baitute sistema eta tresna tradizionalak ageri dituzten muga eta ezintasun ugari gaintzeko (Gutiérrez et al., 2011).

⁷⁶ Helburu zehatzak hauek dira, besteak beste: sistema unibertsitarioak homologatzea, ikasleen mugikortasuna bultzatzea, goi-mailako hezkuntza sistema lehiakor eta erakargarria lortzea nazioarteko beste herrialdeentzat, irakasten dena lan merkatuaren premietara egokitzea, bizitza osoko hezkuntza (“*lifelong learning*”) delako ideia sustatzea, eta irakaskuntza metodoak aldatzea, ikasleen ikasketa ardatz hartuta, klase tradizionalak murriztuta eta ikasleengan arreta indibidualizatua jarrita (Díez Gutiérrez, 2009; Gutiérrez et al., 2011).

Honaino iritsita, ordea, komenigarria da eten bat egin eta gogoeta kritiko bat plazaratzea: aurreko kapituluetan bistaratu den gisan, historian barrena “hezkuntza” edo “heztea”, gehienbat, “arrazoizko gizakiak” sortzea izan da, zorrotz eta arrazoiz erabakitzeko eta juzkatzeko gai izan daitezen eta, askatasun intelektualaren jabe, gizaki osoak izan daitezten. Haatik, garai neoliberal honetan, ideal hori hautsi egin dela esan daiteke. Díez Gutiérrez (2009: 357, 362) autorearekin batera, modu kritikoan esan daiteke ezen, korporazio multinazional handien eraginez, besteak beste, hezkuntza sistema unibertsitarioaren funtsezko zeregin eta funtzioetako bat, gaur egun, produkzio sistemaren eskakizunetara egokitutako langileak sortzea dela. Horrenbestez, eskola eta unibertsitatea enpresen zerbitzura jarri dira, hein handi batean bederen, eta hezkuntzak ardatz hartu du enpresek eskatzen dituzten profesional mota jakin batzuk prestatzea, irakaskuntzaren kontzepzio tekniko-arrazionalista zurrun baten bidez. Hortaz, langile “malgu” eta “balioaniztuna” sortzea da, gaur gaurkoz, ideal pedagogiko berria; horretarako, *“ezagutzak lortzetik abileziak, jarrerak eta gaitasunak eskuratzea pasatu gara, ingurunera egokitu ahal izateko, lan merkatuak gaur egun eskatzen duen moduan [...] hezkuntzaren izaera bera eta helburuak aldatzen ari dira; lehen balio, jakintza eta gaitasunen jabe ziren herritarrak hezten zituen; orain, berriz, sistema produktiboari erabat men egin eta harentzako giza baliabideak sortzen ditu”*. Eskolaren eta unibertsitatearen funtzioa “profesionalizatzen” ari da; “irtenbide profesionalak” beste ezer kontuan izan gabe pentsatzen eta taxutzen da irakaskuntza; *“lanerako prestatzeak lehentasuna du herritarren integrazio sozial eta politikoari dagokion helburuaren aurrean”*. Horregatik, ez da harrizkoa ingelesez gero eta gehiago *“learning”*-ari buruz hitz egitetik *“training”*-az hitz egitera pasatu izana eta *“training”* horrek *“learning”*-ari gaina hartu izana.

Huber (2008) autoreak ere alderdi kritiko horiek aipatzen ditu; eta hark ondorioztatzen duenez, Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Eremuak ezarritako kontzeptuek erabateko lotura dute ezagutzak lortu eta neurtzearekin eta goi-mailako hezkuntza antolatzearekin, baina bazter uzten dituzte bestelako helburu batzuk, hala nola gizarte demokratiko bateko bizimodua bultzatzea edo giza garapen integrala bilatzea. Izan ere, Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Eremuak helburu gorenetakoa du ikaslea lan merkaturako prestatzea eta albora lagatzen ditu giza garapena, “izaten jakitea”, “elkarrekin bizitzen ikastea” eta halako asmo batzuk; horiek ez ditu inondik inora aipatzen, lan eta negozio munduaren eskakizunen arabera antolatutako hezkuntzaren mesedetan.

Horren harira ezinbestekoa da kritika egitea. Izan ere, XXI. mendeko arazoei aurre egiteko, gizarteak, oro har, eta ekonomiak, bereziki, behar-beharrezko izango dituzte modu integralean informaturiko eta formaturiko herritarrak. Ezagutzaren gizarterako aldaketak eskatzen du ikasleek askotariko gaitasunak izan ditzaten eta, halaber, eskatzen du eskola eta unibertsitateetako irakaste-ikaste sistemak ere aldatu eta berritu daitezen. Ezagutzaren garaiotan gero eta sakonago murgildu ahala, kontzeptuak ere aldatzen ari dira: **zer** den ikasketa, **non** egin behar den eta **zertarako** balio duen. Metodo eta testuinguru didaktikoek aintzat hartu behar dituzte gero eta interes, premia eta espektatiba gehiago. *“Horrek aldean dakar bira nabarmen bat egitea ikaslea ardatz hartzen duten sistema didaktikoetarantz, zeinek muga iragazkorrak izan beharko dituzten sektoreen eta mailen artean. Gizabanakoek modu aktiboan ikas dezaten, beharrezkoa da egungo praktikak hobetzea eta fokapen berri eta askotarikoak garatzea. Europako Komunitateetako Batzordearen memorandumean aipatzen den bira nabarmena ez da zuzentzen soilik ikasleei aurkezten zaizkien eduki eta helburuetara; horiez gain, kontuan hartzen ditu bai ikasleak beraiek eta bai ezagutzak eskuratzeko eta eraikitzeke ikasleek dituzten prozesuak ere”* (Huber, 2008: 64-65).

Rué (2009: 31, 50), Cobo Romani eta Moravec (2011) eta Freire (2012) autoreak, besteak beste, bat datoz esatean funtsezkoa dela ikasketen erdigunea, gaur egun, **“ikasten ikastea”** kontzeptuan birkokatzea, kontuan izanik zein bizkor eta hazkorra diren produkzio munduaren konplexutasun teknologikoa eta ezagutzaren garapenaren progresioa. Gainera, gaur egun eskuragarri den informazioaren kantitatea eta konplexutasuna hainbestekoak izanik, beharrezkoa da hezkuntzaren arreta eta helburua ulermenean kokatzea, ezen ez informazioan. Kontua jada ez da informazioa lortzea eta gordetzea, baizik eta aukeratzea eta ulertzea, testuinguruaren arabera hura erabiltzen jakiteko. Ikasleek tresnak behar dituzte errealitatea modu sakonagoan ulertzeko, errealitate horren aukera, harreman eta eragin-trukeen konplexutasun osoa aintzat hartuta. Goian aipatutako autoreen aburuz, “sakon” edo “azaleko” kontzeptuek ez dute hainbesteko zerikusirik ikasleek jasotzen dituzten *input*-ekin (*zer* ikasten duten), horiek berenganatzeko egin duten prozesuarekin baizik (*non* eta *nola* ikasten duten). *“Emaitzak, berez, ez dira nagusiki input-en (irakatsitakoaren) mendekoak; batez ere, ikasleak berak, ikasteko testuinguru jakin batean eta esperientzia mota jakin batzuetatik abiatuta, input horiekin egindako zehazte, lantze eta hausnarketaren mendekoak dira emaitzak”*. Ulertzekoa da “ikasteko testuinguru” eta “esperientzia” horiek “non” eta “nola” galderei erantzuten dietela, irakaste-ikaste prozesu sakon eta esanguratsuen magalean.

Auzi nagusia, García eta Foronda-ren (2010: 40) hitzetan, *“XXI. mendeko gizarteak, informazioaren eta ezagutzaren gizarteak eta globalizazioak dakartzaten erronkei erantzutea da, eta erantzun horiek aurreko mendekoez bestelakoak izan behar dira. Unibertsitatea, bere ikuspegi tradizionalan kokaturik, pilaturiko jakintza indibiduala beste pertsona batzuei transferitzen aritu da [...] Kontuan izan eta galdetu behar dugu: ‘zertarako hezten ditugu ikasleak?’; hezkuntza horrek, irakaskuntza alderdi du nagusi edo alderdi profesionala? Hori dela eta, gainditu egin behar dira zenbait bizio historiko eta ikaslea errealitate profesionalera hurbilaraziko duten tresnak garatu behar dira”*; nolahi ere, giza garapen integralari dagozkion beste alderdi batzuk alboratu gabe, jakina.

Coterón eta Gil (2015) autoreen arabera, ikasleek (batez ere unibertsitarioek) “zertarako” ikasten duten galderari erantzunez, helburutzat izan beharko lukete beren burua hezte eta prestatzea, beren garapen profesionalan (eta pertsonalean) aurrez berenganatutako hori aplikatzeko gai izan daitezen. Lan munduak (eta orobat gizarteak) biziki eskatzen ditu, ezagutzen jabe izateaz gain, ezagutza horiek zeregin askotarikoetan arrakastaz baliatzeko eta aplikatzeko gai diren profesionalak. Eta horixe da, hain zuen, unibertsitateetako hezkuntza paradigma berriaren planteamendua, zeinak oinarri baitu, ikasleek ezagutzak eskuratzeaz harago, gaitasunak ere garatzea. Wankat eta Oreovicz (2001) autoreek ere ideia hori azpimarratzen dute, ingeniariak ikasleek mintzo direnean; eta harago doaz, autoreon irudiko, hagitik garrantzitsua baita ikasleak erronka profesional eta pertsonaletarako prestatzea eta gaitzea ikasketa esperientzialaren bidez.

Dagoeneko aipatua izan den bezala, ikasleak ardatz eta erdigunetzat hartzen dituzten sistema didaktikoetarantz bira egiteko, ezinbestekoa da irakaskuntza eta **ikasketa aktiboa** ahalbidetzen dituzten ingurune didaktiko eta fisikoak atontzea eta baliatzea⁷⁷. Horren harira, Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Eremuak ontzat jotzen dituen metodoek hiru erronka nagusi betetzeko osagaiak izan behar dituzte: *“belaunaldi berriak prestatu behar dituzte lan munduan dagozkien zereginak betetzeko, horretarako premiazko zaizkien ezagutzak eta gaitasunak garatuta; gizarte demokratiko batean herritar aktibo gisa parte hartzeko; eta erantzukizun*

⁷⁷ Gutiérrez et al. (2011) autoreek hainbat aukera proposatzen dituzte, sistema tradizionalaren ordean, unibertsitateko irakaskuntzaren kalitatea hobetze aldera, nahiz eta horietako batzuk aplikatzeko zailak izan (batik bat Espainiako unibertsitateetan, oro har, nagusi den masifikazioa dela eta): a) *talde txikitako irakaskuntza*, b) *irakaskuntza programatua* eta c) *irakaskuntza sistema pertsonalizatua*. Bestalde, Black eta Wingfield (2008) autoreek modu enpirikoan aztertu dute ikasgelan metodologia aktiboak erabiltzeak duen eragina, metodo pasibo edo tradizionalen aldean. Ondorioztatzen dute metodo aktiboen bidezko ikasketa esperientzia askoz eraginkorragoa, sakonagoa eta iraunkorragoa dela eta ikasleak gehiago murgiltzen direla ikasketan. Autoreontzat, ikasketa esperientziala metodologia aktibo mota bat da.

pertsonalak beren gain hartzeko gai izateko” (Huber, 2008: 71-76). Autore horrek hiru metodo proposatzen ditu, Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Eremuak ezarritako helburuak erdiesteko balekoak izan daitezkeenak. Gainera, metodo horietako bakoitzak hausnarketa prozesuak xaxatu eta elikatu behar ditu; hausnarketa prozesu horien baitan “esperimentazioa” eta “zalantza” ere indarrean izan behar dira (Huber, 2008: 71-76):

- 1) **Ikasketa proiektuetan oinarrituriko metodoa:** *“azpimarratu egiten ditu ikasketa teoriko eta praktikoaren bateraketa, ikasleen arteko elkarlana eta hezkuntza instituzioez kanpoko bizitzako elementuak barneratzea”*. Bost puntu edo zutabe definitu daitezke: a) benetako interes edota ekimen batean funtsatzen da ikasketa; b) ikasleek beren ikuspegi eta interesguneen inguruan eztabaidatzen dute, batak besteari aholku emanaz; c) beren jarduera eremu propioa garatzen dute; d) noizean behin bertan behera uzten dituzte beren jarduerak, hausnartzeko eta ideiak trukatu eta partekatzeko; eta e) proiektua amaitutzat jotzen da zeregina edo xedea burutzen denean.
- 2) **Arazoetan oinarrituriko ikasketa metodoa:** egokia da *“ikasleak motibatuzko beren ezagutzak integratu ditzaten eta haiei zentzua eman diezaieten, besterik gabe datuak eta teorema metatu beharrean. Arazoetan oinarrituriko ikasketaren bidez, ikasleek benetako egoerei dagozkien edo, gutxienez, errealismo handiz aurkezturiko egoerei dagozkien arazoak ebatzi behar dituzte”*. Helburua ez da ikasleek arazoaren irtenbidea lortzea, baizik eta hura nola lortzen den ikastea eta lortu bitartean nola ikasten den bistaratzea.
- 3) **Elkarrekiko irakaste eta ikaste metodoak edo metodo kooperatiboak:** helburu dute *“ikasleen arteko lankidetzak arazoak saihestea eta zailtasunen aurrean irtenbide egingarriak eskaintzea”*. Ahalegina egiten da ikasleek ikasteko estrategia egokiak aurrera eraman ditzaten eta elkarri irakats diezaieten; hausnarketa prozesuak sustatzen dira eta bilatzen da lorpenak ez izatea norbanakoarenak, taldearenak baizik.

Europako konbergentzia prozesu horrek badu, Yániz (2006: 28) autorearen esanetan, eragin berezi eta bereizgarri bat ikasleen gaitasunak garatzeko plangintzan. Hala, unibertsitateko ikasleak helduarora hurbiltzen diren neurrian, etapa horri dagozkion ikasketen ezaugarriek, plangintzarako irizpidetzat hartuta, ikasleen ikasketen eraginkortasuna areagotu dezakete:

- ◆ *“Ikasleek, zerbait ikasi aurretik, zergatik ikasi behar duten jakin dezaten, ikasketaren balioari buruzko arrazoiak eman behar zaizkie”*. Esperientzia errealetatik abiatzeak horretarako balio izan dezake.
- ◆ *“Beren ikasketa prozesua gidatzeko gai diren pertsona gisa hartu eta tratatu behar dira ikasleak”*. Ikasketa esperientzia konkretuak sortu behar dira, ikasleak utz diezaion mendeko morroi izateari eta beren ikasketa auto-kudeatu eta auto-zuzentzen duen aktore bihurtu dadin.
- ◆ ***“Ikasketa esperientziala eta erreflexiboa tartean sartzek eragiten du esperientziak dituen indarguneak aprobetxatzea eta gerta daitezkeen interferentziak gutxitzea”***. Esperientziak modua ematen du ezagutzaren eskemak handitzeko, doitzeko edota berregituratzeko.

Bukatzeko, Coterón eta Gil (2015: 105-107) autoreek diote ezen ikaste-irakaste prozesuaren “ertzek” (ingurunearen ezaugarriek) errealitate berriari erantzun behar diotela eta haren arabera egokitu behar direla, lau ardatz aintzat hartuta:

❶ **Irakaskuntzaren objektua:** Hezteko ekintzak beste bat izan behar du, aldatu egin behar da. Dagoeneko ez du balio ezagutzak transmititze eta jasotze hutsak: ikaslearen gaitasunak garatzean funtsatu beharra du. Azken hamarkadetan eremu teknologikoan eta komunikazioarenean jazo diren aurrerakadak ezagutzaren kontzeptua bera aldatu dute. Informazioak dagoeneko ez du izaera estatikoa eta hura lortzea ez da jada nahikoa. *“Beharrezkoa da abian jartzea informazioa egituratzeko eta integratzeko prozedurak, ingurune aldakor baten etengabeko eskakizunei egoki erantzun ahal izateko. Ikuspegi horretatik begiratuta, irakaskuntzaren objektua halako prozedurak garatzea da, garrantzitsua den informazioa eskuratu, hautatu eta kontrastatzeko, ardatz eta prozeduren inguruan sailkatzeko eta egoera konkretuan behar bezala erabiltzeko”*.


❷ **Ikasleen ezaugarriak:** Ikuspegi tradizionaletik so eginda, ikasleen ikasketa honako hau baino ez zen (da): lortutako ezagutzak erreproduzitzeko daukan gaitasuna, bere oroimenean oinarrituta (ezagutzok, gainera, sail itxi eta bakartuetan gordeta daude). Gaur egun, ordea, testuinguru aldakor baten baitan, garapen teknologikoa eta hedabide sozialen bilakaera etengabekoak izanik, eskura dugun informazioa ere etenik gabe aldatzen ari da, bai kantitateari dagokionez, bai konplexutasunari dagokionez eta bai aurkezteko itxura eta euskarriari dagokienez ere. Informazioa lortzeko

iraungitze-data du eta, ondorioz, ikaslea prozesuaren parte aktibo bihurtu behar da eta gai izan behar da informazioa bere kasa hautatzeko, bere interes eta premien arabera. Horrez gain, etengabe interakzioa izan behar du ingurunearekin eta ingurune ezberdinekin. Arazo bat ebazteko komunikazio prozesuak norabide bakarrekoa (irakaslea-ikaslea) izateri utzi behar dio eta norabide anitzekoa izan behar du (irakaslea-ikaslea-ikaskideak-ingurunea). *“Egoera berrian, gizarteak irakasleari eskatzen diona, eta hark nahitaez kontuan izan beharrekoa, ez da jakintza konkretu batzuk erreproduzitzea; horren ordez, eskatzen zaio ikasleek ingurunearekin interakzioak izan ditzatela eta egokitu daitezela, eta horretarako praktikan jarri ditzatela askotariko ezagutzak, abileziak, prozedurak eta jarrera pertsonalak”.*

③ **Irakaslearen zeregina:** Jabetzapean dituen ezagutza estatikoak transmititze hutsaz bestelako funtzioa du. Ikasleek gaitasunak garatu ditzaten (tartean *“jakitea”, “egiten jakitea”* eta *“izaten jakitea”*, hainbat kontzeptu, prozedura eta jarreraren bidez), irakasleak prozesua diseinatu behar du, baliabideak eskaini behar ditu eta ikaslearen garapena gidatu behar du. Irakaslearen eta ikaslearen arteko harremanak bertikala izateari uzten dio, eta zeharreko edo “transbertsal” bihurtzen da (II.1.6. irudia): *“lehen irakasleak ezagutza jakin batzuk transmititzen zituela bermatu behar zuen, eta ikasleak, bere esfortzuaren bidez, ezagutza horiek bereganatu behar zituen; orain, berriz, irakasleak ikasleari lagundu egiten dio ikasketak eraikitzen, zailtasunak hautemanez, ikastea errazteko estrategiak proposatuz, prozesuan tutore lanak eginez eta berrelikadura emanaz [...] irakaste-ikaste prozesuaren ebaluazioa partekatua da orain, ikasleak ere bere hezkuntza prozesua balioesten baitu”.*

Irakasleak, bada, bitartekari lana egin behar du irakaste-ikaste prozesuan edozelako ekintzen bidez; eman beharreko materia aldatu dezake ikaslearen ikaste prozesuari on egiteko: esaterako, materia sinplifikatu dezake, pertsonalizatu, ikasleari egokitu... beti ere helburuak erronka kutsua izan dezan (Moon, 2004: 76). Ikaslea subjektu pasibo eta hartzaile hustzat hartzeari utzi behar zaio, hark ikaste prozesuan duen zeregin aktiboa nabarmenduz. Eta, jakina, horrek aldean dakar irakasleak ere rola aldatzea, erantzukizun oro bere gain hartzen duen aktore nagusi edo protagonista izateari utzi behar baitio eta bitartekari edo erraztatzaile lana hartu behar

baitu (nahiz eta horrek ez duen esan nahi, inondik inora, irakaslearen zereginak garrantzitsua eta, are, erabakigarria izateari uzten dionik)⁷⁸.



II.1.6. irudia: Aldaketak irakaste-ikaste eremuan eta irakasle-ikasle harremanean

Iturria: Guk geuk egina, Coterón eta Gil (2015: 107) oinarri harturik.

❶ **Baliabide didaktikoak:** Metodologia tradizionalak klase magistrala hartu izan du irakaskuntza tresna funtsezkotzat (eta, are, bakartzat, kasu askotan). Informazio eta komunikazio teknologien garapenak, besteak beste, aukera eta baliabide didaktiko berriak dakartza, ordea. Askotariko hezkuntza metodoen artean honako hauek azpimarratu daitezke (horietako batzuk aipatuak izan dira dagoeneko): kasuak aztertzean funtsaturiko metodoa, proiektuetara zuzendutako ikasketa, arazoetan funtsaturiko

⁷⁸ Izan ere, Mijangos et al. (2011: 64) autoreek dioten bezala, irakaste-ikaste prozesuan ikaslea ardatz hartzeak “ez dio batere garrantzirik kentzen irakaslearen zereginari, zeina aldatu egiten baita, baina ahuldu gabe. Zentzu batean kontrakoa ere gertatzen da, irakaskuntza metodologiei dagozkien proposamen berriek irakasle gaituen premia dute, lezioak emateaz bestelako eginbehar batzuetan gaitutako irakasleen premia, alegia; irakaslearen ardurak handitu egiten dira saioak planifikatzeari dagokionez, irakaskuntza antolatzeari dagokionez eta beste irakasle batzuekin koordinatzeari dagokionez. Garrantzitsua da irakasleak zenbait abilezia jorratzea talde lanean aritzeko, ikaslea motibatzeke, edo ikasgelan lider jarduteko, oraintsu arte entzun ere egin gabeko abileziak”.

ikasketa, ikasketa kooperatiboa, ikasketa dialogikoa, irakaskuntza praktika eta ikasketa kontratua, besteren artean.

Laburbilduta, hezkuntzaren alorreko berrikuntzek dakartzaten aldaketen artean nabarmentzekoa da ikaslearen ikasketek oinarritzat hartu behar dutela haren gaitasunen garapena. Hala, aldatu egin behar da, halaber, irakaste-ikaste prozesua bideratzeko eta gauzatzeko modua, ikasleen errealitate sozial, laboral, profesional eta pertsonal berrira egokituko bada. Testuinguru horren baitan kokatu behar da **ikasketa esperientziala** —baita **ikasgelaz kanpoko ikasketa** ere—, hezkuntza metodo edo bitarteko gisa, metodologia tradizionalak osatzeko, haiei balioa eransteko eta irakaste-ikaste prozesua aberasteko. Hurrengo atalean aztergai izango dira, luze eta zabal.

1.3.3. -IKASKETA ESPERIENTZIALA: KONTZEPTUAK, EREDUAK, APLIKAZIOAK

Aurreko ataletan azaldu den bezala, gaur egun helburua ez da ezagutzak eskuratzea *per se*; horrez gain, nahi da ikaslea gai izatea ikasgelan aurkezten zaizkion auzien inguruko analisi kritikoak egiteko eta, horrekin batera, eskuratutako ezagutzak aplikatzeko. Horretarako, ezinbestekoa da ikasgelan erabili ohi diren pedagogiak berrikustea eta, batez ere, aplikatzen diren metodologiak berraztertzea, ikasleei informazioa transmititzeaz harago haien gaitasunak garatzea ere helburutzat har dezaten. Gaitasun horien artean, behin baino gehiagotan iradoki denez, garrantzitsua da ikaslea gai izatea modu autonomoan ikasteko eta lan egiteko, baita ikasten ikasteko gai izatea ere (gaitasun horrek, halaber, eskatzen du ikasleak zentzu guztiak erabiltzea eta ingurunearekin interakzioak izatea, ezagutza hori eraikitzeke) (Romero, 2010).

Halatan, bada, premiazkoa da irakaslea protagonista duen klase magistralean funtsaturiko eskema tradizionala gainditzea eta metodologia aktiboetan oinarritu eta ikaslea ardatz hartzen duen irakaste-ikaste prozesu bati bidea ematea, ikaslea bera izan dadin bere ikasketaren eraikitzaile eta protagonista. Hortaz, ikaslea pertsonatzat eta irakaskuntza jarduera ororen erdigunetzat hartu behar da. Protagonismoa eman behar zaio eta, aldi berean, lagundu egin behar zaio bere identitate pertsonala eta bizitza proiektua eraikitzen; horretarako erraztasunak eman behar zaizkio bere gaitasun guztiak garatu ditzan eta, jakina, hori guztia egin behar da aniztasuna egoki zainduta (Salas eta Serrano, 2000)⁷⁹.

Ikaslea erdigunetzat hartzen dutne metodologia aktiboek helburu dute irakaskuntza planeatzeko eta egikaritzeko moduari bira handi bat eginaraztea, beste norabide bat har dezan; ez daitezen zuzendu, azken helmuga gisa, edukiak lortzera, baizik eta ardatz eta helmuga har ditzaten ikasleak beraiek (haiei dagokien protagonismoa aitortuta), ezagutzak eta gaitasunak eskuratzeko eta garatzeko bidean (Huber, 2008). Horregatik, metodologia aktibo horiek, **zer** ikasten den (edukia) ez ezik, biziki azpimarratzen dituzte, baita ere, **nola** ikasten den (prozesua) eta **non** ikasten den (testuingurua, ingurunea); era horretan bidea ematen dute gaitasun metakognitiboak garatzeko (ikasten irakasten dutenak, ikasleari ikasten duen modua birplanteazten diotenak), bestelako abilezia eta balio batzuekin batera. Pertsonaren garapen harmonikoa bilatzen

⁷⁹ Aurreko ataletan bistaratu den legez, iragan mendean ere hainbat autore hasi ziren prozedura pedagogiko aktiboek buruz hitz egiten eta horiek inguruko azterketak egiten, metodologia mota horiek irakaste-ikaste prozesuari onurak zekarzkiotela sinetsita. Aipatzekoa da gaur egun irakasle askok metodologia aktiboak darabiltzatela ikasgelan, baina kasu askotan modu automatikoan egiten dute hori, ikasleentzat hezkuntza zentzu eta esangura handirik sortu gabe (Macías, 2009).

da; proiektu integral bat bilatu behar da dimentsio guztiak lantzea eragingo duena (alderdi akademiko hutsetan “ito” gabe). Ikasleak beren ikaste prozesuaren protagonista izango dira; pasibotasuna utzirik jarrera aktiboa izan beharko dute.

Horiek horrela, azken urteotan hainbat kontzeptu indar handiz piztu edo berpiztu dira, hala nola “ikasketa auto-arautua”, “ikasketa independentea”, “ikasketa autonomoa” edo “ikasketa auto-zuzendua”, zeinek agerian uzten baitute larritasun handiko premia bat: ikaslea bere ikaste prozesua gidatzeko gai den pertsonatzat hartzeko premia, bere ikasteko gaitasuna (“ikasten ikasi” delakoa) eta autonomia pertsonala garatzeko xedez. Eta, horretarako, ikasleari ikasteko esperientzia konkretuak eskaini behar zaizkio, mendeko eta pasibo izateari uzteko eta, jarrera aktiboz, bere ikasketa kudeatzen eta zuzentzen duen aktore bihurtzeko (Yániz, 2006).

Era berean, azken urteotan aurrerapauso handiak egin dira gai horren inguruko ikerketan, hainbat alorretan: “ikastea” edo “ikasketa” zen den, ezagutzak nola eskuratzen diren eta zein diren ikasteko estilo ezberdinak. Egiazki, “ikasketa” oso kontzeptu konplexua da, itxura batean dirudiena baino askoz konplexuagoa, azaltzeko zaila da oso eta zehaztea komeni den interakzio anitz du, gainera. Moon-en (2004: 71) hitzetan, baieztatu daiteke ezen *“persona batek ikasi egiten duela ideia bat errotzen duenean eta ideia hori ikasketa berri bat gidatzeko erabili dezakeenean”*. Segur aski, jende gehienari beste ezer baino lehen bururatzen zaiona ikasketa tradizionalaren prozesua da, horrekin batera, memoriarekin loturiko honako beste “zera” hauek ere bai: instrukzioa, kontzeptuak barneratzea, kontzeptuok gordetzea eta gogoratzea, etab. Testuinguru horretan, jendeak ikasketa prozesua egokitzen eta eraginkortzat jotzen du baldin eta ikasleak modu eraginkorrean bereganatzen (“xurgatzen”) badu irakatsi zaion materia eta, gainera, gai baldin bada, geroago, materia hori erreproduzitzeko, irakasleak irakatsitako modu berean edo ahalik antzekoenean⁸⁰. Zernahi gisaz, ikasketa oro baldintzatu egiten du, hainbat eratarik baldintzatu ere, ingurune sozialak: ezagutzak eraikitzen ditugu esperientziaren bidez eta ingurunearekin interakzioak izanez (esperientziak, hartara, badu osagai indibidual bat, baina badu osagai sozial bat ere).

⁸⁰ Kasu horretan, ikasleak, errutina modura, materia buruz ikasten badu, haren inguruan inolako hausnarketarik egin gabe, horrek ekarriko duen ikasketa *“azalekoa”* da, Moon-en (2004) esanetan. Benetan ikasketa *“sakona”* gerta dadin, ikasleak ahalegina egin behar du materia ulertzeko, irakurri eta entzundako kontzeptuen inguruan hausnar egin behar du, pentsatu egin behar du. Ikasketa “sakonak”, kalitate handiagoko ikasketa eskaintzeaz gain, aukera ematen du, denbora luzea igarota ere, ikasitakoa gogoratzeko (materia hobeto “biltegitratzen” eta gordetzen da, ikasketa “sakon” baten bidez eskuratzen bada). Eta ikasleari eskainitako (biziarrizitako) esperientzia da hark darabilen ikasteko fokapena (“sakona” nahiz “azalekoa”) zehazten duena.

Ikaslea ardatz duten metodologia aktiboetaranzko joera edo biratze horretan ulertu eta zentratu behar da **ikasketa esperientziala** aspaldian hartzen ari den munta eta sona. Interes hazkorra dago haren ezaugarriak eta berezitasunak ezagutzeko eta era kontziente eta programatuan hezkuntza tresna gisa baliatzeko modukoa den egiaztatzeko. Romerok (2010: 90) dioen bezala, *“ikasketa esperientzialak aukera berdingabea ematen du teoria praktikarekin konektatzeko. Ikasleak askotariko egoera errealei erantzun beharrak dakarren erronkari aurre egiten dionean, bere baitan errotu egiten da ezagutza esanguratsu bat, testuinguruari dagokiona, transferitu daitekeena eta funtzionala dena, eta areagotu egiten da ikasleak duen gaitasuna ikasitakoa aplikatzeko”*.

Hainbat autoreren arabera —tartean dira, besteak beste, Ibarrola (2016), Moon (2004) eta Kolb & Kolb (2005)—, neurozientziari eta ezagutzak prozesatzeko burmuinak duen moduari buruzko ikerketetan bistaratu denez, **esperientziek** eta esperientziek eragindako **prozesu emozionalek** berebiziko garrantzia dute gizabanakoon arretan eta oroimenean. Emozioek eta sentimenduek lagun egiten digute bizitza osoan barrena eta erakutsi egiten digute zer den aspergarria eta zer interesgarria, baita zer nahi dugun eta zer baztertzen dugun ere. Ibarrolari (2016: 2) jarraiki, *“egoera emozionalak gure gorputzean barrena dabilzan mezu kimikoen sistema baten emaitza dira; egoera emozionalek, era berean, eragin egiten diete gure pertzepzioei, hautematen dugunari, baita gure arretari ere, une oro. Emozioak dira, beraz, ‘ikasketaren guardak’, eta garrantzi handia dute bai ikasten duenarentzat eta bai irakasten duenarentzat ere; ez dezagun ahantzi emozioek gidatzen dituztela gure ikasketa prozesuak, gure arreta, gure memoria; emozioak une oro ari dira erregulatzen errealtate gisa esperimentatzen duguna. Jakin-minaren etengailu edo argi-giltza pizten denean, arreta fokatzen da eta ikasketa prozesua hasi egiten da. Emozioei esker, oroitzapenak gordetzen eta gogora ekartzen dira modu askoz eraginkorragoan eta edozein funtzio mentalekin loturiko edukiak lantzen dira. Horregatik, emozioa itzaltzen denean, etengailua deskonektatzen denean, ikaslearentzako ondorioak oso negatiboak izaten dira”*. Emozioak dira, hortaz, arreta gidatzen eta zuzentzen dutenak eta hori ezinbesteko elementua da hezkuntza eremuan eta gako erabakigarria da edukiak barneratzeko eta ikasitakoa sustraitzeko. Horrenbestez, funtsezkoa da emozioak kontuan hartzea irakaste-ikaste prozesuan, pentsamendua gaitu edo ezgaitu baitezakete. Emozioek eragin egiten diete ezagutzaren egiturari eta ikasketa prozesuari. Gogo aldarte positiboek (hala nola pozak edo entusiasmoak) era egokian bultzatzen

gaituzte, edozein irakaste-ikaste prozesu eraginkortasunez aurrera eramateko⁸¹. Aldiz, interesatzen ez zaigun zerbait ikastea ikaragarri zaila da.

1.3.3.1.- IKASKETA ESPERIENZIALAREN KONTZEPTUA ETA EZAUGARRIAK

Hasteko, aipatzekoa da autore askok bereizi gabe erabiltzen dituztela “hezkuntza esperientziala” eta “ikasketa esperientziala” hitzak. Ordea, beste zenbait autorek, hala nola Itin-ek (1999) eta Moon-ek (2004), bereizi egiten dituzte hitzok eta bakoitzari bere zentzu edo esanahi propioa ematen diote (aintzat hartuta “hezkuntza” eta “ikasketa” hitzak ez direla sinonimoak). Autore horien arabera, “ikasketa” da, esperientzia zuzeneko eta indibidual baten bidez, gizabanako baten baitan gertatzen den aldaketa prozesua. Ikasketa, beraz, ikaslearengan datza eta ez du irakaslearen beharrik zertan izan. Bestalde, “hezkuntza” da irakasle edo hezitzaile baten eta ikasle baten artean gertatzen den transakzio prozesua. Prozesu horretan beste agente edo instituzio batzuek ere parte hartu dezakete, baina, iradoki den bezala, beharrezkoa da irakaslearen parte-hartzea (“ikasketan” ez bezala). Horrez gain, “ikasketa” gerta daiteke “irakaskuntza” ekintza jazotzen ari den lekuaz banandutako (bestelako) toki batean (“urrutiko ikasketa”). Horrenbestez, esan liteke ikasketa esperientzialaren printzipioak egoki txertatzen direla hezkuntza esperientzialaren magalean, baina ez alderantziz (izan ere, gizabanakoaren baitan gertatzen den aldaketa prozesuaz harago doa hezkuntza). Hala eta guztiz ere, ikerketa honetan bi kontzeptuak bereizi gabe erabiliko ditugu guk.

Aurrera jarraitu baino lehen, beharrezkotzat jotzen da “*esperientzia*” hitzaren esanahi konkretua zehaztea. *Real Academia Española de la Lengua* (RAE) erakundeak honela definitzen du “*esperientzia*”:

1. *Norbaitek zerbait zuzenean sentitu, ezagutu edo ikustea.*
2. *Denboran zehar luzatutako praktika, zerbait egiteko ezagutza edo abilezia ematen duena.*
3. *Bizitzaren ezagutza, bizi izandako zirkunstantzien edo egoeren bidez lortzen dena.*
4. *Pertsona batek bizi izandako zirkunstantzia edo gertaera.*
5. *Esperimentua.*


⁸¹ Aipagarria da, ildo horretan, Csikszentmihalyi (1990) autoreak ikasketa prozesura egiten duen hurbilketa, hura errazteko atmosfera egokien bila. Autore horren teorian “fluxu” edo “*flow*” kontzeptuaz mintzo da: egoera edo sentimendu bat da, zeinetan gizabanakoak denboraren zentzua galtzen baitu eta ematen baitu bere helburuak esfortzurik gabe lortzen ari dela.

“*Esperientzia*” hitzaren erro epistemologikoak latinetiko *experientia* (proba, saio) hitzean du jatorria, zeina, era berean, *experiri* (esperimentatu, probatu) aditzetik baitator. Hortaz, esperientziak harremana du ezagutza enpirikoarekin, praktikaren edo aurkikuntzaren bidez lortzen den ezagutzarekin, alegia. Esperientzia hitzaz RAEk emandako 1. eta 4. adierak aintzat hartuz gero, “esperientzia” gertaera pasibo modura bizi izan daiteke (esaterako, zerbait ikustea), baina ez du zertan sortu ezagutzarik nahitaez. Aldiz, beste bi adierei (2. eta 3. adierei) helduz gero, kasu horietan ezagutza lortu egiten da, bizipen baten bidez, lortu ere, zeinak gizabanakoarengan zerbait mobilizatzen baitu eta ondorioztat baitakar gizabanakoak lehenago ez zeukan ezagutza edo abilezia bat eskuratzea edo garatzea. Ondorioz, “esperientzia” kontzeptuak ez dakar aldean inplizituki zerbait ikastea (ikasketa jakin bat); esperientzia zer baldintza edo egoeratan gertatu den, horren mendekoa izango da ezagutzarik eskuratzen den ala ez (Joplin, 1995; Pardo eta García-Arjona, 2015). Ildo horretan, Smith-ek dioenez (2001, Romerok aipatua, 2010: 91), *“ikasketa esperientzialaren ezaugarrietako baten arabera, gizabanakoa murgildu egiten da zuzeneko interakzio batean ikasten ari den harekin; ez da kontenplazio edo deskribapen intelektual hutsa. Dena dela, autoreak nabarmentzen du esperientzia ez dela nahikoa ikasketa segurtatzeko; ikasketa hertsiki lotuta dago hausnarketa pertsonalarekin, zeinaren bidez bizi izandakotik abiatuta esanahia eraikitzen den”*.

Illeris (2007) autorea hainbat lanetan ahalegindu izan da **ikasketa esperientzialaren** definizio konkretu bat ematen (aurreko hamarkadetan beste autore batzuek egindako lanek bultzaturik). Illeris-en (2007) esanetan, haur edota gaztetxotako eskola garaian, ikasketa esperientziala txangoekin-eta lotu ohi da, irakasleek ikastetxetik kanpo egin nahi izaten dituzten proiektu edo jarduerekin, batez ere. Bestalde, ikasle zaharragoen eta, are, helduen hezkuntzari dagokionez, ikasketa esperientziala lotu ohi da, gehienbat, ikasleek aurrez duten ikasketa informala aplikatzearekin. Horrez gain, ikaste prozesua gertatzen deneko lekuari gagozkiola, ikasketa esperientzialak harreman estuagoa du *“learning by doing”*-arekin eta gisa horretako kontzeptuekin, kurtso edo ikasketa tradizionalarekin baino⁸². Ikasketa esperientzialak bereizgarria du, nolabait, ohiko “eskola ikasketa” edo “irakasten denaren ikasketa” kontzeptuen aurkakoa-edo dela. Historiari so, “ikasketa esperientziala” kontzeptuak lotura izan du **esperientziarekin**, honek ikasketari egiten dion balio ekarpen esanguratsuekin, baita bizitzako egitate adierazgarriak ikastearekin edo ikasketa aberats eta moldakorrarekin ere. Aitzitik, zeharo bestelakoa

⁸² “*Learning by doing*” kontzeptuak aldean dakar zuzeneko kontaktua izatea ikasten edo aztertzen ari den objektuekin (Beaudin eta Quick, 1995).

da ohiko eskola ikasketak (betikoak, tradizionalak) iradoki ohi duena, zeinari “aspergarria”, “silabatan mugatua” eta antzeko kontzeptuak lotu izan baitzaizkio nagusiki. Illeris-ek (2007) ondorioztatzen duenez, ikasketa oro bi prozesu mota desberdinek osatzen dute: bata kanpo interakzioa da, ikaslearen eta bere ingurune sozial, kultural eta materialaren artekoa; eta bestea, berriz, barne prozesu subjektiboa da, zeinaren arabera ezagutzak eskuratzen eta lantzen baitira, lehenagoko ikasketei bulkada berriak erantsiz eta konektatuz. Ondorioz, ikasketa orok hiru dimentsio (behar) ditu: i) **edukiari** dagokion dimentsioa, hots, ezagutzen, abilezien, gaitasunen, jarreraren eta interesen edukiari dagokiona; ii) **pizgarriei** dagokien dimentsioa, hau da, emozioei, sentimenduei eta motibazioei dagokiena; eta iii) **interakzioari** dagokion dimentsio soziala, komunikazioa eta lankidetzaren tartean direla (II.1.7. irudia):



II.1.7. irudia: Ikasketa prozesuak eta dimentsioak

Iturria: Illeris (2007: 88).

Aurreko iruditik erator daitekeenez, ikasketa tradizionala edukiaren dimentsioa eskuratzeari lotzen zaio nagusiki; bizitzako ikasketa garrantzitsuenek, aldiz, hiru dimentsioetan ikasketa esanguratsuak biltzen dituzte. Eta berriz ere “esperientzia” hitzari heltzen badiogu, begien bistakoa da esperientzia esanguratsu eta garrantzitsu batek aldean dakarrela edukiak ikastea, tartean duela pizgarri edo motibazioa eta,

gainera, ingurunearekin izandako interakzioan duela funts eta oinarria. Horiek horrela, Illeris-en (2007) definizioaren arabera, ikasketa esperientziala da hiru dimentsioak integratzen dituen ikasketa. Baina ez hori bakarrik; horrez gain, ikasketa esperientzialaren garrantzia honetan datza: zer nola dauden interkonektaturik hiru dimentsio horiek eta zer arreta jartzen den horietako bakoitzean.

Ildo bertsuan, Clark, Threton eta Ewing (2010) autoreek, ikasketa mota honi buruzko literatura aztertutik, ondorioztatzen dute ezen ikasketa esperientzian aritzen diren ikasleek bi testuingurutan —dikotomikoak diren baina estuki lotuta dauden bi testuingurutan— darabiltela kontzeptu hori:

- i) Ikasketa esperientzialaren lehenengo testuinguruak aipamena egiten dio ikasleek egiten duten ikasketari, ikasleei aukera ematen zaienean, gertuko eta esangura handiko leku batean, ezagutzak, abileziak eta sentimenduak eskuratzeko eta aplikatzeko.
- ii) Literaturan deskribatzen den bigarren testuinguruak ikasleen hausnarketari egiten dio aipamena; hausnarketa hori egiten dute eguneroko bizitzari dagozkien zuzeneko kontaktuen eta zuzeneko parte-hartzeen bitartez. Ikasketa esperientzial mota hori ez da hain egituratua eta lotura du “*lifelong learning*” kontzeptuarekin; ikasketa hori ez dute instituzio akademikoek finantzatzen, ikasleak berak baizik.

Era berean, *Association for Experiential Education* (AEE, 2016) erakundeak honela definitzen du **hezkuntza esperientziala**: “*filosofia eta metodo bat da, non hezitzaileek interakzioa duten ikasleekin zuzeneko esperientzia batean eta ondorengo hausnarketan, helburu izanik gizabanakoen ezagutzak areagotzea, abileziak garatzea, balioak argitzea eta beren komunitateari ekarpenak egiteko gaitasuna lantzea. Sarritan beste hitz batzuk erabiltzen dira hezkuntza esperientzialaz mintzatzeko: hezkuntza ez formala, lekuan egindako hezkuntza, proiektuetan oinarrituriko hezkuntza, hezkuntza globala, ingurune hezkuntza, ikaslearengan oinarrituriko hezkuntza, hezkuntza informala, ikasketa aktiboa, zerbitzu ikasketa edo ikasketa kooperatiboa*”. Ikasketa esperientzialak oinarri du ikasleak modu sakon eta esanguratsuagoan eskuratzen duen ezagutza, *esperientzien bidez*; eta ez *zeharka*, ikasgeletan erabili ohi diren metodo tradizional gehienekin gertatzen den bezala.

Estes (2004: 142) autorearen hitzetan, “*hezkuntza esperientzialaren prozesuaren bidez, ikaslea zirikatu egiten da etengabe galderak egin ditzan, ikertu dezan, erantzukizuna har dezan, sortzailea izan dadin eta ezagutzak eraiki ditzan*”.

Jarraian, II.1.8. taulan, “**ikasketa esperientziala**” kontzeptuaz askotariko autoreek egindako hainbat definizio bildu dira; agerikoa denez, ez dago erabateko adostasunik, baina guztiek ere badute esentzia edo muin komun eta partekatu bat.

II.1.8. taula: Ikasketa esperientzialaren definizioak

Autorea	Definizioa
Boydell, 1976: 19, 20	<i>“Ikasketa esperientziala aurkikuntza esanguratsu bidezko ikasketaren sinonimoa da; ikaslea murgilarazten du bere kasa gauzak ordenatzen, gertatzen ari denaz dituen pertzepzioak berregituratuz”</i>
Saunders, datarik gabe	<i>“Ikasketa esperientzialean, garrantzitsuena da ikaslea, eta ez irakaslea, gai izatea irakatsitakotik abiatuta eskuratutako ezagutzak aplikatzeko”</i>
Chickering, 1977: 63	<i>“Ikasketa esperientziala gertatzen da, gertaera baten edo batzuen bidezko bizipen baten emaitza gisa, pertsona jakin baten iritziak, sentimenduak edo abileziak aldatzen direnean”</i>
Hutton, 1989: 51	<i>“Ikasketa esperientziala gure ekintzetan eta gure esperientzian sustraitzen den ikasketa da. Helburua da ikastea zerk argitzen duen esperientzia hori; eta horrek bidea erakusten du iritzia izateko aukerak egin eta ekintzak gidatzeko”</i>
McGill and Warner Weill, 1989: 248	<i>“Ikasketa esperientziala prozesu bat da, zeinaren arabera gizabanakoek, modu indibidualean edo beste batzuekin batera, zuzeneko topaketa batean parte hartzen baitute, eta, ondoren, hausnar egin, balioztatu, eraldatu eta esanahi pertsonal bat ematen baitiote. Beren ezagutza forma desberdinak integratzea bilatzen dute. Hortaz, ikasketa esperientzialak ahalbidetzen du aukera berriak deskubritzea, zuzeneko esperientzia hutsaren bidez agian agerikoak ez direnak”</i>
Griffin, 1992: 32	<i>“Ikasketa esperientzialesetik jasotako ideologia profesionalaren arabera, gizabanakoari aukera ematen zaio bere ikasketaren gaineko kontrola hartzeko eta, ondorioz, bere bizitzaren gaineko kontrola ere bai. Oro har uste da ikasleak gaitu eta trebatzen dituela, segur aski ikasketa ez-esperientzialak egiten ez duen bezala”</i>
Saddington, 1992: 44	<i>“Ikasketa esperientziala prozesu bat da, zeinaren arabera esperientzia islatu eta kontzeptu bihurtzen baita; era berean, kontzeptu horiek esperientzia berrietarako gidari bihurtzen dira”</i>
Green, 1995	<i>“Ikasketa esperientzialaren kontzeptuak ikasketa egituratzeko eta sekuentziatzeko modua ematen du, esperientziaren eraginkortasuna areagotzen duena”</i>
Rumsey, 1996	<i>“Ikasketa esperientziala erronka izaera duten barne eta kanpo esperientziak modu estrategikoan erabiltzea da, ulermena areagotzeko eta hobekuntzak lortzeko. Funtsezko helburua da gizabanakoei, taldeei eta organizazioei laguntzea beren negozioetako arrakasta handitzen”</i>
Beard and Wilson, 2002: 16	<i>“Gure esperientzia propioa kontzienteki edo inkontzienteki barneratuz eskuratutako zolitasuna”</i>

Iturria: Guk geuk egina.

Boud, Cohen eta Walker (2000: 8-14) autoreek bost proposamen garatzen dituzte ikasketa esperientzialaren inguruan:

- *“Esperientzia da ikasketa osoaren oinarria eta ikasketarako pizgarria”.*
- *“Ikasleek modu aktiboan eraikitzen dute beren esperientzia propioa”.*
- *“Ikasketa prozesu holistiko bat da”.*
- *“Ikasketa kulturalki eta sozialki eraikitzen da”.*
- *“Ikasketari sozio-emozionalki eragiten dio ikasketa gertatzen deneko lekuak”.*

Andresen, Boud eta Cohen (2000: 227-228) autoreek, bestalde, honako alderdi hauek nabarmentzen dituzte, ikasketa esperientzialari dagozkion elementu eta irizpide gisa:

- ✓ Lortzen duen ikasketa pertsonalki esanguratsua eta garrantzitsua da ikaslearentzat.
- ✓ Garrantzitsua da ikaslea pertsonalki konprometiturik izatea ikasketarekin.
- ✓ Prozesu erreflexibo (hausnarketa) bat gertatu behar da tartean.
- ✓ Aintzat hartu eta sustatu egin behar da ikaslearen gaitasun guztien inplikazioa orainaldian, baina iraganeko esperientziekin harremanetan.
- ✓ Aitortu eta aintzat hartu behar da ikasleek aurrez duten esperientzia.
- ✓ Postura etiko jakin bat indarrean dago: ikaslearekiko ardura eta errespetua, konfiantza, irekitasuna, eta ikaslearen beraren “auto-zuzendaritza” potentzialari babesa eta laguntza ematea.

Moon-ek (2004) honako kontzeptu hauek gehitzen dizkio aurretik esandako guztiari:

- Ikasketa esperientzialak esfortzua edo ahalegina dakar. Ez da berez gertatzen, modu automatikoan, lagun batek esperientzia bat izaten duen bakoitzean.
- Esperientzia jakin batzuen bidez modu eraginkorragoan gertatzen da ikasketa, beste esperientzia batzuen bidez baino. Izan ere, esperientzia guztietatik ez da ikasketarik eratortzen/sortzen; esperientzia espezifiko batzuetatik baino ez; eta esperientzia jakin horiek sarritan “gune zehatz batean” eta “une zehatz batean” gertatzen dira.
- Esperientziaren bidez “des-ikastea” garrantzitsuagoa izan daiteke gehiago ikastea baino. Beste era batera esanda, malgutasuna eta huts egiteari beldur ez izatea (irekitasuna) ikasbide eta ikasketa garrantzitsuak izan daitezke.
- Ikasketa esperientzialak modu esplizituan aitortu eta onartu behar du esperientziaren izaera subjektiboa.

Moon-ek berak (2004) honako beste konnotazio hauek ere plazaratzen eta zehazten ditu:

- ✓ Normalean, ikasketa hori ez da izaten irakatsitakoa, edo ez da lortzen inork bitartekari lanak eginda.
- ✓ Erabili ohi den ikasmateriala **zuzeneko esperientzia** izaten da.
- ✓ Maiz uste eta sentitu izaten da ikasketa esperientziala halako ikasketa mota pribilegiatu bat dela, hobea edo esanguratsuagoa dela, edo ikaslea gaitu egiten duela.
- ✓ Oro har, ikasketa esperientzian hausnarketa bat gertatzen da, berariaz nahiz ez.
- ✓ Oro har, ikasketa fase aktiborik ez da falta izaten (ekintza, esperimentazioa, etab.).
- ✓ Oro har, berrelikadura (“*feedback*”) mekanismoren bat indarrean izaten da.
- ✓ Oro har, ikasteko asmo edo intentzio formal bat izaten da. Une jakin batean edo esperientzia zehatz batetik ikasteko asmo horrek justifikatzen du “ikasketa esperientziala” hitz espezifiko erabiltzea ere (zeina ez baita ikasketa “intzidentala”, ezta “egunerokoa” ere).

Chapman, McPhee eta Proudman (1995) autoreek ikasketa esperientzialaz diotenez, *“fokapen jakin bat da, zeinaren bidez ikasleek aktiboki parte hartzen duten egoki eta esanguratsu irizten dieten galderak esploratzen, sentsazio eta pentsamendu horiek ezagutzak eskuratzera eramango dituztela sinetsita. Irakasleak entrenatzaile gisa ageri dira eta, hein handi batean, kendu egiten zaie errealitatea interpretatzeko, egiaaren transmisioa egiteko eta ikasleen eta munduaren arteko bitartekari jarduteko funtzioa. Irakasleei eskatzen zaie sinetsi dezaten ikasleak, beren esperientzietatik abiatuta, ondorio baliotsu eta esanguratsuak ateratzeko gai direla. Azken batean, honelako ikasketa esanguratsuagoa izaten da beste batzuek beste bizitza arrotz batzuez ateratako ondorioetan sinestea baino [...] Hezkuntza esperientziala ez da ‘learning by doing’ delakoa bezain sinplea. Bizi izate hutsa ere ‘learning by doing’ dela esan liteke [...] Ikasketa esperientzial on batek konbinatu egiten ditu ikaslearentzat esanguratsua den zuzeneko esperientzia, batetik, eta hausnarketa eta analisi gidatua, bestetik. Erronka izaera du, aktiboa da, ikaslea ardatz hartzen du, eta ikasleari bultzatzen dio ekimena, erantzukizuna eta erabakimena lantzeko aukerak izan dituzan [...] zeinahi jardura dela ere, irakaste-ikaste prozesua da definitzen duena ikasteko esperientzia hori esperientziala den ala ez [...] Ikasketa esperientzialak ikaslea emozionalki konprometitzen du. Ikasleak ikasketaren baitan hain murgilduta sentitzen dira, non sarritan ez duten nahi ikasketa prozesutik bananduak izatea.*

Erreal da eta ikasleak haren partaide direla sentitzen dute [...] Agian hezkuntza esperientzialaz esan beharko genuke emozionalki konprometituriko ikasketa dela [...] Ikasketa esperientzialak eraldaketa dakar, transformazionala da”.

Prochazka (1995) autoreak, ikasketa esperientziala zertan datzan azaltzeko, maila desberdinetan gertatzen diren ikasketak aipatzen ditu. Lehenengo ikasketa mailan, prozesu primarioa “memorizatzea” da eta ikasi nahi den edukian jartzen da fokua. Hurrengo mailak memorizatze hutsa baino zerbait gehiago eskatzen du, baina funtsean prozesu intelektual eta kognitiboa izaten jarraitzen du. Maila horretan, ikaslearen jarrera aldatu egiten da: interes handixeagoa du. Litekeena da maila horretan jarduera esperientzialik ez izatea eta edukia da oraindik ikasketa prozesuko elementurik garrantzitsuena. Hirugarren mailari “esperientzial” izena ezartzen dio Prochazkari (1995). Hirugarren maila horretan ikasleak datuak antolatzen ditu, “esperientzializatzeko” moduan antolatu ere. Maila hori **sakonagoa** eta **pertsonalagoa** da aurreko biak baino. Fokua ez da soilik jartzen edukian; ikasketa prozesuan ere jartzen da. Laugarren mailari “barneraturiko ikasketa” izena ematen dio autoreak. Maila horretan ikasleak buru-belarri murgiltzen dira datuak praktikara eramateko: edukia hor dago, presente dago, baina eduki hori errealitate pertsonalera eramateko prozesua da benetan garrantzitsuena. Barneratze prozesu hori barrutik kanporako prozesu gisa har eta uler daiteke. Ikasleak hartu egiten du maila sakonean, pertsonalean, sentimenduzkoan, maila kognitiboa baino sakonago barneratua duen informazioa eta horrekin zerbait sortzeko ardura du: informazio hori hartu eta bere bizitzan integratu behar du eta hari eragin behar dio. Maila horretako ikasketak eragin edo inpaktu handia du gizabanakoarengan, zeina muineraino murgiltzen baita bere hazkunde, aldaketa eta ikasketan. Ikaslea bere buruaren irakasle eta gidari bihurtzen da. Funtsean, ikasten ikasten ari da.

Association for Experiential Education-AEE (2016) erakundearen esanetan, hezkuntza esperientzialaren praktikak honako printzipio hauek ditu:

- *“Ikasketa esperientziala gertatzen da zehatz eta egoki aukeraturiko esperientziak bat egiten dutenean hausnarketarekin, analisi kritikoarekin eta sintesiarekin”.*
- *“Esperientziak modu jakin batean egituratu behar dira, ikasleak ekimena izan dezan, erabakiak hartu ditzan eta emaitzen erantzule izan dadin”.*
- *“Ikasketa esperientzialaren prozesu osoan barrena, ikasleak aktiboki parte hartzen du galderak eginez, ikertuz, esperimendatuz, jakin-mina izanez, arazoak ebatziz, erantzukizuna hartuz, sortzaile arituz eta esanahia eraikiz”.*

- *“Ikasleak konprometitu eta parte hartzen du maila intelektual, emozional, sozial eta fisikoan. Parte-hartze horrek ikasketa zeregina autentikoa delako pertzepzioa eragiten du”.*
- *“Ikasketaren emaitzak pertsonalak dira eta etorkizuneko esperientzien eta ikasketen oinarria osatzen dute”.*
- *“Harremanak garatzen eta elikatzen dira, gizabanakoek beren kasa eta besteak hezten ere ikasten baitute”.*
- *“Trakasleak eta ikasleak arrakasta, porrota, abentura, arriskua edota zalantza esperimintatu dezakete, esperientziaren emaitzak ezin direlako erabat aurreikusi”.*
- *“Trakaslearen funtzio nagusiak hauek dira: ikasleentzat egokiak diren esperientziak ezartzea, arazoak planteatzea, mugak zehaztea, ikasleei laguntzea, ikasleen segurtasun fisiko eta emozionala bermatzea eta, horrez gain, ikasketa prozesua erraztea”.*
- *“Trakasleak ikasteko aukera espontaneoak antzeman eta sustatu behar ditu”.*
- *“Trakasleak ahalegindu behar du jakiten zein aurreiritzi, juzku eta prekontzepzio dituen eta horiek ikasleari nola eragiten dioten”.*
- *“Ikasteko esperientzia diseinatzean kontuan hartuko da aukera egon behar dela ikasteko bai ondorio naturaletatik, bai emaitza zuzenetatik eta bai hutsegiteetatik ere”.*

Azken batean eta laburbilduz, aurrez egin dugun azterketatik honako hau ondorioztatzen dugu: ***ikasketa esperientziala filosofia bat eta metodo bat ere bada, ikasleak, zuzeneko esperientzien bidez, modu sakonago eta esanguratsuagoan eskuratzen dituen ezagutzetan oinarritzen dena; esperientzia horietan maila intelektual, emozional, sozial eta fisikoan parte hartzen du ikasleak eta esperientzia horiek dira ikasketa holistiko orotarako oinarri eta pizgarriak. Eskuratutako ikasketari maila sozio-emozionalean eragin egiten diote bai ikasketa gertatzen deneko lekuak eta bai bizi izandako esperientziak ere; gainera, ikasketa prozesuak beharrezko du analisi aktibo, erreflexibo eta gidatua.***

Aurreko guztia esanda ere, merezi du lehenago ere aipatu den zerbait berriz adieraztea eta azpimarratzea: esperientziak, berez eta besterik gabe, ez duela beti ikastea esan nahi, ez dakarrela beti ikasketarik, alegia. Izan ere, benetan ikasketa gerta dadin (gizabanakoak ikas dezan), esperientziak ezaugarri edo zehaztapen batzuk bete behar ditu. Hainbat autorek —tartean Kolb (1984), Itin (1999), Kolb eta Kolb (2005, 2008),

Clark et al. (2010) eta Pardo eta García-Arjona (2015) autoreek, besteak beste— nabarmendu izan dituzte hezkuntza esperientzial eraginkorrak izan behar dituen ezaugarri zehatzak:

1. Hezkuntza esperientzialak **prozesua** hartzen du ardatz eta erdigune, eta ez emaitza.

Hezkuntza tradizionalak ezagutzak pilatzea hartu izan du hezkuntza sistema eta metodologiatzat; hezkuntza esperientzialarentzat, ostera, ideiak eta ezagutzak ez dira finkoak, eta aldatzen eta birmoldatzen joan behar dute esperientziaren bidez. Horrez gain, irakasleen eta ikasleen rola aldatu egin behar dira, ikasleak gero eta autonomia handiagoa izan dezan eta bere ikasketaren protagonista izan dadin; eta, horretarako, ikasleari tresnak eman behar zaizkio, ezagutza hori nola eskuratzen ari den eraginkortasunez neurtzeko gai izateko. Ezagutza eskuratzeko prozesuari berari eman behar zaio garrantzia, ikasketari berari baino gehiago.

2. Ikasketa esperientzial oro **ber-ikasketa** da.

Ikasketa esperientziala esperientzian oinarritzen den prozesu jarraitua da, etenik gabekoa; eta, ondorioz, aurrez eskuratu edota eraikitako ezagutzetan funtsatu behar da eta haien gainean ideia berriak ezarri behar dira⁸³.

3. Ikasketa esperientzialak eskatzen du **gatazkak ebaztea** mundura egokitzeko bi modu dialektikoki aurkakoren artean.

Ikasketa esperientzialak ikasleei harridura egoerak, aldaketa egoerak, desadostasunak, ezustekoak, eragozpenak... eragin (biziarazi) behar dizkie, ikasleek horiek ebatzi behar izan ditzaten eta, horretarako, abileziak garatu behar izan ditzaten (esperientziaren arabera, era bateko edo besteko abileziak); dena dela, abileziok lotura izango dute ideia kritikoak eta sentimendu kontrajarriak kudeatzearekin eta horrek eragingo du ikasketa benetan esanguratsua izatea.

4. Ikasketa esperientziala **mundura egokitzeko prozesu holistiko** bat da.

Hezkuntza esperientzialak ikaslea bere ikasketa propioaren erdigunean kokatu nahi du, eta hura modu integralean inplikarazi, erabat murgilarazi, bai maila intelektualean eta bai maila fisiko eta emozionalean ere. Garrantzitsua da ikaslea emozionalki inplikatzeko, bere jokabideen eta pertzepzioen bidez inplikatzeko, ez dadin informazio hartzaile hutsa izan. Kolb-en (1984) aburuz,

⁸³ Ezagutza eta ideia berriak “integrazio” bidez edo “ordezkapen” bidez eskuratu daitezke. Denboran luze iraun dezaten, hobe da “integrazio” bidez eskuratzeko (Piaget, 1969).

ezinbestekoa eta funtsezkoa da zubiak ezartzea eskolaren eta bizitza errealaren artean.

5. Ikasketa esperientziala **ikaslearen eta ingurunearen arteko transakzioen emaitza** da.

Hezkuntza tradizionalan, ezagutzak transmititzeko nahikoa ziren (ziruditen) testuliburuak, ikasgelak eta irakasleak, besterik behar izan gabe. Aitzitik, hezkuntza esperientzian, ikasketa gertatzeko beharrezkoa da ezagutzak trukatea ikaslearen artean, irakaslearen artean, eta ikaslearen eta ingurunearen artean. Irakasten den edukia edo erabiltzen den metodologia bezain garrantzitsua (edo are garrantzitsuagoa) da ikasketa gertatzen deneko ingurunea edo testuingurua (**non** irakasten/ikasten den, alegia). Gizabanako arduratsuak, konprometituak eta kontzientzia kritikodunak nahi baditugu, abilezia horiek lantzeko ingurune egokiak eskaini behar dizkiegu, sekula ahaztu gabe helburua dela ikasten duten guztia mundu errealean aplikatzen jakitea. Hortaz, esperientzia hori gertatzen/garutzen deneko ingurunea giltzarri da, eta aukera eman behar du hala arrakasta nola porrota izateko eta esperimendatzeko.

6. Ikasketa esperientziala **ezagutzak sortzen dituen prozesu** bat da.

Hezkuntza esperientzialak postulatu konstruktibistak proposatzen ditu, landu nahi diren gaitasunak eta abileziak eskuratzen joateko. Beraz, esperientzia hartzen du ikasketaren oinarritzat, eta ikasleak berak joan behar du ezagutza eraikitzen, bere zuzeneko esperientziaz abiatuta⁸⁴.

1.3.3.2.- IKASKETA ESPERIENTZIALERAKO EREDUAK

Itxura batean oraintsu samar sortu dela ematen badu ere, hezkuntza esperientziala ez da hezkuntzaren alorreko moda berri, azaleko eta iragankor bat. Berez eta izatez, oso aspaldikoa da, lehenago esana dugunez, antzinako hainbat autoreren lanetan errotzen baititu sustraiak. Duela zenbait mende —eta, are, duela zenbait milurteko—, autore asko eta askotariko aritu ziren eskema eta fokapen pedagogiko berriez hitz egiten. Esaterako, batetik, Konfuziok (K.a. 551-479), Aristotelek (K.a. 384-322) eta halako autore klasiko batzuek kanpoko mundua ezagutzaren iturburutzat zekusaten eta nabarmendu egin zuten **praktikak** ikaste prozesuan duen garrantzia; azpimarratu

⁸⁴ Ikuspegi konstruktibistatik begiratuta, ikasketa esperientzialerako eredua honela definitu daiteke: ezagutzak eta ikasketak eskuratzeko prozesu jarraitu bat da, oinarritzat hartzen dituen bai esperientzia indibidualak eta bai ingurunearekin izandako interakzioak, alderdi soziokulturalak kontuan izanik. Eredu horretan, esperimendazio aktiboak modu orekatuan eta osagarri gisa beharrezkoa du esperientzia horren behaketa erreflexiboa egitea. Ikuspegi konstruktibistatik so eginda, ezagutzak modu aktiboan eraikitzen dituzte gizabanakoek eta gizarte komunitateek. Hortaz, konstruktibismoaren arabera, ezagutza ez da era pasiboan jasotzen (Alemany-Costa eta Perramon-Tornil, 2015).

egin zuten, halaber, esperientzia beharrezkoa dela errealitatearekin kontaktua izateko. Autore haientzat, ezagutzak ez zuen zentzurik praxi edo ekintza zuzen eta egoki batetik bereiziz gero. Beste alde batetik, Luis Vives-ek (1492-1540) eta gisako pedagogo humanista batzuek ere, beren garaian, praktikaren bidezko ikasketaren alde egin zuten (Pardo eta García-Arjona, 2015).

Horiez gain, aurreko ataletan nabarmendu den legez, XIX. mende bukaeraz geroztik hainbat autorek —Decroly-k, Freinet-ek eta Montessori-k, besteren artean— ekin zioten **irakaskuntza pedagogia aktiboak** eta ikaslearen ikasketa ardatz hartzen zuten ereduak praktikan jartzeari. XX. mendean barrena, hezkuntza eremuko beste teoriarari batzuek ere nabarmen heldu zieten hezkuntza esperientzialarekin loturiko kontzeptuei. Hezkuntza esperientzialaren “aitatzat” har daitezke, segur aski, John Dewey eta Kurt Hahn, zeinek, beste autore batzuekin batera —tartean dira Jean Piaget, Paulo Freire eta aurreko ataletan aipaturiko beste zenbait—, filosofia eta metodo esperientzialaren oinarri teoriko eta praktikoak ezarri baitzituzten.

XX. mende bukaeran eta XXI. mende honetan, kontzeptuak eraikitze eta eraldatzeko prozesutzat hartzen da ikasketa, eta ez informazioa hartu eta pilatzeko ariketa “memoristiko” hustzat. Ildo horretan, **“pedagogia konstruktibista”** honela deskribatu daiteke: funtsean ekintzara bideratzen den irakaskuntza eredu bat da (Piaget, 1969, 1970; Huber, 2008; Blasco, 2003; Moon, 2004). Ekintza horren protagonista ikaslea bera da eta ekintzak berak darama ikaslea ikastera, ezagutza berriak eraikitze aurreratuaren egokitzetatik abiatuta, irakasleak prozesu hori gidatzen eta bideratzen duen bitartean. Piaget-en (1969) irudiko, inteligentzia edo adimena ez da gizakiaren ezaugarri berezko eta betierekoa; ezagutza sortzen da gizabanakoak ingurunearekin interakzioak izaten dituen eta erantzunak bilatzen dituen, gizabanakoa bera eta ingurunea bata besteari egokitzeko asmoz. Ekintza giltzarri da. Esperientzietan oinarrituriko ikaste prozesuen bidez, gizabanakoak inguruneari egokitzen zaizkio. Era berean, baina, gizabanakoek beren buruaren neurria eta beren ahaletara egokiarazten dute ingurunea, esku-hartze aktiboen bidez eta giro atseginak hautatuz, beren premien arabera.

Aurrekoaz gain, berriz ere Vygotsky-rengana (1977, 1979) jotzea komeni da, hura baita **“fokapen soziokulturalaren”** autore behinena; haren ustez, gizakia funtsean “izaki soziala” da. Eta “sozialtasun” hori (pertsona bizi eta mugitzen den ingurune sozial, kultural eta historiko hori) da ezagutzaren eta ikasketaren iturburua (ezen ez giza inteligentzia edo adimena). Autore horren iritziz, gizakiaren garapen prozesua

esperientzietan funtsaturiko ikasketaren bidez jazotzen da; era berean, “ikasketa gidatuari” ere garrantzi handia ematen dio autoreak: ikasleak aktiboki parte hartzen du, baina ez bakarrik edo bere kasa, bera baino eskarmentu handiagoko pertsonekin batera elkarlanean baizik; eta pertsona horiek lagundu eta bultzatu egiten diote. Ezein ikaslek ez du bakarturik ikasten, ingurune sozialetik at eta tresna sozialik gabe. Kulturaren eta interakzio sozialaren garrantzia erabakigarria da gizakiaren garapen kognitiboarentzat (Waite, 2011).

Esandakoaz aparte, gaur egun beste fokapen berritzaile batzuk ere plazaratzen ari dira, Illich eta beste zenbait autore aintzat hartuta, “eskolagabetzearen” teoriarekin zerikusia dutenak. Adibide gisa, AEBn paradigma pedagogiko berri batzuek pentsamendu horri heldu diote (ekopedagogiaren korronteak, kasurako). Zenbait mugimenduk bere gain hartu dituzte “eskolagabetzearen” teoriaren hainbat alderdi: “*homeschooling*” edo “*unschooling*” mugimenduek, esate baterako.

“*Homeschooling*” delakoa korronte pedagogiko bat da, mendebaldeko hainbat herrialdetan zabaldu dena: guraso askok erabaki dute beren seme-alabak eskolara ez eramatea eta etxean bertan heztea. “*Unschooling*” delakoak beste bereizgarri bat du: haurrak eskolara ez eramatez gain, mugimendu honek eskola erakundeek ezarritako prozesu pedagogikoak bertan behera uzten ditu: uko egiten die haurrak adinaren arabera, taldekatzeari, ezarritako curriculumei jarraitzeari, testuliburuak erabiltzeari eta irakasle profesionalen mendean izateri. Igelmo-ren (2012: 44) hitzetan, bilatzen dena da “*praktika pedagogiko baten barruan ikastea, zeinak ardatz baitu haurrak aske uztea beren bizitzako **esperientzia propio eta naturaletatik** ikas dezaten. Ikuspegi horretatik begiratuta, mugimendu horretako partaideen ustez, eskolak eragotzi egiten du ikasleek libreki ikastea ikasgela barruan ematen diren askotariko jakintza arloetan; baina horrez gain, uste dute eskolak hautsi egiten dituela ikasleek komunitatearekin ezartzen dituzten harremanak, **mundu errealararen baitan duten esperientzia** eta bai haurren espontaneotasuna ere”.* Kalifornian, adibidez, hainbeste jendeke hezten ditu seme-alabak bere etxean ezen, horri aurre egiteko, estatu horretako eskola distritu guztiek programa jakin batzuk sortu baitituzte haurrek libreki, beren kasa, ikas dezaten, hau da, etxean ikas dezaten. Distritu orotan, hezkuntza publikoaren osagai gisa, etxean ikasteko programa bat dute. “*Dudarik gabe, ukazina da etxeko hezkuntza dela familiak ikasketa pertsonalizatu batean parte hartzearen adierazpide gorena*” (Robinson, 2016: 291).

Jarraian, ondorengo azpiataletan, zehaztasun handiagoz aztertuko ditugu ikasketa esperientzialerako hiru eredurik garrantzitsuenak, John Dewey, Christian Itin eta David Kolb autoreei dagozkienak, hain zuzen ere. Kolb-en eredia da ezagunena eta eraginik handiena izan duena eta, ondorioz, horixe hartuko dugu markotzat gure ikerketa honetako atal enpiriko bat garatzeko ere.

A) DEWEY-REN IKASKETA EREDUA

Hainbat autorek deskribatu dute prozesuak nolakoa izan behar duen, esperientziaren bidez benetako ikasketa sortu edo gertatu dadin. Dewey aitzindariak, hain justu, esperientzian funtsatu zuen bere pedagogia esperientziala; biziki sinesten zuen esperientzia ikasbide zela eta azpimarratu egiten zuen esperientziaren eta hezkuntzaren artean den konexioa. Dewey izan zen **“learning by doing”** izeneko pedagogia pragmatikoaren sortzailea (Dewey-k “esperimentalismoaren pedagogia” esaten zion) eta berak zuzentzen zuen eskola AEBko eskolarik aurreratuenetakoa bihurtu zuen, metodologia berriak indarrean jarrita: lezio praktikoak, txangoak eta Dewey-k berak “hezkuntza berria” deituraz izendatzen zituen metodologiak, bizitza errealaren ikasketan funtsaturikoak (González Aja eta Irureta-Goyena, 2015; Gutiérrez et al., 2011; Fourcade eta Go, 2011; Estes, 2004; Beaudin eta Quick, 1995; Blasco, 2003; Moon, 2004).

Dewey-k teoriaren eta praktikaren arteko batasunaren alde egin zuen eta aldarrikatu zuen **esperientziak** duen potentziala ezagutzak sustatzeko, gizabanakoek ingurunearekin izaten dituzten interakzioei esanahia ateratzen/aurkitzen diotenean ikasten baitute⁸⁵. Dewey-ren aburuz, esperientziak rol nagusi eta funtsezkoa du ikasketan, eta defendatu egin zuen bizitzako esperientzia prozesuaren eta hezkuntza prozesuaren artean dagoen harremana. Era berean, argi nabarmendu zuen ikasketa **esperientzia konkretu** batetik sortzen dela, esperientzia hori interpretatu egiten dela hausnarketaren eta kontzeptualizazioaren bidez, eta, gerora, ikasitakoa beste egoera batzuetan aplikatzen dela. Beraz, gizabanako batek esperientzia bat bizi izatea ez da nahikoa egoera horrek ikasketa bat ekar diezaión; aurrekoaz gain, subjektuak berak maila kognitiboan inplikatu eta parte hartu beharko du, esperimentaturikoari esanahia bilatu eta aurrez dituen ezagutzekin erlazionatu nahian. Ikasketa, hortaz, esperientzia konkretu batetik abiatuta sortzen da, gizabanakoak hura interpretatzen du

⁸⁵ Dewey-ren beraren (1916: 125) esanetan, “*eskoletan uste izan ohi da instrukzio jasotzen dutenak ikus-entzule teorikoak direla eta ezagutzak eskuratzen dituztela adimenaren zuzeneko energiaren bidez. ‘Ikasle’ hitza bera kasik adieraztera iritsi da, ez esperientzia emankorrez gozatzen ari dena, baizik eta zuzenean ezagutzak xurgatzen ari dena*”.

hausnarketaren eta kontzeptualizazioaren bidez eta, azkenik, aplikatu egiten du (hots, eskuratu duen ezagutza hori egoera berrietara transferitzen du). Hausnarketa ez da arrakastarako osagai beharrezko eta funtsezko bat soilik; horrez gain, hausnarketa bera ere esperientzia inteligente bat da berez eta bere horretan (Romero, 2010; Beaudin eta Quick, 1995; Hunt, 1995; Ives eta Obenchain, 2006; Rué, 2009; Kolb & Kolb, 2005, 2008).

“Esperientzial” hitza, Dewey-ren irudiko, oso zabala da eta bere baitan biltzen du ikasleak bere egunerokoan eskuratu dezakeen ikasketa ere. Baina Dewey-k zinez eta biziki azpimarratzen duena esperientzien kalitatea da, ondo bereizteko benetan hezigarriak diren eta ikasketa dakarten esperientziak, batetik, eta halakoak ez direnak, bestetik. Horretarako bi kontzeptu nabarmentzen ditu, berarentzat giltzarri direnak: batetik, **jarraitutasuna**, zeinaren bidez azpimarratu nahi baitu edozein esperientzia baliotsuk lotura izan behar duela iraganeko esperientziekin eta ondorioak izan behar dituela etorkizuneko esperientzietan. Bestetik, Dewey-k **interakzio** kontzeptua ere nabarmentzen du, azpimarratzeko esperientzia baliotsuak lotura izan behar duela gizabanakoaren eta ingurunearen artean gertatzen den transakzioarekin. Hortik ondorioztatu daiteke, Illeris-en (2007) aburuz, ezen ikasketa jakin bati “esperientzial” etiketa ipintzeko, ikasketa prozesuak eta emaitzek jarraitutasun eta interakzio prozesu baten parte izan behar dutela, eta, horrez gain, hein batean edo zenbait alderditan bederen, ikasleak berak kontrolatu behar dituela eta haiek ikaslea inguratu behar dutela. Era berean, ikasketa gertatzen deneko inguruneak nolabaiteko zerikusia edo elkarrekikotasuna izan behar du ingurune errealarekin.

Dewey-ren beraren (1916: 136-138) hitzak baliatuta, *“garatze bidean den pentsamenduaren lehenengo urratsa esperientzia da [...] Instrukzio metodoen akatsik handiena da segurutzat jotzen dutela, besterik gabe, ikasleen esperientzia. Puntu horretan funtsezkoa da azpimarratzea egoera enpiriko erreal bat izan behar dela pentsamenduaren lehenengo urratsa [...] gizabanako bat, benetako proba bat egin behar duena, jokoan nahiz lanean, zerbait bere materialarekin, bere jarduera oldarkorra garatuz [...] eskolako edozein gaitara hurbiltzeko lehen bidea, hortaz, denik eta biderik antieskolastikoena izan behar da⁸⁶. Esperientzia batek edo egoera enpiriko batek zer esan nahi duen ulertzeko, gogoan hartu behar ditugu eskolaz kanpo gertatzen diren egoerak, eguneroko bizitzan interesatzen zaizkigun eta ekitera bultzatzen gaituzten jarduerak [...] Esperientzia horiek ikasleari egiteko zerbait*

⁸⁶ “Antieskolastiko” kontzeptuaren bidez, Dewey-k (1916) honako hau saihestu nahi du: eskoletan irakasten jarrai dezaten testuliburuaren bidez, eta autoritatearen eta buruz ikasi beharraren printzipioetan oinarrituz; aitzitik, Dewey-k nahi du aurkikuntzan eta ikerketan oinarritu daitezela.


ematen diote, ez ikasteko zerbait, eta egite horrek pentsatzea edo konexioak bilatzea eskatzen du; ikastea berez gertatzen da, modu naturalean. Egoera batek pentsatzera behartzeak esan nahi du, noski, errutinazkoa edo kapritxozkoa ez den zeregin bat eragin behar duela, berria (eta, ondorioz, dudazkoa eta problematikoa) den zeregin bat, baina, hala ere, indarrean dauden ohiturekin nahikoa lotura duena, hari eraginkortasunez erantzun ahal izateko [...] eraginkortasunez pentsatzeko, lehenago nahiz orain esperientziak izan behar ditugu, baliabideak eskaintzen dizkigutenak aurrez aurre ditugun zaitasunak gainditzeko”.

Esandakoaz aparte, bereizi egin behar dira, gainera, benetako arazoak (autentikoak), batetik, eta simulatuak edo artifizialak, bestetik. Esperientzia berez, naturalki, sortu edo agertu behar da egoera pertsonal baten magalean; ikasleak berak duen arazo bat izan behar da (ez irakaslearen arazo bat edo testuliburuan ageri den bat); esperientziak berez sustatu eta zuzendu behar du behaketa eta konexioen ulermena, eta haiek egiaztatzea gidatu behar du; ez da izan behar kanpotik inposaturiko ezer, ikasleak kanpoko eskakizun horiek ase besterik egin behar ez dezan (horrela bada, ez du interesik izango): ikasgelaz kanpoko behaketa eta esperimentazioa ere eragin behar ditu. Deigarria da ikustea nola hurrek galdera pila bat egiten dituzten eskolaz kanpo eta, aitzitik, zelako jakin-min falta harrigarria duten eskolako lezioetako gaien inguruan. Gai edo materia erreal gehiago behar dira, objektu gehiago, aparailu gehiago eta aukera gehiago gauzak egiteko eta horiek egin ahala sortzen diren zalantzen inguruan eztabaidatzeko (Dewey, 1916, 1938).

Dewey-ren (1916: 283) esanetan, *“metodo esperimental berria da baliabide zientifiko gisa, baina baliabide praktiko gisa bizitza bera bezain antzinakoa da. Horregatik ez da harrizkoa gizakiak haren garrantziaz oraindik jabetu ez izana [...] Gizakiek oraindik ere dogmaren babesa behar dute, autoritateak ezarritako sinesmenak behar dituzte, pentsatzeak dakarren nahasmendutik eta pentsamenduaren bidez beren jarduerak zuzentzeak dakarren erantzukizunetik libratzeko [...] Horregatik, John Stuart Mill-ek dioen bezala, eskolak hobeto prestatu daude dizipuluak sortzeko, ezen ez ikertzaileak. Baina metodo esperimentalaren eraginak aurrera egiteak lagundu egingo du iraganean eskolak gobernatu izan dituzten metodo literarioak, dialektikoak eta autoritarioak baztertzeko; eta lagunduko du, halaber, bere prestigioa ematen beste metodo batzuei; pertsonen eta gauzen buruzko interes aktiboa eragiten duten metodoei [...] Ezagutza eskuratzeko arrakasta handiena duen praktikatik eratorri behar da ezagutzearen teoria (Dewey, 1916: 283).*

Horrenbestez, bada, ikasleak bizipen bat izan behar du esperientzia konkretu baten bitartez eta irakasleak zuzenean parte hartzen ez duen egoera batean murgilduta egon behar du. Egoera horrek aski esanguratsua izan behar du, ikasleak hura landu nahi izan dezan, baina egoerak ez du zailegia izan behar, ikasleak motibaziorik galdu ez dezan. Ikasleak bere baliabide propioak ditu eta ezagutza eraikitzeari ekiten dio. Esperientziak hautatu behar dira oso ondo pentsatuta, oso zehatz eta egoki⁸⁷. Ondoren, gelditu eta hausnartu egin behar da bizi izandako esperientziaren inguruan, eta bizi izandakoa argitzen eta egituratzen ahalegindu. Jarraian, lehenago esperientziatik ateratako hausnarketak kontrastatu egin behar dira alderdi edo kontzeptu teorikoago edo abstraktuagoekin, era horretan ezagutza finkatzeko eta sustraitzeko; eta, azkenik, aurreko fasean finkaturiko ezagutzak, kontzeptuak eta teoriak aplikatu egin behar dira egoera konkretu berrietan (Clark et al., 2010; Pardo eta García-Arjona, 2015).

Jarraian, II.1.8. irudiaren laguntzaz, Dewey-ren ustez ikasketa esperientzialean bete behar den prozesua islatu da.



II.1.8. irudia: Dewey-ren ikasketa esperientzialerako eredu

Irudia: Romero (2010) eta Chisholm, Harris, Northwood eta Johrendt (2009).


Dewey-k proposaturiko eredu, esperientzia konkretua (1) ikasleak ingurunearekin, objektuarekin edo irakaslearekin duen interakzioa da. Hausnarketa (2), berriz,

⁸⁷ Esperientzia modu egokian hautatu behar da, honako helburu hauek bete ditzan: i) ikasleari hausnar eginarazi behar dio; ii) analisi kritikoa sustatu behar du eta eragin behar du ikasleak ekimena izatea, arazoak ebaztea eta sortzaile jokatzeko; ikaslea denez bere ikaste prozesuaren erantzulea, honelako gaitasunak lantzen eta garatzen ditu: erantzukizuna, autonomia, antolaketa, planifikazioa, talde lana, analisirako gaitasuna, sintesi eta hausnarketarako gaitasuna, sormena eta arazoak ebazteko gaitasuna; eta iii) esperientziak ikasleari lagundu egin behar dio aurrez eskuratutako ikasketak integratzen (Pardo eta García-Arjona, 2015).

behaketari, gogoetari nahiz eztabaidari dagokien ekintza da. Kontzeptualizazio abstraktua (3) esperientziatik eratorri eta eraikitako ezagutzari dagokio, zeina sortzen baita aurrez pilaturiko ezagutza, batetik, eta esperientzia berriarekin eskuraturiko ezagutza, bestetik, integratzen direnean. Aplikazioa (4) gertatzen da esperientzia horretatik ikasitakoa probatzen denean eta esperientzia berrietan aplikatzen denean.

B) ITIN-EN IKASKETA EREDUA

Itin-ek (1999) **“diamantearen eredua”** deritzana proposatzen du, non Dewey-k ezarritako urratsak edo faseak integratzen baititu, baina, horrez gain, ingurune-irakasle-ikasle arteko norabide anitzeko erlazio sare bat ere bistaratzen baitu; era horretan, Itin-ek irakaslearen zeregina funtsezkoa dela nabarmendu nahi du, irakasleak prozesu osoa gidatu eta dinamizatzen duen aldetik (II.1.9. irudia).



II.1.9. irudia: Itin-en ikasketa esperientzialerako diamantearen eredua

Iturria: Itin (1999).

Horrela, bada, ikasketa esperientzialaren prozesua argi ikusten dute bai ikasleak berak eta bai irakasleak ere. Lau sistema nagusien arteko (hots, irakasle, ikasle, materia eta

ingurunearen arteko) transakzio prozesua argi markatzen dute geziek; bistan denez, informazioa bi norabidekoa da. Erdigunean, gainerako elementuei besarkaturik, irakaskuntza prozesua dago: partekaturiko esperientzia konkretua zehazteaz gain, erakusten du nola irakasleak esperientzia hori eragiteko testuinguru jakin bat hautatu behar duen, ikasteko pizgarriz beterik dagoena; horrez gain, irakasleak ikaslearen jakin-mina eta interesa ere hauspotu behar ditu. Horiek horrela, ikasketa esperientziala hauxe da: hezkuntza prozesu bat, non gizabanakoa maila fisiko, sozial, intelektual, kognitibo eta emozionalean inplikatzeko den esperientzia konkretu baten bitartez; esperientzia horrek ikaslearentzat erronka izaera du, eta neurri bateko arriskua eta porrot egiteko aukera ere badakartza (Itin, 1999; Romero, 2010; Chisholm et al., 2009).

Ezbairik gabe, ikasketa esperientzialaren ezaugarri behinena da prozesu bat dela, non ikasleak ezagutzak, abileziak eta balioak eraikitzen baititu **zuzeneko esperientzia konkretu** batetik abiatuta eta ondorengo **hausnarketa kritiko, kontzeptualizazio abstraktu** eta **aplikazio praktikoa** baten bidez. Itin-ek (1999) dioenez, filosofia holistiko bat da, tentu eta arreta handiz hautaturiko esperientzietan oinarritzen dena, ikasleak modu zuzeneko eta aktiboan bizi izan ditzan eta maila fisiko, intelektual, emozional, sozial, politiko eta espiritualean murgildu dadin, era horretan aurkezten zaizkion erronkei aurre egin ahal izateko; horretarako ikasleari eskatzen zaio ekimena izatea, galderak egitea, esperimentatzea, arazoak ebatzea, erantzukizuna hartzea, jakin-mina izatea eta sortzaile jokatzea, besteak beste. Ikasketak interakzioak eragin ditzake (eskuarki, eragin egiten ditu) ikasleen artean, ikaslearen eta irakaslearen artean eta ikaslearen eta ingurunearen artean. *“Irakatsi beharreko edukia”*, dio Itin-ek berak (1999: 94-96), *“irakasteko erabiltzen den prozesua bezain garrantzitsua da eta irakasten deneko ingurunea bezain garrantzitsua da [...] ez da nahikoa ikasleak materia jakitea, gero ez badaki nola aplikatu mundu errealean”*.

C) KOLB-EN IKASKETA EREDUA: IKASKETA ESPERIENTZIALAREN TEORIA

John Dewey-rekin eta aurreko atalean aipaturiko Kurt Hahn-ekin batera, David A. Kolb da, seguru asko, esperientzien, hezkuntzaren eta ikasketaren inguruan lanik nabarmenena egin duen autorea. Kolb-en lanek (1983, 1984) eta Kolb eta Kolb autoreen lanek (2005, 2008, 2013) aztergai dituzte esperientzia konkretuei zentzua emateari loturiko prozesuak eta ikasteko estilo desberdinak. Bere teoria eraikitzeke, Kolb-ek beste autore batzuen lanak eta teoriak hartzen ditu oinarri, tartean John

Dewey-renak, Kurt Lewin-enak⁸⁸ eta Jean Piaget-enak. Gaur egun, Kolb-en ereduan funtsaturiko hamaika programa daude indarrean hezkuntza esperientzialaren alorrean eta irakasle ugarik darabilte Kolb-en eredu halako jarduerak abian jartzeko, tartean ikasgelaz kanpoko jarduera anitz burutzeko (Beaudin eta Quick, 1995; Moon, 2004; Blasco, 2003; Akella, 2011; Robinson, 2013; Schenck eta Cruickshank, 2015).

Ikasketa esperientzialaren prozesua, hainbat autoreren aburuz, **ziklo** bat da, non estu-estu erlazionatzen baitira honako lau elementu hauek: “**esperientzia**”, “**hausnarketa**”, “**teoria**” eta “**aplikazioa**”⁸⁹ (Atherton, 2011a,b; Dewey, 1938; Kolb, 1983, 1984; Kolb eta Kolb, 2005, 2008, 2013; McCarthy, 2010; Akella, 2011; Schenck eta Cruickshank, 2015). Lehenago esan den bezala, David Kolb-ek (1984), “**Ikasketa Esperientzialaren Zikloa**” deituriko eredu garatzeko, oinarritzat hartzen ditu Dewey eta Lewin (zeinek esperientziak ikaste prozesuan duen garrantzia nabarmentzen baitute), baita Piaget ere (zeinak gizabanakoaren eta ingurunearen arteko interakzio gisa planteatzen baitu ikaste prozesua). Kolb-ek (1984) proposatzen duenez, ikasketak esperientziatik eratorritakoa eta etengabekoa edo jarraitua izan behar du, eta, gainera, holistikoa eta mundura egokitutakoa ere izan behar du; horrekin batera, nabarmentzen du arrakasta ez dela hainbeste funtsatzen emaitzetan, nola prozesuan. Kolb-en irudiko, ikasketa horrela ulertzen bada, loturak eraiki ahal izango dira eskolako eta laneko eguneroko egoerekin eta, era horretan, eskuraturiko ezagutzak aplikatzeko modua izango da, baita denboran iraunarazteko modua ere.

Horrela, II.1.10. irudian ageri denez, ikasketaren sekuentziak lau fase ditu. Ikasleak **esperientzia konkretu** bat bizi izanez hasten du ikaste prozesua (1)⁹⁰: horixe da oinarria, ondorengo **behaketa** eta **hausnarketa** prozesua egiteko (2)⁹¹; segidan,


⁸⁸ Lewin-en ikasketa esperientzialaren eredu bat dator, neurri handi batean, John Dewey-renarekin. Lewin-ek, oroz gain, biziki azpimarratzen du “*hemen eta orain*” elementua, hau da, bereziki nabarmentzen du esperientzia konkretua, zeina, Lewin-en aburuz, edozein ikasketaren funtsa izateaz harago, ezinbestekoa baita kontzeptu abstraktuak balioztatze eta probatzeko (Blasco, 2003: 159).

⁸⁹ Blasco (2003: 158) autoreak adierazten du ezen “*Ikasketa Esperientzialaren teoriak ikasketaren ikuspegi integratzaile eta holistiko bati heltzen diola, zeinak konbinatu egiten dituen esperientzia, pertzepzioa, kognizioa eta jokabidea*”.

⁹⁰ Lehenengo fase honetan, ikasleak behatu egin behar du edo bizipen bat izan behar du esperientzia konkretu baten bidez; arazo batekin zuzeneko kontaktu bat izan behar du edo irakasleak zuzenean parte hartzen ez duen egoera batean murgildu behar du ikasleak bere burua. Esperientzia horretatik abiatuta, ikasketa eraikitzen hasten da. Arazoarekin zuzeneko kontaktua izateak gehiago inplikitzen eta konprometitzen du ikaslea (Kolb, 1984).

⁹¹ Bigarren fase honetan, ikasleak hausnartu egiten du esperientzia bizi berriaren inguruan, zer gertatu den eta berak nola jokatu duen argitu nahirik. Esperientzia konkretu bati buruzko analisi bat egin behar da, haren barruko itxura azaltzeko eta abstraktuagoak diren beste kontzeptu batzuekin izan dezakeen harremanaz jabetzeko. Hori hertsiki lotuta dago aplikazioarekin (4. fasearekin), ikasleak oreka bat izan behar duelako jasotzen duenaren eta berak sortzen duenaren artean (eredu tradizionalak helburu dute ezagutzak ikasleen buruan barneratzea, beren kasa pentsatzeko aukerak eskaini beharrean) (Kolb, 1984).

ikasleak behaketa eta hausnarketa horiek bereganatu eta kontrastatu egin behar ditu kontzeptu teorikoagoekin, **kontzeptualizazio abstraktu** baten bidez (3)⁹²; eta, azkenik, ideia berriak sortu behar ditu, **esperientzia praktikoa** berrietan aplikatu ditzakeenak (4)⁹³. Hortaz, autorearen esanetan, ikasketa esperientziala lau zatik edo fasek osaturiko prozesu bat da, non ikasleari eskatzen baitzaio konprometitu dadin esperientzia berri batekin, modu aktiboan esperientzia horren inguruan hausnar egin eta kontzeptualizatu dezan, eta iraganeko eta etorkizuneko esperientzietan integratu dezan.



II.1.10. irudia: Kolb-en ikasketa esperientzialerako eredua

Iturria: Kolb (1984: 42).

Agerikoa denez, ikasketa ulertzeko eta definitzeko era hau metodo tradizionalaren aurkakoa da; haren arabera, aurrena klase magistralen bidez emandako teoriatik abiatzen da eta, ondoren, adibide praktikoa jartzen dira. Hezkuntza esperientzian, aldiz, fase horiek alderantziz kokatzen dira eta abiapuntua, esperientziaren laguntzaz,

⁹² Fase honetan kontrastatu egin behar dira esperientziatik ateratako hausnarketak eta alderdi teoriko eta abstraktuagoak, ezagutzak eratu eta errotzeko. Ikasleek beren pentsamendu logikoa erabili behar dute beren hausnarketak integratzeko, eraikuntza teoriko sendo eta konplexuagoak garatzeko. Fase honetan irakaslearen lana funtsezkoa da, ikasleari lagundu diezaion ideiak ordenatzen eta oinarritzen. Hauxe da klase magistralaren unea, ikasleak dagoeneko baduelako aurrez eskuratutako ezagutza jakin bat, esperientziatik eratorri duena. Fase hau lehenengo fasearen kontrapuntua da, ezagutza sortzea ez delako bilatzen praktikaren bidez, teoriaren bidez baizik (Kolb, 1984).

⁹³ Une honetan ikasleak egoera konkretuetan aplikatu behar ditu aurreko fasean ikusitako kontzeptuak eta teoriak. Teoriatik praktikara salto egin behar da. Ikasleak egin ditzakeen betebeharrak batzuk hauek dira: adibideak bilatu, arazoren bat planteatu, etab. Horrenbestez zikloa edo borobila itxiko da, eta esperientzia berrien bidez berriz abiaraziko litzateke beste prozesu bat, ezagutza konplexuagoak eskuratzeko xedez (Kolb, 1984).

praktikan datza. Nolanahi ere, ikasketa praktika on batek, eraginkorra izateko, ikasketa esperientzialaren zikloari dagozkion lau faseak bildu behar ditu bere baitan, salbuespenik gabe (Beaudin et al., 1995; Pardo eta García-Arjona, 2015; McCarthy, 2010; Akella, 2011).

Kolb eta Kolb (2008) autoreek honako printzipio hauek proposatzen dituzte ikasketa esperientziala bultzatzeko:

- Ikasleei eta haien esperientziari errespetua izatea. Ikasleek sentitu behar dute ikastetxeko kide direla, ezagunak direla, balioetsi egiten dituztela eta beren esperientzia aintzat hartzen dutela.
- Ikasketa hasten edo abiatzen da materiatzat ikaslearen esperientzia hartuta. Ikasleak ikasketa eta ezagutza berriak eraikitzen ditu, dagoeneko jakin badakienetik abiatuta eta aurrez izandako esperientzietan oinarrituta.
- Ikasketarako giro atsegin eta abegikorra sortu eta mantendu behar da.
- Elkarrizketa bidez ikasketarako espazioak sortu behar dira. Gizakiak, eskuarki, elkarrizketa bidez bizi dituen esperientzietatik ikasi ohi du. Ikasgela tradizionalan, ordea, ia ez da izaten elkarrizketarako unerik, eta hori sustatu egin beharko litzateke, ikasketa esperientzialaren eraginkortasuna areagotzeko.
- Ekintzarako eta hausnarketarako espazioak sortu behar dira.
- Pentsamenduentzako eta sentimenduentzako espazioak sortu behar dira.
- Barrutik kanpora ikasteko espazioak sortu behar dira.
- Esperientzia garatzeko espazioak sortu behar dira.
- Ikasleek beren ikasketen ardura hartzeko espazioak sortu behar dira.

Blasco-ren (2003: 166-168) esanetan, *“ikasketa prozesuak gatazkak ebaztea eskatzen du, mundura egokitzeko dialektikoki aurkakoak diren bi jarreraren artean”*. Aurkako jarrera horiek aipamena egiten diote esperientzia konkretuaren eta kontzeptualizazio abstraktuaren arteko aurkakotasunari, batetik, eta behaketa erreflexiboaren eta esperimenduzko aktiboaren arteko aurkakotasunari, bestetik. *“Ikasketak, berez, tentsio bat dakar, gatazka bat dakar akzioaren eta hausnarketaren artean, ezagutza, abilezia edo jarrera berriak eskuratzen direnean, ikasketa esperientzialerako lau estilo ezberdin aurrez aurre izanik [...] Ikasketak berak eskatzen du hala izatea, aurkakoak diren abileziak eskatzen ditu. Ikasleak bai aktore eta bai behatzaile izan behar du; planteatzen zaizkion egoeretan murgildu behar du, baina, era berean, datuak tentuz aztertu behar ditu. Hori egiten ez badu, ikasteko modu desorekatuak nagusituko dira”*. Aurrekoarekin batera, ikasketa esperientzialak bere baitan biltzen

ditu gizabanakoaren eta ingurunearen arteko trukeak eta interakzioak ere, esperientziaren bidez jazotzen direnak.

Bestalde, hala Young, Caudill eta Murphy (2008) autoreek nola Brennan-ek (2012) nabarmentzen dutenez, ikerketa enpirikoek argi uzten dute teoriak iradokitzen duena, hots, ikasleak ez badira gidatzen Kolb-en zikloaren lau faseetan barrena, ikasketa esperientzian oinarrituriko jarduerak ez dutela nahi den **ikasketa sakonik** ekarriko, azalekoa baizik.


Yániz-en (2006: 30) arabera, Kolb-en ikasketa esperientzialaren zikloak lagundu egiten du irakaskuntza gida edo proiektua diseinatzean, erraztasunak ematen baititu gaitasunak lantzeko elementuak aukeratzeko eta arreta ikasketan ipintzeko. Zikloaren lau faseak aztertuz gero, bistan da ezen, testuinguruan kokaturiko esperientzia konkretuaren fasean, ikasketa sortzen dela ingurune pertsonal, sozial edo akademiko jakin batean eta aurrez eskuratutako ezagutza, ideia eta esperientzietatik abiatuta. Hau da, ikaslea ezagutza eraikitzen joaten da, aurrez ikasikoarekin eta aurrez ikasitakoaren gainean. Horrela, hasierako pizgarriaren inguruan hausnartzean, ikaslea errealitatera gerturatzen da, hura ulertzeko, ordenatzeko eta sistematizatzeko. Errealitatea behatzean bere zentzumen guztiekin, haren alderdi guztien inguruan sakonki hausnar egin dezake, sortzen zaizkion galderentzat erantzunak bilatu bitartean. Eta horrek lagundu egiten dio ezagutzan sakontzen eta, ondorioz, ikasleak bereganatu egiten ditu hainbat kontzeptu, jakintza, datu, metodo, etab. Eta ondoren, azkeneko fasean, aurrekoan bereganaturiko ezagutzak eta abileziak praktikan jartzen ditu. Ikasketa programak diseinatzeko orduan, Kolb-en ikasketa zikloari heltzeak erraztu egiten du Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Eremuak pedagogia unibertsitarioarentzat proposaturiko zenbait jarraibide betetzea:

- Ezagutzak errealitatera hurbiltzea, testuinguru esperientzialaren eta aplikazioaren bitartez.
- Ikasketa aktiboa egitea, hausnarketaren eta aplikazioaren bidez, batez ere.
- Ulermen sakona eta esanguratsua lortzea, eduki teorikoak testuinguruarekin erlazionatuz eta, neurri batean, hausnarketan sorturiko galderen erantzun gisa hartuz; halaber, etorkizunean galdera eta arazo hobeak planteatzeko informazio gisa ere baliagarria da.
- Jarrera egokiak garatzea eta abileziak fintzea, aplikazioak egitean eta hausnarketa eta kontzeptualizazioa planteatzean; ikerketa zientifikoak berezko dituen zorrotasuna eta zehaztasuna areagotzen lagun dezake horrek.

Kolb-en (1983, 1984), Kolb eta Kolb-en (2005, 2008) eta Blasco-ren (2003) esanetan, zikloari dagozkion lau faseak hainbat egunetan, astetan nahiz hilabetetan gertatu eta luzatu daitezke, materiaren arabera. Gainera, ezagutza eta abilezia mota guztiak ez dira modu eta neurri berean oinarritzen zikloaren fase guztietan. Kolb-ek sakon ikertu du auzi hori, zikloaren faseak eta materia desberdinak erlazionatuz eta, hala eginik, ikasteko bi modu bereizten ditu (II.1.11. irudia):

- Batetik, “**atzitze**” (edo “*prehensión*”) delako dimentsioak errealitatea harrapatzeko edo errealitateari heltzeko bi modu ezberdin (eta aurkako) biltzen ditu bere magalean: ❶ **esperientzia konkretua** “ezagutza familiar” bati dagokio, zuzeneko esperientzia praktiko eta ukigarriari dagokio; horri ezagutza “atzematea” (edo “*aprehensión*”) deitzen dio Kolb-ek; horren aurrez aurre ❷ “ulertzea” (edo “*comprensión*”) delakoa ageri da, zerbaiten gaineko ezagutza izatea, teorikoagoa, interpretazio kontzeptualarekin lotuagoa eta, segur aski, osoagoa; “ulertze” hori **kontzeptualizazio abstraktuari** dagokio. “Atzitze” delako dimentsioaren barruan beste bi dimentsio daude: batek ekintzari egiten dio aipu; besteak, aldiz, hausnarketari; bien artean interakzioa izaten da eta biak dira beharrezkoak (bien arteko oreka bilatu behar da).
- Bestetik, “**eraldaketa**” (edo “*transformazio*”) delako dimentsioak ere beste bi modu ezberdin (eta aurkako) biltzen ditu, esperientziatik eratorri diren irudikapenak eraldatzeko: 1) **behaketa erreflexiboak** ardatz hartzen ditu esperientziak gizabanakoarentzat duen esanahia eta aldean dakartzan konnotazioak (ezagutza “intenzio” bidez eraldatzen da, barne hausnarketa egitean); 2) **esperimentazio aktiboaren** kasuan, berriz, kontzeptualizazio abstraktuari dagokion teoria eraldatu egiten du, teoria hori praktikan jartzean eta haren denotazioekin harremanetan jartzean (“estentsio” bidez). Era berean, eraldaketaren dimentsioaren barruan ere beste bi dimentsio daude: bat, ekintzarekin loturikoa; eta bestea, berriz, hausnarketarekin loturikoa. Biak orekan egon behar dira, ez bata ez besteak sufritu ez dezaten.

Beraz, laburtze aldera honela definitu daiteke zer den “ikastea” edo “ikasketa”: “*prozesu bat da non ezagutza eraikitzen baita esperientzia hartuz eta eraldatuz*” (Blasco, 2003: 175).



II.1.11. irudia: Ikasketa esperientzialaren prozesua eta egiturazko dimentsioak, Kolb-en arabera

Iturria: Kolb (1984: 42).

Esperientzia konkretua eta behaketa erreflexiboa, funtsean, pribatuak dira, zikloaren atal pertsonalak dira. Bestalde, kontzeptualizazio abstraktua eta esperimentazio aktiboa publiko(ago)ak eta besteek ikusteko modukoak dira.

Kolb-en (1983, 1984), Kolb eta Kolb-en (2005), McCarthy-ren (2010) eta Akella-ren (2011) esanetan, zikloaren lau koadranteak beste horrenbeste ezagutza mota berezirekin bat datoz. Eta ezagutza mota horietako bakoitzak parekoa du diagonalaren beste aldean (kontrako muturrean).

❖ **Ezagutza konbergentea-dibergentea:**

Alde batetik, ezagutza **konbergenteak** (zeina kontzeptualizazio abstraktuaren eta esperimendazio aktiboaren arteko koadrantean kokatzen baita) gai bati buruzko egitateak edo printzipioak aplikatzen ditu: arazoek “egia” edo “gezurra” tankerako erantzuna dute. Ikasle konbergenteek arrakasta akademiko handiagoa izaten dute, ebaluazio gehienek gehienbat abilezia konbergenteak hartzen dituztelako ardatz (adibidez, matematika aplikatuak, ingeniaritza, etab.).

Bestalde, eta oro har, ezagutza **dibergenteak** zerikusi handiagoa du sormenarekin eta lotura du esperientziaren inguruko azalpen ugari lortzearekin; hala gertatu ohi da literaturan, historian edo artean. Ezagutza eta abilezia dibergenteen inguruko iritziak eta ebaluazioak askoz konplexuagoak dira, eremu pribatuari dagozkielako. Esperientzia konkretuaren eta behaketa erreflexiboaren artean sortzen dira.

❖ **Asimilazioa eta egokitzea (moldatzea):**

Piaget-ek (1969) dioen moduan, “asimilazio” eta “egokitze” kontzeptuek bi harreman ezberdin adierazten dituzte kanpoko munduko ezagutzaren eta gure buruan gordeta dugun ezagutzaren artean. Behaketak formalizatzeko (behaketa erreflexiboa) arau berriak bilatzeak (kontzeptualizazio abstraktua) lotura izan lezake **egokitze** jarduera batekin; aldiz, proba-hutsegitean oinarrituriko ikasketak (esperimendazio aktiboa) esan nahi du ezaguna den arau batetik beste batera mugitzea, baten bat egokia izango delako itxaropenez; eta hori **asimilazio** jarduera bat da nagusiki. Asimilazioari dagokio alderdi partikularrak alderdi orokorragoen baitan txertatzea; egokitzeari, oster, alderdi orokorragoetatik aplikazio partikularretarako lana egitea dagokio.

II.1.9. taulan islatu dira ezagutzaren oinarritzko formak eta horiek sortzeko bideak.

II.1.9. taula: Ezagutzaren oinarrizko forma eta horiek sortzeko bideak

EZAGUTZAREN OINARRIZKO FORMAK	ERREALITATEA ATZITZEKO BIDEAK	ERREALITATEA ERALDATZEKO BIDEAK
DIBERGENTEA	Atzematea	Intentzioa
KONBERGENTEA	Ukertzea	“Estentsioa”
EGOKITZEA	Atzematea	“Estentsioa”
ASIMILAZIOA	Ukertzea	Intentzioa

Iturria: Blasco (2003: 176).

Kolb-ek eta bere lankideek (Kolb eta Kolb, 2005, 2008, 2013) diotenez, diziplina sortzaileetan diharduten ikasleak —esaterako, artean dihardutenak— koadrante dibergentean kokatzen dira. Zientzialari garbiak eta matematikariak, berriz, asimilazioari dagokion koadrantean. Zientzialari aplikatuak eta abokatuak koadrante konbergenteari dagozkio. Eta, azkenik, modu intuitiboagoan lan egin behar duten profesionalak, hala nola irakasleak, egokitzeari dagokion koadrantean kokatu ohi dira⁹⁴.

Hortaz, Kolb-en ereduak aztertzen eta ardatz hartzen du gizabanakoek nola eskuratzen eta prozesatzen dituzten datuak: datuak kanpotik eskuratu daitezke, inplikazio pertsonalaren bitartez, lanean egin ohi den bezala (esperientzia konkretua, EK), edo, bestela, barnetik eskuratu daitezke, ondorio logikoak eratorriz (kontzeptualizazio abstraktua, KA). Era berean, informazioa kanpotik prozesatu daiteke, gauzak eginez eta gauzek nola funtzionatzen duten ikusiz (esperimentazio aktiboa, EA), edo, bestela, barnetik prozesatu daiteke, informazioa angelu desberdinetatik aztertuz eta ekintza atzeratuz (behaketa erreflexiboa, BE). Ikasketa eraginkorra gertatzeko, ikasketa zirkulua osorik borobildu behar da, hots, lau faseak edo prozesuak burutu behar dira. Tamalez, irakasleek normalean beren lehentasunen arabera irakatsi ohi dute, beren gustuko moduak (faseak) besterik erabili gabe (edo horiek nagusiki erabilia). KA eta BE nahiago dituzten irakasleek (irakasle “asimilatzaileek”) joera izango dute pendulu eran irakasteko (batera eta bestera), datuak eskuratzearen eta prozesatzearen artean. Irakasteko modu hori oso aproposa izango da ikasle “asimilatzaileentzat”, baina ez “dibergenteentzat” (EK eta BE nahiago dituztenentzat), ezta “konbergenteentzat” ere (KA eta EA nahiago dituztenentzat); irakasteko modu hori zaila izango da, halaber,

⁹⁴ Ikasketa Esperientzialaren teoria hobetu nahirik, azken urteetan ikasteko lau estilo horiei beste batzuk gehitu zaizkie, orotara bederatzi izateraino, beste hainbeste ikasketa prozesu espezifikori dagozkienak (Kolb eta Kolb, 2005, 2008, 2013).

ezagutzak “egokitze” prozesuaren bidez prozesatzen dituztenentzat. Azken horientzat bereziki aproposak eta eraginkorrak izango dira esperientzia konkretua eta esperientziazio aktiboa (ikasketa esperientzialaren muin direnak). Dena dela, ikasketa esperientzialak behartu egiten ditu ikasleak —ikasle “asimilatzaileak, bereziki— ikasteko beste estrategia eta tresna batzuk erabili ditzaten. Egia da, ordea, ikasleak trabatuta gelditu daitezkeela pendulu itxurako prozesu horretan, EK eta EA artean. Hori gertatu ez dadin, segurtatu behar da ikasleek beren ikasketaren inguruan hausnar egiten dutela (BE) eta teoria pixka bat ere erabiltzen dutela (KA). Hausnarketa da elementurik garrantzitsuena edozein ikasketa mota borobiltzeko (Wankat eta Oreovicz, 2001; McCarthy, 2010).

Rué-ren (2009: 100, 121) esanetan, jende guztiak **hausnarketa** ezinbestekotzat jotzen du ezagutza garatzeko. Hausnarketa kontzeptuak honako hau, besteak beste, dakar aldean: i) gai baten inguruko irizpidea eta pentsamendua finkatzea; ii) zerbaiti buruz sakon eta seriooki gogoeta egitea; iii) kontzientzia izatea, zerbaitena edo norbere pentsamenduena; iv) norbere intuizioei eta pertzepzioei kasu egitea ideiak sortzeko eta garatzeko; v) zerbaiten inguruko kontzientzia hartzea; vi) ulermena errazteko paradigma aldatzeko prozesu bat; eta vii) deliberatzeko era bat. Eta alderdi edo baldintza horiek kontuan izanik, esan liteke ikasketa egoerarik onenak hauek direla: ikaslearen inplikazio pertsonal eta kognitiboa eskatzen duen *jarduera* espezifiko baten bidez garatzen direnak. Hots, tartean *ekintza* duten eta horren inguruan egituratzen diren egoerak dira eraginkorrenak. “*Jarduera baten emaitza irakaslearen ezagutzaren mendekoa bada edo ez badu nor bere burua auto-erregulatzeko erraztasunik ematen, jarduera horrek nekez beteko ditu lehenago aipaturiko baldintzak eta, ondorioz, hausnarketa-maila azalekoa baino ez da izango eta zuzena den erantzuna bilatuko du, proposaturikoaren esanahia bilatu beharrean [...] Irakaskuntzaren eta ikasketaren azken emaitzak edukien berezko kalitatearen mendekoak dira, baina, era eta aldi berean, ikasleei edukiak jasotzeko proposaturiko prozesuen mendekoak ere badira”.*

Lehenago adierazi den legez, Kolb-en ikasketa esperientzialaren zikloak nolabait hobetu eta findu egiten ditu Dewey-ren (1938) eta Piaget-en (1969) ekarpenak. Esperientziak ikaste prozesuan duen zeregin funtsezkoa du gako; horixe du bereizgarri. Kolb-en ereduaren arabera, zerbait ikasteko, jasotzen den informazioa landu eta prozesatu behar da. Hartara, esperientzia zuzeneko edo konkretu batetik abiatu gintezke edo, bestela, esperientzia abstraktu bat hartu genezake abiapuntu (esaterako, zerbaiten inguruan irakurtzen dugunean edo norbaitek zerbait esaten digunean

gertatzen den bezala). Halatan, bizi izaten ditugun esperientziak (konkretuak nahiz abstraktuak izan) ezagutza bihurtzen dira, bi modu edo metodo hauetakoren baten bidez lantzen ditugunean: esperientzien inguruan hausnartuz eta pentsatuz, edo, bestela, jasotako informazioarekin modu aktiboan esperimendatuz. Horretarako, ordea, erabilitako modua/metodoa edozein dela ere, ikaslea bere ikasketa esperientzian murgiltzea eta engaiatzea eragin behar du: ikaslea bera da behatu, probatu eta analizatu behar duena, eta ezagutza berriak integratzeko jarduera askotarikoetan parte hartu behar duena. Ikasketa esperientzialak, beraz, bi eratan eragiten die ikasleei: haien egitura kognitiboa hobetzen du eta haien jarrera, balio, pertzepzio eta jokamoldeak aldatzen ditu. *“Ikasleek, hortaz, parte-hartze aktibo, esanguratsu eta esperientzial baten bidez eraikitzen dituzte ezagutza berri eta nabarmenak, ezagutza horiek ikasleen prestakuntzan eragiten dute eta, gainera, ikasleek beren ikasketaren gaineko erantzukizuna eta konpromisoa hartzera bultzatzen dituzte”* (Gutiérrez et al. 2011: 137-138). Autore horien arabera, ikasketa esperientzialarekin loturarik zuzenekoena duten metodo pedagogikoak bi dira: kasuaren metodoa eta simulazio ereduak. Biek ala biek ahalbidetzen dute ikasleak enpresa errealitate jakin bat bizi izatea eta hortik eratorritako esperientziatik ikastea.

Blasco (2003), Moon (2004), Clark et al. (2010) eta Akella (2011) autoreen irudiko, Kolb-en ***Ikasketa Esperientzialaren Teoriak*** gero eta jarraitzaile gehiago eta gero eta ospe handiagoa du hezkuntza eremuan, eta tresna baliotsutzat jotzen da irakaskuntza eta ikasketa analizatzeko. Nahiz eta “esperientzia” gako eta giltzarri den ikasketa esperientzialen, goiko autoreak bat datoz baieztatzean ikasketa esperientziala zerbait gehiago dela esperientzia hutsa baino. Areago, argi diote ikasteko biderik eraginkorrena zikloaren lau faseak betetzea dela (ezagutzaren oinarriko lau formak jorrotuta). Kolb-en ereduak ikasleak bultzatzen ditu beharrezko gaitasunak eta abileziak garatu ditzaten, modu eraginkorragoan pentsatzeko eta ebazteko arazoak. Horrela, bada, ikasleak behatu egiten du inguruan jazotzen dena, behatutakoa integratu egiten du teoriaren barruan, hortik hipotesiak eratortzen ditu eta, azkenik, hipotesi horiek ekintzen bidez probatzen ditu, gertaera eta esperientzia berrietan. Hortaz, ikasketa esperientziala osotzat eta nolabait bukatutzat jotzeko, gutxienez hiru urrats edo fase bete behar dira: esperientzia, hausnarketa eta aplikazioa.

Beudin et al. (1995) eta Camarero, Rodríguez eta San José (2009) autoreek ere iritzi bertsua dute; hots, ikasleak aurrera jarraitu behar du ikasketa zirkuluan barrena, fasez fase, gero eta konplexuagoa den ikasketa espiral bat sortuz. Gainera, gomendatzen dute harreman estu bat egon beharko litzatekeela ikastetxeko ikasketen eta ikasleek

etorkizunean izango dituzten lanen artean. Ikasleek ikasgelan eztabaidatutako ideiak probatu eta egiaztatu/errefusatu nahi izaten dituzte bizitza errealeko egoerekin. Ildo horretan, Kolb-ek uste du ikasleak, gradua bukatu ondoren, ez direla lanerako prest izaten, oro har. Beharrezkoa da, beraz, ikasleei esperientzia praktikoak eskaintzea eta biziarratzea, ikasgela barruan nahiz kanpoan, errealitatearekin konektatzeko eta bizitzako esperientzietarako trebatu eta gaitzeko.

Kolb-en teoria nonahi ageri da, komunitate zientifikoaren babes zabala du —Schenck eta Cruickshank-ek (2015) emandako datuen arabera, 2012ko uztaila arte 17.800 aipamen baino gehiago bilduak zituen— eta programa esperientzial askotan erreferentziatzen hartzen dute. Zernahi gisaz, ezin da aipatzeke utzi Kolb-en teoriak badituela kontra egiten dioten autoreak eta kritikak ere. Batzuek sinplista dela leporatzen diote, edo lar “formulista” dela; autore zenbaitentzat, teoriak ez ditu behar bezain sakon aztertzen ezagutzaren transferentziarekin loturiko alderdiak, edo gehiegi zentratzen da esperientziaren nozioan edo ideian. Kritika horiek guztiak Moon-ek (2004) bere lanean jasotzen ditu, eta erantzen du ezen Kolb-en zikloaren arazoa ez datzala hainbeste Kolb-en lanean, nola Kolb-en lanaz beste autore batzuek egindako irakurketetan edo interpretazioetan.


Schenck eta Cruickshank (2015) autoreek ere zenbait kritika zuzentzen dituzte Kolb-en ereduaren aurka, ikuspegi filosofiko eta psikologikoetatik abiatuta eta pertsona helduen hezkuntzari erreparatuta. Autoreon aburuz, Kolb-en ereduak ez da egokitu gaur egungo ikerketetara eta baditu gabezia batzuk. Horretarako, teoriaren azterketa kritiko bat burutzen dute, bai maila epistemologikoan eta bai hezkuntza neurozientziaren mailan ere; eta ondorioztatzen dute ikasketa esperientzialaren teoriak alderdi horiek ere aintzat hartu beharko lituzkeela.

Era bertsuan, De Freitas eta Neumann (2009) autoreek ere argi deritzote Kolb-en ereduak eguneratu egin behar dela, besteak beste hezkuntza birtuala eta urrutiko hezkuntza ere aintzat hartzeko. Autore horien kritikak Kolb-en zikloa du jomuga; esperientziak aipatzen direnean, bizi izandako esperientzia “errealak” baino ez ditu kontuan hartzen. Haatik, autore hauen iritziz, gaur gaurkoz webguneetan eta gisako testuinguruetan oinarrituriko ikasketak hartzen ari diren garrantzia kontuan izanik, esperientzia horiek aintzat hartu beharko lituzkete aldagai birtualak eta transakzionalak ere.

Kritikak kritika, Kolb-en teoriaren mugak, gabeziak eta hobetu beharreko alderdiak onartuta ere, askoz gehiago dira indarguneak, ahulguneak baino. Kolb & Kolb (2005, 2013) autoreek teoriaren inguruko ekarpenez eta kritikez egindako lanetan ere nabarmen ageri da gehiago eta sendoagoak direla aldeko argudioak eta frogak, aurkakoak baino. Izan ere, Kolb-en eredua ikasteko teoria holistiko eta diziplinartekoa da eta espezialitate akademiko ezberdinetarako ikasketa estilo ezberdinak identifikatzen ditu; eta horregatik guztiatik txit baliagarria da gure ikerketa lan honetarako.

1.3.3.3.- IKASKETA ESPERIENZIALERAKO EREDUEN APLIKAZIOA

Beard eta Wilson (2013) autoreek diotenez, esperientzia “zubia” da, pertsona (ikaslea), batetik, eta ikasgaia eta ingurunea, bestetik, lotzen dituen “zubia”, hartu-eman edo eragin-truke dinamikoan lotu ere. Esperientziak bide ematen du itxuraz elkarren kontrako diruditen alderdiak konektatzeko eta bateratzeko: pentsamendua eta ekintza, jakitea eta egitea, burua eta gorputza, pertsona eta ingurunea (“mundu erreala”), teoria eta praktika, subjektua eta objektua, eta **hezkuntza/ikasketa eta industria** (II.1.12. irudia).



II.1.12. irudia: Esperientzia “zubia” da

Iturria: Beard eta Wilson (2013: 27).

Ikasketa esperientzialaren muin eta funtsa nolabait laburbiltzeko, Konfuzio jakintsu txinatarraren hitzetara jo dezakegu: *“Esan iezadazu eta ahaztuko dut, erakutsi iezadazu eta gogoratuko dut, **parte harrarazi iezadazu eta ulertuko dut**”*. Era berean, William Glasser psikiatra estatubatuarren hitzak ere balia ditzakegu: *“Irakurritakoaren % 10 ikasten dugu, entzundakoaren % 20, ikusitakoaren % 30,*

*ikusita eta entzundakoaren % 50, beste batzuekin eztabaidatutakoaren % 70, **esperimentatutakoaren % 80**, eta guk geuk beste batzuei irakatsitakoaren % 95”.*

Hawtrey (2007) autoreak ikasketa esperientzialaz baliatzen da unibertsitatean ekonomia gaiak irakasteko. Haren ustez, ikasketa esperientzialak gero eta garrantzi handiagoa du. Egungo ikasleak nekez asetzen dira ikasgelako esperientzia soil batekin; unibertsitatean esperientzia nabarmen ugari bilatzen dituzte. Autorearen esanetan, ikasketa esperientziala gertatzen da ikasle bat entzule pasiboaren rola uztera eta erantzun emaile aktibo izatera bultzatzen den bakoitzean. Irakasleak bere buruari hau xe galdetu beharko lioke: *Nola motibatu daitezke ikasleak ikasketa prozesuari ekin diezaioten? Hori egiteko nahikoa modu eskaintzen zaizkie? Nola akuilatu daiteke ikasleen jakin-mina? Nola lortu daiteke ikasleak prozesuan murgilaraztea?* Autorearen esanetan, nabarmenezkoa da ikasleek irakurtzen dutenaren zati txiki bat baino ez dutela gogoratzen; aktiboki egiten duten gehiena oroitzen dute, ordea.

Horren harira, Fourcade eta Go (2011) autoreen esanetan, ikasketa esperientzial benetakoa eta esanguratsua gertatzeko, hiru ezaugarri izan behar ditu: aniztasuna, harremanak eta autentikotasuna:

- 1) **Aniztasuna**, hots, esperientzia asko eta askotarikoak dira beharrezko; enpiristek dioten bezala, esperientzia, berez, anizkuna eta askotarikoa da; hortaz, esperientzia ugari eta desberdinak eragiten dituen moduan antolatu beharko da jarduera.
- 2) **Harremanen** kontzeptua aniztasunaren kontzeptuarekin lotuta dago. Esperientziak loturak utzi eta sortu behar ditu beste esperientzia batzuekin.
- 3) Hirugarren kontzeptuak, **autentikotasunak**, auzitan jartzen du simulazioaren kontzeptua (“*role play*”), praktika sozial estandarrak dakarren esperientziaren garrantziaren aurrean. Mundu profesionalarekin loturiko edozein materiatan, esperientzia bat modu espontaneoan hezigarria izan dadin, ezinbestekoa da egoera errealekin zerikusia izatea⁹⁵.

⁹⁵ Kontuan izan behar da, halaber, esperientzia bat berez sortzen den edo irakasleek aurrez prestatutakoa den. Ildo horretan, Fourcade eta Go (2011) autoreek Célestin Freinet-en eredu hartzen dute kontuan, zeinak ikasketa esperientzialaren nolatasun konplexua azpimarratzen baitu: ikasketa esperientziala, izan ere, ariketa edo jarduera sozial bat da, ez da konpetitiboa eta bai, ordea, lankidetzakoa. Dinamika hori denbora tarte luze batean gertatzen da, testuinguru zabal batean eta aurrez prestatu gabe. Berez, ariketa “multi-erreferentziala” da (konbinatu egiten dira historia, antropologia, geografia, ekonomia eta ikasketa teknikoak). Nolabaiteko autentikotasun epistemologikoa eskatzen du eta galderak ez dira oinarritzen helburu didaktikoekin eraikitako ezagutza eredu finko batean (agiri didaktikoetan, testuliburuetan, etab.). Aitzitik, galderak ikasle bakoitzak esperientziatu duen errealitateari buruzkoak dira. Ikasleen kultura berehala hasten da harremanetan helduen kulturarekin, eta ingurunean duten

Zenbait autorek, tartean Burnard-ek (1989, Beaudin eta Quick-ek aipatua, 1995), azpimarratzen dutenez, ikasketak zenbait ezaugarri izan behar ditu “esperientzial” etiketa jartzeko eta hala izendatzeko. Ezaugarri horien artean, nabarmentzekoak dira *ekintza* (ikaslea ez da jasotzaile pasiboa izan behar, parte-hartzaile aktiboa baizik), *hausnarketa* (nahi den ikasketa benetan gertatu dadin); ikasketa *fenomenologikoa* izan behar da (objektuak eta egoerak baliorik esleitu gabe deskribatu behar dira); *giza esperientzia subjektiboa* izan behar da (ikaslearen mundu ikuskera da garrantzitsua, ez irakaslearena); eta *giza esperientzia ikasteko iturri gisa* hartu behar da (esperientzia baliatu behar da irakaste-ikaste prozesuaren parte edo osagai modura).

Black eta Wingfield (2008) autoreen esanetan, esperientzia hutsa ez da nahikoa bere horretan; premiazkoa da, halaber, esperientziaren ondoren hausnar egitea, esperientzia hori ikasketa esperientzial bihurtzeko. Ildo bertsuari mintzo da Joplin (1995) ere, zeinarentzat beharrezkoa baita “ekintza-hausnarketa” prozesu zikliko bat betetzea, unean-unean eta etenik gabe ezagutza sortzeko, hurrengo urratsak edo faseak aurrekoen mendekoak izanik. Autore honek irakasleek jarraitu beharreko bost urratseko eredu bat garatzen du, beren programen izaera esperientziala handitzeko eta hobetzeko estrategia gisa. Hona hemen bost urratsak:

- ❖ **Arreta:** Zikoaren lehenengo urratsa da; zeregina aurkeztu eta aztergaia definitzen da; ikaslearen arreta isolatzen da, kontzentratu dadin.
- ❖ **Ekintza:** Ikaslea tentsio egoera batean kokatzen da; ezin du aurrez aurre duen arazoa saihestu eta, sarritan, testuingurua ez da ezaguna; horrek behartu egiten du abilezia edo ezagutza berriak erabiltzera. Ekintza hori izan daiteke fisikoa, mentala, emozionala, espirituala edo beste edozein dimentsiori dagokiona. Ekintzaren urrats honek ikasleari erantzukizun handia esleitzen dio; osorik biltzen du eta arreta eta energia eskatzen dizkio sortzeko, ordenatzeko, aztertzeko, mugitzeko, etab. Programa esperientzialetan ekintzaren urratsa diseinatzen, funtsezkoa da erantzukizuna esleitzea ikasleari eta haren burmuinari, ikaste prozesuaren baitan.
- ❖ **Laguntza** eta **“feedback”-a:** Laguntza egokiak segurtasuna ematen dio ikasleari, baita ahalegintzen jarraitzeko kemena ere. Eta berrelikadura edo “feedback” delakoaren bidez, segurtatzen da ikasleak ordu arte egindakoari buruzko nahikoa informazio duela, aurrera jarraitu ahal izateko.

mundua den bezala ageri zaie. Esperientziak irauten duen bitartean, ikasketak oinarri hartzen ditu ikaslearen beraren konpromiso sakona, haren interes espezifikoa, sentsibilitate bereziak, ezagutza premiak eta ekimen propioak.

- ❖ **Galderak:** Azken urrats honetan, ikasitakoa aztertzen, artikulatzen eta ebaluatzen da. Une honetan, irakasleari dagokio balioestea aurrez egindako ekintzek emaitza egokiak izan dituzten (dena dela, ikasketa esperientzian, ebaluazio hori ikaslearen baitan gertatuko litzateke; hezkuntza esperientzian, berriz, irakasleari dagokio galderak egitea eta ikasketaren efektuak ezagutzea; eta, horretarako, talde eztabaidak balia ditzake, edo laburpenak, ikasgelan egindako proiektuak, etab.). Dewey-rentzat, urrats honek bere baitan hartuko lituzke ebatzi den arazo edo zailtasunaren inguruan hausnar egitea eta ikasitakoa integratzea, etorkizuneko esperientziak ulergarriagoak izateko bidean (Crosby, 1995).

Bestalde, Joplin-ek berak (1995: 27-28) funtsezko 9 ezaugarri aipatzen ditu, hezkuntza esperientzialaren paradigman giltzarri direnak:

- *“Ikaslea hartu behar du erdigunetzat, ez irakaslea”.*
- *“Izaera pertsonala izan behar du”.*
- *“Produktura eta prozesura, bietara, zuzendu behar da. Sistema tradizionalan produktua baino ez da ebaluatzen; hezkuntza esperientzian, berriz, irakaslearentzat interesgarria da ezagutzea, baita ere, ikasleak prozesuan barrena izan dituen ideiak, jarraitu dituen estrategiak eta prozesuaren garapenaren nondik norakoak”.*
- *“Barneko eta kanpoko ebaluazioa egin behar da. Ikasleak bere ikasketa prozesuaz egiten duen ebaluazioak areagotu egiten ditu ikaslearen erantzukizuna eta independentzia”.*
- *“Ulermen holistikoa ahalbidetu behar du, baita osagaien analisia ere”.*
- *“Esperientziaren inguruan antolatutakoa izan behar da”.*
- *“Pertzepzioetan oinarritu behar da batez ere, teorian baino gehiago”.*
- *“Gizabanakoan oinarritu behar da batez ere, taldean baino gehiago”.*

Nolanahi ere, horren harira Estes-ek (2004: 152, 156) ohartarazten du badela inkoherezia edo kontraesan bat ikasketa esperientzialak baliotsutzat aldarrikatzen duenaren eta praktikan gertatzen denaren artean. Izan ere, nahiz eta teorikoki ikaslea ardatz hartu beharko lukeen (hots, ikaslea bera irakaste-ikaste prozesuaren erdigunean egon beharko litzatekeen arren), sarritan irakaslea hartzen du ardatz eta erdigune, irakasleak baitu boterea esperientziaren inguruko hausnarketa gidatzeko edo, irakasteko duen moduaren bidez, bere mezu propioak ikasleenganatzeko. Irakasle askok kolokan jartzen dute hezkuntza esperientzian irakaslearen eta ikaslearen artean *ustez* dagoen botere oreka. Ikasketa esperientzialaren praktikak eskatzen du irakaste-

ikaste prozesua ikaslearengan zentratzea eta, irakasle garen aldetik, geure buruari itaundu behar diogu nola diseinatu eta txertatu ditzakegun esperientziak eta jarduerak, ikasketa mota honetan lagungarri izan daitezten. Ikaslearengan zentratutako teknikak esperientzia gidatzeko erabiltzen badira eta esperientziaren inguruan ikasleek hausnar egitea sustatzen badute, hezkuntza esperientziala ezin hobeto egikaritzen ariko gara. Estes-ek (2004) zenbait teknika iradokitzen ditu ikasketa esperientzian diharduen irakaslea ikaslearengan gehiago zentratu dadin. Foku edo arreta gunea aldatzeko kontzientzia eta esfortzua eskatzen ditu; irakasleen eta ikasleen arteko elkarlana ezinbestekoa da; teknika sortzaileak behar dira ikasleen hausnarketa hauspotzeko eta errazteko; ikasleei utzi egin behar zaie dagokien rola hartzen, beren esperientzia errazteko; eta, ahal dela, programa esperientzial bati ekin behar zaio, bai irakasleen jarduna eta bai ikasleena ebaluatuz. Horrez gain, autoreak gomendatzen du, ikasleak erdigunetzat hartu nahi badira, adi-adi entzun egin beharko geniekeela, gure (irakasleon) istorioak eta pentsamenduak haiekin partekatu gabe; ez genukeela balio iritzirik plazaratu beharko, ezta ikasleen iruzkinak zuzenak edo okerrak diren epaitu ere; ikasleak animatu egin beharko genituzkeela beren artean hitz egitera (irakasleari soilik hitz egin gabe), zer ikasi nahi/behartzen duten erabakitzen, eta lortu nahi dituzten helburuak finkatzen; eta irakasleak prozesuan zehar autoritate izateari muzin egin beharko liokeela eta gidari eta laguntzaile rola bereganatu beharko lukeela.

Ives eta Obenchain (2006) autoreen ikerlanean, goi-mailako pentsamendurako abileziak eta behe-mailako pentsamendurako abileziak neurtu dituzte, egiaztatzen zer emaitza lortzen diren bietan, irakaskuntza metodologia tradizionalak erabiltzen direnean eta ikasketa esperientzian oinarritutako metodologia erabiltzen direnean. Ateratako ondorioen arabera, hezkuntza esperientziala erabiltzen den ikasgelako ikasleek emaitza hobekien lortzen dituzte goi-mailako pentsamendurako abilezietan (konparazioa, kategorizazioa, pertzepzio analitikoa, arrazoiketa analogikoa eta logikoa, argudiatzea, organizazioa, etab.) eta klaseen artean ez dago alderik behe-mailako pentsamendurako abilezietan (memorizazioa, informazioa gogoratzea).

Bestalde, Young et al. (2008) autoreek egiaztatu nahi dute ikasketa eraginkor eta esanguratsua gertatzen ote den, jarduerak/esperientziak eragindako ikasketa prozesuak aztertuta. Ondorio gisa diote ezen ikasketa esperientzialaren zikloaren lau faseak betetzen dituzten ikasleek ikasketa fokapen sakonagoa erabiltzen dutela eta, horrez gain, gehiago eta hobeto ikasi dutelako pertzepzioaren jabe direla. Aitzitik, ikasketa ziklo motzagoa darabiltenek ikasketa fokapen azalekoagoa hartzen dute eta ikasketa emaitza kaskarragoak erdiesten dituztela deritzote.

Bukatzeko, honela laburbildu daitezke ikasketa esperientzialaren **printzipio pedagogiko nagusiak** (Kolb, 1983, 1984; Kolb eta Kolb, 2005, 2008, 2013; Beard eta Wilson, 2013; Carver, 1996; Huber, 2008; Itin, 1999; Ives eta Obenchain, 2006; Romero, 2010):

- **Autentikotasuna:** Ikasleentzat jarduera eta ondorio nabarmen eta esanguratsuak eskaini behar ditu, mundu errealaekin lotutakoak eta etorkizunerako baliagarriak (**zer** ikasten den).
- **Norberaren esperientziaren bidezko ikasketa aktiboa:** Bermatu behar du ikaslea era parte-hartzaile, zuzeneko eta erabatekoan (maila fisikoan, intelektualean, emozionalean...) murgiltzea bere esperientzian eta ikasteko prozesu aktiboan, modu auto-zuzenduan. Ikaslea bera bitarteko baliotsua da bere hezkuntzarako: bere ikasketak eta ezagutzak ko-sortzen ditu (**nola** ikasten den).
- **Testuinguruan jarritako ikasketa:** Ikasteko testuinguruak berak (are ingurune fisikoak, zeina ikasgelaz *kanpoko*a ere izan baitaiteke, geroago ikusiko dugunez) benetako aukera eman behar du ezagutzak sortu eta aplikatzeko eta abileziak garatzeko; pizgarri eta erronkaz beteriko esperientziak bizi izateko bide eman behar du, ikaslearen interesa, jakin-mina eta motibazioa xaxatzeko (**non** ikasten den).
- **Ikasketa konstruktiboa:** Ezagutza ez da errealitatearen kopia, ikasleak berak modu pertsonalean eraikitakoa baizik, lehenago ikasitakoarekin *batera* eta haren *gainetik*, bere esperientzien eta pertzepzioen inguruan egindako hausnarketa eta irakurketa kritikoen bitartez.
- **Ikasketa soziala:** Ikastea ez da prozesu indibidual hutsa; prozesu soziala ere bada: edozein irakaste-ikaste prozesuk, berez, interakzio soziala du atzean; ikaslearen, irakaslearen eta ingurunearen arteko elkarriketa eta elkarlana ditu funts.

Azpimarratzekoa da, azkenik, hezkuntza eta ikasketa esperientzialaren marko horretan, “esperientziak” behaketa edo deskribapen intelektual hutsaz harago doazela. Rebecca Carver-en irudiko (1996), esperientziaren baitan *zentzumen* guztiek parte hartzen dute (ukimenak, usaimenak, entzumenak, ikusmenak eta dastamenak), baita *emozioek* ere (esaterako, plazerak, kitzikapenak, irrikak, enpatiak, etab.), *baldintza fisikoek* ere eragiten dute (tenperaturak, indarrak, energia-mailak...), eta, jakina, *kognizioak* ere parte hartzen du (ezagutza eraikitzeak, arazoak ebazteak...), nola ez. Hortaz, hezkuntza esperientzialean, ikasleei bultza egiten zaie ekimen aktiboa hartu dezaten ingurunean dutenetik ikasteko, modu holistikoan, ikasleak beren osotasunean harturik (maila

fisikoan, intelektualean, emozionalean, espiritualean eta sozialean). Eta ikasleei eskaini egiten zaizkie (zenbait tresnaz eta jokabidez hornituta) ikasketa aktibo bat burutzeko *borondatea*, *kidetasuna* eta *konpetentzia*⁹⁶. Ikasketa hori gertatzen deneko inguruneak, gainera, eskatu eta balioetsi egiten ditu, besteren artean, elkartasuna, erantzukizuna, sormena eta pentsamendu kritikoa.

Azken ohar gisa, nabarmentzeko modukoa da, zalantzarik gabe, “esperientzia” eta “esperientzial” kontzeptuak ez direla soilik hezkuntzaren eremuan agertu, hedatu eta sustraitu. Aitzitik, beste eremu eta bazter batzuk ere “blaitu” dituzte; eta horren lekuko dira azken urteotan indar handiz zabaldu diren “esperientziaren ekonomia”, “marketin esperientziala”, “turismo esperientziala” eta gisa horretako beste zenbait kontzeptu eta fenomeno. Kontzeptu eta fenomeno horiek jatorri eta adierazpide ezberdinak (zeinek bereak) dituzten arren, badute lotura edo ardatz komun bat ere: kasu guztietan ihes egiten diete masibotasunari, pasibotasunari eta inbertsonaltasunari eta bide ematen zaie gizabanakoaren beraren protagonismo eta kontrol hazkorrari, subjektuaren beraren parte-hartze eta inplikazio gero eta handiagoari, pertsonaren beraren esperientzia eta bizipen zuzeneko, aktibo eta multisentsoriale; eta berdin du gizabanako/subjektu/pertsona hori nor edo zer den: dela kontsumitzaile, dela bezero, dela turista, dela ikasle... ez dio axola.

⁹⁶ Carver-ek (1996) hiru kontzeptu aztertzen ditu “*The ABC of Student Experience*” deritzanaren barruan. A horrek “*Agency*” (borondatea) adierazten du, B-ak “*Belonging*” (kidetasuna edo partaide izatea) eta C-ak, berriz, “*Competence*” (konpetentzia). Borondatea funtsezkoa da, ikaslea bera izan dadin bai bere bizitza eta bai gizartea ere aldatzeko agenterik boteretsuena. Kidetasuna ere giltzarri da, ikaslea komunitate bateko partaide sentitu dadin, erantzukizun eta eskubide guztiak tarteko, eta ikasleak arduraz jokatu dezan eta kontuan hartu ditzan bere interesak, besteenak eta taldearenak bere osoan. Eta, azkenik, konpetentzia edo gaitasuna ezinbestekoa da, askotariko alorretan: alor kognitiboan, fisikoan, musikalean, sozialean, etab.

1.3.4.-HEZKUNTZA 3.0

Informazio eta Komunikazio Teknologiek (IKTek) errotik aldatu dituzte gizakien harremanak eta jarduerak, orain urrutitik, sarean eta modu asinkronikoan garatu baitaitezke. IKTek pertzepzio eta ekintzarako gaitasun berriak ekarri dituzte, baita harremanak izateko eta sozializatzeko era berriak ere. Ondorioz, ikaste prozesuek ere aintzat hartu behar dute errealitate berri hori eta, jakina, IKTekin loturiko gaitasun eta abilezia berriak eskuratzeko bitartekoak eskaini behar dituzte, espazio sozial berrian egoki moldatzeko.

Ezagutzak gordetzetik ezagutzak eskuratzeko gai izatera pasatu behar da. Informazio bat-bateko eta infinituak ezaugarritzen duen testuinguru berrian, dagoeneko ez da horren garrantzitsua ikasleek informazioa memorizatzea, gogoratzea edo haren jabetza izatea; orain askoz garrantzitsuagoa da informazioa aurkitzeko, sailkatzeko, aztertzeko, partekatzeko, eztabaidatzeko, kritikatzeko eta sortzeko abilezia. Inguruan dugun (eta dabilkigun) informazio kantitatea ikaragarria da, baina, horrez gain, informazio digital interkonektatuak badu beste bereizgarri bat: kualitatiboki ezberdina da, beste euskarri batzuetan jasotako informazioarekin alderatuta. Informazioaren iraultzaren muinean, bestelako aldaketa, iraultza eta berritasun asko ere badautza: berriak dira harremanak izateko moduak, hitz egiteko moduak, interakzio moduak, partekatzeko moduak, trukatzeko moduak, elkarlanean aritzeko moduak, etab. Eta web 2.0-aren muin edo funts hori, hain zuzen, bereziki garrantzitsua da hezkuntzarentzat. Ikasgela tradizionalak mezuak dio (zioen) informazioa eskuratzen ikasteko, informazioa urria dela eta irakasleari dagokiola, oholtza gainean igota, aurkitzeko zaila den informazio urri horren jabe denez, hura ikasleei ematea. Hortaz, autoritatean konfiantza izan behar da informazio ona eskuratzeko eta, jakina, informazio zuzena zein den eta nork duen argi eta garbi dago, batere zalantzarik gabe (horregatik ez dira mugitzen eta biratzen ikasgelako jarlekuak). Azken batean eta laburbilduz, ikasgela tradizionalan ikasleari bultzatzen egiten zaio autoritatean konfiantza izateko eta kito, besterik ez egiteko. Orduak eta orduak, egunak eta egunak, jarlekuan eserita autoritatearen informazioa entzuten eta azterketetan “botaka egiten”... (Wesch, 2012).

Antzekotasun bila alderaketa egingo bagenu IKTen eremuaren eta hezkuntzaren artean, esan liteke hezkuntza 1.0 delakoak gaztelaniazko 3 “R”-ak dituela oinarri: ❶ jaso, irakasleari entzunda (“*recibir*”); ❷ erantzun, apunteak hartuz, testua ikasiz eta ariketak eta etxeko lanak eginez (“*responder*”); eta ❸ azterketan “botaka egin”, beste ikasle guztiak batera (“*regurgitar*”). Ikasle guztiak berdin-berdinak balira bezala

ikusten eta hartzen dira. Hezkuntza estandarizatua da. Hezkuntza 1.0 delakoa web 1.0-arekin lotu genezake, non bide bakarra baitago informazioa banatzeko, irakaslearengandik ikaslearengana. Hezkuntza 1.0 delakoa web-aren lehenengo belaunaldia (web 1.0) bezalakoa da: norabide bakarreko prozesua. Ikasleek eskolara jotzen dute irakasleengandik hezkuntza jasotzera, apunteen bidez, testuliburu bidez, bideoen bidez, eta, oraindik oraintsu hasita, web-eko baliabideen bidez. Ikasleak informazio kontsumitzaile dira. Hezkuntza eredu horrek (1.0 delakoak) bere egiten du oinarri hau: ikasleek ez dutela behar irakasleak irakasten diena besterik (Gerstein, 2014).

Hezkuntza 2.0 delakoak, web 2.0-ak bezala, elkarrekintza ahalbidetzen du hala edukiaren eta erabiltzaileen artean, nola erabiltzaileena beren artean. Kasu honetan, interakzioa handiagoa da irakaslearen eta ikaslearen artean; ikaslearen artean; ikaslearen eta edukiaren artean; eta ikaslearen eta beste aditu baten artean. Hezkuntza 2.0 delakoan giza aldagaia (elementu humanoa) garrantzitsua da ikasketan, nahiz eta oraindik ere irakaslea den ikasketa errazten eta antolatzen duena. Irakasle-ikasle eta ikasle-ikasle arteko harremanak ikaste prozesuaren osagaitzat hartzen dira. Hezkuntza 2.0 delakoa gaztelaniazko 3 “C”-etan zentratzen da: komunikazioa (“*comunicación*”), ekarpena (“*contribución*”) eta elkarlana (“*colaboración*”) (Gerstein, 2014).

Web 3.0-ak eduki nabarmenak eskaintzen dizkigu, interaktiboak, pertsonalizatuak, sarean erraz eta libreki eskuragarriak eta gizabanako bakoitzaren interesetan oinarrituak. Hezkuntza 3.0 delakoak oinarri hartzen du hezkuntza pertsonalizatu eta auto-determinatua, non interesean funtsatzen baita ikasketa eta arazoaren ebazpenak, berrikuntzak eta sormenak zuzentzen baitute hezkuntza. Hau ere gaztelaniazko 3 “C”-etan oinarritzen da, baina ez dira hezkuntza 2.0-ari dagozkionak, bestelakoak dira: konektoreak (“*conectores*”), sortzaileak (“*creadores*”) eta konstruktibistak (“*constructivistas*”). Ikasleak, orain, beren ikasketa esperientzien autore, gidari eta aholkulari bihurtzen dira eta irakasleak, alboan, laguntzaile eta gidari lanak egiten ditu. Hezkuntza 3.0-ak onartu eta aitortzen du ikasle bakoitzaren bidaia bakoitza berdingabea, pertsonalizatua eta auto-determinatua dela (Gerstein, 2014).

II.1.10. taulan bildu dira aipaturiko hiru hezkuntza mota horien ezaugarri nagusiak.

II.1.10. taula: Bilakaera hezkuntza 1.0-tik hezkuntza 3.0-ra

	Hezkuntza 1.0	Hezkuntza 2.0	Hezkuntza 3.0
Ezagutza eta esanahia zer da...	Diktatua, finkoa	Sozialki eraikia	Sozialki eraikia eta testuinguruaren arabera berrasmatua
Teknologia non dago...	Ikasgelako hormen barruan giltzapetuta (isolaturik/errefuxiatu digitalak)	Arretaz bereganatuta (immigrante digitalak)	Toki guztietan (unibertso digitala)
Irakaskuntza nondik nora doa...	Irakaslearengandik ikaslearengana	Irakaslearengandik ikaslearengana eta ikaslearengandik ikaslearengana (progresibismoa/progresua/erreforma laguntzaile)	Irakasle-ikasle, ikasle-ikasle, ikasle-irakasle, pertsonak-teknologiak-pertsonak (ko-konstruktibismoa)
Eskolak non daude...	Eraikin batean	Eraikin batean eta <i>online</i>	Toki guztietan (zeharo errotuta gizartean: kafetegietan, tabernetan, lantokietan, etab.)
Gurasoentzat zer da eskola...	Hurtzaindegia	Hurtzaindegia	Beraiek ere ikasteko leku bat
Irakasleak nor eta zer dira...	Profesional autorizatuak/ lizentziadunak/ zertifikatuak	Profesional autorizatuak/ lizentziadunak/ zertifikatuak. Mundu guztia, edozein tokitan	Mundu guztia, edozein tokitan
Eskoletako hardware-a eta software-a nolakoak dira...	Oso garesti ordainduak eta bazterrean utziak	Kode irekikoa eta eskuragarriak prezio merkean	Prezio merkean eskuragarriak eta helburu/asmo batekin erabiliak
Industriak nola ikusten ditu graduatuak...	Muntaketa kate bateko langile gisa	Muntaketa kate bateko langile gisa, baina ezagutzaren ekonomiarako prestakuntza egokia ez dutenak	Lankide/kolaboratzaileak edo enpesaburu/ekintzaileak

Iturria: Moravec (2008a, 2008b).

Bukatzeko, IKTen eremuan bada esaldi bat, hezkuntzaren eremuan salaketa gisa har daitekeena: “Ez zaitetz irakasle 1.0 bat izan, ikasle 3.0-ei irakasten ari zaiena tresna 2.0-ak erabiliz” (Galindo, 2013: 131). Izan ere, ikasle 1.0 delakoa katedrarekin identifikatzen dena da, eskolak ematen dituena, interakziorik gabe; ikasle 3.0 delakoa bere bizimolde osoa maila guztietako interakzioen bidez eraikitzen duena da; eta tresna 2.0 direlakoak web-ean daudenak dira, parekideek sortutakoak, gu bezalako erabiltzaileek sortuak, nolabaiteko “identitate digitala” dutenak, eta oinarrizko interakzio batetik abiatzen direnak (parte hartu eta produzitu).

1.3.5. -IKASGELAZ KANPOKO IKASKETA

Ikasketa esperientzialak zerikusi estua du —baina ez eksklusiboa ezta nahitaezkoa ere— **“ikasgelaz kanpoko ikasketarekin”** (“*learning outside the classroom*” edo “*outdoor learning*” delakoarekin). Dewey-k berak (1916: 299) hala zioen: *“Eskolako ikasketak jarraitu egin beharko luke handik kanpo. Bien artean joko libre bat egon beharko litzateke. Hori posible izateko, kontaktu puntu asko izan behar dira bataren eta bestearen interes sozialen artean. Asma genezake eskola bat, non nagusi izango diren laguntasun espiritua eta jarduera partekatua, baina bizitza soziala monasterio baten parekoa duena. Kezka eta ardura soziala garatuko lituzke, bai, baina ez lirateke erabili ahal izango kanpoan; ez lukete ezertarako balio izango. Bide horretan dabil herriaren eta unibertsitatearen arteko betiko banaketa ezaguna, baita itxialdi akademikoa lantzea ere [...] ingurune sozialarekin konektaturik ikastea premia eta saria da, baina hala ez izateak isolatu egiten du eskola; eta isolamendu horrek ondorioztat dakar eskolako ezagutzak bizitzan aplikatzeko ezintasuna eta, ondorioz, ezagutza horiek antzuak izatea”.*

Izan ere, ikasketa esperientzialaren gakoetako bat lekua edo testuingurua bera da (*non* ikasten den), horrek era berean baldintzatu egiten baititu bai edukia (*zer* ikasten den) eta bai modua ere (*nola* ikasten den), beti ere aukera eman dezan testuinguruan kokatutako hezkuntza prozesu aktibo, konstruktibo, autentiko eta sozial bat garatzeko. Ikasteko leku edo testuinguru hori da, hain zuzen ere, “ikasgelaz kanpoko ikasketak” duen dohain (eta balio erantsi) handienetakoa, ikasgela barruko eskola eredu tradizionalarekin alderatuta.

Gaur egun, badirudi gero eta aitortza eta onespren handiagoa ematen zaiela ikasgelaz kanpoko jarduerari irakaste-ikaste prozesuaren osagai gisa. Gure ohiko erreferentzia markoaz bestelako lekuetan gertatzen den ikasketak geure buruaz pentsatzen duguna eta pentsatzeko modua ere aldatu ditzake.

Aurreko azpiataletan aipatu da, nahiz laburki izan den, hezten laguntzeko xedez ikasgelaz kanpoko jarduerak erabiltzea eta garatzea elementu bereizgarri eta funtsezkoa izan zela Kurt Hahn-en lanean; askorentzat, Kurt Hahn da ikasgelaz kanpoko hezkuntza esperientzialaren “aita”. Berritasun gisa, Kurt Hahn-ek *“garrantzi handia eman zion ingurune naturalari ikaslearentzako ikasteko eszenatoki esperientzial gisa, erronka handia baitakar ziurgabetasunez, mugez eta bizipenez betetako espazio batek, ‘ikasgelaz kanpoko’ ikasgela batek”* (Pardo eta García-Arjona, 2015).

Historian zehar, mende luzez, eskola ugari ahalegindu izan dira beren programan elementu esperientzialak txertatzen, baina denen artean nabarmentzekoak dira Kurt Hahn-ek bultzaturiko *Salem* eskola, 1920an Alemanian sortua, eta geroagoko “*Outward Bound*” zelakoa, 1941ean sortua; bi horien funtsezko oinarria ikasketa esperimentalak izan baitzen⁹⁷. Alemaniako gobernuak, 1926ko “*Hadow Report*” zelakoan, argi gomendatu zuen lehen eta bigarren hezkuntzako eskolek, osagarri gisa, ikasgelaz kanpoko jarduerak eta esperientziak izan beharko zituzketela, alderdi eta metodo tradizionaletan soilik zentratu gabe. Handik sortu zen, gerora, “*Outward Bound*” edo “Abendura Eskola” zelakoa (autore askorentzat, hura izan zen hezkuntza esperientzialaren mugimenduaren abiapuntua, eta “*outdoor training*”-arekin loturik zuzenekoena zuena). Kurt Hahn-ek Platon-en hezkuntza idealen eragin handia zuen, batetik; eta, bestetik, esperientziari eta terapia esperimentalari ematen zien garrantzia Pestalozzi eta Dewey autoreengandik zetorkion. Hahn-ek “*Outward Bound*”-en proposaturiko lan metodologia berritzaile hura azkar batean zabaldu zen mundu osoan eta ikasketa esperientzian funtsaturiko programa ugari sortu ziren. Hahn-ek proposaturiko esperientziak landa eremuan garatzen ziren; eta halako moldez egituratzen ziren non parte-hartzaileek beren barruko baliabideak deskubritu eta ulertu behar izaten baitzituzten; parte-hartzailea etorkizunean arituko zen ingurunearen antzeko testuinguru bat diseinatzen zen nahita; eta abentura esperientziak hartzen zituzten oinarriztat, helburu jakin batzuk lortzeko bitarteko gisa (sarritan, espedizio luzeak egiten zituzten, egun bat baino gehiago irauten zutenak). “Aire zabaleko eskolan” Hahn-ek bilatzen zituen helburuen artean, hona zenbait: norbere buruaren ezagutza eta auto-konfiantza areagotzea; talde lana hobetzea; zuzendaritza abileziak eta balioak garatzea, hala nola errespetua eta elkartasuna; erantzukizuna sendotzea, etab. Horretarako, irakasleak etengabean pentsatzen jardun behar zuen nola eraman zezakeen ikasgela ikasgelatik kanpora, ikasleak martxan jartzeko eta txunditzeko, esperientzia bat zuzenean biziaraziz (James, 1995a,b, 2000; Reinoso, 2007; Veevers eta Allison, 2011).

Horiek horrela, Bigarren Mundu Gerra ostean hezkuntza fokapen hori Ingalaterran ere finkatzen joan zen, baita, geroago, 1960. hamarkada hasieran, AEBn ere. 1971n, AEBko “*Outward Bound*”-en ziharduten irakasle batzuek “*High School of Massachusetts*”

⁹⁷ *Salem*-eko ikasleen hezkuntzan, funtsezkoak ziren jarduerak esanguratsuak, intelektualak, espiritualak eta praktikokoak. Besteren artean: goizero korrika egitera ateratzen ziren, eguerdian gimnasia egiten zuten, proiektu indibidualak egiten zituzten, astean birritan eskolako baserrian lan egiten zuten, metal eta zurarekin ere lan egiten zuten, eskolako suhiltzaile sailean ere aritzen ziren, etab. Ikasgelaz kanpoko jarduerak ere bazituzten: itzuliak txirinduan, mendira joan, landan paseatu, txangoak inguruko bazterretan, etab. Jarduera horietako batzuek egun batetik gorako iraupena izaten zuten (Veevers eta Allison, 2011).

sortu zuten, “*Project Adventure*” izeneko: ikasketa programa bat zen, esperientzian oinarritua eta ikasleei zuzendua. Hiru urte geroago, laguntza federala tarteko, programa hori AEBko beste hainbat eskolatara ere zabaldu zen, arrakasta handiz zabaldu ere. 1970. hamarkadan barrena halako kurtsoak eta programak ospea hartzen joan ziren administrazioko enpresa eta organizazio ugarritan. Gaur egun, AEBn naturan bertan xede horrekin propio eraikitako 10.000 parke inguru daude. Europan, ekimen horiek aurrera eramateaz gehienbat arduratzen den erakundea “*European Institute for Outdoor Adventure Education and Experiential Learning*” delakoa da. Parke horietan, hainbat enpresa multinazionalak (Toyotak, Dupont-ek, Coca-Colak eta beste hainbatek) entrenamendu esperimentalerako programak erabili izan dituzte heziketa eta prestakuntza tresna bezala, organizazio barruko klima hobetzeko, lidergorako abileziak garatzeko, etab. (Reinoso, 2007).

Aurrekoarekin loturik, aipagarria da, halaber, Kurt Hahn izan zela ABC (*Adventure Based Counseling*) deritzan heziketa programaren oinarrian dagoen metodologiaren aitzindaria. Programa edo eredu horrek talde lanean aritzen irakasten du, taldearen batasuna eta kideen arteko ulertzea areagotuz, baita partaideen auto-estimua eta lidergo prozesuak ere. Metodologiak oinarritzat hartzen ditu hala jokoak, nola ingurune naturalean garatzen diren jarduerak eta ebazten diren arazoak, beti ere hezkuntza esperientziala gidari izanik. Eredu honetan lortu izan diren emaitzek erakusten dutenez, lidergorako gaitasuna indartzea lortzen da, baita konfiantza ere, eta komunikazioak eta gatazkak ebazteko abileziek hobera egiten dute (Anglada-Monzón, Tejero-González eta Ruiz-Barquín, 2012).

Robinson-en (2013: 37) hitzetan, ikasketa esperientziala da “*zuzeneko esperientzia batez bidez testuinguru autentiko batean gertatzen den ikasketa*”. Autore horren iritziz, historian barrena ikasgelaz kanpoko hezkuntzak ez du ia batere arretarik bildu izan eta ez da aintzat hartua izan eskola curriculumetan. Segur aski, hori hala izan da, ez delako metodologia sendo, planifikatu eta egituraturik izan irteera horiek gauzatzeko, edo, besterik gabe, jarduera horiek eskola barrutiaz kanpo jazotzen direlako, eskola “formalaren” mugez bestaldean, ohiko hezkuntza testuinguruan behatu daitezkeen praktikatik at.

Dena dela, zientzia modernoak, gaur egun, “landa irteera” horiek funtsezko praktika edo prozeduratzat hartzen ditu ezagutzak eraikitzeko, Pulgarín, Cruz eta Sepúlveda (1998) autoreen aburuz. Ikerketa parte-hartzailerako prozesu bat da, baita elkarlanean eta dinamikoki ikasteko prozesu bat ere, zeinetan ikerketa lana giltzarri baita. Landa

irteerak modua ematen du ezagutza berriak erdiesteko, gauzak beste era batera ikusteko, beste era batera ikasteko, zentzumen guztiekin eta talde osoak parte hartuta. Gainera, aukera ematen du komunitate edo gizarte jakin bateko kide/partaide sentitzeko eta kidesun hori lantzeko. Bide ematen du, halaber, ikasgelan —literatura zientifikoan oinarrituta— emandako informazio edo eduki teorikoak informazio objektiboarekin, mundu errealekin kontrastatzeko.

Literatura espezializatuak arreta hazkorra jarri du ikasgelaz kanpoko ikasketaren baliagarritasunean eta balioan (nahiz eta deitura askotarikoak erabili dituen hari aipu egiteko: “landa praktika”, “eskola txangoa”, “eskolaz kanpoko hezkuntza bisita”, “landa irteera”, “bisita tekniko”, “irteera pedagogikoa”, “ibilbide didaktikoa”, “eskola ikerketarako irteera”, “*field trip*”, “*study tour*”, “hezkuntza turismoa”, “turismo pedagogikoa”, eta abar) (Beames, Atencio eta Ros, 2009; Behrendt eta Franklin, 2014; Bergsteiner eta Avery, 2008; Braund eta Reiss, 2004; Capó-Vicedo, 2010; Dillon, Rickinson, Teamey, Morris, Choi, Sanders eta Benefield, 2006; García eta Foronda, 2010; Kisiel, 2006; Millan, 1995; Morcillo, Rodrigo, Centeno eta Compiani, 1998; Nabors, Edwards eta Murray, 2009; Pulgarín et al., 1998; Rickinson et al., 2004; Ritchie, 2003; Romero, 2010; Stainfield, Fisher, Ford eta Solem, 2000; Travé, 2003; Waite, 2011; Çengelci, 2013). Sintesi gisa, Rickinson *et al.* (2004) adituek, adibidez, berrikusketa lan eskerga egin zuten ikasgelaz kanpoko ikasketa esperientzien **onuren** berri biltzeko: zuzeneko ezagutza izatea, mundu erreala hobeto ulertzea, inguruko komunitatea hobeto ezagutzea eta gehiago estimatzea, emaitza akademiko hobeak lortzea, interes eta motibazio handiagoa izatea, ikasgela barruko ikastorduen monotonía etetea, behaketa eta pertzepzio multisentsoriala egiteko abileziak hobetzea, bizi garen espazioaren ezagutza esanguratsuagoa izatea, jarrera aldaketa positiboak eragitea (errespetua, balioespena), abilezia kognitibo eta sozialak garatzea, funtsik gabeko aurreiritzi eta errezeloak desagerraraztea, taldearen sozializazioa areagotzea, ikerketa lanerako gaitasunak hobetzea, ikasleen eta irakasleen inplikazioa goratzea, ikasgelan ere parte-hartze aktiboa sustatzea, irakaslearekiko mendekotasun gutxiagorekin aritzea talde lanean nahiz bakar lanean eskola orduetatik kanpo, ikasgelaz kanpoko egindako irteerak eta bisitak urte luzez gogoratzea, etab.

Nolanahi ere, autoreek nabarmentzen dutenez, irteera edo bisita egite hutsak ez du, besterik gabe, ikasketa esanguratsu eta eraginkorrik bermatzen. Horregatik, oso garrantzitsua da, **irteera didaktikoa egin baino lehen**, prestakuntza eta planifikazio lana egitea. Eta ohartarazten dute ez dela komeni ikasleei jarduera/ariketa lar egituratu eta formalik ezartzea (eraginkorragoak omen direlako zuzeneko bizipena

eta hartu-eman askea). Era berean, funtsezkoa da **irteera didaktikoa egin eta gero** ere zenbait zeregin burutzea, hausnarketaren bidez, eztabaiden bidez, irakurketen bidez, bideoak ikusiz, etab., ideia eta ezagutza berriak argitzeko, indartzeko, errotzeko eta ebaluatzeko.

Esandakoaz aparte, ikasgelaz kanpoko ikasketaren inguruko literatura zientifikoaren arabera, irteera didaktikoak egiteko **zailtasunak** edo **oztopoak** ere, izan, badira: kezka edo beldurra, osasun edo segurtasun falta eta bestelako arriskuak direla eta; irakasleen beraien konfiantza eta eskarmentu falta ikasgelatik kanpo irakasteko; eskola curriculumaren eskakizun zurrunak; denbora eta bestelako baliabide mugak; garraioarekin eta logistikarekin loturiko arazoak; ardura edo zalantza, ikasle parte-hartzaileen jokabidea egokia izango ote den, etab.


Sulaiman, Mahbob eta Azlan (2010: 12-13) autoreek honela definitzen dute ikasgelaz kanpoko ikasketa: *“ikasleak ikastera motibatzen dituen testuinguru berezi batean kokatzen dituen metodo bat da; testuinguru berezi hori ikasgelaz kanpo dago, non egoki antolaturiko eta egituraturiko programa edo jarduera bat burutzen baitute”*. Jarduera horrek ikaslea hartzen du ardatz eta helburutzat du ikasketa kontzeptu partikular bati dagokion curriculum indartzea eta errotzea, ikasketa progresiboa ahalbidetzen duen ingurune batean. Hiru arlo ditu: ezagutza, jarrera eta abilezia; eta helburu hauek xerkatzen ditu: (1) ikasleak klasean ikusitako kontzeptuak hobeto ulertu ditzala; (2) ikasketa esperientziak eskaintzea, bizitza errealeko egoeretan; (3) ikasketa ulergarriagoa, esanguratsuagoa eta atseginagoa bihurtzea; (4) ikasleei pentsatzen eta ezagutza jakin batzuk menderatzen uztea, testuinguruan kokaturiko esperientzien bitartez; (5) ikasleek ikasketarekiko duten interesa handitzea eta jarrera hobetzea; (6) ikasleen abilezia sozialak eta talde lanerako gaitasunak areagotzea; (7) datuak eta informazioa biltzeko, prozesatzeko eta analizatzeko abileziak garatzea; eta (8) ikasleen baitan eta haien artean balio zintzoak lantzea. Autoreek ikerketa bat egiten dute zehazteko zein komunikazio teknika izan daitezkeen eraginkorrenak ikasgelaz kanpoko irakaste-ikaste testuinguruan. Ikerketan hiru aldagai aztertzen dituzte: kontzentrazioa ikasketan, asetasuna ikasketan eta kalitatea ikasketan. Emaitzak honako hauek dira: ikasteko kontzentrazioari dagokionez, gure gustukoa den pertsonarekin ikasteak lortzen du puntuazio handiena. Bestalde, ikasketan izandako asetasunari dagokionez, irakaslearen komunikazio abileziek lortzen dituzte puntu gehien. Azkenik, ikasketen kalitateari dagokionez, ikasteko giro atsegin edo lagunkoia da puntu gehien lortzen dituen kontzeptua. Ondorioztatzen dute, beraz, ikasgelaz kanpoko ikasketa oso

elementu garrantzitsua dela ikaslearen kontzentrazioa eta ikasketarekiko asetasuna areagotzeko.

Pulgarín et al. (1998) autoreen iritzirako, landa irteeren bidez lortzen da informazio zientifikoa “hizkuntza arruntera” itzultzea; gainera, aurrez aurre jarri eta erkatzen dira pentsatzen duguna, idatzita dagoena eta sentitzen duguna. Landa irteera, hala, ezagutza eraikitzeke estrategia didaktiko bat da, zeinaren bidez ingurunea hobeto ulertzen baita eta, modu bizi eta gustagarrian, hainbat kontzeptu barneratzen, ulertzen eta interpretatzen baitira. Autoreek beren lanean aipatzen duten legez, leku asko eta askotarikoak har daitezke landa irteera eta landa lana egiteko jomuga eta kokaleku: errekak, basoak, lantegiak, museoak, etab. Dena dela, ikasgelako proiektuak proposaturiko gaiaren arabera aukeratu behar da landa irteera (bestela, paseo edo txango hutsa izango bailitzateke). Irteera edo bisitaren plangintza arreta eta ardura handiz egin behar da, aintzat har ditzan hainbat eta hainbat ikasketa esperientzia, bai **irteera baino lehen** egitekoak (gaiari hurbilpen kontzeptuala egiten zaio, eta irteeran jarraitu beharreko ibilbidea eta programa definitzen dira); bai **irteera egin bitartean** aurrera eramatekoak (beharrezkoa den informazioa biltzen da, eta kontzeptu-gakoak egoki garatzean eta eraikitzean jartzen da arreta); eta bai **irteera egin ondoren** burutzekoak ere (lorpenak eta emaitzak ebaluatzen dira, lanen aurkezpenean oinarrituta). Garrantzitsua da irteera pedagogikoan bildutako informazioa sistematizatzea. Irteeran landu beharreko gaiaren sakontasuna definitzen da taldearen mailaren, motibazioaren eta ezagutzen arabera eta aurreko plangintzan zehaztutako helburuen arabera. Irteera pedagogikoek honako alderdi hauek bultzatzen dituzte, besteak beste: i) eskolaren proiektzioa komunitatean; ii) taldearen sozializazio handiagoa; iii) ikaslearen sentikortasuna ingurunearekiko eta baliabideen erabilerarekiko; eta iv) irakaste-ikaste metodo ezberdinak bateratzea errazten eta dinamizatzen du.

Era bertsuan, Braund eta Reiss (2004) autoreek ere, *Learning Science Outside the Classroom* obra handian, ikasgelatik kanpo egindako hainbat praktika didaktikoren berri jasotzen dute: museoetan egindakoak, gune zientifikoetan, planetarioetan, zoologikoetan, landa eta baserrietan, lorategi botanikoetan eta, are, **industria fabriketan**. Autore horiek, gainera, ikasgelaz kanpoko ingurune informalean ikasteko eredu “kontestual” bat planteatzen dute (II.1.13. irudia). “Informal” izate horrek aldean dakar ikasleek nolabaiteko askatasun tarte bat izatea eta erabakitzeke aukera izatea, zer egin hautatzeko, zer eta nola ikasi erabakitzeke, arreta zertan zentratu, zenbat denboran aritu, zenbateko esfortzua egin...

II.1.13. irudian ageri denez, elkarren gainean jarrita dauden hiru testuingurutan oinarritzen da eredu. Hiru testuinguruok eragina dute ikaslearen murgiltze edo inplikazioan, eta, hedaturaz, azken buruan, eragina dute, baita ere, ikasleak bere esperientziatik eskuratzen duenaren kantitatean eta kalitatean. Ikasgelaz kanpoko esperientziak ingurune informaletan gertatzen dira, non hiru testuinguruak teilkatu egiten baitira ikaslea ikasteko atmosfera berrietan murgilarazteko; horrela, atmosfera horietan “zientzia bizirik dago” bere berezkoa lekuan, dagokion leku naturalean, eta ikasleek “ikasketa komunitate” kooperatiboak eratzen dituzte.



II.1.13. irudia: Ikasgelaz kanpoko ingurune informaletan ikasteko eredu “kontestuala”

Iturria: Braund eta Reiss (2004: 7).

Irakasle askok uste dute irakaste-ikaste prozesua gauzatzeko modu berriak bilatu behar direla eta, ikaslearen gaitasunak garatzeko xedez, aukera egokia dela metodo gisa ikasgelaz kanpoko esperientziak aintzat hartzea (irakaskuntza tradizionala osatzeko eta aberasteko). Ildo horretan, bada mugimendu garrantzitsu bat, 2006 urtean Erresuma Batuan agiri edo adierazpen entzutetsu bat plazaratu zuen: “*Learning Outside the*

Classroom Manifesto” (Department for Education and Skills - DfES, 2006). Manifestu hori, argitaratuaz geroztik, milaka erakundek eta gizabanakok izenpetu dute. Helburu du ikasleek ikasgelaz haragoko mundua beren kabuz eta benetan “esperimenta” dezatela, beren ikasketa eta garapen pertsonalerako funtsezko osagai gisa, eta beren adina, abileziak eta inguruabarrak edozein izanik ere. Manifestuaren arabera, ikasketa esperientzia horiek sarritan “*gogoangarrienak*” izaten dira, lagundu egiten digutelako inguratzen gaituen munduari zentzua bilatzen, eta sentitzen/hautematen dugunaren eta ikasten/ulertzen dugunaren artean loturak ezartzen (Waite, 2011).

Manifestuaren definizioaren arabera (DfES, 2006), ikasgelaz kanpoko hezkuntza da “*ikasgelaz bestelako lekuak erabiltzea irakasteko eta irakasteko*”. Ez dio aipamenik egiten ikasketa espontaneoari, hots, programatu gabe gizabanako batek jaso dezakeen ikasketari. Aitzitik, aipamena egiten dio hezkuntza ulertzeko eta egikaritzeko modu berezi bati, zeinak helburu baitu “*esperientzia errearen potentziala baliatzea, ikastetxearen hormetatik harago, ikasketa sustatzeko. Ikasketa molde honekin identifikatzen diren iritziz, garrantzitsua ez da soilik zer ikasten dugun; nola eta non ikasten dugun ere garrantzitsua da*”. Manifestuaren egileek diotenez, irakaskuntza ikasgelaz kanpoko esperientzietan oinarritzen denean, inguruko estimuletatik abiatuta ikasteko gaitasuna sustatzen da gizabanakoengan. Hortaz, **ikasten ikasteko** gaitasuna sustatzen da, egun hainbesteko garrantzia ematen zaion hori. Manifestuak dakarrenez, hezkuntzaren eremuko ikerlan askoren arabera, ondo diseinatu eta garaturiko irteerek nabarmen areagotzen dute klaseen balio hezigarria, metodo eta baliabide tradizionalen bidez nekez ulertzen diren kontzeptuak errazago ulertzen laguntzen dute, eta testuinguruan kokaturiko ezagutza integratzailea garatzea ahalbidetzen dute, irakasgaiek artifizialki inposaturiko mugen gainetik. Halatan, Romero (2009: 97-100) autorearen hitzetan, ikasgelaz kanpoko esperientzia gogoangarri horiek “*gure baitan irauten dute bizitza osoan zehar eta eragin egiten diete gure jokabideari, gure bizitza estiloari eta gure lanari. Eragin egiten dute gure balioetan eta hartzen ditugun erabakietan. Ezagutzak transferitzen uzten digute ikasgelatik gure esperientziara eta gure esperientziatik ikasgelara*”.

Manifestu horren arabera, honako hauek dira ikasgelaz kanpoko ikasketarekin loturiko onurak (DfES, 2006):

- Errendimendu akademikoak hobera egiten du.

- Goi-mailako ikasketa sustatzeko aukerak ematen ditu; egitura kognitibo konplexuak garatzen ditu, kontzeptuen arteko konexioak egitea ahalbidetzen dutenak.
- Independentzia eta buruaskitasuna lortzen laguntzen du, baita testuinguru askotarikoetan egoki moldatzen ere, hainbat estimuluri erantzunez.
- Ikasleak murgilarazten eta konprometitzen ditu beren hezkuntza prozesuan eta haien motibazioa areagotzen du.
- Ingurunea balioesteko eta zaintzeko sentimenduak bultzatzen ditu eta herritar konprometituak hezten ditu.
- Jakin-mina eta sormena akuilatzen ditu, jarduera edo arazo irekietan parte hartzearekin lotura dutenak.
- Lagundu egiten du testuinguruan kokaturiko ezagutza integratzailea garatzen, ideiak erlazionatzen eta irakasgaiek edo materiek artifiziarki inposaturiko mugak gainditzen.
- Jokoen bidez ikasketa informalak garatzeko aukera ematen du.
- Jokabide arazoak murrizten ditu, integrazioa areagotzen du eta absentismoak behera egiten du.
- Garatu egiten du ziurgabetasunarekiko tolerantzia eta areagotu egiten du egoera berriei aurre egiteko gaitasuna.
- Erronka interesgarriak eskaintzen ditu eta ikasleei laguntzen die arrisku-maila arazoizko bat bere gain hartzen.
- Haurrek eta gazteek ikasketaren aurrean duten jarrera hobetzen du.

Bestalde, manifestuan ezartzen diren helburuak ondorengo hauek dira (II.1.11. taula) (DfES, 2006; Romero, 2010):

II.1.11. taula: Ikasgelaz kanpoko ikasketaren aldeko manifestuaren helburuak

1. Ikasgelaz kanpoko ikasketa esperientzia asko eta askotarikoak eskaintzea ikasleei.

Bai ikasgelako ikasketa osatzen eta aberasten duten irteerak eta jarduerak, eta bai hezkuntza egonaldiak ere (beste ikastetxe batzuetan, kanpamentuetan, etab.). Ikasketa esperientzia horiek halakoak izan behar dira: nabarmenak, motibagarriak, ikasleen premiak eta interesak ase behar dituzte, esperimentazioaren eta praktikaren bidez ikasteko aukera eman behar dute, abileziak progresiboki garatzen utzi behar dute, oinarrizko trebetasun pertsonalak garatzea sustatu behar dute, modu autonomoan ikasteko gaitasuna bultzatu behar dute, ikerketaren bidez ikastea sustatu behar dute, pentsamendu kritikorako abileziak garatu behar dituzte eta ikasgelan landutako edukiak hobeto ulertzen lagundu behar dute.

2. Ikasleentzat ikasgelaz kanpo ikasteak duen balioa ezagutaraztea eta horren aitorpena bultzatzea eta zabaltzea.

Horretarako, ikasgelaz kanpoko irakaskuntza hobetzeko ikerketa bultzatzen da eta gizarteari bere osotasunean esaten zaio zein diren horren onurak.

3. Kalitate handiko ikasketa esperientziak eskaintzea.

Xede horrekin eskaini nahi dira ondo diseinaturiko, planifikaturiko eta irakasleek egoki zuzendu eta gidaturiko ikasketa esperientziak. Hortaz, egiaztatu egin behar da proposaturiko ekimenak kalitate handikoak direla, benetan kontzeptuak hobeto ulertzen eta ezagutzen laguntzen dutela esperientzia aurretik eta ostean, eta abileziak eta balioak garatzea ahalbidetzen dutela. Tokiko agintarien babesa eta laguntza izateko estrategiak garatu behar dira, esperientzien kalitatea eta efektuak ebaluatu ditzaten.

4. Irakasleak heztea, halako ekimenak aurrera eramateko gai izan daitezen.

Alde horretatik, irakasleei laguntza eman behar zaie halako irteera didaktikoak ahalik eta modu eraginkorrenean gauzatu ditzaten: babesa eman behar zaie gai eta seguru sentitu daitezen, prestakuntza kurtsoak eskaini behar dira, ikastetxe eta hezkuntza erakundeekin lankidetzan aritzea prestakuntza programen kalitatea eta bideragarritasuna handitzeko.

5. Eskolei eta irakasleei laguntza ematea eta beharrezko zaizkien bitartekoak eskuratzea, bisita egiten duten guztien segurtasuna bermatzeko.

Alde horretatik, segurtasun gidak egiten dira, jarraibide argiak eta erraz aplikatzekoak eskaintzen dituztenak; horrez gain, irakasleei materiari buruzko ezagutza espezializatuak ematen zaizkie, eta mekanismo argi eta erabilgarriak ezartzen dira parte-hartzaile guztien segurtasuna bermatzeko.

6. Eskolei eta hezkuntza agintariei baliabideak eta informazioa ematea, lehenago aipaturiko neurriak abian jartzeko (aurreko helburuarekin lotuta dago).

Helburu hori irteera didaktiko bat prestatzeko baliagarria izan daitekeen edozein informaziori dagokio. Manifestuak dioenez, zenbait instituzio pribatu eta zenbait tokiko agintari elkarlanean ari dira halako jardueretan, baliabideak ez bikoizteko eta alferrik galtzeko, eta behar duen orori informazioa helarazteko.

7. Familiaren, zaintzaileen eta hezkuntza komunitate osoaren inplikazioa bultzatzea, ikasgelaz kanpoko jarduera hauetan.

Agente horiek guztiek ahalmen handia dute jarduera horietan laguntzeko; areago, haien laguntzarik gabe, nekez gauzatu ahal izango liriateke. Agente horien inplikazioa lortzeak indartu egiten du komunitate zentzua, ezagutzaren eraikitze partekatua sustatzen du eta errotu egiten ditu ikasgelaz kanpoko ikasketaren balioa eta aitorpena. Horretarako, irteera didaktikoez dakartzaten hezkuntza onuren berri zabaldu beharko litzateke, ekimen horien potentziala zein den ezagutarazteko eta hezkuntza eremuko agenteen parte-hartzea sustatzeko, haien ekarpenaren garrantzia azpimarratuz eta gida eta jarraibide lagungarriak argitaratuz.

Iturria: Department for Education and Skills (2006).

Manifestuaz geroztik, Erresuma Batuak —*Office for Standards in Education, Children's Services and Skills* (Ofsted) delakoaren bidez— txosten bat argitaratzen du aldian behin; han, ebaluatu egiten da ikasgelaz kanpoko ikasketak lehen eta bigarren hezkuntzako eskoletan eta ikastetxeetan duen garrantzia. Txostenean, ikasketa mota hori praktikan jartzearen indarguneak eta ahulguneak identifikatzen dira, baita haren arrakasta mugatu dezaketen oztopoak ere. Azkenik, eredu batzuk ere proposatzen dira, beste zenbait eskolak eta ikastetxek indarrean jar ditzaten. Txosteneko ondorioak ateratzeko, ikasgelaz kanpoko ikasketa indarrean duten eskolak eta ikastetxeak

inkestetzen eta elkarrizketatzen dituzte. Hona hemen emaitzarik behinenak (Ofsted, 2008):

- Ikasgelaz kanpoko ikasketak, ondo planifikatu eta gauzatzen bada, hobekuntza nabarmena eragiten dio ikasleen garapen pertsonal, sozial eta emozionalari.
- Ikasketa arrakastatsuagoa da epe luzeko curriculum plangintzaren osagai integral bat denean eta ikasgela jarduerekin estuki lotuta dagoenean.
- Inkestako lehen hezkuntzako eskolek hobeto erabiltzen dituzte beren instalazioak eta inguruko baliabideak, bigarren hezkuntzakoekin alderatuta.
- Hainbat irteerak eta bisitak ez dute ikasketa helburu argirik eta ez daude behar bezala integraturik ikasgelako jarduerekin. Hori gertatzen da gehienbat lehen hezkuntzako eskoletan.
- Eskola eta ikastetxe gehienek ez dituzte ebaluatzen ikasgelaz kanpoko ikasketaren efektuak, ezta ikasleen jarduerak eta zereginak kontrolatu ere. Hortaz, ezin dira ebaluatu esperientzia horien eraginkortasuna, integrazioa eta kalitate-prezio erlazioa.
- Eskolek eta ikastetxeek gogor eta arrakastaz lan egiten dute ikasgelaz kanpoko ikasketak dituen oztupoak gainditzeko (tartean dira osasunarekin eta segurtasunarekin loturikoak, ikasleen jokabidearekin loturikoak eta irakasleen lan zamarekin loturikoak).
- Eskolek eta ikastetxeek tokiko agintarien laguntza baliotsua jasotzen dute, osasun eta segurtasunarekin loturiko eskakizunak betetzeko. Ordea, esperientzia horietatik lortutako ikasketaren kalitatea segurtatzeko laguntza mugatua jasotzen dute.

Horrezaz aparte, txostenak nabarmentzen du ezen ikasgelaz kanpo ikasteak eskaintzen dituen zuzeneko eta "lehen eskuko" esperientziei esker, gaiak biziagoak eta interesgarriagoak izan daitezkeela ikasleentzat eta haien ezagutza eta ulermena hobetzen lagundu dezaketela, errendimendu akademikoa goratzearekin batera. Eta esperientziok lagundu dezakete ikasleak maila pertsonal, sozial eta emozionalean garatu daitezen. Inkestetan parte hartutako ikasleek diotenez, oso gogoko dute ikasgelaz kanpo lan egitea. Diotenez, esperientzia "*zirrargarria*" da, "*praktikoa*", "*motibagarria*", "*freskagarria*" eta "*dibertigarria*". Honako iruzkin hauek egiten dituzte (Ofsted, 2008):

- ✓ "*Ikusi egiten duzu, entzun beharrean*".
- ✓ "*Modu dibertigarrian ikasten dugu*".

✓ “*Eginez ikastea gustatzen zaigu*”.

Inkestan oinarrituta, begien bistakoa da ezen ikasgelaz kanpoko ikasketak ekarpen nabarmena egin diezaiekeela ikaslearen etorkizuneko ongizate pertsonalari eta profesionalari; beren bizitzako hurrengo etaparako prestatzen ditu. Leku bereziek esanahi berezia izan dezakete eta sakontasun handiagoa eman diezaiekete esperientziari eta ikasketari. Lehen urteetako hezkuntzarako curriculum jarraibideek diotenez, komenigarria da, ahal denean, barneko eta kanpoko inguruneak lotzea, haurrak askatasunez ibili daitezen batetik bestera. Bisiten alderdi erakargarri eta adierazgarrienetako bat da haurrak ondo portatzen direla, motibatuta eta jarrera aktiboz baitaude.

Aurrez esana denez, halako proiektu berritzaile bat ezartzeko eta dagokion esperientzia arrakastaz gauzatzeko, hainbat elementu hartu behar dira kontuan: horietako batzuk dira motibazioa edo arrazoa zein den ezartzea, helburuak zehaztea, gaia definitzea, metodologia finkatzea eta emaitzak ebaluatzea. Horiez gain, ordea, ezin garrantzitsuagoa da, jakina, esperientzia *non* egin nahi den zehaztea. Ikasgelatik at irtetea erronka motibagarria da, bere horretan, ikaslearentzat. “*Esperientzia hori, gainera, ezohiko ingurune batean gertatzen bada, bidearen zati handi bat eginga izango dugu. Museo bat, parke teknologiko bat, unibertsitate instalazio nabarmen bat, kalea edo ingurune naturala eszenatoki ezin hobeak izan daitezke*” (Coterón eta Gil, 2015: 121).

Chisholm et al. (2009) autoreek eredu teoriko bat ezartzen dute ikasketa esperientziala ezaugarritzeko eta testuinguruan kokatzeko, eta aplikatu ere egiten dute, oinarritzat hartuta lanean edo praktikan zer nola eraikitzen den ezagutza. Autoreek defendatu egiten dute errealitatekin izandako interakzioak duen potentziala ezagutza berriak sortzeko; izan ere, diziplina anitz hartzen dituen testuinguru konplexu batean galderak egiteak ikaslea prozesu kognitibo sakonagoetan murgilarazten du eta, ondorioz, ikasgela barrukoak baino ikasketa sakonagoak erdiesten ditu. Autoreon irudiko, ezagutzak eskuratzen eta eraikitzen dira egunean zeharreko askotariko jardueren bidez eta testuinguru ezberdin anitzetan. Horregatik, bada, uste dute ikasketa testuinguru zabalduta egin beharko litzatekeela eskolatik, etxetik eta lantokitik kanpora, barruti horiez haragoko jarduerak gehituta. Autoreon iritziz, gainera, ikasleek testuinguru formaletatik at ere ikasi egiten dute etengabe, ingurunearekin dituzten esperientzien eta interakzioen bitartez; eta hortik eratortzen dute oso baliagarria eta eraginkorra izan litekeela ikasgelaz bestelako giro batzuetan garatzen diren ikasketak eta metodologiak

aztertzea. Alde horretatik, gero eta gehiago eta gero eta adierazgarriagoak dira, adibidez, “ikasketa ingurune autentikoen” (“*authentic learning environments*” direlako) balio didaktikoi buruzko ikerketak (Herrington, Reeves eta Oliver, 2014; Morgan eta Cox, 2012; Smeds, Jeronen eta Kurppa, 2015; Gulikers, Bastiaens eta Martens, 2005; Cobo Romani y Moravec, 2011).

Nolanahi ere, lehenago ere aipatu den legez, ikasgelaz kanpo irteera bat egiteak edo esperientzia bat izateak ez du, besterik gabe, ezagutza eraikitzen denik bermatzen. Romero-ren (2009: 95) aburuz, zenbait ezaugarri edo baldintza dira beharrezko, ikasgelaz kanpoko irteera bat eraginkorra eta hezigarria izan dadin:

- ◆ Gakoetako bat ikasketa esperientzial hori garatzeko aukeratzen den **lekua** da; lortu nahi diren hezkuntza helburuek zehaztuko dute zein leku aukeratu. Sarritan, horrek berorrek balio erantsi bat dakarkio *per se* ikasgelako ikasketari. Bestelako testuinguru batean gertatzeak aldean dakar askotariko pizgarritz aberasturiko esperientzia bat izatea. “*Hortaz, irteera didaktikoen ezaugarria ez da soilik ikasleek ikasteko duten interesa eta jakin-mina akuilatzea, beren ikaste prozesuan murgilaraziz; horrez gain, testuinguruan kokaturiko ezagutza bereziki esanguratsu bat eraikitzen laguntzen dute, hautematen denaren interpretazioaren emaitza gisa*”.
- ◆ Beste gako bat da **nor** den jasotzailea; izan ere, ikasgelaz kanpoko irteerak egokitu egin beharko lirатеke ikasle edo publiko jakin bakoitzaren mailara, interesetara, motibaziora eta heldutasun-mailara. Era berean, garrantzitsua da jakitea zein diren bisita edo irteera egin aurretik ikasleek dituzten ezagutzak eta gaitasunak.
- ◆ Beste gako bat da ikasgela barruko ikasketa tradizionalaren **osagarri** gisa antolatzea eta erabiltzea ikasgelaz kanpoko irteera. Beraz, zereginen artean halako oreka bat bilatu beharko litzateke, ez daitezen izan ez irekiegiak ezta zurrune giak ere. Zereginok askotarikoak izan beharko lirатеke, ikasleen ikasteko estilo ezberdinetara moldatzeko. Halaber, ahalegin du beharko litzateke ikasleek irteerari ahalik eta balio hezigarri handiena atera diezaioten eta motibaturik eta interesaturik ager daitezen.

Romero (2009), Martín Barbero (2012) eta Chisholm et al. (2009) autoreak, besteak beste, bat datoz adieraztean beharrezkoa dela gehiengoak onetsiko duen eredu bat garatzea, ikasgelaz haragoko ikasketa esperientziala ezaugarritzeko. Horrek, segur asko, irakasle tradizionalenen errezeloak eta zalantzak desagerraraziko lituzke, halako

ikasketa esperientziak baliatzeari dagokionez. Gainera, lagundu egin lezake hezkuntza formula berriak garatzen, hezkuntza eremuko eskakizun berriei hobeto erantzun ahal izateko: gaitasunak garatzea eta ikasle autonomo eta erreflexiboak bultzatzea.

Komeni da nabarmentzea, martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion literatura zientifikoa miatu dugunean, ***mota, adin, ikasturte eta materia guztietako ikasleen*** esperientzien berri jaso dugula. Horrek argi iradokitzen du ezen martxan dauden enpresak bisitatzeko hezkuntza tresna egokia eta erabilgarria izan daitekeela edozein mota eta mailatako ikasleentzat, bisitak dituen onura pedagogiko eta motibagarriak direla eta. Aipatzeko modukoa da, halaber, literaturan ***edozein motatako enpresetara*** egindako bisitak jasotzen dira, enpresen sektorea edo jarduera edozein delarik ere. Hala ere, egia da bisitaren funtsak, gidoiak eta nondik norakoek bat egin beharko luketela bisitarien profil eta interesekin. Hezkuntzarekin loturiko bisiten kasuan, garrantzitsua da bisitarien mailara eta diziplinara egokitzea (sarri askotan talde handiak izaten dira, gainera). Aurrekoarekin batera, ikasleentzat interesgarria da beren begiekin ikustea eta azalpenak jasotzea enpresako lanbideen inguruan, produkzio prozesuaren inguruan eta arlo edo sail ezberdinen inguruan, beti ere enpresarentzat estrategikoak edo delikatuak diren gaiak ondo gordeta edo babestuta.

¹²⁸ Hezkuntza kooperatiboaren ereduak txandakatu egiten ditu heziketa akademikoa eta lan esperientzia, ikaslearen helburu akademiko eta profesionalekin lotura zuzena duten eremuetan. Hainbat abantaila ditu: ikasleei aukera ematen die beren eremuan lan esperientzia eskuratzeko; ikasgelan ikasitako ezagutza teorikoak mundu errealean aplikatu ditzakete; eta enpresaburuekin harremana izan dezakete eta kontaktu sare bat ezarri, besteren artean (Tarrach et al., 2015).

Nolanahi ere, azpimarratzekoa da literatura zientifikoan aztertu ditugun lanen zenbateko handi bat **industria kimikoari** dagozkiola (Markom, Khalil, Othman eta Mohamad, 2011; Medir, Felip, Garriga, Gilbert eta Lozano, 2006; Parvin eta Stephenson, 2004; Ratcliffe eta Westin, 2000; Sandoval, Mandolesi eta Cura, 2013); itxura batean, behintzat, ematen du industria jakin horrek interes handia duela enpresaren ateak zabaltzeko eta bisitak eskaintzeko, gizarte erantzukizunerako tresna gisa, bere irudia hobetzeko eta aurreiritziak desagerrarazteko asmoz, seguru asko.

Aranguren, Etxaniz eta Monje (2012) autoreek, EHU/UPVko ingeniari-graduko irakasle diren aldetik, nabarmen aldarrikatzen dute ingeniari-graduko irakasleek ari diren ikasleek osagai elektronikoen ekoizpen prozesua ezagutzearen garrantzia. Era berean, gogor kritikatu dute mundu akademikoaren eta enpresa mundu errealeko artean gaur egun dagoen bereizketa. Ikasleak lan munduko edozein arlotan aritzeko prestatzen dituen hezkuntza mota baten alde egiten dute. Martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokionez beraiek duten esperientziaren berri ematen dute: bisitei esker, ikasleek aukera izan dute ekoizpen prozesu osoa beren begiekin ikusteko eta arlo ezberdinetako profesionalekin hitz egiteko, lan eremu bakoitzeko alderdi askotarikoei buruz. Irakasleek esanetan, ez da libururik ikasleak ezagutu beharreko guztia biltzen duenik eta, horregatik, ikasgelan egiten dena ez da nahikoa; ikasleek gauzak *in situ* ikusteko esperientzia bizi behar dute, *“eginez ikasiz”* gisako metodologia didaktikoen bidez eta adituen parte-hartzeaz baliatuz.

Era bertsuan, Fremerey eta Bogner-ek (2015: 9) burutzen duten ikerketan ohartzen dira ezen enpresetara egindako bisitak edo ingurune autentikoetan garatutako ikasketak barneratzen dituzten programetan parte hartzen duten ikasleek kognitiboki ikasten dutela (nahiz eta jarduerak gutxi iraun) eta kontzeptuak eta efektuak gogoan gordetzen dituztela sei aste geroago. Beraz, jarduera tradizionalekin lortzen dena baino **ikasketa sakonagoa** erdiesten da (ikerketan, bien arteko aldea erakusten dute). Ikasteko ingurune autentiko batean, *“parte-hartzaileek ingurune hori ikusi, entzun, usaindu eta sentitu egiten dute”* eta horrek berorrek eragiten du ondorioa biziagoa izatea eta luzaroan irautea.

Morcillo, Rodrigo, Centeno eta Compiani (1998) autoreek ikerketa enpiriko bat burutzen dute, landa praktikek natur zientzien irakaspenean duten eragina ikertzeko asmoz. Honako hau ondorioztatzen dute: diziplina horretako irakasleek oso begi onez ikusten eta biziki balioesten dituzte landa praktikak; askok funtsezkotzat hartzen dituzte ikasketarako eta hezkuntza balioak sustatzeko; dena dela, paradoxikoki, ikasturtean zehar oso bisita gutxi antolatzen eta egiten dituzte. Halaber, Orion eta Hofstein (1994) autoreek egiten duten ikerketan, landa praktiketan ikasleek ikasteko gaitasunean gehien eragiten duten

faktoreak aztertzen dituzte. Lortutako emaitzetatik abiatuta iradokitzen dutenez, harreman estua dago ikasleek irteeran ikasten dutenaren eta irteera baino lehen egin duten prestakuntzaren artean. Hala, egiaztatzen dute irteera baino lehenago hiru funtsezko faktore daudela: a) ezagutza eta abilezia maila eta motak, b) irteeraren inguruan alde zuzenetik egiten den ikasketa eta prestakuntza, eta c) prestakuntza psikologikoa.

3.3.2.- MARTXAN DAUDEN ENPRESAK BISITATZEAREN INDARGUNEAK ETA AHULGUNEAK IKASKETA ESPERIENTZIALERAKO TRESNA GISA

Makina bat autorek aztertu eta iradoki dituzte martxan dauden enpresak bisitatzearen onura pedagogikoak. Eta literatura zientifikoak ere jaso du fenomeno horren berri (Aguiar et al., 2010; Aranguren, Odriozola, Gómez, Rubina eta López Nozal, 2008; Baines, Ball, Cooper, Dawson, Wilkinson, Woords eta Kay, 2008; Campbell, Lubben eta Hogarth, 2001; Capó-Vicedo, 2010; Earle eta Thomas, 2011; Guenaga eta Hernando, 2012, 2014; Jackson, 2015; Markom et al., 2011; Medir, et al., 2006; Nordin, Ashrif, Zainal eta Husain, 2012; Parvin eta Stephenson, 2004; Ratcliffe eta Westin, 2000; Sandoval et al., 2013; Travé, 2003; Upton eta Macadam, 1997; Duke, 2000; Mitchell eta Turner, 2010; Millan, 1995; Bregman, 2011; Kisiel, 2005; Taylor, Hartman eta Baldwin, 2015; Behrendt eta Franklin, 2014; Herrington et al., 2014; Nabors, et al., 2009; Van Doren eta Bober, 2008; Camarero et al., 2009; Ormrod, 2004). Segidan, II.3.1. taulan, aipatutako autore horiek, ***martxan dauden enpresak bisitatzearen indarguneen*** inguruan, egin dituzten ekarpenik garrantzitsuenen sintesi bat jaso da, bai ikastetxeak, bai irakasleak eta bai ikasle bisitariak ere aintzat harturik.

II.3.1. taula: Martxan dauden enpresak bisitatzearen indarguneak ikastetxe, irakasle eta ikasleentzat

- Ikasgelako eguneroko errutina monotonoa hausten du.
- Aukera ematen du mundu errealean, zuzenean eta *in situ* ikasteko, hura ulertzeko eta esperimendatzeko, eta, are, hura gehiago balioesteko.
- Aukera ematen du zuzenean behatzeko eta langile eta zuzendariekin hitz egiteko eta eztabaidatzeko.
- Ikasleen behaketarako trebetasunak indartzen ditu, jarduera sentsoarialetan murgiltzen baitira.
- Ikasleen pentsamendu sortzailea akuilatzen du.
- Ikasleen gaitasun akademikoak edozein izanik ere, ikasketa esanguratsuagoa eskuratzea ahalbidetzen die.
- Indartu, lotu eta bat eginarazten ditu teoria eta praktika, abstraktua eta konkretua.

- Ikasleei modua ematen die esperientziaren inguruan hausnar egiteko eta teoria laneko egoera praktikoko batean nola aplikatu daitekeen ikusteko.
- Ikasleei aukera ematen die enpresa errealekin zuzeneko harremana izateko eta, hortaz, lan merkaturako urratsa egitea errazago egiteko; beraien auto-estimua eta edozein arazori aurre egiteko gaitasuna sustatzen laguntzen die.
- Esperientzien bidez ikastea ahalbidetzen du eta, ondorioz, ikasleak hobeto jabetzen dira ideien eta ekintzen arteko loturaz.
- Ikasketa sakona ahalbidetzen du; ikasleei laguntzen die beren oroimenean epe luzean mantenduko dituzten kontzeptuak berenganatzen.
- Gaitasun orokorrak eta kognitiboak modu eraginkorragoan garatzea ahalbidetzen du.
- Ikasturtean barrena, diziplinarteko eta zeharkako helburuak lortzen laguntzen du.
- “*Case study*” bat eskaintzen du, gero klasean aztertu eta eztabaidatzeko.
- Ikasleen interesa, jakingura eta motibazioa areagotzen ditu.
- Zalantzak eta aurreiritziak uxatzen eta “begiak zabalarazten” ditu.
- Ikasleei modua ematen die gogoratzeko bai bisitan zer egin zuten eta bai zergatik egin zuten.
- Aukera ematen du ezagutzaren eraikuntza gogo handiz eta pozez esperimentatzeko.
- Ikasleei ohartarazten die ikasketa dibertigarria izan daitekeela.
- Lan munduarekin eta ekintzailetasunarekin loturiko balioak sustatzen ditu eta horrek ikasleei lagun diezaieke erabaki pertsonalak eta profesionalak hartzen.
- Enpresa errealitatearekin loturik, etika eta erantzukizun sozialaren inguruko balioak sustatzen ditu.
- Ikasleei etorkizuneko lanbideen eta aukera profesionalen berri izatea errazten die: ogibide ezberdinen garrantzia, ogibide bakoitzak eta langile bakoitzak beharrezkoa duen lana eta arlo bakoitzeko lan aukerak.
- Ikasleei diziplina ezberdinak konektatzeko bidea ematen die.
- Ikasleei zuzenean erakusten die zer aukera eta erronka dituzten sektorean eta enpresan/erakundeetan.
- Ikasleei informazioa ematen die lan aukeren eta aterabide profesionalen inguruan.
- Bokazioak pizten edo/eta puzten ditu, eta lan mundura sartzea errazten du.
- Ikasteko bitarteko aktiboa, erreal eta bizia da.
- Errealitatea interpretatzearen bitartez, behaketa eta izaera kritikoa bultzatzen ditu.
- Errespetu, empatia eta balioespen jarrerak errazten ditu, lanei, ogibideei, profesionaleri eta enpresa errealitateari dagokienez.
- Ikasleak bere buruarenganako konfiantza areagotzen du.
- Ikasgai edo ikergaiaren inguruan ikaslearen jarrera positiboagoa izatea eragiten du.
- Aukera paregabea da ikasketa autentiko bat sortzeko (ikasgelan birsortzerik ez dagoena). Benetakoa eta autentikoa den testuinguruan gertatzen den ikasketa horrek

ikasleak kognitiboki estimulatzen ditu arazoak ebatzi ditzaten eta testuinguru errealean lan egiten duten profesionalak pentsatzen duten bezala pentsatu dezaten.

- Arazoak ebazteko beharrezkoak diren gaitasunak hobetzen ditu.
- Ikasleak hobeto berenganatzen edo asimilatzen du ikusitakoa/ikasitakoa; eta berarentzat jostagarria, garrantzirik gabea, motibagarria, erakargarria eta esanguratsua den era batean ikasten du.
- Lankidetzarako jarrerak indartzen ditu eta ikasleen arteko ohiko harremanak zabaldu eta ugaritu egiten dira, hobeto erlazionatzeko giroa eskaintzen baitu.
- Ikasleen arteko harremanak indartzeaz gain, ikasle-irakasle arteko harremanak ere sendotzen dira, baita ikasleen eta enpresa munduko profesionalen arteko harremanak ere.
- Erraztu egiten du ikasleek parte hartu dezaten, integratu daitezen eta gizartean modu aktiboan txertatu daitezen.
- Irakasleek ezagutzak aberasten ditu, ikasleen arteko eta ikasleen eta enpresaren arteko interakzioaren eraginez.
- Irakasleei aukera ematen die ikasteko gai industrialak nola irakatsi behar diren eta zientzia irakasteko nola erabili behar den ingurune industrial jakin bat.
- Sendotu egiten ditu tokiko enpresen/langileen eta hezkuntza eremuko erakundeen arteko harremanak.
- Bisitak askotariko sariak ematen dizkio bai ikasleei eta bai irakasleei ere.

Iturria: Guk geuk egina.

Nolanahi ere, aipaturiko indargune eta onura horiez gain, martxan dauden enpresak bisitatzeak **ahulguneak** ere izan eta **arazoak** ere ekar ditzake; eta, jakina, komenigarria da ahulgune eta arazo horiek ezagutzea, kontuan hartzea eta saihesten edo gainditzen ahalegintzea. Baiki, II. 3.2 taulan ageri denez, literatura zientifikoak hainbat ahulgune eta arazoren berri ematen du, ikastetxeei, irakasleei edota ikasleei dagokienez (Ritchie, 2003; Kaibel, Auwaerter eta Kravcik, 2006; Aranguren et al., 2008; Aranguren, 2008; Makua, 2012a,b; Baker, Wysocki eta House, 2008; Travé, 2003; Bregman, 2011; Krisiel, 2005; Morgan eta Kox, 2012; Otgaar et al., 2008; Montonen eta Tanski, 2003).

II.3.2. taula: Martxan dauden enpresak bisitatzearen ahulguneak ikastetxe, irakasle eta ikasleentzat

- Zenbait kasutan bisita ez da ikasketa planean txertatzen (eta ez da balioesten eta ebaluatzen).
- Baliteke irakasleak konfiantzarik ez izatea ikasgelaz kanpoko irakaskuntzan
- Muga ekonomikoak, antolakuntzari dagozkionak edota erantzukizun legalari dagozkionak (istripu edo ezbeharririk gertatuz gero).

- Bisitak ikastetxeko eta ikasleen ohiko dinamika nahas eta aztora dezake.
- Gerta liteke ingurune hurbilean enpresa interesgarririk ez izatea (itxuraz behintzat).
- Baliteke irakasleek bisita daitezkeen enpresen berri ez izatea edota enpresekin "kontakturik" ez izatea.
- Bisita bat antolatzeko tramiteak nahiko konplexuak izaten dira (enpresarekin kontaktatzea, bisitaren data eta ordua adostea, ikasturtearen eta irakasgaiaren bilakaeran une egokian txertatzea, ikastetxearen baimenak eta laguntzak kudeatzea eta lortzea, joan-etorriaren logistika antolatzea...).
- Zailtasunak izan litezke metodologia tradizionalak edo formalak metodologia informalekin uztartzeko.
- Enpresarako joan-etorriak kostu handia izan dezake bai denboran eta bai dirutan.
- Bisitak berak nolabaiteko arriskua edo eragozpena eragin diezaieke bai ikasle bisitariari eta bai enpresari berari.
- Bisitaren ingurumen egoerak edo giroak (zaratak, tenperaturak, kiratsak, keak...) eragozpenak ekar ditzake edota bisitaren kalitatea murriz dezake.
- Ikasleen jokabidea desegokia izan daiteke bisitan barrena.
- Arazoek, gehienbat, antolakuntza eta kontrolarekin izaten dute lotura, eta ez dute zerikusirik izaten curriculumaren alderdiekin.

Iturria: Guk geuk egina.

II.3.2 taulan aipatzen diren zenbait ahulgune eta arazo saihesteko, posible da, Ritchie (2003) autoreak eta Stainfield, Fischer, Ford eta Solem (2000) autoreek gomendatzen duten bezala, ikastetxetik atera gabe ikasleek martxan dauden enpresetara "txangoak" egitea, interneti esker, errealitate birtualarekin loturiko programen bidez. Izan ere, enpresa batzuek beren instalazioen bisita birtualak eskaintzen dituzte beren web orrien bitartez. Ukaezinak dira horrek dakartzan onurak eta abantailak: erosotasuna, bat-batekotasuna, edozein lekutan eta momentutan eta nahi beste aldiz bisita egiteko aukera, desplazamendu kosturik ez (ez dirutan, ez denboran), inolako arriskurik eta eragozpenik ez inorentzat, oso urruti dauden enpresak bisitatzeko aukera, enpresentzat aukera publiko zabal eta ugariagoarengana iristeko (nahiz eta oso urruti egon), etab. Dena dela, autoreok diotenez, ez da batere litekeena bisita birtualek bisita errealak ordezkatzeko, epe labur/ertainean behinik behin. Are gehiago, autoreon iritziz, bisita birtualen helburuetako bat, hain zuzen ere, ikasleak bisita errealak egiteko prestatzea izan beharko litzateke (eta ez, inondik ere, hura ordezkatzeko). Bestalde, Kaibel et al. (2006) autoreek bisita birtualen beste ahulgune bat nabarmentzen dute: bisita horien autentikotasun eta interakzio falta, hain zuzen ere; baiki, bisita birtualetan, ikasleek ezin dute ikusi une bakoitzean enpresan zer gertatzen ari den, eta ezin dute, halaber, zuzenean enpresarekin (enpresako inorekin) kontaktatu eta interakziorik izan. Hori guztia dela eta, autoreok enpresetarako bisita gidatu eta interaktiboak ("*guided and interactive factory tours*" direlakoak) alde egiten dute; internet bidez, bideokonferentzia bat egin daiteke kablerik gabeko kamera eta

audioa aldean daramatzala, enpresa barruan dabilen gidari baten eta ikasgelaren artean. Autoreon aburuz, hori eginez gainditu edo ekidin egiten dira ikasleek eta enpresak nozitu zitzaketen eragozpen asko.

3.3.3.- IKASLE BISITARIEN ZENBAIT OHAR ETA IRUZKIN

Jarraian, hainbat ikerlariren lanetan bilduta, zenbait ikasle bisitarik enpresak bisitatzearen inguruan egindako ohar eta iruzkin batzuk jaso ditugu, kutsu anekdotikoa eta lekukotasun adierazgarria ematen dutenak.

“Uste dut, hitzaldiak entzun baino lehen, oso egokia dela zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa bat bisitatzea, horrela hobeto jakiteko nola funtzionatzen duten zerbitzu hornitzaileek. Era berean, uste dut motibagarria ere badela; klasea interesgarriagoa izatea eragiten du [...] eta inplikatuago eta engaiatuago sentitu nintzen”.

“Gaur egin dugun irteerak informazio pila eman digu; ohartu naiz benetan zenbat gauza gertatzen diren eszenatokiaren atzeko aldean. Nik aurrez uste nuenak baino jende gehiagok dihardu lanean jatekoa prestatzen eta banatzen... Davidekin batera prozesu guztiak ikusteak erakutsi dit zein garrantzitsua den zerbitzu eragiketen zuzendariaren lana”.

“Tour-ak lagundu egin dit modu sakonagoan ulertzen zer den eta nola kudeatzen den hornidura katea... aukera ona izan da praktikara ekartzeko testuliburuan ikasi nuen ezagutza”.

“Hasteko, esan behar dut guztiz bat natorrela irakasgaiaren norabide praktikoarekin, hitzaldietako teoria aplikatu egiten duelako enpresa espezifiko batean haren instalazioak bisitatuta; gehiago inplikatzeko lortzen da”.

“Denbora luzeagoa eman behar genuen bisita egiten... 30 minutu ez da nahikoa izan”.

(Earle eta Thomas, 2011: 8)

“Sekula ez nuen pentsatuko klaseko egoera bat hain kitzikagarria izan zitekeenik”.

“Zentzua hartzen du klaseko teorian ikusten ari garenak”.

“Kitzikagarria da ikustea fabrikari zer egiten duten”.

(Ratcliffe eta Westin, 2000: 15, 22, 24)

“Askok gustatu zait”, “fabrika bikaina da”, “produkzio prozesua oso bitxia da”...

(Medir et al., 2006)

“Bisita egin eta gero, konturatu gara gure lanbidea oso garrantzitsua dela. Gogorra da hau ikasten aritzearen estigma jasatea. Bisita egin eta gero, gai naiz, bai, lanbide hau defendatzeko eta duen garrantzia azpimarratzeko”.

“Egunero zertan aritzen den azaldu digu [gidariak] eta orduan ohartu naiz nire ahulgune batzuk jorratu beharra dudala. Azaldu digu zeinen zorrotz eta zehatzak izan behar dugun, lana egoki egiteko. Inork baino hobeto dakit zein diren nire indarguneak eta ahulguneak eta nire zorrozatasuna eta zehaztasuna landu behar ditut. Enpresa bisitatu ondoren, zerbait aldatu zen nire baitan eta konturatu nintzen ezen, nire helburu akademikoak lortu nahi banituen, zeregin guztietan ahalik eta zorrotzen eta zehatzen jokatu behar nuela”.

“Seihilekoa baino lehen, ikasleek galdetzen zidaten zer nolako lanpostua lortu zezaketen karrera ikasita eta, egin esanda, nik erantzun egokirik ezin ematen nien. Bidaiak eta enpresa bisitatzeak erantzuna eman didate, askotariko lekuak eta jendea bisitatu ditugulako han”.

“Esperientzia honi esker, klasean ikasten ari garen kontzeptuak sakonago ulertzeko modua dut, kontzeptu horiek ‘martxan’ eta ‘ekinean’ ikusi eta gero”.

“Bidaiak eta bisitak nire ikaskideekin erlazionatzen lagundu didate. Lagun berriak egiteak eta jende guztia ezagutzeak ohartarazi didate zein esperientzia ona izan den. Guztion arteko harremana oso ona zen eta guztiok elkarrekin luzaroago egon nahi genuen”.

“Ikusi eta ikasi nuen gutako bakoitzak bere erara egiten dituela gauzak, nork bere helburuen eta ikuspegiaren arabera. Jakina, hori esana ziguten aurrez ikasgelan, baina ez zitzaigun barruan ondo sartu bidaia hau egin arte. Ikaslea naizen aldetik, neure begiekin ikusi dut klasean ikasten ari garena benetan bat datorrela sektorean aplikatzen ari direnarekin, eta, horregatik, gai horren inguruan gehiago ikasteko gogoia piztu zitzaidan”.

“Orain badakit harremanak oso garrantzitsuak izan daitezkeela. Profesionalak esan zigun zenbat jende ezagutzen zuen eta zer egin zezakeen zerbait behar izanez gero. Ikasle gisa, banekien garrantzitsua zela kontaktu sare on bat izatea, baina bisita egin arte ez nuen jakin benetan zein garrantzitsua zen hori”.

(Taylor et al., 2015)

“Ona da jakitea ikasten ari garen gauzak benetan erabiltzen eta aintzat hartzen dituztela marketin eremuko profesionalek”.

“Egoera errealek kurtsoa askoz garrantzitsuago eta errealago bihurtzen dute, teoria praktikarekin nola erlazionatzen den ikusi daitekeelako. Bisita baliagarria da eta lagundu egin digu lanpostu eskuragarrietan arreta jartzen. Lanbidearekin loturiko galdera espezifikoak

egiteko modua izan dugu. Bisita egin izana aipatu genezake hutsik den lanpostu baterako hautagaitza aurkezteko gutunean”.

“Benetan lagungarria da programan ikasitako kontzeptuen inguruko informazioa entzutea. Kontzeptua errealitatera ekartzen du”.

“Enpresak bisitatzea askoz atseginagoa iruditzen zait, hitzaldien aretotik kanpo dagoelako”.

“Enpresa bat bisitatzean arreta handiagoa ipintzen duzu”.

(Ormrod, 2004)

Agerikoa denez, ikasle bisitarien ohar eta iritzi subjektiboak besterik ez dira. Baina oso adierazgarriak eta sintomatikoak iruditzen zaizkigu. Eta argi erakusten dituzte martxan dauden enpresak bisitatzeak, ikasketa tresna edo jarduera gisa, izan badituen indargune eta onura anitz.

Hurrengo atalean, egin berri dugunaren antzeko ariketa bat egingo dugu, modu analogoan, baina kasu horretan ateak bisitariari zabaltzen dizkieten enpresen ikuspegian eta interesetan zentratuko gara. Eta hala eginda, bistaratu egingo ditugu ateak zabaltu eta bisitariak hartzeak enpresei beraiei eragiten dizkien abantailak eta indarguneak, batetik, eta oztopo eta ahulguneak, bestetik.

3.4.- LA VISITA A EMPRESA EN ACTIVO COMO HERRAMIENTA DE MARKETING EXPERIENCIAL: SUS FORTALEZAS Y DEBILIDADES

3.4.1.-INTRODUCCIÓN

La **visita a empresa en activo** es una manera de que el consumidor (o el público, en general) descubra más acerca de las marcas que consume, mientras que la organización puede forjar relaciones más estrechas con esos consumidores/visitantes en el tiempo que permanecen en sus instalaciones (lo cual puede traducirse en una mayor confianza y lealtad hacia la marca). Tradicionalmente, la visita a empresa se ha considerado una herramienta de comunicación y de relaciones públicas. Desde nuestro punto de vista, la consideración y el uso que se le ha dado ha sido limitado y nuestro enfoque y avance en el trabajo de investigación es el de otorgarle un visión más rica dentro del marketing experiencial.

Como ya se ha mencionado, la empresa/marca debería satisfacer tres tipos de necesidades a los consumidores: la satisfacción i) funcional, proveyendo soluciones para sus problemas; la ii) simbólica, proveyendo satisfacción para sus necesidades psicológicas; y la iii) experiencial, proveyendo placer sensorial, variedad, estimulación cognitiva, etc. De los tres niveles, el experiencial es el que más involucra al cliente/público con la marca. Esto puede crear un fuerte vínculo, una mejora en la imagen de marca a largo plazo, y, posiblemente, de forma indirecta, un incremento de ventas. Y, a través de la visita de empresa en activo, se proporciona una presentación visual (en realidad, *multisensorial*) de la empresa/marca, su operación, su proceso de producción, su historia, y su significado histórico, así como una estimulación cognitiva, mientras el visitante, a través del aprendizaje experiencial que disfruta durante la visita, piensa (y no sólo “piensa”, sino que también siente, huele, toca, se emociona, vive...) en la empresa/marca y en su proceso de producción. Un consumidor que presencie (*experimente*) todo lo anterior, es probable que esté más predispuesto a ser más leal hacia esa marca en la medida que su nivel de conexión con la misma se intensifica. Esto es debido a la *teoría de la implicación*, que sugiere que, cuanto mayor es el conocimiento que los consumidores tienen sobre la marca, mayor es el nivel de implicación con ella, y más fieles son como resultado de su identificación con el producto, su familiaridad con el proceso de producción, su interacción de primera mano con los empleados y con la calidad de los procesos internos (Newson et al., 2009; Otgaar et al., 2008). Además, este mismo visitante puede erigirse

incluso en el mayor portavoz de la marca, y el boca-oreja positivo que genere puede resultar mucho más creíble que cualquier otra forma de comunicación. En general, las empresas que abren sus puertas no desean únicamente (ni tan siquiera principalmente) aumentar sus ventas, su rentabilidad o su cuota de mercado. Lo hacen, primordial y esencialmente, por mejorar su imagen, por educar y/o por proporcionar comunicación abierta (Mitchell y Orwig, 2002; Bregman, 2011).

Como se ha reiterado en diversas ocasiones, uno de los objetivos de cualquier empresa es retener a los clientes y fidelizarlos. Dejándoles entrar en su casa, la empresa puede crear en los consumidores sentimientos de mayor cercanía y confianza, generando así una oportunidad para que los visitantes hablen a su familia, amigos y conocidos más y mejor sobre la compañía. Una experiencia propia, vivida en primera persona, suele ser más convincente para el cliente que escuchar explicaciones por parte de un comercial o de un medio de comunicación. Asimismo, la empresa puede utilizar este canal para enviar mensajes implícitos de que el producto/servicio que proveen es seguro, o acerca de la higiene de su fábrica, o valerse de la visita como herramienta de responsabilidad social corporativa. El mensaje que la empresa quiera transmitir dependerá de su política o de sus productos y servicios. La visita a la fábrica le permite a la compañía una comunicación directa con el cliente, puede escuchar sus comentarios y sugerencias que enlazan con sus necesidades y puede saber lo que quieren. Si el cliente se siente libre para decir lo que piensa y, además, sabe que se le escucha, esto puede ser la base para actividades de participación que ayuden a las empresas a mejorar la relación con el cliente. Se ha demostrado que la comunicación lleva a la confianza y la confianza al compromiso de relación. Cómo comunicarse con los clientes será clave para el éxito de la visita por la fábrica (Sugiyama y Sasipreeyajan, 2013). Cabe destacar, además, que la visita a empresa en activo genera en el visitante una especie de sentimiento de exclusividad, como si la visita proporcionara una experiencia única que está solo disponible en ese lugar, con una edición limitada, deparando una sensación de distinción y de excepcionalidad respecto de la marca. Una experiencia inolvidable. El visitante siente que la “familia” abre las puertas de su “casa” y le enseña su “cocina” de manera íntima y exclusiva (Narsey, 2014).

Sugiyama y Sasipreeyajan (2013) mencionan una institución japonesa, *Marketing Communications* (MC), que investiga la relación entre la visita a empresa en activo y la lealtad del consumidor. En los cuestionarios que realiza a los visitantes, de la opinión de los visitantes sobre qué les satisface más de la visita a una empresa, extraen los siguientes puntos:

- “Conocimiento”: quieren conocer más acerca de los productos y servicios.
- “Confianza”: quieren saber que el proceso de fabricación del producto o servicio es seguro.
- “Ensayo”: quieren probar productos recién hechos o nuevos productos.
- “Divertimiento”: quieren pasar un buen rato.

Asimismo, sugieren que el *tour* de fábrica proporciona el primer aspecto de “conocimiento” si utiliza y transmite el saber-hacer (“*know-how*”) y la información de la organización; el aspecto de “confianza” puede ser representado por el entorno de la fábrica, como la construcción, el proceso productivo, la línea de productos o los empleados de la empresa que contactan con los visitantes; y “divertimiento” a través de la historia que hay detrás de los productos o mediante la narración para presentar los valores, logros y productos de la empresa. Entre los muchos factores que hacen que la experiencia en la fábrica sea considerada por los visitantes como positiva se pone énfasis en el trabajo del personal, que es importante y debe ser considerado, porque son capaces de ser “conocedores”, “confiables” y “agradables”.

En la visita a empresa en activo se puede observar los modos de producción de nuestros días, pero, además, se añade la posibilidad que tiene la empresa de comunicar e intercambiar ideas, contrastar experiencias e introducir servicios nuevos. Por otra parte, la visita a empresa en activo se revela como un agente dinamizador del empleo y de desarrollo local si se realiza de manera masiva. Entre otras cosas, porque el simple hecho de adaptar materialmente la empresa a la visita del público y dotarla de infraestructura adecuada, para garantizar la seguridad de los visitantes y atender sus necesidades, requiere de un esfuerzo notable por parte de la empresa. Y esto sin contar con que es necesario disponer de personal formado específicamente para gestionar y conducir la visita.

Tsai (2005) sugiere que la visita al espacio en el cual el producto es producido, comercializado, entregado y mantenido, debe corresponder con la expectativa que espera el cliente (visitante) sobre la empresa/marca. Esto desarrolla la idea del marketing experiencial para incluir un recorrido por la planta de fabricación, donde la experiencia de marketing es descrita por Pine II y Gilmore (2007) como una experiencia multidimensional que atrae a clientes actuales y potenciales. Se debe suministrar la llamada “experiencia de marca” (Brakus et al., 2009) mediante el proceso de tomar los valores de la marca y extrapolarlos en un ambiente donde el consumidor se sumerge, rodeado de colores, formas, sonidos y sensaciones que encarnan lo que es la marca. En el

caso de la visita a empresa en activo, esa “encarnación” no es metafórica, sino real y tangible. Las visitas a la fábrica son una herramienta estratégica que conecta a las personas con el origen y la creación de los productos a través de su curiosidad acerca de cómo funcionan y de dónde vienen las cosas y, a su vez, crean vínculos personales con los productos. Como decía el presidente de una gran empresa: *“Una visita tiene más valor que cien anuncios”* (Baines et al., 2008).

Si bien es cierto que, en algunos casos, la apertura de las puertas tiene una inmediata generación de ingresos, la mayoría de las empresas buscan objetivos de otro tipo, no directos ni tangibles, como reforzar la imagen de marca o crear y mejorar la fidelidad hacia la misma. No se debe perder ninguna oportunidad para reforzar la identidad de marca durante la visita: desde la ropa de los trabajadores, a la señalización en el parking (Baines et al., 2008).

En esa misma línea, la Universidad de Mainz ha llevado a cabo un estudio de marketing donde se ha demostrado que la visita a empresa en activo tiene influencia positiva en varios aspectos de la imagen corporativa: calidad, dinamismo, modernismo, diseño, seguridad y confianza. Es más, el estudio señala que la visita de empresa mejora la fidelidad del consumidor y, en el caso concreto de la empresa Volkswagen, en las mediciones que realizan sobre la apertura de sus puertas, los resultados son claros: es una herramienta eficiente en coste, y efectiva para retener al consumidor, sobre todo si se compara con otras herramientas de publicidad (Otgaar y Klijs, 2010).

Si nos atenemos al modelo de marketing experiencial de Schmitt (1999), vemos que a partir de la visita a empresa en activo, se puede desarrollar el modelo holístico que propone el autor: la visita de empresa nos hace tener “sensaciones” cuando atrae nuestra atención y nos motiva. Nos hace “sentir” cuando genera un vínculo personal y hace que la experiencia sea personal, relevante y gratificante. Nos hace “pensar” porque añade un aspecto cognitivo permanente a la experiencia. Nos hace “actuar” porque induce un comportamiento, lealtad y visión hacia el futuro. Finalmente, nos hace “relacionar” porque va más allá de la experiencia individual y la hace significativa en un contexto social más amplio.

3.4.2.-LAS FORTALEZAS Y DEBILIDADES DE LA VISITA DE EMPRESA COMO HERRAMIENTA DE MARKETING EXPERIENCIAL

Diversos autores han señalado las bondades y ventajas que la visita a empresa en activo puede reportar a las propias empresas, sobre todo desde una concepción de la misma como herramienta de comunicación, marketing y/o responsabilidad social (Mitchell y Mitchell, 2000, 2001a,b; Mitchell y Orwig; 2002; Kerwin, 2004; Baker et al., 2008; Martínez Quesada, 2010; Marcon, 2012; Parvin y Stephenson, 2004; Navarro-Galvé, Velarde, Álvarez, González y Montesinos, 2014; Bonti, 2014; Guenaga y Hernando, 2012; Makua, 2012a,b; Upton y Macadam, 1997; Endo y Kurata, 2015; Mitchell y Turner, 2010; Chow, Ling, Yen y Hwang, 2016; Jia, 2010; Otgaar, Van den Berg, Berger y Feng, 2008; Savoja (2010, 2011, 2012); Morice (2010a,b); Roche, 2012; Montonen y Tanski, 2003). La tabla II.3.3 recoge una síntesis de las aportaciones más relevantes de los citados autores en materia de **fortalezas de la visita a empresa en activo** para las propias empresas.

Tabla II.3.3: Las fortalezas de la visita a empresa en activo para las propias empresas

- Posibilita promocionar su producto/servicio, su marca, su imagen.
- Propicia abrirse, acercarse a la sociedad y tener un contacto directo con “el público” y con los potenciales clientes y/o trabajadores.
- Posibilita proporcionar una experiencia a los consumidores, futuros consumidores o visitantes para que vean cómo se realiza el producto o servicio, con el objetivo de fidelizarlos y generar lealtad del consumidor hacia la marca y hacia sus productos o servicios.
- Es una manera de dar a conocer los productos y servicios de la empresa a los que todavía no son consumidores.
- Es una manera de preservar y mantener viva la historia de la empresa.
- En el rol social que desempeña la empresa, dentro de su responsabilidad social corporativa, es una manera para la promoción cultural y preservación de las raíces históricas de su producción así como del territorio y de la comunidad local.
- Posibilita a la empresa propagar su responsabilidad social corporativa y comunicarla durante la visita.
- Pocos son los que han tenido la oportunidad de visitar una empresa, por lo que, esta sensación de novedad hace que tengan un extra de motivación.
- Supone un contacto más largo, más fuerte y más intenso (hay más sentidos involucrados) con los potenciales consumidores.
- Propicia la diversificación de las herramientas que utiliza la empresa para

comunicarse y permite un contacto directo con el público final.

- Posibilita a la empresa disminuir las diferencias entre la identidad y la imagen de la empresa. A través de los contactos con los visitantes la empresa es más consciente de su imagen y puede adaptar su identidad si lo ve necesario.
- Posibilita también la integración de la empresa en el entorno local.
- Posibilita a la empresa diferenciarse.
- Posibilita mejorar su imagen de marca. Gana notoriedad y atractivo y mejora su reputación.
- Ayuda a captar y/o fidelizar clientes.
- Permite mostrar y demostrar su tecnología, su capacidad de trabajo, su calidad, sus valores, su compromiso con el entorno...
- Posibilita a la empresa realizar una contribución al entorno de manera proactiva.
- Hace valorar la profesión y fomenta el interés por el oficio.
- Hace que el visitante establezca un vínculo emocional con la empresa, su marca y su producto/servicio.
- Satisface una curiosidad del público.
- La comunicación boca-oreja que proporcionan los visitantes satisfechos con la visita y la marca resulta más creíble que cualquier otra forma de comunicación.
- Elimina dudas, temores, prejuicios.
- La apertura muestra un interés por la transparencia y mejora la confianza de los visitantes por el producto.
- Despierta vocaciones y/o atrae a candidatos profesionales, cualificados y motivados.
- Genera orgullo entre los trabajadores y hace que el personal se acerque y se identifique más con la empresa.
- Puede ayudar a influenciar a la opinión pública acerca de la organización o sobre temas controvertidos de la misma.
- En empresas que venden sus productos directamente al visitante, puede suponer una fuente de ingresos durante la visita y posteriormente a la misma.
- En empresas que cobran entrada puede suponer una fuente de ingresos.
- Constituye un campo de desarrollo de la comunicación, el marketing y la responsabilidad social de la empresa.
- Recibe retroalimentación de los estudiantes sobre sus prácticas y acciones.
- Puede servir como un instrumento para la investigación del mercado al tener contacto directo con los consumidores (con el 100% de respuestas).
- Puede aprender de los visitantes y construir aprendizaje para usarlo en las siguientes visitas.
- Para la fuerza de ventas puede ser una oportunidad de aprendizaje y mejora.
- Provee a los directores de un mayor conocimiento sobre cómo la capacidad de

producción contribuye a generar una fortaleza para la empresa en el mercado.

Fuente: Elaboración propia.

Para una mejor contextualización y comprensión de los beneficios y fortalezas de la visita a empresa en activo recogidos en la tabla II.3.3, cabe destacar que el hecho de tratarse de empresas “**vivas**” (que están en activo, fabricando en tiempo real) y cuya naturaleza es “**extra-escolar**” (por lo que constituyen un contexto o entorno “informal” de aprendizaje) y “**extra-turística**” (no son “museos” ni “atracciones”) resulta para sus visitantes garantía de **realismo** y **autenticidad**; una autenticidad que, en opinión de muchos autores (Grayson y Martinec, 2004; Beverland, 2005; Pine II y Gilmore, 2007; Alexander, 2009; Narsey y Russell, 2013; Narsey, 2014), es lo que el público (incluido el cliente, o el estudiante, por ejemplo) demanda crecientemente y a lo que otorga cada vez mayor valor; una autenticidad que, en el caso de la visita a empresa “viva”, descansa básicamente en que la empresa no escenifica nada nuevo o insincero de cara a la galería con fines publicitarios, ni pretende fascinar ficticia o artificialmente al visitante (como en una atracción de *Disneyland*), sino que se muestra tal cual es, en su trajín productivo cotidiano, estableciendo un diálogo cara a cara e *in situ* con el visitante (su invitado o “huésped”) y haciendo que éste experimente el “*backstage*” (en términos goffmanianos) del funcionamiento de la misma, y sea testigo directo e, incluso, protagonista activo de lo que tiene lugar “detrás del telón”, “entre bastidores” (Goffman, 1959; MacCannell, 1973). Se genera, así, una experiencia personal, emocional y tangible, y, por ello, especial. Efectivamente, durante la visita a la empresa, el visitante adquiere una percepción de la empresa desde dentro, en 3-D, sin intermediarios y en vivo y en directo; experimenta las entrañas de la empresa de forma multisensorial e íntima. Y cabe inferir que ello redundará en que sea una experiencia (de aprendizaje, de comunicación, de fidelización..., según el perfil e interés del visitante) rica y memorable.

No obstante, a pesar de las mencionadas ventajas y bondades, la visita a empresa en activo entraña también **importantes debilidades** que es conveniente conocer y afrontar (Ritchie, 2003; Kaibel et al., 2006; Aranguren et al., 2008; Makua, 2012a,b; Baker et al., 2008; Travé, 2003; Bregman, 2011; Kisiel, 2005; Morgan y Kox, 2012; Otgaar et al., 2008; Montonen y Tanski, 2003; Mitchell y Orwig, 2002). En efecto, la literatura científica al respecto constata diversos problemas para las propias empresas, tal y como se recogen en la tabla II.3.4.

Tabla II.3.4: Las debilidades de la visita a empresa en activo para las propias empresas

- Las visitas pueden interferir con el desarrollo ordinario de la actividad (sobre todo si son muchas visitas o muchos visitantes).
- La visita puede entrañar riesgos que deben ser gestionados, cumpliendo estrictamente las normas y protocolos que garanticen la seguridad de las personas, la higiene y la protección del “*know-how*” (por miedo al espionaje industrial).
- Las empresas suelen disponer de escasos recursos (personas, tiempo, financiación) para estructurar la actividad y adaptar las instalaciones a la visita.
- Algunas empresas no valoran su potencial interés para ser visitadas ni la entienden como una herramienta comunicativa, educativa, de marketing y/o de responsabilidad social.
- Algunas empresas no visibilizan o no son conscientes de los beneficios de la visita, porque éstos se producen en el medio y largo plazo, y muchas veces son intangibles y difícilmente medibles.
- Los responsables no se sienten formados para poner en marcha las visitas.
- Las visitas suponen una carga añadida de trabajo.
- Las instalaciones productivas se configuran para producir, no para recibir visitas, por lo que requieren ser adaptadas.
- La adaptación de las instalaciones supone costes para la empresa.
- La ubicación de las empresas en zonas periféricas, poco accesibles, con un deficiente servicio de transporte público y mal señalizadas para el visitante.
- Las empresas tienen dificultades para llegar a un público numeroso a través de las visitas.

Fuente: Elaboración propia.

Desde la óptica de la empresa, abrir sus puertas a las visitas debería responder a las preguntas de “quiénes somos”, “de dónde venimos” y “qué estamos haciendo ahora”. En el trabajo que realizan Montonen y Tanski (2003), después de entrevistar a varios responsables de empresas, deducen que el factor clave para los responsables a la hora de la visita es el de involucrar al visitante. Según estos responsables, la experiencia es de dos tipos: por una parte, hablan de una experiencia *educacional* y, por otra, de una experiencia de *entretenimiento*; y concluyen que la educacional tiene un peso mayor que la de entretenimiento (aunque son necesarias las dos para involucrar a los visitantes). Todos coinciden en que las emociones fuertes y el factor sorpresa son clave para lograr una impresión memorable.

Los autores (Montonen y Tanski, 2003) avanzan y penetran un poco más en el concepto de visita a empresa en activo, y hablan de que según qué tipo de empresa sea la que abra sus puertas para ser visitada, su mayor oferta de valor se puede centrar bien en el producto o bien en la experiencia en sí. Para algunas empresas, el fin último puede ser, entre otras cosas, vender más productos, o mejorar su imagen, o darse a conocer. En este caso, la apertura de sus empresas es una herramienta de marketing. Sin embargo, para otras, no es tanto una herramienta de marketing sino un producto en sí mismo (que genera ingresos). “*Algo que hace que la gente quiera ir a ese sitio o hacer esa cosa particular*” (Montonen y Tanski, 2003: 60). Al final, según el objetivo que persiga la empresa a la hora de abrir sus puertas, puede encontrarse en una etapa u otra (véase figura II.3.2):




Figura II.3.2: Etapas en el desarrollo de la visita de empresa

Fuente: Montonen y Tanski (2003:60).

Como se puede ver en la figura II.3.2, una empresa a la hora de abrir sus puertas puede estar en una etapa inicial y centrada en el producto. Partiendo de aquí, la empresa en un primer paso puede incrementar su oferta de experiencias ofreciendo un *tour* por su fábrica, y, tal vez, un museo, restaurante o una tienda. En el segundo paso incrementan los elementos de las experiencias, y se centran más en el *edutainment* (se añaden elementos que no están directamente relacionados con el producto). Esto requiere un entorno construido a medida para asegurar que los visitantes captan la experiencia adecuada. Finalmente, en el tercer paso, la empresa se transforma en un proveedor de experiencias. La experiencia de la fábrica se convierte en un mundo de experiencia en escena. Un mayor número de elementos menos enfocados en el producto son añadidos para atraer más visitantes. De acuerdo con Pine II y Gilmore (2000), la diferencia entre las etapas puede

venir de si las empresas cobran o no entrada. Las empresas que no lo hacen, lo utilizan más como una herramienta de marketing. Las empresas que cobran por entrar a ser vistas, están más relacionadas con atracciones turísticas. Aún así, Montonen y Tanski (2003) reconocen que creen improbable que ninguna compañía pueda nunca convertirse en una proveedora pura de experiencias. Por lo que, realmente, los efectos mayores de las empresas son beneficios relacionados con la comunicación y cómo esto afecta a la percepción de los productos y las marcas.

Para finalizar, antes de dar paso a las conclusiones, queremos poner el foco sobre un último fenómeno relacionado con la visita a empresa en activo como herramienta de marketing, aunque a través de (y mediado por) la TV. Nos referimos a la proliferación de programas de TV como *“How It’s Made”* (surgido en 2001 y que ya lleva 27 temporadas de emisión en Discovery Channel), *“Food Factory”* (desde 2012, 4ª temporada), *“Fabricando: Made in Spain”* (desde 2013 en TVE) o *“Aquí se fabrica”* (desde 2015 en ETB2). Se trata de programas o “docurealities” de similar corte en los cuales las cámaras de TV entran en la “cocina” de múltiples y diversas empresas para descubrir sus interioridades y sorprender al espectador (“visitante”) con la explicación sencilla, directa y entretenida —bien a través de una voz en off o bien mediante reporteros que van entrevistando y hablando con los propios trabajadores y empresarios— del proceso de fabricación de infinidad de productos y utensilios. Este tipo de programas se basan en una nueva fórmula llamada *“branded content”*, mediante la cual, en este caso concreto, la propia empresa visitada financia una parte de la producción del programa. A su vez, supone una suerte de “fórmula publicitaria” no tan intrusiva y repetitiva como la tradicional, sino más sutil e insinuada, que no interrumpe al espectador mientras está consumiendo otro contenido, un contenido de entretenimiento o de interés informativo con relevancia para el público. Se genera así, de forma más natural y eficaz, una mayor vinculación entre lo que la empresa/marca quiere mostrar y lo que el público (*su “target”*) quiere consumir. Más allá de educar, entretener e impulsar la imagen y la marca de la propia empresa, algunos de estos programas (como, por ejemplo, en el caso de *“Fabricando: Made in Spain”*) persiguen incluso potenciar la “Marca País” a través, entre otros aspectos, del eslogan “Made in...”.

3.5.- CONCLUSIONES

Con este capítulo 3 sellamos el primer gran bloque de nuestra tesis. Este capítulo supone el epílogo del doble marco teórico-conceptual que hemos construido (aprendizaje experiencial + marketing experiencial) y constituye también el prólogo o el preámbulo del consiguiente bloque empírico de nuestra tesis, al que dedicaremos los siguientes capítulos 4 y 5.

Si el objetivo del sistema de enseñanza-aprendizaje es conseguir que los alumnos construyan conocimiento, piensen y analicen de manera crítica, comprendan y apliquen lo aprendido y que sean activos y aprendan haciendo, el plan de estudios debe ir mucho más allá del aula convencional y deben ser consideradas otro tipo de actividades didácticas que combinen la teoría con la práctica. Asimismo, si las empresas deben generar experiencias para sus clientes, si deben cederles protagonismo y “co-crear” junto con ellos para satisfacer sus nuevas necesidades, deben, a su vez, encontrar nuevas vías para llegar a diferenciarse y llegar a sus clientes de manera efectiva. La **visita a empresa en activo** es el fenómeno que se estudia y desarrolla en este capítulo como una herramienta educativa de aprendizaje experiencial y una herramienta efectiva de marketing experiencial para las empresas.

Metodologia aktiboak nagusiki metodo intuitiboak, enpirikoak eta esperimentalak dira, errealitatean hartzen dute oinarri eta behaketa eta esperimentazioa egitera bultzatzen dute; egokienak dira ikasleen ikasketa hobetzeko. Ikasketak ezin du soilik testuliburua oinarritzat hartu. Metodologia egokiak aurkikuntzan eta *“eginez edo ikusiz ikasi”* leloan funtsatu behar du, memorizatzeko lezioak ezabatu behar ditu, baita ikasleak berak bizi izan ez dituen gertaerak errepikatu beharra ere. Irakasleak gidari lana egin behar du irakaste-ikaste prozesuan, egoerak antolatu behar ditu eta norabidea erakutsi, baina ikaslea bera da prozesuaren protagonista eta bere kasa ikasi behar du, eginez eta aurkituz. Zuzeneko behaketa eta esperientzia konkretua ezinbesteko ariketak dira ikaslearen espiritu kritikoa sustatzeko.

Era berean eta ildo horretan, **ikasgelaz kanpoko jarduerak**, hala nola txangoek edo **enpresak bisitatzeak**, aukera ematen dute eguneroko esperientzia osatzeko eta hurbileko errealitatea txertatzeko ikasgelako ohiko zereginen baitara.

IV. ONDORIOA

XXI. mendean, errealitate sozial eta ekonomiko berriak eragin du hezkuntza sisteman ere ezinbestean berrikuntzak egin beharra, honako helburu hauek lortzeko: i) hezkuntza pertsonalizatzeko eta ikaslea bera eta haren ikasketa ardatz hartzeko, haren premia eta interes pertsonalak kontuan izanik; eta ii) irakasteko metodo berri eta eraginkorragoak garatzeko, estrategia, ingurune, espazio, eduki eta jardunbide berriak landuz, ikasleak modu esanguratsuagoan eta sakonago ikas dezan; eta hori guztia ez datza hainbeste ikasleak jasotzen dituen inputetan (zer ikasten duen), baizik eta haiek bereganatzeko jarraitzen duen prozesuan (non ikasten duen eta nola ikasten duen).

Azken hamarkadetan aldaketa sozial eta ekonomiko nabarmenak gertatu dira, ekonomia industrial batetik informazioan eta ezagutzan oinarrituriko ekonomia baterako trantsizioak bultzatuta, batez ere. Gizartearen premiak aldatu egin dira eta errealitate ekonomikoa eta kulturala bestelakotu; horrek guztiak aldean ekarri du hezkuntzaren kontzeptua bera ere eraldatzea; eta mahai gainean jarri du hezkuntzaren alorrean

paradigma aldaketa bati ekiteko erronka, non “berrikuntza” baita gakoa eta ikaslea baita irakaskuntzaren erdigune eta ardatz.

Hezkuntza integrala eta integratzailea bilatu behar da; sistema tradizionalak, ordea, prestakuntza espezifikoak bilatzen zuen. Ezinbestekoa da ikaslearen parte-hartze aktiboa, bai ezagutzak bereganatzeko eta bai gaitasunak garatzeko. Beharrezkoa da, orobat, irakaslearen rola aldatzea, ezagutzak transmititzeaz gain, irakaste-ikaste prozesuan bitartekari jardun behar duelako eta ikasleari aktiboagoa eta autonomoagoa izaten lagundu behar diolako; lagundu egin behar dio bere gaitasunak lantzen, ezagutzak pilatzeaz harago. Klase magistrala konbinatu egin behar da, hortaz, beste era bateko metodologiekin, ikasleari rol aktiboagoa esleitu nahian, erabat antzua baita ikasleari hainbat azalpen ematea, gero ikasleak mundu errealekin kontrastatzeko modurik ez badu.

Korrante pedagogiko “berriek”, hala nola **ikasketa esperientzialak** (esperientzian oinarrituriko hezkuntza metodoak) edo **ikasgelaz kanpoko ikasketak** (irakasteko eta ikasteko, ikasgelaz bestelako lekuak erabiltzeak), gainditu egiten dituzte irakasteko eta ikasteko sistema tradizionalak dituzten muga eta oztopo asko; izan ere, ikasteko testuinguru eta esperientzia “berri” horiek erantzun egokia ematen diete irakaste-ikaste prozesu sakon eta esanguratsuek planteatzen dituzten “**non**” eta “**nola**” galderari.

Bigarren helburu espezifikoak

2.- Ikasketa esperientzialaren kontzeptua mugarriztatzea.

Hurrengo ondorioa lortu da:

V. ONDORIOA

Ikasketa esperientziala filosofia eta metodo bat da, zeinaren arabera ikasleak ezagutzak bereganatzen baititu, modu sakonago eta esanguratsuagoan, zuzeneko esperientzien bitartez (ikaslearen eta ingurunearen arteko transakzioen bidez); ikasleak era intelektual, emozional, sozial edota fisikoan parte hartzen du esperientzia horietan eta horiek dira ikaslearen ikasketa holistikoaren funts eta pizgarri. Testuinguru horretan kokatu eta ulertu behar da martxan dauden enpresak bisitatzea.

Eskuratutako ikasketari maila sozio-emozionalean eragin egiten diote bai ikasketa gertatzen deneko lekuak eta bai bizi izandako esperientziak ere; gainera, ikasketa prozesuak beharrezko du analisi aktibo, erreflexibo eta gidatua.

Esperientziak ezagutza eragiten eta sustatzen du; gizabanakoek ikasi egiten dute, ikasi, ingurunearekin duten interakzioari esanahia edo zentzua ematen diotenean eta teoriak eta praktikak bat egiten dutenean. Haatik, gizabanakoak esperientzia bat bizi izate hutsak, besterik gabe, ez du ikasketarik zertan ekarri; izan ere, ikasketa eratortzeko, gizabanakoak kognitiboki inplikatu eta parte hartu beharra du, esperimentaturikoari zentzua bilatzeko eta aurrez dauzkan ezagutzekin erlazionatzeko. Hortaz, 1) gizabanakoak esperientzia konkretu bat bizi izanez abiatzen du ikaste prozesua; 2) gizabanakoak esperientzia hori interpretatu egiten du hausnarketaren bidez eta 3) kontzeptualizazioaren bidez; 4) eta, azkenik, ikasketa berri hori aplikatu egiten du (eskuratu duen ezagutza hori egoera berrietara transferituz). Ikasleek ikasketa ziklo horren lau faseak bete behar dituzte (irakasleek gidatu egin behar dituzte, hala izan dadin), ikasketa sakon eta esanguratsua eskuratzeko.

Ikasketa esperientzialaren gakoetako bat lekua edo testuingurua bera da (**non** ikasten den), horrek era berean baldintzatu egiten baititu bai edukia (**zer** ikasten den) eta bai modua ere (**nola** ikasten den), beti ere aukera eman dezan testuinguruan kokatutako hezkuntza prozesu aktibo, konstruktibo, autentiko eta sozial bat garatzeko. Ikasteko leku edo testuinguru hori da, hain zuzen ere, **ikasgelaz kanpoko ikasketak** duen dohain (eta balio erantsi) handienetakoa, ikasgela barruko eskola eredu tradizionalarekin alderatuta. Eta ikasgelaz kanpoko ikasketa horren baitan sartzen da, besteak beste, **enpresak bertatik bertara bisitatzea**.

Hirugarren helburu espezifikoak

3.- Martxan dauden enpresak bisitatzeak dituen indarguneak eta ahulguneak ezartzea, ikasketa esperientzialerako tresna den aldetik.

Hurrengo ondorioa lortu da:

VI. ONDORIOA

Ikasketa esperientzialerako tresnatzat hartuta, martxan dauden enpresak bisitatzeak, dituen indarguneak direla eta, irakaste-ikaste prozesuaren premia berriak asetzeko baldintzak betetzen ditu.

Indarguneen artean honako hauek azpimarratu daitezke: ikasleari bere ikasketaren “kortszaile” izateko bidea ematen dio; ikasgelaz kanpo gertatzen da, testuinguru “erreal” batean, non teoriak eta praktikak bat egiten duten; benetako enpresa bat zuzenean behatzea eta esperientzia konkretuen bitartez ikastea ahalbidetzen du; ikaslearen ikasketa esanguratsua bultzatzen du eta ikaslearen pentsamendu kritiko eta sortzailea garatzen du; ikasleen interesa, jakin-mina eta motibazioa akuilatzen ditu; zalantzak uxatu eta “begiak zabalarazten” ditu; enpresa errealitatearekin gertutasun handiagoa duten beste balio mota batzuk bultzatzen ditu; etorkizuneko lanbideen eta aukera profesionalen berri izatea errazten du; ikasleen arteko harremanak sendotzen eta haien parte-hartzea eta integrazioa areagotzen ditu.

Hala eta guztiz ere, argitu beharra dago enpresak bisitatzeak zenbait muga eta ahulgune ere izan ditzakeela. Zenbait kasutan bisita ez da ikasketa planean txertatzen, ez da balioesten eta ez da ebaluatzen; bisita kudeatzeko orduan muga ekonomikoak eta antolakuntzari dagozkionak izan daitezke, eta tramite burokratikoak eta logistikoak ere konplexuak izan daitezke; zailtasunak eta zurruntasunak gertatu daitezke bisita metodologia tradizionalekin uztartzeko; eta bisitak berak nolabaiteko arriskua edo eragozpena eragin diezaieke bai ikasle bisitariari eta bai enpresari berari ere.

Nolanahi ere, arazoak eta ahulguneak antolakuntza eta kontrolaren ingurukoak izan ohi dira, eta ez dute zerikusirik izaten curriculumaren alderdiekin. Beraz, enpresak bisitatzeak ekar ditzakeen onurak askoz gehiago eta handiagoak dira, muga eta oztopoen aldean.

Laugarren helburu espezifikoak

4.- Martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientziaren kontzeptua mugarriztatzea eta neurtzea, ikasketa esperientzialaren ikuspegitik.

Honako ondorio hau lortu da:

VII. ONDORIOA

“Martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientzia”, ikasketa esperientzialerako tresna gisa, honela definitzen da: esperientzia konkretu baten bitartez ezagutzak jasotzeko eta eraldatzeko prozesu bat da; prozesu hori osatzen dute martxan dagoen enpresa bat bisitatzearekin loturiko

pizgarriek eragindako esperientzia konkretuak, behaketa erreflexiboak, kontzeptualizazio abstraktuak eta esperientziazio aktiboak.

David Kolb-en ikasketa esperientzialaren teoria eta zikloa (Kolb, 1983, 1984; Kolb eta Kolb, 2005, 2013; Kolb et al., 2014) kontuan izanik eta Young et al. (2008) egileek ikasketa esperientzialaren jarduerak neurtzeko garatutako eskalan oinarrituta (zeina martxan dauden enpresak bisitatzearen testuinguru zehatzera egokitu baitugu propio), guk “*martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientzia*” kontzeptualizatu eta neurtu dugu. Gainera, bere izaera multidimentsionala jasotzen duen eskala baten bidez neurtu dugu konstrukto hori.

Halaber, ikasketa esperientzialerako tresna gisa “*martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientzia*” delako konstruktoa kontzeptualizatzeko eta operatibizatzeko, ikuspegi *formatiboa* hartu dugu. Hori guztia ekarpen berritzaile eta baliotsua da bere horretan.

Bosgarren helburu espezifikoa

5.- Eredu bat planteatu eta kontrastatzea, martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientziak ikasleek hautemandako ikasketa emaitzetan dituen efektuak bistaratzeko.

Hurrengo ondorioa lortu da:

VIII. ONDORIOA

Martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientziak efektu positibo eta esanguratsuak eragiten ditu bai ikasleak berak hautemandako ikasketa emaitzetan (lortutako ezagutzetan, garatutako gaitasunetan, egindako esfortzuan, landutako trebetasunetan eta gehiago ikasteko gogoan) eta bai ikaslearen beraren motibazioan eta ikasteko estrategian ere (ikasteko ikuspegi sakona). Are gehiago, martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientziaren eta ikasleak hautemandako ikasketa emaitzen artean bitartekaritza lan partziala eta positiboa egiten du bisitan barrena ikasleak hartzen duen ikasteko ikuspegi sakonak (motibazio eta ikasteko estrategia sakonak).

Emaitza horiek oso baliotsuak dira dagokion literatura akademikoarentzat, enpirikoki egiaztatzen baitituzte azterketa bibliografikoan bildu ditugun argudio anitz. Baina, oroz gain, emaitza horiek oso baliagarriak dira ikasleentzat eta, bereziki, hezkuntzan diharduten profesionalentzat, irakasteko eta ikasteko jarduera eta metodologia aktibo eta esperientzialak diseinatzeko eta abian jartzeko lagungarri izan daitezkeelako. Baiki, ikerlan honek ebidentzia enpiriko argia eskaintzen du, irakasleek —printzipioz, edozein materia edo diziplinatan diharduten irakasleek— ikasgelako ateak zabaldu eta “mundu errealean” bizi-bizirik eta martxan dauden enpresak bizitzearen aldeko apustua egin dezaten eta, era horretan, ikasleek, zentzumen oro erabiliz, ikasteko esperientzia sakon eta esanguratsu bat bizi izan dezaten.

2.2.- BIGARREN HELBURU NAGUSIARI DAGOZKION ONDORIOAK

Martxan dauden enpresak bisitatzearen azterketan sakontzea, marketin esperientzialerako tresna gisa izan dezakeen potentziala ezagutarazteko.

Lehen helburu espezifikoa

1.- Marketinaren kontzeptua eta haren bilakaera historikoa aztertzea, horrela gaur egungo egoera ulertzeko.

Hurrengo ondorioak lortu dira:

IX. ONDORIOA

Azken mendean zehar, marketinaren kontzeptua eta praxia zabaldu eta biderkatu egin dira gero eta esparru gehiagotara. Marketinaren ikuspegi nagusia aldatu eta hedatu egin da enpresa hutsetatik gisa orotako erakundeetara; erakundearen beraren barrutik bezeroengana, “stakeholder” guztiengana eta gizartera bere osotasunean; produktuetatik zerbitzuetara eta onuretara; truke edo transakzioetatik harremanetara; epe laburretik epe luzera; fabrikazio hutsetik balioa ko-sortzera negozio kideekin eta bezeroekin batera; eta baliabide fisikoetatik eta lan baliabideetatik baliabide ukiezinetara eta ezagutza eta posizio baliabideetara balio-katean zehar.

Marketinak ere, hezkuntzak bezala, prozesu ebolutibo bat izan du gaur egungo identitatara iritsi arte; ibilbide hori, ordea, bai jarduera praktiko gisa eta bai, bereziki, arlo akademiko gisa ere, askoz laburragoa izan da hezkuntzaren bilakaera baino. Nolanahi ere, XX. mende hasieran diziplina zientifiko gisa sortu zenetik, marketinak aldaketa nabarmenak izan ditu. Urteak joan ahala, marketinaren erabilera eta praktika zabaldu eta, are, biderkatu ere egin dira eremu asko eta askotarikoetara. Hala, marketinaren fokapena eta helmena hedatu egin dira, enpresaz harago, bestelako erakundeak ere aintzat hartzeko, askoz epe luzeagoan ere aritzeko eta dimentsio sozialari ere bide emateko (bai kausa sozialen alde egiteko eta bai enpresaren edo erakundearen jarduerari dagokion gizarte erantzukizuna kontuan hartzeko ere). Era berean, marketinari dagozkion ikuspegiak eta definizioak ere aldatzen eta ugaritzen joan dira, eta horrek ekarri du marketinaren eremua hamaika alorretan zatikatzea eta espezializatzea. Gainera, bilakaera horretan, hastapenetako ondasun ukigarrien ikuspuntua bazter utzi da eta ukiezinen ikuspuntuari heldu zaio, lehentasunak aldatu egin dira truke edo transakzio hutsei erreparatzen bezeroekin harreman iraunkorrak garatzera, eta produktuak fabrikatzea beste ezer kontuan ez hartzen balioa sortzera egin dute salto enpresek (areago, bezeroarekin batera produktuak ko-sortzeari ere ekin diote). Gero eta gehiago, bezeroa hartzen da ardatz eta muin, eta bezeroekin batera, enpresarekin zerikusia duten beste interes talde batzuk eta, are, gizartea bera ere bai.

X. ONDORIOA

Azken hamarkadetan, marketinaren eremuan paradigma berri bat sortzen ari da, marketin holistikoa, zeinaren logikak erdigunetzat hartzen baititu baliabide ukiezinak, abileziak, ezagutzak, prozesuak, zerbitzuak, balioa ko-sortzea eta harremanak, elkar trukearen eta konektibitatearen bitartez. Ikuspegi estrategiko berri horrek marketin gizatiarra bilatzen du, harreman marketina, zuzeneko marketina, bezeroari zehazki zuzentzen zaiona, hari arreta berezi eta pertsonalizatua eskaintzeko, harekin batera aritzeko eta harengandik ikasteko, eta haren berezko premia dinamiko eta aldakorretara egokitzeko.

Gizarteetan eta merkatuetan jazotzen ari diren aldaketek marketin paradigma berri bat ekarri dute aldean eta, halatan, marketinaren kontzeptualizazioa zabaldu egin da. Aurrerapen teknologikoen, lehia handitzeak eta gizabanakoaren erosteko gaitasuna eta beste batzuei eragiteko ahalmena nabarmen goratzeak, besteak beste, sakonki birdefinitu dituzte merkatuak eta enpresak. Munduko kontsumitzaile guztiak hasi dira bizitzeko, kontsumitzeko eta erlazionatzeko modu berriak esperimendatzen. Masa fabrikazioan,

estandarizazioan, erreprodukzioan, eskala ekonomietan eta eraginkortasunean oinarritzen zen eredu ekonomiko batetik, eboluzio bizi bat izan da informazio eta komunikazio tresna berrietan funtsaturiko sare-ekonomia batera, non enpresek gaitasun handiagoa duten bezeroekin konektatzeko. Pertsonak eta bezeroek munta eta garrantzi erabatekoa dute orain eta garai batean produktuan zentratzen ziren estrategia zaharrak kontsumitzailearengana bideratzen dira egun.

Testuinguru horretan, martxan dauden enpresak bisitatzea paradigma berriaren baitan kokatzen dugu; atak zabaldu eta bisitariak hartzeak enpresei aukera aparta eskaintzen die kontsumitzaileenganako marketin zuzenekoagoa eta zehatzagoa bideratzeko, baita haiei harrera eta arreta bereizia, pertsonalizatua eta eksklusiboa egiteko ere.

XI. ONDORIOA

XXI. mendean, gizarte/ekonomia digital, emozional eta esperientzialaren etorrera dela eta, aldaketa nabarmenak jazo dira enpresa-bezero harremanean; izan ere, jendeak, oro har, eta bezeroek, bereziki, erabateko protagonismoa nahi eta galdatzen dute prozesu guztietan eta enpresa/marka guztiek haiekin harreman sendo bati eutsi behar diote, zeinaren oinarrian konfiantza, gardentasuna, zintzotasuna, autentikotasuna eta emozionaltasuna baitaude. Marketin esperientzialak eta marketin 3.0-ak, oro har, eta martxan dauden enpresak bisitatzeak, partikulariki, erronka horri aurre egiten diote.

Gaur egungo gizartean, aldagai edo osagai arrazionalen aldean, gero eta garrantzitsuagoak dira alderdi **emozionalak** eta **esperientzialak** (balioak, emozioak eta sentimenduak); egun, balio ekonomiko gorena esperientziei dagokie, gizabanakoak berak zuzenean eta aktiboki protagonizaturiko esperientziei, alegia. Gizarte emozionaleko jendeak/bezeroek esperientziak eta istorioak “erosi” eta bizi nahi dituzte, pertsonalizazio maila gorena bilatzen dute, beren neurria eginiko produktua galdatzen dute; hortakotz, enpresek/markek, merkatuan kokatzeko eta bereizteko, aldagai arrazionalak (buruarentzat erakargarriak diren bereizgarriez) gain, aldagai emozionalak (bihotzarentzat erakargarriak diren bereizgarriak) ere eskaini behar dituzte.

Gizarte/ekonomia berri honetan, marketinak erronka berri eta saihestezinei aurre egin behar die ezinbestean. Marketin esperientziala eta marketin 3.0-a dira, besteren artean, haren erantzuna eta apustua. Erakunde askok beren fokapenari norabide berria eman diote eta bezeroari esperientzien bidez balioa ematen eta sortzen dihardute; produktua

edota zerbitzua bezeroari egokitu eta pertsonalizatu nahian dabilta; eta enpresa edo erakunde horiek bezeroari berari uzten eta, are, bultza egiten ari dira, bezeroak berak aktiboki parte hartu dezan esperientzia eta, hedaduraz, balioa ko-sortzen.

Bigarren helburu espezifikoa

2.- Marketin esperientzialaren eta marka esperientziaren kontzeptuak mugarriztatzea.

Hurrengo ondorioak lortu dira:

XII. ONDORIOA

Marketin esperientzialak funtsezko helburutzat du bezeroentzat esperientzia holistikoak sortzea, enpresarekin/markarekin loturiko pertzepzio sentsozial, afektibo, sozial, sortzaile eta bestelakoen bidez. Balioa ez datza, soilik, erosten diren objektuetan (ondasun eta zerbitzuetan) eta haien ezaugarri funtzionaletan eta utilitarismo hutsean. Horrez gain, balioa kontsumo esperientzian ere badatza, baita ondasun eta zerbitzuen inguruko elementu esperientzial eta hedonikoetan ere. Izan ere, marketin esperientzialak elkarrekintza, inplikazioa, ko-sortzea bilatzen du; bezeroa protagonista aktibo, “prosumer” edo “prosumitzaile” izan dadin nahi du.

Era berean, marketin esperientzialak marketin eraldatzaileago baterantz jo ahala, **marketin 3.0** delakoa azaleratzen ari da, non zintzotasunak, originaltasunak eta autentikotasunak baino ez duten funtzionatzen. Marketin 3.0-ak kontsumitzaileen eta pertsonen arimara iritsi nahi du, haien bizitza eraldatzeko.

XIII. ONDORIOA

Gaur egun, gero eta enpresa gehiagok garrantzi hazkorra ematen diote “marka esperientziak” sortzeari. Era horretan, beren eskaintzari ikuspegi edo kutsu esperientzial bat gehitzen diote: izan ere, betiko ikuspegi tradizional eta funtzionalaz harago (zeina segurutzat jotzen baita), beharrezkoa dirudi ekarpen gehigarri bat egiteak, bezeroei balio sentsozial, emozional, kognitibo, sozial eta jarrerazkoak eskaintzeak, haien eta enpresaren/markaren artean harreman zuzeneko, autentiko, esanguratsu eta iraunkorragoa eratzeko. Martxan dauden enpresak bisitatzeak enpresei

aukera ematen die beren bezeroei balio esperientzial gehigarria, ahaztezina eta bereizgarria eskaintzeko, eta, horrela, harreman sakonagoa, errealagoa eta iraunkorragoa eraikitzeko.

Ekonomia digitalak, gizarte emozionalak eta esperientzien ekonomiak bultzatu dituzten koordinatu “bezero-zentrikoak” oinarritzat hartuta, enpresak eta erakundeak beren burua eta beren marka(k) berrasmatu beharrean dira. Horrela baino ezin diote etorkizunari aurre egin eta helburuak arrakastaz lortu. Eta post-hazkundearen merkatu helduetan, bereizi gabeko eta bereizi ezin diren produktuz gainezka den merkatuetan, enpresa sortzaileenek marka darabilte bereizteko estrategia gisa, ondasun/zerbitzu bikain bat ez ezik, esperientzia liluragarri eta gogoangarriak ere eskainiz. Era horretan, enpresek/markek bezeroekin lotura sakonagoak eraikitzeko eta mantentzeko beste bide batzuk bilatzen dituzte, bezeroei balio erantsi bat eman nahirik, abantaila funtzionalak eta prezioari dagozkion abantailak ez direlako jadanik aski. Gisa horretan, bezeroak —edo publikoak, oro har— enpresarekin/markarekin izaten duen kontaktu bakoitzak ezin ezabatuzko arrasto edo aztarna utzi behar dio bezeroari, horrela marka esperientzia ahaltsu eta eraginkor bat eraikitzen joan dadin eta harremana gero eta errealagoa, sakonagoa eta iraunkorragoa izan dadin.

Hirugarren helburu espezifikoak

3.- Martxan dauden enpresak bisitatzeak dituen indarguneak eta ahulguneak ezartzea, marketin esperientzialerako tresna den aldetik.

Hurrengo ondorioa lortu da:

XIV. ONDORIOA

Marketin esperientzialerako tresnatzat hartuta, martxan dauden enpresak bisitatzeak, dituen indarguneak direla eta, enpresek dituzten premia berri ugari asetzeko baldintzak betetzen ditu, bezeroekin eta publikoarekin, oro har, harreman estuagoak eta epe luzeagokoak eraiki eta mantentzeari dagokionez.

Indarguneen artean hurrengo hauek azpimarratu daitezke: bisitak enpresei bezeroekin komunikazio zuzeneko izatea baimentzen die; enpresek beren produktuak, zerbitzuak, irudia eta marka sustatu ditzakete; bisitariari esperientzia ahaztezina eragin diezaiekete;

bisitariekin kontaktu luzeagoa, sendagoa eta biziagoa izatea dakar bisitak; enpresek beren epe luzeko marka irudia hobetu dezakete eta bisitariak gertutasun, konfiantza, eskusibotasun eta berezitasun handiagoa sentitu dezakete; gizartera gerturatzeko eta enpresaren gizarte erantzukizuna nabarmentzeko balio du bisitak; beren burua bereizteko eta produktuak/zerbitzuak desberdintzeko balio du bisitak; lotura pertsonalak eta emozionalak garatu daitezke; enpresek beren ospea, nabaritasuna, gardentasuna eta erakargarritasuna puztu dezakete eta aldeko ahoz ahoko komunikazioa eragin; beren teknologia, lan egiteko gaitasuna, kalitatea, balioak eta ingurunearekin duten konpromisoa erakutsi dezakete; sektorearen arabera, zalantzak, beldurrak edo aurreiritziak ezabatzeko baliagarria izan daiteke; zuzenean produktuak saltzen dituzten enpresak baldin badira, sarrera iturri bat ere izan daiteke; eta, gainera, martxan dagoen enpresa bizi bat denez gero, hori autentikotasunaren eta errealismoaren bermea da bisitariarentzat.

Hala eta guztiz ere, nahiz eta indarguneak izan badiren, zenbait ahulgune ere izan daitezke, beren atak zabaltzeko orduan enpresentzat arazoak ekarri ditzaketenak. Esaterako: bisitek enpresaren eguneroko jarduna oztopatu edo nahasi dezakete; bisitek arriskuak eragin ditzakete eta horiek kudeatu beharrekoak dira pertsonen segurtasuna bermatzeko eta, adibidez, espioitza industrialak ekiditeko; bisitek lan karga gehigarria dakarte, eskuarki giza baliabideak urriak izaten direnean; eta, batzuetan, instalazioak moldatu egin behar izaten dira bisitak jasotzeko eta horrek kostu gehigarri bat dakar.

Nolanahi ere, eta oro har, abantailak gehiago eta handiagoak direla kontuan izanik, esan daiteke atak zabaltzeko eta bisitariak hartzea marketin tresna potentzial bat dela erakundeentzat.

Laugarren helburu espezifikoak

4.- Martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientziaren kontzeptua mugarriztatzea eta neurtzea, marketin esperientzialaren ikuspegitik.

Honako ondorio hau lortu da:

XV. ONDORIOA

“Martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientzia”, marketin esperientzialerako tresna gisa, honela definitzen da: erantzun subjektiboen multzo bat da; erantzun horiek izaera kognitibo, sentsorial, emozional edota soziala izan dezakete eta martxan dagoen enpresa bat bisitatzearekin loturiko pizgarriek eragiten dituzte.

Brakus et al. (2009) eta Fernández Sabiote eta Delgado Ballester (2011) autoreen “marka esperientzia” eredutik abiatuta, haien eskala egokitu dugu eta “martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientzia” konstruktoa kontzeptualizatu eta operatibizatu dugu. Gainera, bere izaera multidimentsionala jasotzen duen eskala baten bitartez neurtu dugu konstrukto hori.

Halaber, marketin esperientzialerako tresna gisa “*martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientzia*” delako konstruktoa kontzeptualizatzeko eta operatibizatzeko, ikuspegi *formatiboa* hartu dugu. Hori guztia ekarpen berritzaile eta baliotsua da bere horretan.

Bosgarren helburu espezifikoa

5.- Eredua planteatu eta kontrastatzea, martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientziak bisitarien pertzepzioetan dituen efektuak bistaratzeko.

Hurrengo ondorioa lortu da:

XVI. ONDORIOA

Martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientziak efektu positibo eta esanguratsua eragiten du bisitarien enpresan/markan duten konfiantzan, enpresarekiko/markarekiko sentitzen duten identifikazioan eta haren alde egiteko prest dauden WOM (“word-of-mouth”) edo ahoz ahoko positiboan. Gainera, martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientziaren eta ahoz ahoko positiboaren arteko harremanean, bitartekaritza lana egiten dute bai bisitak sorrarazten duen identifikazioak eta bai, bereziki eta nagusiki, bisitak dakarren konfiantzak ere.

Enpresa bat bisitatzeak aldean dakar, beraz, enpresa hobeto ezagutzea, enpresaz eta enpresaren produktuez eta zerbitzuez iritzi hobea izatea, eta enpresarekiko pertzepzio eta jokabide positiboagoa garatzea (konfiantza handiagoa, identifikazio handiagoa eta ahoz ahoko komunikazio positiboagoa). Eta zenbat eta handiagoa izan enpresa bisitatzearen “esperientzialtasuna” (dimentsio sensorial, kognitibo, emozional eta sozialak kontuan harturik), orduan eta aldekoagoak eta positiboagoak dira bisitariaren pertzepzioa eta jokabidea enpresarekiko.

Emaitza horiek oso garrantzitsuak eta baliotsuak dira bai ikerketa akademikoarentzat eta bai enpresentzat eta haien marketin estrategientzat ere. Azken horiei dagokienez, ikerlan honek ebidentzia enpiriko argiak eskaintzen ditu, enpresek —printzipioz, edonolako enpresek edo erakundeek, beren sektorea edo jarduera, tamaina, markaren nabaritasuna, etab. edozein izanik ere— beren ateak zabaldu eta bisitariak hartzearen aldeko apustua egin dezaten eta, era horretan, bisitariari esperientzia gogoangarri bat biziarazi diezaieten. Bisitak zubi lan esanguratsua egin dezake bisitarien eta enpresaren arteko harremanean; konfiantza eta identifikazioa eragin ditzake eta, horien bitartez, enpresa/marka gomendatzeko asmoa (WOM edo ahoz ahoko positiboa) hauspotu dezake.

3.- IKERKETAREN EKARPENAK

Jarraian, III.1. taulan, ikerketa lan honek egiten dituen ekarpenik nabarmenenak jaso dira, labur-labur.

III.1. taula: Ikerketa lanaren ekarpenik nabarmenenak

- Ikerlanak literatura akademikoan ageri den hutsune bat bete du eta ekarpen adierazgarria egin die bai martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion literaturari, bai ikasketa esperientzialari dagokion literaturari eta bai marketin esperientzialari dagokion literaturari ere. Uste dugu lotura bat ezarri dugula, orain artean ezezaguna eta, beraz, berritzailea dena, martxan dauden enpresak bisitatzearen, ikasketa esperientzialaren eta marketin esperientzialaren artean.
- Tresna jakin baten potentziala aztertu da (martxan dauden enpresak bisitatzeari), ikuspegi original bat erabiliz (aldi berean, ikasketaren eta marketinaren ikuspegiak erabiliz), ezohikoa den formatu batean egituraturik (bikoitza, simetrikoa eta paraleloa), fokapen desberdin bat baliatuz (fokapen esperientziala) eta analisi sakon bat burutuz.
- Ebidentzia enpirikoa eskaini da martxan dauden enpresak bisitatzeari eragiten dituen efektuez. Ekarpen aitzindaria da ikerketa eremu honetan.
- Hezkuntzaren ikuspegitik, “martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientzia” modu originalean kontzeptualizatu eta definitu da.
- Hezkuntzaren ikuspegitik, “martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientzia” neurtzeko eskala espezifiko bat garatu eta proposatu da. Eskala horren baliagarritasuna eta fidagarritasuna frogatu dira, bitartekaritza eredu/marko konkretu baten baitan.
- Marketinaren ikuspegitik, “martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientzia” modu originalean kontzeptualizatu eta definitu da.
- Marketinaren ikuspegitik, “martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientzia” neurtzeko eskala espezifiko bat garatu eta proposatu da. Eta eskala horren baliagarritasuna eta fidagarritasuna frogatu dira, bitartekaritza eredu/marko konkretu baten baitan.
- Hezkuntza eremuko ikastetxeek eta erakundeek, ikerlan honetako ebidentzia eta emaitzetan oinarrituta, enpresak bisitatzearen inguruko erabakiak hartu ditzakete.
- Enpresek eta erakundeek, oro har, ikerlan honetako ebidentzia eta emaitzetan oinarrituta, atak zabaldu eta bisitariak hartzearen inguruko erabakiak hartu ditzakete.
- Ikerlaneko ebidentziek eta emaitzek lagundu egin dezakete tresna honen erabilera zabaltzen hezkuntza eremuan eta enpresa alorrean.

4.- IKERKETAREN MUGAK

Ikerlanak baditu zenbait muga eta gabezia, zeintzuek, era berean, etorkizuneko ikerketa ildoak ezartzeko bidea erakusten baitute.

Alde batetik, ikerlanaren marko teoriko-kontzeptualari gagozkiola, begien bistakoa da gure helburuak oso handinahiak izan direla, eta, hortaz, eskuragaitzak. Izan ere, modu paraleloan bi marko kontzeptual (ikasketa esperientzialarena eta marketin esperientzialarena) mugarriztatzea eta aztertzea, eta, gainera, kontzeptu bakoitzaren jatorritik abiatuta gaur arteko bilakaera historikoa agerraraztea, ezbairik gabe, txit erronka zaila eta konplexua da. Eremu oso zabalak besarkatzen ahalegindu gara, gutxiegi estutzeko arriskuaz jabetuta. Nolanahi ere, gure irudiko, bi marko original, koherente eta iradokitzaile eraiki ditugu, biek partekatzen dituzten aldagai edo dimentsio nagusiak eta biek ere aurrez aurre dituzten erronka saihestezinak agerian utziz: subjektuak edo norbanakoak berak (dela ikasle, dela publiko/bezero) modu aktiboan bizi izandako eta protagonizaturiko esperientzia zuzeneko, konkretu, autentiko eta esanguratsua da, gure iritziz, bai hezkuntzaren eta ikasketaren errealitate berria eta bai enpresaren eta marketinaren errealitate berria ere alderik alde zeharkatzen eta errotik ezaugarritzen dituen elementu edo ardatz garrantzitsuenetako bat. Eta, ikerlanean nabarmentzen den legez, martxan dauden enpresak bisitatzea izan daiteke esperientzia hori, zeinak, potentzialki behintzat, lagundu egin baitezake bai hezkuntza munduko eta bai enpresa/marketin munduko zenbait erronkari aurre egiten.

Bestalde, ikerlanaren atal enpirikoari gagozkiola, burutu ditugun bi ikerketa enpirikoen muga edo ahulezia nagusia honako hau da, beharbada: enpresak bisitatu dituzten ikasleen *pertzepzio subjektiboetan* oinarritzen direla biak, bai enpresak bisitatzeari dagokion esperientzia balioestean eta bai, bereziki gainera, bisitatik lortutako emaitzak balioestean ere. Horiek horrela, ikasle bisitarien erantzunek nolabaiteko “okerra” edo “joera” izan dezakete eta, hartara, atera diren emaitzak zuhurtziaz eta tentuz hartu behar dira. Horrez gain, aipatzekoa da ikasle horiek *askotariko titulazio eta materiak* ikasten ari direla eta, jakina, horrek ere haien erantzunak hein batean baldintzatu edo distortsionatu zitzakeen. Era berean, enpresen ikuspuntutik so eginda, ezin da alboratu edo ahaztu enpresak bisitatu dituztenak *ikasle “hutsak”* direla (ez dira bezeroak, ez hornitzaileak, ez sektorean diharduten profesionalak); ondorioz, ikasle “huts” horien erantzunek ere nolabaiteko “okerra” ezkutatu dezakete eta, hedaduraz, ateratako emaitzak ezin dira, ñabardurarik egin gabe, estrapolatu. Gainera, nabarmentzekoa da, baita ere, bisitaturiko *enpresak eta erakundeak asko eta askotarikoak* izan direla —publikoak zenbaitzuk, pribatuak

bestetzuk, batzuek *business-to-business* (B2B) eremuan dihardutenak, beste batzuek *business-to-consumer* (B2C) eremuan dihardutenak, guztiak ere desberdinak jarduerari, tamainari, kokapenari eta antzinasunari dagokienez—; eta enpresen eta erakundeen heterogeneotasun handi horrek ere gure analisia eta emaitzak nolabait distortsionatu egin zitzakeen.

5.- ETORKIZUNEN IKERKETA ILDOAK

Etorkizuneko ikerketei dagokienez, desiragarria izango litzateke “martxan dauden enpresak bisitatzeari dagokion esperientziaren” kontzeptua bera eta bai neurria/eskala ere lantzen, garatzen eta fintzen jarraitzea, bi ikuspegietatik, gainera: ikasketa esperientzialerako tresna edo jarduera gisa, batetik, eta “marka esperientzia” edo marketin esperientzialerako tresna gisa, bestetik.

Interesgarria izango litzateke, halaber, bisitak eragin ditzakeen askotariko efektuak aztertzea eta neurtzea: i) batetik, ikasketa emaitzetan eragindako efektuak (eta komenigarria izango litzateke efektu horiek bai subjektiboki eta bai objektiboki neurtzea, eta, gainera, ikuspegi holistiko batekin egitea hori); orobat, aztertu eta neurtu beharko lirateke bisitak ikasleen motibazioan dituen efektuak (materia jakin batekiko edo, oro har, ikasturte, gradu edo titulazioarekiko); eta, eta berean, ondo legoke miatzea eta neurtzea bisitak zer efektu dituen ikasleen helburu profesionaletan, ikasleen arteko harremanetan, ikasleen eta irakasleen arteko erlazioan, konfiantzan, sozializazioan, etab.; ii) bestetik, enpresen interesak aintzat hartuta, oso baliotsua izango litzateke ikertzea eta neurtzea bisitak zer efektu eragiten duen, adibidez, bisitarien enpresarekiko/markarekiko duten leialtasunean, erosteko asmoan, enpresaren ospean, gardentasunean, gizarte erantzukizunean, etab.

Interesgarria izango litzateke, era berean, ikasle bisitarien lagina zabaltzea eta dibertsifikatzea. Eta, batez ere, beharrezkoa izango litzateke bisitarien lagina zabaltzea eta dibertsifikatzea, ikasleek gain bestelako publiko mota batzuk ere kontuan hartzeko (bezeroak, hornitzaileak, turistak, tokiko herritarrak, etab.). Litekeena da bisitariaren profilak nabarmen baldintzatzea eta aldaraztea martxan dauden enpresak bisitatzearen aurrekariak, bitarteko aldagaiak eta efektuak.

Aurrekoaz gain, interesgarria izango litzateke, baita ere, bisitaturiko enpresen lagina zabaltzea eta dibertsifikatzea. Balio handia izango luke, halaber, martxan dauden enpresak

bisitatzearen eremuan izan daitezkeen “*best practice*” edo jarduera/atributu eredugarriak identifikatzea, alderatzea eta aztertzea. Marketin esperientzialaren fokapenetik behatuta, aberasgarria izango litzateke aztertzea eta konparatzea zein diren martxan dauden enpresak bisitatzearen aurrekariak, bitarteko aldagaiak eta efektuak, enpresaren tamainaren arabera, sektore eta jardueraren arabera, markaren nabaritasunaren arabera, publikoa edo pribatua izatearen arabera, etab.

Azkenik, oso baliagarria izango litzateke bisiten inguruan irakasleek dituzten iritziak eta pertzepzioak biltzea eta aztertzea; baita enpresek, ateak bisitariari zabaltzeari dagokionez, izan ditzaketen iritzi, interes edota errezeloen berri jasotzea ere (bisitak zer abantaila edo onura ekar diezaikeen, baita bisitak zer muga, arazo edo susmo dakarkien ere).

Esan gabe doa zein garrantzitsua izango litzatekeen ikerketa horien emaitzak ahalik eta gehien zabaltzea: batetik, jakintza arlo horri dagokion corpus zientifikoa elikatzeko eta aberasteko; bestetik, eta bereziki, ikerketa horiek lagundu egingo luketelako, segur asko, martxan dauden enpresak bisitatzeaz zenbait ikastetxek eta irakaslek oraindik izan badituzten beldurrak eta mesfidantzak desagerrarazten; horrek eragingo luke enpresen bisitak gehiago eta hobeto baliatu ahal izatea ikasketa esperientzialerako tresna gisa. Zehazki, premiazkoa dirudi irakasleak hezteak eta prestatzeko, gai eta seguru sentitu daitezen enpresetarako irteera didaktikoak eraginkortasunez antolatzeke eta burutzeko. Eta alde horretatik, aparteko garrantzia izan dezakete bai ikastetxearen laguntzak eta bai tokiko agintarien babesak ere (esate baterako, segurtasun gidak prestatzeko, edo bisitagarri diren enpresen eta bestelako baliabide didaktikoen gidak taxutzeko, edo, besterik gabe, burokrazia gutxitzeko eta erraztasunak emateko). Bestalde, enpresen beraien ikuspegi eta interesei erreparatuz gero, gai honen inguruko ikerketek lagundu egingo lukete, segur asko, martxan dauden enpresek ateak zabaltzeko eta bisitariak hartzearen aldeko ebidentzia gehiago eta hobeak plazaratzen; eta lagundu egingo lukete, segur aski, oraindik ere enpresa eta erakunde askok izan badituzten inertzia, aurreiritzi eta oztopo batzuk identifikatzen, aurrena, eta ezereztatzen, ondoren.

IV.-ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

IV.-ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Adán Micó, P. y Recolons, G. (2012). Marketing humano; porque somos personas. *Marketing + Ventas*, 277, 32-39.
- Afaghi, K.A. (2004). *Effective plant tours in engineering*. University of Melbourne. Australia.
- Agarwal, R. y Karahanna, E. (2000). Time flies when you're having fun: Cognitive absorption and beliefs about information technology usage. *MIS Quarterly*, 24 (4), 665- 694.
- Aguado, P. (2012). *Historia de la educación*. 1º edición. Madrid: Universidad Internacional de La Rioja.
- Aguiar, G.F., Peinado, J., Cunha, J.C. y Aguiar, B.C.X.C. (2010). Las visitas técnicas a empresas como parte del proceso de enseñanza-aprendizaje en Ingeniería Mecánica, *Formación Universitaria*, 3(5), 21-28.
- Akella, D. (2010). Learning together: Kolb´s experiential theory and its application. *Journal of Management and Organization*, 16, 100-112.
- Al-Atabi, M., Shamel, M.M., Chung, E., Padmesh, T.N.P. y Mahdi, A.S. (2013). The use of industrial visits to enhance learning at engineering courses. *Journal of Engineering Science and Technology*, 1-7.
- Alcaide, J.C. y Almarza, C. (2016). Diez claves para gestionar la experiencia del cliente en la era del “customer crazy”. *Harvard Deusto*, 139, 54-63. Recuperado de <https://www.harvard-deusto.com/diez-claves-para-gestionar-la-experiencia-del-cliente-en-la-era-del-customer-crazy>
- Alemanya-Costa, J. y Perramon-Tornil, X. (2015). Out-of-classroom experiences: a survey of students' perceptions of the learning process during internships. *Pompeu Fabra University*. Spain.
- Alexander, N. (2009). Brand authentication: creating and maintaining brand auras. *European Journal of Marketing*, 43(3), 551- 562.
- Alfaro, M. (2004). Marketing relacional: la creación de valor en un esquema de relaciones colaborativas. En M. Alfaro, (Coord.), *Temas clave en marketing relacional* (pp. 3-9). Madrid: McGraw-Hill/Interamericana de España, S.A.U.
- Alighiero, M. y M-Martí, M. (2006). *Historia de la educación: de la Antigüedad al 1500*. Madrid: Siglo XXI.
- Alwin, D. F. y Hauser, R. M. (1975). The decomposition of effects in path analysis. *American Sociological Review*, 40(1), 37–47.

- American Marketing Association (AMA). (1960). *Marketing definitions. A glossary on Marketing Terms*. AMA Chicago.
- American Marketing Association (AMA). (1985). AMA Board approves new marketing definition. *Marketing News*, 19 (5), March.
- American Marketing Association (AMA). (1988). Developing, disseminating and utilizing marketing knowledge. *Journal of Marketing*, 52 (4), 1-25.
- American Marketing Association (AMA). (2004). *Marketing definitions. A glossary on Marketing Terms*. AMA Chicago.
- American Marketing Association (AMA). (2007). *Marketing definitions. A glossary on Marketing Terms*. AMA Chicago.
- Andresen, L., Boud, D. y Cohen, R. (2000). Experience-based learning. En *Understanding Adult Education and Training* (pp. 225-239). Sydney: Allen and Unwin.
- Anglada-Monzón, P., Tejero-González, C. y Ruiz-Barquín, R. (2012). Programa de formación "Adventure Based Counseling". Un estudio sobre el desarrollo de competencias vinculadas al trabajo en equipo. *Anales de Psicología*, 28(3), 939-945.
- Appropriation operations and service elements. *Journal of Consumer Behaviour*, 5(1), 4-14.
- Aranguren, G. (2008). Nuevos métodos de enseñanza: una experiencia en diseño electrónico. *IEEE-RITA*, 3(1), 39-46.
- Aranguren, G., Etxaniz, J., Monje, P.M. (2012). La producción electrónica: una notable ausencia en la Universidad. Comunicación presentada en el *VIII Congreso de Tecnologías Aplicadas a la Enseñanza de la Electrónica*, Universidad de Zaragoza, Zaragoza.
- Aranguren, G., Odriozola, I., Gómez, J., Rubina J.M. y López Nozal, L.A. (2008). Las visitas a empresas electrónicas. Comunicación presentada al *VIII Congreso de Tecnologías Aplicadas a la Enseñanza de la Electrónica*, Universidad de Zaragoza, Zaragoza.
- Association for Experiential Education (AEE). (s.f). Recuperado el 23 de marzo de 2016 de <http://www.aee-.org>.
- Atherton, J. S. (2013a). *Learning and Teaching; Assimilation and Accommodation*. Recuperado de: <http://www.learningandteaching.info/learning/assimacc.htm>
- Atherton, J. S. (2013b). *Learning and Teaching; Constructivism in learning*. Recuperado de: <http://www.learningandteaching.info/learning/constructivism.htm>
- Avery, J., Paharia, N., Keinan, A. y Schor, J. B. (2010). The strategic use of brand biographies. *Research in Consumer Behavior*, 12, 213-229.

- Bacon, D.R. y Stewart, K.A. (2006). How fast do students forget what they learn in consumer behavior? A longitudinal study. *Journal of Marketing Education*, 28(3), 181-192.
- Bagdare, S. y Jain, R. (2013). Measuring retail customer experience. *International Journal of Retail & Distribution Management*, 41(10), 790-804.
- Bagozzi, R.P. (1975). Marketing as exchange. *Journal of Marketing*, 39 october, 73-76.
- Baines, T.S., Ball, P., Cooper, S., Dawson, P., Wilkinson, S., Woords, M. y Kay, J.M. (2008). An exploration of policies and practices used to showcase production facilities. *Proceedings of the Institution of Mechanical Engineers Part B – Journal of Engineering Manufacture*, 222(9), 1181-1188.
- Baker, G.A., Wysocki, A.F. y House, L.O. (2008). Industry-Academic partnerships. The view from the corner office. *International Food and Agribusiness Management Association (IAMA)*, 11(3), 57-80.
- Ballantyne, D. y Varey, R. J. (2008). The service-dominant logic and the future of marketing. *Journal of the Academy of Marketing Science*, 36(1), 11-14.
- Barnes, S. J., Mattsson, J. y Sørensen, F. (2014). Destination brand experience and visitor behavior: Testing a scale in the tourism context. *Annals of Tourism Research*, 48, 121-139.
- Barroso-Castro, C., Cepeda, G. y Roldan-Salgueiro, J.L. (2010): Applying maximum likelihood and PLS on different sample sizes: Studies on servqual model and employee behaviour model. En Exposito et al. (Eds.). *Handbook of Partial Least Squares* (pp. 427-447). Berlin: Springer-Verlag.
- Bartels, R. (1976). *The History of Marketing Thought*. 2d ed. Columbus, OH: Grid.
- Bauman, Z. (1999): Turistas y vagabundos. En Z. Bauman, (Ed.), *La globalización: consecuencias humanas* (pp.103-133). Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.
- Bauman, Z. (2007). *Modernidad líquida*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.
- Beames, S., Atencio, M. y Ross, H. (2009). Taking excellence outdoors. *Scottish Educational Review*, 41(2), 32-45.
- Beard, C. y Wilson, J. (2002). *The power of experiential learning*. London: Kogan Page Publishers.
- Beard, C. y Wilson, J. (2013). *Experiential learning: A handbook for education, training and coaching*. London: Kogan Page Publishers.
- Beaudin, B.P. y Quick, D. (1995). Experiential learning: theoretical underpinnings. *Fort Collins, CO: Colorado State University, High Plains Intermountain Center for Agricultural Health and Safety*.

- Behrendt, M. y Franklin, T. (2014). A review of research on school field trips and their value in education. *International Journal of Environmental & Science Education*, 9, 235-245.
- Berenguer, G. y Cervera, A. (2005). Influencias del postmodernismo en marketing y comportamiento del consumidor. ¿El fin de la era del marketing? *Revista Española de Investigación de Marketing ESIC*, 10(1), 7-26.
- Bergsteiner, H y Avery, G.C. (2008). Theoretical Explanation For Success Od Deep-Level-Learning Study Tours. *College Teaching Methods & Styles Journal*, 4(1), 29-37.
- Bermejo, G. y Monroy, C.R. (2010). How to measure customer value and its relationship with shareholder value in a business-to-business market. *Intangible Capital*, 6(2), 142-161.
- Bethell, S. y Morgan, K. (2011). Problem-based and experiential learning: Engaging students in an undergraduate physical education module. *Journal of Hospitality, Leisure, Sports and Tourism Education (Pre-2012)*, 10(1), 128.
- Beverland, M. (2005). Brand management and the challenge of authenticity. *Journal of Product & Brand Management*, 14(7), 460-461.
- Bielefeldt, A.R., Dewoolkar, M.M., Caves, K.M., Berdanier, B.W. y Paterson, K.G. (2011). Diverse models for incorporating service projects into engineering capstone design courses. *International Journal of Engineering Education*, 27(6), 1206-1220.
- Biggs, J.B. (1987a). *Student approaches to learning and studying*. Camberwell, Vic.: Australian Council for Educational Research.
- Biggs, J.B. (1987b). *The Study Process Questionnaire (SPQ): Manual*. Hawthorn, Vic.: Australian Council for Educational Research.
- Biggs, J.B. (1993). What do inventories of students' learning processes really measure? A theoretical review and clarification. *British Journal of Educational Psychology*, 63, 1-17.
- Biggs, J.B. (1999). *Teaching for quality learning at university*. Buckingham: Open University Press.
- Biggs, J.B., Kember, D. y Leung, D.Y. (2001). The revised two factor study process questionnaire: R SPQ2F. *British journal of educational psychology*, 71(1), 133-149.
- Black, G.S. y Wingfield, S.S. (2008). Using the most effective teaching methods: a comparison of marketing and management classrooms. *Journal for Advancement of Marketing Education*, 12(1), 1-9.

- Blanco, L.A. (1996). *La evaluación educativa, más proceso que producto* (Vol. 3). Universitat de Lleida.
- Blasco, M.F. (2003). *Aprendizaje y Marketing: investigación experimental del juego de simulación como método de aprendizaje*. Universidad Complutense de Madrid, Servicio de Publicaciones.
